EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

# BILKURA-EGUNKARIA
# DIARIO DE SESIONES

VIII. legegintzaldia / VIII legislatura

N.º 4 zk.

Sesión celebrada el 22 de junio de 2005

VITORIA-GASTEIZ

ÍNDICE

Pág. 3 *Se abre la sesión.*

Pág. 3 *Designación del lehendakari del Gobierno Vasco.*

Pág. 3 . Lectura de las candidaturas presentadas.

Pág. 3 . Expone su programa de gobierno el señor López Álvarez.

Pág. 31 . Expone su programa de gobierno el señor Ibarretxe Markuartu.

Pág. 61 *Se suspende la sesión.*

Pág. 62 *Se reanuda la sesión.*

Pág. 62 *Designación del lehendakari del Gobierno Vasco. (Continuación.)*

Pág. 62 . Por el grupo Mixto-Aralar interviene la señora Ezenarro Egurbide.

Pág. 65 . Por el grupo Mixto-Ezker Batua Berdeak interviene el señor Karrera Agirrebarrena.

Pág. 72 . Por el grupo Eusko Alkartasuna interviene el señor Ziarreta Bilbao.

2005eko ekainaren 22an egindako bilkura

VITORIA-GASTEIZ

AURKIBIDEA

3 or. *Hasi da bilkura.*

3 or. *Eusko Jaurlaritzako lehendakaria hautatzea.*

3 or. . Aurkeztutako hautagaien zerrenda irakurtzea.

3 or. . López Álvarez jaunak bere gobernu-programa azaldu du.

31 or. . Ibarretxe Markuartu jaunak bere gobernu-programa azaldu du.

61 or. *Eten egin da bilkura.*

62 or. *Berriro ekin zaio bilkurari.*

62 or. *Eusko Jaurlaritzako lehendakaria hautatzea. (Jarraipena.)*

62 or. . Mistoa-Aralar taldearen izenean Ezenarro Egurbide andrea mintzatu da.

65 or. . Mistoa-Ezker Batua Berdeak taldearen izenean Karrera Agirrebarrena jaunak hitz egin du.

72 or. . Eusko Alkartasuna taldearen izenean Ziarreta Bilbao jauna mintzatu da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Pág. 82 | . Por el grupo Ezker Abertzalea interviene la señora Erauskin Otegi. | 82 or. | . Ezker Abertzalea taldearen izenean Erauskin Otegi andreak hitz egin du. |
| Pág. 90 | . Por el grupo Popular Vasco interviene la señora San Gil Noain. | 90 or. | . Euskal Talde Popularraren izenean San Gil Noain andrea mintzatu da. |
| Pág. 100 | . Por el grupo Socialistas Vascos interviene el señor Pastor Garrido. | 100 or. | . Euskal Sozialistak taldearen izenean Pastor Garrido jaunak hitz egin du. |
| Pág. 114 | . Por el grupo Nacionalistas Vascos interviene el señor Egibar Artola. | 114 or. | . Euzko Abertzaleak taldearen izenean Egibar Artola jauna mintzatu da. |
| Pág. 123 | . Intervienen en el turno de réplica los señores López Álvarez e Ibarretxe Markuartu. | 123 or. | . Erantzuteko txandan López Álvarez eta Ibarretxe Markuartu jaunek hitz egin dute. |
| Pág. 138 | . Intervienen en el turno de réplica la señora Ezenarro Egurbide, los señores Karrera Agirrebarrena y Ziarreta Bilbao, las señoras Erauskin Otegi y San Gil Noain y los señores Pastor Garrido y Egibar Artola. | 138 or. | . Erantzuteko txandan Ezenarro Egurbide andrea, Karrera Agirrebarrena eta Ziarreta Bilbao jaunak, Erauskin Otegi eta San Gil Noain andreak eta Pastor Garrido eta Egibar Artola jaunak mintzatu dira. |
| Pág. 161 | *Se suspende la sesión.* | 161 or. | *Eten egin da bilkura.* |
| Pág. 161 | *Se reanuda la sesión.* | 161 or. | *Berriro ekin zaio bilkurari.* |
| Pág. 161 | *Designación del lehendakari del Gobierno Vasco. (Continuación.)* | 161 or. | *Eusko Jaurlaritzako lehendakaria hautatzea. (Jarraipena.)* |
| Pág. 161 | . Votación. | 161 or. | . Botazioa. |
| Pág. 162 | *Se suspende la sesión.* | 162 or. | *Eten egin da bilkura.* |


Sesión celebrada el 23 de junio de 2005 — 2005eko ekainaren 23an egindako bilkura


| | | | |
|---|---|---|---|
| Pág. 162 | *Se reanuda la sesión.* | 162 or. | *Berriro ekin zaio bilkurari.* |
| Pág. 162 | *Designación del lehendakari del Gobierno Vasco. (Continuación.)* | 162 or. | *Eusko Jaurlaritzako lehendakaria hautatzea. (Jarraipena.)* |
| Pág. 162 | . Votación. | 162 or. | . Botazioa. |
| Pág. 162 | . La presidenta proclama la designación de D. Juan José Ibarretxe Markuartu como lehendakari del Gobierno Vasco. | 162 or. | . Lehendakariak aldarrikatu du Juan José Ibarretxe Markuartu jauna hautatu dela Eusko Jaurlaritzako lehendakari. |
| Pág. 162 | *Se levanta la sesión.* | 162 or. | *Amaiera eman zaio bilkurari.* |

*Se abre la sesión a las nueve horas y treinta minutos.*

La PRESIDENTA (Bilbao Barandica): Egun on, legebiltzarkide jaun-andreok. Egun on, osoko bilkura honetara etorritako guztioi. Hasi da bilkura.

Gai-zerrendako puntu bakarra: "Eusko Jaurlaritzaren lehendakaria hautatzea".

Araudiko 128.3 artikuluari jarraituz, lehen idazkariari emongo deutsot hitza legebiltzar-taldeek proposaturiko lehendakarigaien zerrenda irakurtzeko.

El SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA (Barrio Baroja): El grupo parlamentario Socialistas Vascos presenta como candidato a don Patxi López Álvarez, y los grupos Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, Eusko Alkartasuna y Mixto Ezker Batua Berdeak han presentado como candidato a don Juan José Ibarretxe Markuartu.

La PRESIDENTA: López Álvarez lehendakarigai jaunak dauka berbea, bere gobernu programaren ildo nagusiak aurkezteko. Gehienez 90 minutu daukazuz. López jauna, zurea da hitza.

El Sr. LÓPEZ ÁLVAREZ: Presidenta. Egun on guztioi.

Apirilaren 17an euskal hiritarrek beren erabakitze-gaitasuna erabili zuten: beren ordezkariak hautatu zituzten eta beren geroa erabaki zuten. Beren pluraltasuna eta aniztasuna erakutsi zuten. Iraganeko inposaketa eta gatazkak arbuiatu, eta garai berri bat zabaldu zuten. Eta garai berri horretan agindu bat eman digute beren ordezkarioi, berehala egiteko gainera: elkar ulertzea, elkarguneak aurkitzea elkarrizketa bidez.

Akordioak eta soluziobideak nahi dituzte; Euskadi denon artean eraikitzea, ez batzuek besteen aurka. Eta beren arazoak konpontzeko eskatzen digute arazo artifizialik sortu barik.

Eta nik, euskal sozialisten izenean, neure kandidatura aurkezten dut lehendakari izateko garai berri hori aurrera eramateko.

Eta badakit, jakin, bat lehendakari denean siglen eta alderdiko interesen gainetik egon behar dela, denentzat gobernatu beharra daukalako, eta ez botoa eman digutenentzat bakarrik. Badakit gobernatzea herritarren beharrekin konektatzea dela, gero behar horiei erantzuna emateko. Gobernatzea herriari bidea erakustea da, herria orientatzea; baliabide publikoak gardentasunez kudeatzea; irtenbideak bilatzeko politika egitea; ulertzea komunitate bat desberdinen arteko itunarekin definitzen dela. Azken lau urteotan ikusi ez duguna, hain justu.

*Goizeko bederatzi eta erdietan hasi da bilkura.*

LEHENDAKARIAK (Bilbao Barandica): Buenos días, señoras y señores parlamentarios. Buenos días a todos los presentes en el pleno de hoy. Vamos a dar comienzo a la sesión.

Asunto único del orden del día: "Designación del lehendakari del Gobierno Vasco".

En virtud de lo dispuesto en el artículo 128.3 del Reglamento, cedo la palabra al secretario primero para que lea la relación de candidatos a presidente propuestos por los grupos parlamentarios.

MAHAIKO LEHEN IDAZKARIAK (Barrio Baroja): Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak lehendakaritarako aurkeztu duen hautagaia Patxi López Álvarez jauna da, eta Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, Eusko Alkartasuna eta Mistoa Ezker Batua Berdeak taldeek aurkeztu dutena Juan José Ibarretxe Markuartu jauna.

LEHENDAKARIAK: Tiene la palabra el candidato señor López Álvarez para presentar las líneas fundamentales de su programa de gobierno. Tiene un máximo de 90 minutos. Señor López, tiene la palabra.

LÓPEZ ÁLVAREZ jaunak: Presidenta. Buenos días a todos y a todas.

El 17 de abril la ciudadanía vasca hizo uso de su capacidad de decisión: eligió a sus representantes y decidió su futuro. Mostró su pluralidad y diversidad. Rechazó las imposiciones y conflictos del pasado, y abrió un nuevo tiempo. Y en ese nuevo tiempo nos han dado a sus representantes un mandato que además, es de inmediato cumplimiento: debemos entendernos, encontrar puntos de encuentro a través del diálogo.

Quieren acuerdos y soluciones; que construyamos Euskadi entre todos, y no unos contra otros. Y nos piden que solucionemos sus problemas sin crear problemas artificiales.

Y yo, en representación de los socialistas vascos, presento mi candidatura a presidente con el objetivo de liderar y sacar adelante ese nuevo tiempo.

Y sé perfectamente que cuando uno es presidente debe estar por encima de siglas e intereses partidistas, porque debe gobernar para todos y todas y no solamente para aquellas personas que le han votado. Sé que gobernar es conectar con las necesidades de la ciudadanía para luego dar respuesta a dichas necesidades. Gobernar es mostrar el camino al pueblo, orientar al pueblo; gestionar los recursos públicos con transparencia; hacer política para buscar soluciones; comprender que una comunidad se define mediante un acuerdo entre diferentes. Precisamente lo que no hemos visto en los últimos cuatro años.

Horregatik, beharrezkoa delako, eutsi egiten diot neure konpromisoari: bat, bakearen eta askatasunaren alde lan egitea, horixe da-eta lehentasun nagusia; bi, desberdinen arteko ituna bilatzea, Estatutuaren erreformaren bidez zer markotan elkarrekin bizi nahi dugun definitzeko, eta hiru, politika aurrerakoiak martxan jartzea, hiritarrek dituzten arazoei erantzuteko. Arazo horiek lotura gehiago dutelako Euskadi sozialarekin identitate-arazoekin baino.

Por eso, porque es necesario, mantengo mi compromiso: primero, trabajar por la paz y la libertad, ya que ésa es la prioridad principal; segundo, lograr un acuerdo entre diferentes para definir mediante la reforma del Estatuto en qué marco queremos convivir, y tercero, poner en marcha políticas progresistas para hacer frente a los problemas de la ciudadanía. Porque dichos problemas están más ligados a la Euskadi social que a problemas de identidad.

Comparezco en esta sesión de investidura para presentar mi candidatura y mi programa de gobierno. Me presento sin pactos y sin ataduras políticas. Y lo hago así no por capricho, sino por lo que entiendo es una necesidad de clarificación política.

Inbestidura-saio honetara nire kandidatura eta nire gobernu-programa aurkeztera natorkizue. Itunik eta lotura politikorik gabe nator, eta ez buruan halaxe jarrita, baizik eta nire ustez politikan gauzak argitzeko beharrezkoa delako.

En primer lugar, porque no comparto ni el proyecto ni las prioridades políticas del otro candidato a lehendakari, del señor Ibarretxe, tal como se desprenden del acuerdo de gobierno alcanzado entre los tres partidos que le apoyan. Yo represento otro proyecto alternativo, y quiero que la sociedad vasca lo conozca en detalle, y además quiero contrastarlo y debatirlo en este Pleno.

Lehenik eta behin, ez natorrelako bat lehendakaritarako beste hautagaiaren, Ibarretxe jaunaren, proiektuarekin, babesa eman dioten hiru alderdien artean lortutako gobernu-akordioaren emaitza diren lehentasun politikoekin. Nik beste proiektu bat, ordezko proiektu bat ordezkatzen dut, eta euskal gizarteak nire proiektuaren berri zehatz-mehatz izatea nahi dut, eta, gainera, Osoko Bilkura honetan eztabaidatu egin nahi dut eta bere balioa egiaztatu.

En segundo lugar, porque lo realmente importante, lo que quiere saber la ciudadanía, no es qué maniobras o qué negociaciones hacemos para repartirnos el poder, sino qué proyecto coherente ofrecemos para dar respuesta a los problemas de nuestra sociedad.

Bigarrenez, garrantzitsua ez delako agintea gure artean banatzeko ze eratako maniobra edo negoziazio egiten dugun agerian jartzea, herritarrek jakin nahi dutena ez baita hori, baizik eta ze programa koherente eskaintzen dugun gure gizarteak dituen arazoei erantzuna emateko.

En tercer lugar, por un sentido de la responsabilidad, que me obliga a decir al país que existe otra política posible en Euskadi, y también otra forma de hacer política distinta a la que hemos conocido con los anteriores gobiernos de Ibarretxe.

Hirugarrenez, erantzukizun-sena gailentzen delako, eta erantzukizun horrek Euskadin beste politika bat egitea posible dela esatera behartzen nau; Ibarretxeren aurreko gobernuekin bizi izan dugun ez bezalako politika egiteko beste modu bat ere badagoela esatera behartzen nau.

El país tiene que saber que existe una alternativa política frente a la que, fracasando, nos han conducido a un callejón sin salida. Una política basada en los intereses y en las aspiraciones reales de la ciudadanía, y no en los intereses de un partido. Una política basada en el asentamiento de la convivencia y la paz, en la búsqueda de entendimientos, en la mejora de nuestro marco de autogobierno para ponerlo al servicio de todos los vascos y de todas las vascas, y en el desarrollo de medidas de progreso que eleven el nivel de bienestar de la ciudadanía vasca. Una política para el acuerdo entre vascos y para el acuerdo con el conjunto de España.

Herriak jakin behar du badagoela irteerarik gabeko bidera eraman gaituen politikaren ordezko beste politika bat; alderdi baten interesetan oinarritu ordez herritarren egiazko nahietan eta interesetan oinarritutako politika bat; bizikidetza eta bakea finkatzean, elkar ulertzea bilatzean, euskal gizon-emakume guztien zerbitzura jartzeko gure autogobernu-esparrua hobetzean eta euskal herritarren ongizate-maila goratuko duten aurrerapen-neurriak garatzean oinarritutako politika bat; euskaldunen artean akordioa lortzeko eta Espainia osoarekin akordioa lortzeko politika bat.

Y a este respecto quiero dejar muy claro desde el primer momento que aspiro a ser el lehendakari de un gobierno cuya prioridad sea la paz, y dispuesto, por lo tanto, a colaborar con la política frente al terrorismo, con la política de paz y de diálogo institucional que lleva adelante el Gobierno de España, presidido por José Luis Rodríguez Zapatero.

Eta, alde horretatik, oso argi utzi nahi dut hasiera-hasieratik Jaurlaritzako lehendakari izatean nire asmoa Jaurlaritzaren lehentasuna bakea izatea dela eta, horrenbestez, prest egon behar duela José Luis Rodríguez Zapatero buru duen Espainiako Gobernua gauzatzen ari den terrorismoaren aurkako politikarekin, bakearen eta erakundeen arteko elkarrizketaren aldeko politikarekin, lankidetzan aritzeko.

Quiero representar también una forma de hacer política sustentada en el respeto a las leyes, en la máxima transparencia, en el diálogo político, en la apertura y conexión con la sociedad vasca y en la pedagogía democrática.

Nik ordezkatu nahi dudan politika-bidearen oinarria legeekiko begirunea, gardentasuna, elkarrizketa politikoa eta pedagogia demokratikoa izatea nahi nuke, euskal gizarteari ateak irekita izatea eta euskal gizartearekin harreman estua mantentzea.

Esa es la política y esa la forma de hacer política que yo me propongo liderar ante quienes apuestan por el continuismo de la etapa anterior, como si aquí no hubiera pasado nada, como si no se hubieran celebrado elecciones, como si los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi no nos hubieran dicho que no desean políticas de imposición, que no desean políticas de bloques y de enfrentamientos entre bloques, que únicamente conducen a la crispación, a la parálisis, al estancamiento y a la crisis permanente.

Nik politika horixe, politika egiteko modu horixe gidatu nahi dut aurreko etapari jarraipena eman nahi diotenen aurrez aurre, hemen ezer gertatu izan ez balitz bezala, hauteskundeak egin ez balira bezala, Euskadiko herritarrek inposaketa-politikarik ez dutela nahi, sumindura, paralisia, geldialdia eta etengabeko krisialdia baino eragiten ez duen bloke-politikarik eta blokeen arteko enfrentamendurik ez dutela nahi, esan ez baligute bezala.

Presento también mi candidatura por respeto a los miles y miles de votantes que han hecho una apuesta firme por un cambio político en Euskadi. No quiero defraudarles, y por eso no renuncio a ser lehendakari, y mucho menos cuando todas las posibilidades siguen abiertas.

Hautagai gisa nire burua aurkezten dut begirunea adierazi nahi diedalako Euskadin aldaketa politikoaren aldeko apustu irmoa egin duten milaka eta milaka hautesleri. Ez diet hutsik egin nahi, eta horregatik ez diot uko egiten lehendakari izateari, eta are gutxiago aukera guztientzat oraindik ere ateak irekita daudenean.

Tenemos que acostumbrarnos todos, por higiene democrática, a la posibilidad de la alternancia. Y no voy a admitir, por eso, que nadie se crea con el derecho a ser un lehendakari vitalicio. No voy a permitir que nadie, por creer que el país le pertenece, se piense que lo gobernará siempre.

Denok ohitu behar dugu, higiene demokratikoari begira, alternantziara. Eta, horregatik, ez dut onartuko inork pentsatzea biziarteko lehendakaria izateko eskubidea duela. Ez dut onartuko inork pentsatzea, herria berea dela uste duelako, beti berak gobernatuko duela.

Es el momento, pues, de presentar las alternativas ante el país, y no de ocultarlas o de retirarlas, como nos piden otros con muy poco sentido democrático. La democracia y la construcción de un país democrático se alimentan con el debate político, y yo, como aspirante a lehendakari, tengo cosas que decir que ningún otro aspirante a lehendakari puede decir por mí. Y espero que todos entendamos, de una vez por todas, que debatir, que presentar alternativas, que ofrecer soluciones, no es bloquear. Es enriquecer la cultura democrática.

Iritsi da, beraz, herriaren aurrean beste aukera batzuk aurkezteko unea. Beste aukerak ez dira ezkutatu edo erretiratu behar, zentzu demokratiko izpirik gabe zenbaitek eskatzen digun bezala. Demokraziaren eta herrialde demokratikoen elikagaia eztabaida politikoa da, eta nik, lehendakaritarako hautagai naizen aldetik, gauza ugari ditut esateko, lehendakaritarako beste hautagai batek nire izenean esan ezin dituen gauzak. Eta espero dut denok ulertzea, hain zuzen ere, behin-behingoz eztabaidatzea, alternatibak aurkeztea, konponbideak eskaintzea, ez dela blokeoa eragin nahia. Kultura demokratikoa aberastea da.

La sociedad vasca precisa un gobierno acorde con las necesidades de la nueva etapa abierta tras las elecciones del pasado 17 de abril, y yo tengo la ambición de ejercer ese liderazgo, después de haber escuchado el mensaje de las urnas.

Euskal gizarteak joan den apirilaren 17ko hauteskundeen ondoren ireki zen aro berriaren beharrekin bat datorren gobernua behar du, eta nik aro horren gidari izan nahi dut, hain zuzen ere, boto-kutxetan adierazitako mezua entzun ondoren.

Y lo que la ciudadanía nos ha dicho es, primero, que la sociedad vasca es plural y quiere seguir siendo plural; segundo, que no admite proyectos unilaterales e impositivos; tercero, que desea construir el país de común acuerdo entre diferentes y desde la máxima igualdad política; cuarto, que no quiere frentes, que no quiere aventuras que nos lleven al abismo, ni rupturas con lo que nos ha traído hasta aquí, que no es otra cosa que el Estatuto, que no quiere enfrentamiento entre bloques, y, quinto, la ciudadanía demanda soluciones a los problemas reales de la gente, y no más problemas añadidos a los ya existentes.

Eta euskal herritarrek esan digute, lehenik eta behin, euskal gizartea anitza dela, eta anitza izaten jarraitu nahi duela; bigarrenez, ez duela alde bakarreko proiekturik, proiektu inposatzailerik onartzen; hirugarrenez, herria eraikitzeko desberdinen arteko akordioa nahi duela eta berdintasun politikoan oinarritu nahi duela; laugarrenez, ez duela fronterik nahi, ez duela amildegira eramango gaituen abenturarik nahi, ez duela honaino ekarri gaituenarekikoak, Estatutuarekikoak alegia, egin nahi, ez duela blokeen arteko enfrentamendurik nahi; eta, bosgarrenez, euskal herritarrek eskatu digute konponbideak emateko jendeak dituen egiazko arazoei, eta ez sortzeko arazo gehiago lehengoez gainera.

Por eso, si hasta ahora ninguna fuerza política ha alcanzado mayorías absolutas, la posibilidad de alcanzarlas ha quedado todavía más lejos tras el 17 de abril. Por eso el señor Ibarretxe ha perdido el plebiscito sobre su plan secesionista en que había convertido estas elecciones. Por eso el electorado, al tiempo que ha penalizado las políticas de enfrentamiento, ha premiado con un ascenso importante la apuesta de diálogo y el proyecto de país autonomista y progresista del Partido Socialista de Euskadi. Un ascenso electoral que ha dado un vuelco a la actual correlación de fuerzas, confirmando a nuestro partido como uno de los ejes de la política vasca.

Las urnas han dicho que la sociedad vasca quiere entendimiento, diálogo y acuerdo, y no imposiciones unilaterales. Quiere un gran acuerdo de país desde la igualdad política.

La ciudadanía demanda una política que acabe con el enfrentamiento entre bloques, para construir Euskadi no contra nadie, sino a favor de todos y con la cooperación de todos.

La ciudadanía ha apostado por cerrar un ciclo de radicalización y abrir una etapa que acabe con el desencuentro y la crisis permanente que han caracterizado la política de los gobiernos anteriores. Exige a sus representantes que nos empeñemos en recuperar las verdaderas señas de identidad de la política vasca. Señas de identidad que no son otras que el espíritu de pacto, el diálogo, el consenso, la asunción del pluralismo y el acuerdo entre los demócratas para acabar con la pesadilla de la violencia, alcanzar la paz y reforzar el sistema de libertades.

El socialismo vasco, y yo como su candidato a lehendakari, sabremos estar a la altura de las circunstancias, con toda responsabilidad, pensando siempre en los intereses del país y de nuestra sociedad.

Los resultados de la nueva situación postelectoral saltan a la vista. Hoy existe un mayor equilibrio de fuerzas que ayer, hoy es aún menos posible que ayer la prepotencia de la etapa anterior, hoy entendemos mucho más que todos somos necesarios para construir el país. Si ayer era muy difícil imponer a la sociedad un proyecto de país sin acuerdo, hoy es radicalmente imposible. Hoy existen más posibilidades para el diálogo que en el pasado inmediato, porque existe la necesidad objetiva de negociar y de llegar a acuerdos, y yo me propongo estar a la altura de estos nuevos retos.

La fuerza de los hechos ha empezado a poner en marcha la dinámica del cambio político en Euskadi. Tengo, por eso mismo, la ambición de llevarla hasta el final y liderarla. Estoy dispuesto a ser el lehendakari de un gobierno de cambio, que lidere la política progresista y de diálogo necesaria para esta nueva

Horregatik, orain arte indar politiko bakar batek ez badu gehiengo osorik lortu, apirilaren 17aren ondoren urrunago geratu da gehiengo osoak lortzeko aukera hori. Horregatik Ibarretxe jaunak bere plan zatitzaileari buruzko plebiszitua –horixe baino ez baitira izan hauteskunde hauek– galdu egin du. Horregatik, hautesleek, enfrentamendu-politikak zigortzeaz gainera, saritu egin dute, eta nabarmen saritu ere, Euskadiko Alderdi Sozialistak herrialde autonomista eta progresista sortzeko aurkeztu duen proiektua eta elkarrizketaren alde egin duen apustua. Hauteskundeetan izandako gorakada horrek irauli egin du egungo indarren korrelazioa, eta gure alderdia euskal politikaren ardatz bihurtu du.

Boto-kutxek esan digute euskal gizarteak elkar ulertzea nahi duela, elkarrizketa eta akordioa nahi dituela, ez duela alde bakarraren inposaketarik nahi. Herriaren akordio handi bat nahi du berdintasun politikotik abiatuta.

Herritarrek blokeen arteko enfrentamenduari amaiera emango dion politika eskatu dute, hain zuzen ere, denon aldeko Euskadi, denon lankidetza izango duen Euskadi eta inoren aurkakoa izango ez den Euskadi eraikitzeko.

Herritarrek erradikalizazioaren zikloari amaiera ematearen eta aurreko gobernuek egin duten politikaren ezaugarri izan diren etengabeko krisiari eta akordiorik ezari amaiera emango dion aldi berri bati ekitearen aldeko apustua egin dute. Ordezkarioi exijitzen digute buru-belarri saiatzeko euskal politikaren egiazko ezaugarriak berreskuratzen, besteak beste, itunak egiteko ahalegina, elkarrizketa, adostasuna, aniztasuna asumitzea eta demokraten arteko akordioa indarkeriaren amets gaiztoari amaiera emateko, bakea lortzeko eta askatasun-sistema indartzeko.

Euskal sozialismoak, eta lehendakaritarako bere hautagai den honek, jakingo dugu, jakin ere, dagokion mailan egoten, erantzukizun osoz, herriaren eta gure gizartearen interesak beti buruan hartuta.

Hauteskunde ostean sortu den egoera berriaren emaitzak begi-bistakoak dira. Gaur atzo baino orekatuago daude indarrak; gaur atzo baino bide neketsuagoa du nagusikeriak; gaur atzo baino hobeto ulertzen dugu denok garela beharrezkoak herria eraikitzeko. Atzo oso zaila zen herriari buruzko proiektu bat akordiorik lortu gabe inposatzea gizarteari; gaur, berriz, guztiz ezinezkoa da. Gaur atzo baino aukera gehiago daude elkarrizketarako; izan ere, agerikoa da negoziatu beharra dagoela eta akordiotara iritsi beharra dagoela, eta ni saiatu, saiatuko naiz erronka berri horien mailan egoten.

Gertatu denaren indarra hasita dago jadanik aldaketa politikoaren dinamika abian jartzen Euskadin. Horrexegatik, nire asmoa dinamika hori amaierara arte eramatea da, dinamika horren gidari izatea da. Prest nago aldaketaren gobernuaren, aro berri honetan beharrezkoa den politika aurrerakoia, elkarrizketan

etapa.

Yo pretendo ser el lehendakari de la regeneración democrática, del entendimiento y del acuerdo; el lehendakari del diálogo y de la proximidad con la ciudadanía; el lehendakari que acabe con el frentismo y recupere la Euskadi del pacto; el lehendakari de la nueva política vasca y de las nuevas prioridades políticas, prioridades centradas en la paz, la recuperación de las libertades, los derechos de ciudadanía y la ampliación y universalización de los derechos sociales.

Pretendo ser el lehendakari que haga de estos próximos cuatro años la legislatura de la paz, del protagonismo efectivo de la ciudadanía vasca y de la construcción de la Euskadi social; el lehendakari necesario para la nueva etapa abierta tras las pasadas elecciones. Una nueva etapa admitida por todos, pero que no podremos afrontar con éxito sin cuestionarnos previamente las bases y los principios de la política realizada en el pasado. Un tiempo nuevo que no puede ser gestionado por un gobierno viejo, con los mismos mimbres, las mismas políticas y los mismos liderazgos de épocas ya caducadas.

Vivimos en una nueva situación que necesita ser abordada y liderada con criterios nuevos y no con criterios del pasado, y con un liderazgo distinto. Porque no es posible que quien creó los problemas, quien con su política llevó a Euskadi a un callejón sin salida, y además se muestra incapaz de rectificar, trate de erigirse ahora en salvador del país. Se necesita una política distinta, que no puede ser liderada por quienes no sólo han fracasado en su intento de imponer políticas viejas al país, políticas de exclusión y de enfrentamiento, sino que además se empeñan en mantenerlas.

Para decirlo con claridad, yo no he visto ni en el PNV ni en el señor Ibarretxe, ni en el Tripartito, el más mínimo atisbo de autocrítica ni de rectificación tras el varapalo político sufrido en las urnas. No he visto que hayan abandonado la imposición del Plan Ibarretxe, aunque ahora no lo llamen así, y nos digan que quieren abrir un diálogo real, de igual a igual, entre todas las fuerzas políticas de Euskadi para construir un país entre todos y para todos, sin apriorismos, sin posiciones cerradas que impidan el entendimiento, sin imposiciones que determinen la construcción de un país en el que unos estén por encima de otros, en el que unos tengan diferentes derechos que otros.

Todo lo contrario, nos están diciendo con mayor o menor énfasis que ese plan no se va a abandonar, y que incluso está más vivo que nunca. Y, lo que es peor, continúan manejando el lenguaje y los conceptos de ese plan, que son los que inspiran el pacto

oinarritutako politika gidatuko duen gobernuaren, lehendakari izateko.

Nik berpizkunde demokratikoaren, elkar ulertzearen eta akordioaren lehendakaria izan nahi dut; elkarrizketaren lehendakaria eta herritarrengandik hurbil ibiliko den lehendakaria izan nahi dut; frentismoari amaiera emango dion eta itunaren Euskadi berreskuratuko duen lehendakaria izan nahi dut; euskal politika berriaren eta lehentasun politiko berrien lehendakaria izan nahi dut, lehentasun politiko berri horien artean bakea, askatasunak berreskuratzea, gizarte-eskubideak zabaltzea eta unibertsalizatzea eta herritarren eskubideak daudela ulertuz.

Datozen lau urteak bakearen legealdi, euskal herritarrei protagonismo osoa emango dien eta Euskadi soziala eraikiko duen legealdi bihurtuko dituen lehendakaria izan nahi dut; hauteskundeen ostean ekin zaion aro berriak behar duen lehendakaria izan nahi dut. Denok aitortu dugu aro berri bati ekin zaiola, baina aro berri horri ezin diogu aurre egin aldez aurretik ez baditugu eztabaidan jartzen iraganean egindako politikaren oinarriak eta hatsarreak; aro berri hori ezin du gobernu zahar batek, jadanik iraungita dauden garaietako lider berberak, politika berberak eta zume berberak dituen gobernu batek, kudeatu.

Egoera berria dugu, eta egoera berri horri irizpide berriekin heldu behar zaio; egoera berri hori irizpide berriekin gidatu behar da, eta ez iraganeko irizpideekin; eta egoera berri horri beste era bateko gidariak eman behar zaizkio. Ez baita posible arazoak sortu zituena, bere politikaren bidez Euskadi irteerarik gabeko bidera eraman zuena, eta, gainera, bide okerra zuzentzeko gai ez dela erakutsi duena, orain herriaren salbatzaile bihurtzea. Beste era bateko politika behar da, eta politika horren gidari ezin dira izan herriari politika zaharrak, bazterketa eta enfrentamendu politikak inposatzeko ahaleginean porrot egin eta, gainera, oraindik ere mantendu egin nahi dituztenak.

Argi eta garbi esatearren: nik ez dut EAJn, ez Ibarretxe jaunarengan, ez Hirukoan, autokritikarik txikiena ere ikusi, zuzenketa-asmorik txikiena ere ikusi, boto-kutxetan jasotako makiladaren ostean; nik ez dut ikusi Ibarretxe Plana inposatzeko asmoari uko egin diotenik, nahiz eta orain jadanik ez dioten horrela deitzen; ez ditut ikusi benetako elkarrizketari ekin behar zaiola, berdinen arteko elkarrizketari, Euskadiko indar politiko guztien arteko elkarrizketari, ekin behar zaiola esaten, hain zuzen ere, herria denon artean eta denontzat eraikitzeko, apriorismorik gabe, elkar ulertzea eragotziko duen jarrera itxirik gabe, herriaren eraikuntza mugatuko duten inposaketarik gabe, izan ere, era horretara batzuk besteen gainetik egongo lirateke, batzuek eta besteek eskubide desberdinak izango lituzkete.

Egoera guztiz alderantzizkoa da, hanpadura handiagoz edo txikiagoz esaten digute plan hori ez dela baztertuko, eta berez inoiz baino indar handiagoa duela. Eta, hori baino okerragoa dena, plan horretako hizkuntza eta kontzeptuak darabiltzate oraindik ere, eta

de gobierno entre los partidos que apoyan al señor Ibarretxe. Pacto sustentado en bases nada compartidas, como la autodeterminación o la territorialidad.

hizkuntza hori eta kontzeptu horiek dira Ibarretxe jauna babesten duten alderdien arteko gobernu-itunaren goiargia. Eta esango dut itun horren oinarri asko eta asko, besteak beste, autodeterminazioa eta lurraldetasuna, jende askok ez dituela konpartitzen.

Por ello, día sí y día también nos reclaman, por ejemplo, un respeto a la libre decisión de los vascos, sin querer asumir lo que los vascos y las vascas ya han decidido en las urnas. Nos acusan también a los socialistas, en sus momentos de mayor intolerancia, de intentar *asaltar* el Gobierno Vasco, como si el gobierno de Euskadi fuera propiedad privada de los dirigentes nacionalistas. Hemos tenido que escuchar igualmente lo que en campaña electoral pudimos ver en algunos pasquines: que un lehendakari socialista sería un lehendakari español, no un lehendakari vasco.

Horregatik, egunero-egunero, esate baterako, euskaldunek bere erabakia hartzeko duten askatasuna errespetatzeko eskatzen digute, eta ez dute asumitu nahi euskal gizon-emakumeek boto-kutxetan jadanik erabaki dutena. Era berean, sozialistoi salatzen digute, intolerantziaren gailurra joz, Eusko Jaurlaritza *asaldatzen* saiatzen ari garela, Euskadiko gobernua buruzagi abertzaleen jabego pribatua izango balitz bezala. Era berean, hauteskunde-kanpainako paskin batzuetan ikusi ahal izan genuena entzun behar izan dugu: lehendakari sozialista bat lehendakari espainola izango litzatekeela, ez litzatekeela lehendakari euskalduna izango.

Y nos volvemos a encontrar con acusaciones muy graves que se nos han hecho por el simple hecho de ejercer nuestro derecho democrático al voto y a designar a nuestro propio candidato a la presidencia del Parlamento Vasco. Nos han acusado por ello nada menos que de incurrir en supuestas prácticas de veto y de convertir la política vasca en un barrizal. Y ahora se nos acusa de bloqueo simplemente por presentar mi candidatura y no facilitar la elección del candidato del PNV.

Eta berriro ere salaketa oso larriak egin zaizkigu, hain zuzen ere, botoa emateko gure eskubide demokratikoa gauzatze hutsarengatik eta Eusko Legebiltzarrerako lehendakaritzarako gure hautagaia izendatze hutsarengatik. Eta hori egite hutsarengatik salatu zaigu beto-jokabidea hartu dugula eta euskal politika lokazti bihurtu dugula. Eta orain, berriz, lehendakari izateko hautagai gisa nire burua aurkeztu dugulako, salatu zaigu egoera blokeatu nahi dugula eta ez dugula erraztu nahi EAJren hautagaia hautatzea.

Bien, puedo asegurarles que yo no haré responsable a nadie de bloquear mi candidatura si no obtengo los votos suficientes para ser lehendakari. ¡Hasta ahí podríamos llegar! Pero lo que esto está demostrando es que no se ve voluntad alguna de abandonar las viejas dialécticas autoritarias acuñadas por algunos en sus dos mandatos de gobierno. Y con esas viejas dialécticas, que degradan profundamente la práctica democrática, no podemos caminar hacia el futuro, sino seguir instalados en el pasado.

Ederto, bada, nik ziurta diezazueket nik inori ez diodala salatuko nire kandidatura blokeatu nahi izatea lehendakari izateko behar adina boto lortzen ez badut. Besterik ez genuen behar! Baina horrek guztiak egiaztatzen du ez dagoela zenbaitek bere bi agintalditan sortutako dialektika autoritario zaharrak baztertzeko borondaterik. Eta dialektika zahar horiekin, jarduera demokratikoa goitik behera hondatzen duten dialektika zahar horiekin, ezin dugu etorkizunerantz jo, iraganean ainguratuta geratu baizik.

Y yo quiero ser lehendakari para acabar definitivamente con ese lenguaje, y sobre todo con esa práctica de exclusión, de separación y de insulto al adversario político. Por eso les digo que quienes se muestran incapaces de rectificar, quienes se niegan a asumir el resultado de las urnas, quienes insultan o menosprecian al adversario político, quienes insisten en mantenerse en la radicalidad y en las políticas fracasadas, quienes niegan la condición de vascos a una parte de la ciudadanía, quienes se alejan cada vez más del país real y de las demandas del país real, no pueden seguir al frente de Euskadi.

Eta nik lehendakari izan nahi dut, hain zuzen ere, behin betiko amaiera emateko hizkuntza horri, eta, batez ere, amaiera emateko aurkari politikoa baztertzeko, bereizteko eta iraintzeko jokabideari. Horregatik esaten dizuet lehen egindakoak zuzentzeko gai ez direla erakutsi dutenek, boto-kutxetako emaitzak asumitu nahi ez dituztenek, aurkari politikoa iraintzen eta gutxiesten dutenek, erradikaltasunean eta porrot egin duten politiketan jarraitu nahi dutenek, herritarren zati bati euskaldunak direla ukatzen diotenek, egiazko herrialdetik eta egiazko herrialdeak eskatzen duenetik gero eta gehiago aldentzen direnek ezin dutela Euskadi gidatzen jarraitu.

La nueva cultura política que necesitamos exige que no siga vigente esa idea nefasta que se ha instalado entre nosotros, por el fatalismo que ha introducido la persistente violencia de ETA o por la prepotencia agobiante que hemos conocido hasta ahora, y es que, se haga lo que se haga, se decida lo que se decida, se apueste por lo que se apueste desde el poder, nunca hay que pagar la factura.

Behar dugun kultura politiko berriak gauza bat eskatzen du argi eta garbi: gure artean, ETAren indarkeria iraunkorrak sartu duen fatalismoak edota orain arte ezagutu izan dugun nagusikeria nekagarriak eraginda, kokatu den ideia ezin okerragoak indarrean ez jarraitzea. Eta zein da ideia hori? Bada, edozer gauza egiten dela ere, edozer gauza erabakitzen dela ere, agintetik edozein apustu egiten dela ere, inoiz ez dela fakturarik ordaindu behar.

Pues, bien, hay que saber ya, hay que asumir ya que en política hay que sacar las consecuencias de los fracasos, hay que asumir la responsabilidad por las consecuencias de las decisiones adoptadas, y hay que pagar la factura de los platos rotos. Y el PNV y el señor Ibarretxe tienen que saber que son ellos los que han conducido al país a la situación de división en que se encuentra, sacar las conclusiones oportunas, y asumir la responsabilidad que les corresponde por ello.

Ederto, bada, jadanik jakin behar dugu, jadanik asumitu behar dugu, politikan ondorioak atera behar izaten direla porrot egiten denean, asumitu egin behar dela hartutako erabakien ondorioen erantzukizuna, eta ordaindu egin behar dela faktura platerak hausten direnean. Eta EAJk eta Ibarretxe jaunak jakin behar dute eurek eraman dutela herria orain duen zatiketa-egoerara, eta jakin behar dute ondorioak atera behar dituztela eta egin dutenarengatik dagozkien erantzukizunak asumitu behar dituztela.

Nire gobernuak Euskadik aurrera egin dezan lan egingo du. Euskadik demokrazia eta gardentasun demokratiko handiagoa eta libertate gehiago izan dezan, baita aniztasuna gehiago errespetatu dadin ere. Ibarretxe jaunaren agintaldietan galdutako denbora berreskuratzeko. Ezin dugu beste lau urte alferrik pasa, aurrera egin gabe, etengabeko istiluetan elkar ulertu ezinda, gizartea zatituta borroka etengabean.

Mi gobierno trabajará para que Euskadi avance. Para que Euskadi tenga más democracia y más transparencia democrática y para que tenga más libertad, así como por un mayor respeto del pluralismo. Para recuperar el tiempo perdido en los años de mandato del señor Ibarretxe. No podemos desperdiciar otros cuatro años, sin avanzar, sin entendernos en conflictos eternos, con la sociedad dividida en una pelea constante.

Aspiro a ser lehendakari de un gobierno que trabaje para que Euskadi avance, para que en Euskadi haya más democracia y más transparencia democrática, más libertades y más respeto al pluralismo; para que el país recupere el tiempo perdido en los mandatos del Gobierno de Ibarretxe.

Euskadik aurrera egin dezan lan egingo duen gobernu baten lehendakaria izan nahi dut; ni lehendakari izango nauen Gobernuak Euskadin demokrazia gehiago izan dadin eta gardentasun demokratiko handiagoa, askatasun gehiago eta aniztasunarekiko begirune handiagoa izan dezagun lan egitea nahi dut; herri honek Ibarretxeren Gobernuaren agintaldietan galdutako denbora berreskura dezan lan egitea nahi dut.

No son aceptables otros cuatro años más de inmovilismo, de broncas permanentes, de desencuentros, de división social, de enfrentamientos. No podemos aguantar otros cuatro años más de crisis, de incertidumbre, de estancamiento, de incertidumbre jurídica y política, como las que hemos estado viviendo.

Ezin dira onartu orain artekoak bezalako beste lau urte, immobilismoz, etengabeko istiluz, akordiorik ezaz, gizarte-zatiketaz, enfrentamenduz, jositako beste lau urte; ezin dugu beste lau urtez krisia eta zalantza jasan; ezin dugu beste lau urtez ez aurrera eta ez atzera jarraitu; ezin dugu, orain arte bezala, zalantzan jarraitu arlo juridikoan eta politikoan.

El país no puede aceptar otros cuatro años de aburrimiento y de desmoralización con los viejos debates de la Euskadi identitaria, mientras seguimos sin abordar, como si no fuera con nosotros, los problemas irresueltos, los problemas políticos y sociales de la Euskadi real. Porque seguimos sin entrar a fondo en los debates que nos afectan como sociedad avanzada que somos: el de la precariedad en el empleo, el de las deslocalizaciones, el de la reindustrialización, el de la calidad de la educación, el del acceso a la vivienda, el de la inmigración o el de los problemas emergentes de violencia social, como el acoso escolar, que están creciendo y circulando bajo nuestras discusiones monotemáticas.

Herri honek ezin du beste lau urtez nortasunari buruzko eztabaida zaharrekin aspertuta eta etsita jarraitu; izan ere, horrela jarraitzen dugun bitartean ez zaie heltzen –badirudi ez dela gure kontua– egiazko Euskadik konpondu gabe dituen arazo politiko eta sozialei. Oraindik ez diegu hondoraino ekin gizarte aurreratu gisa dagozkigun eztabaidei: lanaren kolokatasuna, enpresak jatorrira itzultzea, berrindustrializazioa, hezkuntzaren kalitatea, etxebizitza eskuratzea, immigrazioa edota gizarte-indarkeriaren arloan sortzen ari diren beste arazo batzuk, hala nola, eskola-jazarpena, horiek ere gora egiten ari baitira eta gai bakarrari buruzko gure eztabaiden atzean, erdi ezkutuan, hor baitaude.

Yo quiero ser lehendakari para dar a esos problemas la prioridad que se merecen en nuestro debate, contribuyendo así a normalizar de verdad la política vasca; es decir, a hacer posible que en Euskadi sea normal lo que en el resto de España y en los países de nuestro entorno es normal, a que, políticamente hablando, nos preocupe en Euskadi lo que preocupa realmente a los ciudadanos y ciudadanas de este país.

Nik lehendakari izan nahi dut, hain zuzen ere, arazo horiei gure eztabaidan merezi duten lehentasuna emateko, era horretara euskal politika benetan normalizatzen lagunduz, hau da, Espainiako gainerako tokietan eta gure inguruko herrialdeetan normala dena normala izan dadin lortuz; ikuspegi politikotik, Euskadin, hain zuzen ere, herri honetako herritarrak benetan kezkatzen dituzten arazoek kezka gaitzaten lortuz.

No acepto que nuestras aspiraciones de progreso político, económico y social sigan quedando postergadas porque alguien se empeñe en crear y amplificar, artificialmente la mayoría de las ocasiones, problemas de convivencia y desacuerdos sobre la construcción del país por intereses particulares. Como no acepto que vuelva a escapársenos el tren del diálogo y del acuerdo en el momento en que se abren esperanzas y oportunidades para ello; en el momento en que ETA se encuentra más debilitada que nunca, y más fuerte, en cambio, la ciudadanía y el Estado de derecho; en el momento en que hemos recuperado principios del pacto de Ajuria Enea, durante tanto tiempo reivindicados, y hemos fijado las bases de una política actualizada y realista de pacificación; en el momento en que se reactiva el diálogo institucional entre el Gobierno Vasco y el Gobierno de España.

Yo quiero aprovechar esas oportunidades para avanzar en el clima de entendimiento, y con él hacer avanzar el país, aplicando el programa autonomista, progresista, vasquista con el que el Partido Socialista de Euskadi concurrió a las pasadas elecciones; un programa que yo he definido como un verdadero *contrato* con la ciudadanía; un programa que además desborda la visión partidista, porque está pensado en clave de país y no está pensado para satisfacer a una de sus partes.

Y este programa, este proyecto de país, lo que es nuestra propuesta política de cambio, queremos llevarlo a cabo a partir de tres grandes acuerdos que me comprometo a impulsar desde el primer momento de mi mandato si soy elegido lehendakari: acuerdo entre los partidos democráticos, para defender las libertades y alcanzar la paz; acuerdo sobre la reforma del Estatuto, para actualizar y mejorar nuestro marco de autogobierno y de convivencia, y acuerdo con los agentes sociales, para crear empleo estable y hacer frente a los problemas que plantea en Euskadi la globalización económica.

Planteamos, pues, como triple divisa de nuestra política de cambio, un acuerdo por las libertades, para consolidar la democracia y los derechos de ciudadanía y ofrecer seguridad a los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi; un acuerdo de país que le dote de estabilidad y de instrumentos para avanzar, y un acuerdo que garantice el progreso y el avance económico y social. Un triple acuerdo, un triple pacto entre diferentes que configure un país deseable y que, desde luego, desea una amplia mayoría de los vascos y de las vascas. Porque es con paz, con estabilidad, con libertades garantizadas, con seguridad, con derechos de ciudadanía y con progreso económico y social como se construye de verdad un país sólido, una comunidad política consolidada y con futuro.

Un acuerdo sobre libertades y pacificación, en primer lugar.

Ez dut onartzen politikan, ekonomian eta gizartean aurrera egiteko gure asmoak geroratuta geratzea norbaiti, interes partikularrek bultzatuta, herriaren eraikuntzari buruzko desadostasunak eta bizikidetza-arazoak sortzea eta handitzea bururatu zaiolako, eta gehienetan artifizialki, gainera. Eta, era berean, ez dut onartzen elkarrizketaren eta akordioaren trena berriro galtzea, hain zuzen ere, horretarako itxaropen eta aukera berriak ikusi diren unean; ETA inoiz baino ahulago dagoenean eta herritarrak eta zuzenbide-estatua, aldiz, inoiz baino indartsuago daudenean; hainbeste denboran aldarrikatu izan ditugun Ajuria Eneko itunaren hatsarreak berreskuratu ditugunean eta bakea lortzeari begira politika eguneratuaren eta errealistaren oinarriak finkatu ditugunean; Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren artean erakunde-elkarrizketa suspertu denean.

Nik aukera horiek baliatu nahi ditut elkar ulertzearen giroan aurrera egiteko, eta, era horretara, aldi berean, herriari aurrera eginarazteko, hain zuzen ere, Euskadiko Alderdi Sozialistak joan diren hauteskundeetan aurkeztutako programa autonomista, progresista eta euskaltzalea ezarriz. Eta programari buruz nik esan izan dut herritarrekin egindako egiazko *kontratu* bat dela; ikuspegi alderdikoia gainditzen duen programa dela, hain zuzen ere, herria kontuan hartuta prestatuta dagoelako eta ez dagoelako pentsatuta herriaren zati bati erantzuna emateko.

Eta programa hori, herria eraikitzeko proiektu hori, aldaketarako gure proposamen politiko hori, hiru akordio handitan oinarrituta gauzatu nahi dugu, eta lehendakari hautatzen banauzue agintzen dizuet nire agintealdiaren hasiera-hasieratik bultzatuko ditudala hiru akordio handi horiek: alderdi demokratikoen arteko akordioa, askatasunak aldezteko eta bakea lortzeko; Estatutua eraberritzeko akordioa, gure autogobernu eta bizikidetza esparrua eguneratzeko eta hobetzeko; eta gizarte-eragileekin akordioa, enplegu egonkorra sortzeko eta Euskadin globalizazio ekonomikoak planteatzen dituen arazoei aurre egiteko.

Aldaketarako gure politikaren dibisa hirukoitza da, beraz: askatasunen aldeko akordioa, herritarren eskubideak eta demokrazia sendotzeko eta Euskadiko herritarrei, gizon-emakumeei, segurtasuna eskaintzeko; herriari egonkortasuna eta aurrera egiteko tresnak emango dizkion akordioa; eta aurrerapena eta gizartearen arloan eta ekonomiaren arloan aurrerapausoak emango direla bermatuko duen akordioa. Akordio hirukoitza, beraz, euskal gizon-emakume gehienok desio dugun herrialdea antolatuko duen desberdinen arteko itun hirukoitza. Izan ere, bakearen bidez, egonkortasuna emanez, askatasunak bermatuta izanda, segurtasuna izanda, herritarren eskubideen bidez, aurrerapen ekonomiko eta sozialaren bidez eraikitzen da herrialde sendo bat, erkidego politiko irmo bat, etorkizuna duen erkidego politiko bat.

Lehenik eta behin, beraz, askatasunen eta bakegintzaren inguruko akordioa.

Ustedes conocen nuestra insistencia en recuperar políticas de unidad democrática para acabar con la violencia y alcanzar la paz, porque esta ha venido siendo una prioridad política del Partido Socialista de Euskadi. Una prioridad que tiene aún más razón de ser en el momento en que ETA se encuentra más débil, y por ello mismo, como ya he dicho, más fuerte se encuentra la ciudadanía y el Estado de derecho.

Zuek badakizue guk behin eta berriro nabarmendu izan dugula batasun demokratikoa helburu duten politikak berreskuratu egin behar direla indarkeriari amaiera emateko eta bakea lortzeko, horixe izan dela Euskadiko Alderdi Sozialistaren lehentasun politikoetako bat. Eta lehentasun horrek inoiz baino izateko arrazoi handiagoa du ETA oso ahul dagoen une honetan, eta, hain zuzen ere, horregatik, lehen esan dudan bezala, herritarrak eta zuzenbide-estatua inoiz baino indartsuago dauden une honetan.

Esta situación debe tener su adecuado reflejo en las políticas unitarias de país, tendentes a recuperar las libertades y los derechos de ciudadanía tantas veces menoscabados por la acción del terrorismo. Las víctimas, los amenazados y tantos representantes sociales y políticos que se ven obligados a llevar escolta, a pesar del último comunicado de ETA, nos lo siguen recordando a diario. Es a ellos a quienes quiero dirigirme en primer lugar, para decirles que quiero presidir un gobierno de firmeza democrática contra el terrorismo en todos los frentes y con todos los instrumentos del Estado de derecho, pero también un gobierno que utilice la inteligencia política al servicio del más noble objetivo: la paz.

Egoera horrek isla egokia izan behar du gure herriko politika baterakoietan, terrorismoaren eraginez hainbeste aldiz kalte egin zaien herritarren eskubideak eta askatasunak berreskuratzera bideratutako politiketan. ETAk azken jakinarazpenean esan duena esan duela ere, bizkartzainekin ibiltzera behartuta dauden hainbeste eta hainbeste ordezkari sozial eta politikok, mehatxupean daudenek eta biktimek egunero-egunero gogorazten digute hori. Eta lehenik eta behin horiengana zuzendu nahi dut, eta esan nahi diet fronte guztietan eta zuzenbide-estatuko tresna guztiak baliatuz terrorismoaren aurka irmotasun demokratiko osoa adieraziko duen baina, aldi berean, adimen politikoa helbururik nobleenaren, hau da, bakearen, zerbitzura erabiliko duen gobernu baten buru izan nahi dudala.

Estos son, por tanto, nuestros objetivos colectivos. Y para conseguirlos queremos poner a disposición de la sociedad vasca un gobierno de progreso; un proyecto al servicio de las personas, de todas las personas; un proyecto para impulsar el desarrollo sostenible, y un proyecto para abrirnos al mundo.

Horiek dira, beraz, gure gizarte osoarentzako helburuak. Eta helburu horiek lortzeko, euskal gizartearen zerbitzura jardungo duen gobernu aurrerakoia osatu nahi dugu; pertsonen zerbitzura, pertsona guztien zerbitzura jardungo duen proiektu bat; garapen iraunkorra bultzatuko duen proiektu bat; munduratuko gaituen proiektu bat.

Pertsonen zerbitzuan, pertsona guztien zerbitzuan jardungo duen proiektu bat. Gure gobernuproiektuaren erreferentzia nagusiak pertsonak dira, pertsona guztiak. Inor ere ezin da geratu hazkunde ekonomikoak dakartzan onuretatik kanpora. Gizarte solidario eta orekatua eraikitzeko egingo dugu lan, merkatua pertsonen zerbitzura egongo den gizartea lortzeko, kontua ez baita hazkunde hori azkarra izatea, baizik eta denok batera aurrera egin ahal izatea, desorekarik gabe.

Al servicio de las personas, un proyecto al servicio de todas las personas. Las referencias fundamentales de nuestro proyecto de gobierno son las personas, todas las personas. Nadie puede quedar excluido de los beneficios derivados del crecimiento económico. Trabajaremos para construir una sociedad solidaria y equilibrada, para lograr una sociedad en la que el mercado esté al servicio de las personas, porque lo importante no es lograr una gran velocidad de crecimiento, sino que seamos capaces de avanzar conjuntamente, sin desequilibrios.

Aurrerabide etikoaren alde egin nahi dugu, garapen ekonomikoaren erdigunean pertsona egon dadin. Helburua hori izanik, gure gizarteko pertsona guztiek etxebizitza duin bat izatea ahalbidetuko duten programa eta gizarte arloko politika guztiak bultzatuko ditugu, horretarako lanpostuak izatea erraztuz, hezkuntza, osasun eta etxebizitza arloan zerbitzuak eskuratzeko aukera eskainiz eta gizarte-babesa eta integrazio kulturala areagotuz.

Azken batean estatuan eta Europan erreferente bihurtuko den gizarte-eredua eraiki behar dugu, ongizatean oinarritutako eredua. Horretarako, politika sozial integratzailea bultzatu behar da, bi lan-ildo nagusitan oinarrituta: elkartasuna eta gizartearen aurrerabidea, eta berdintasuna eta kulturaren arloko garapena.

Elkartasuna eta gizartearen aurrerabidea: Euskadi soziala eraikitzen hasteko lehen euskarria. Lehen ardatz horren inguruan, integrazioa lortzeko eta bizitzaren kalitatea hobetzeko eraginik handiena duten zerbitzu eta politika publikoak sustatuko ditugu, eta, horrekin batera, modu osagarrian, programa zehatzagoak ere eramango dira aurrera, bereziki ahulagoak diren giza taldeei laguntzeko. Gure ustez, elkartasuna ez da besterik gabe karitatearen bidetik jotzea, estrategia aktibo batzuk aurrera eramatea baizik, horren bidez pertsona guztiek lan munduan sartzea lortu eta gizartean ere lekua izan dezaten, bereziki horretarako arazo handienak dituztenek.

Esandako helburu horri begira, gure ardura nagusia enplegua, lana izango da. Aurrera egin dugu lanpostuak sortzeari dagokionez, eta Europako neurrietan gaude langabeziako datuei begira. Une hauetako erronka, berriz, lanpostu egonkor eta eskubideak dituztenak lortzea izango da. Helburu horri begira, enpleguaren aldeko erakunde arteko plan bat aurkeztuko dugu, eta helburu nagusia lanpostuak sortzea eta lanpostuen aldibaterakotasuna eta prekarietatea gutxitzea izango da. Horri begira, kontratu egonkorrak egitea sustatzearen aldeko eta aldi baterako kontratuak muga gabeko kontratu bihurtzearen aldeko neurriak jasoko dira.

Esandakoaz gainera, ekintza positiboak jasoko dituzten programa bereziak ere zehaztuko dira, lanmundura iristeko arazo handienak dituzten giza taldeei laguntzeko. Eta laneko eta etxeko erantzukizunak bateragarri egiteko neurriak ere hartuko dira.

Enpleguak dagozkion eskubideak izan behar ditu, eta behar besteko babes-maila eta laneko segurtasuna bermatu behar ditu. Horretarako, laneko segurtasun eta osasunerako plan zuzentzaile berria egingo da, laneko istripuen indizeak txikiagotu, Espainiako eta Europako batez bestekoen azpitik jarri arte.

Arlo sozio-laboralean, gogoeta egin nahi dugu eragile ekonomikoekin eta gizarteko beste eragile ba-

Queremos apostar por el progreso ético, un progreso que sitúe a la persona dentro del desarrollo económico. Con ese objetivo marcado, vamos a potenciar todos aquellos programas y políticas sociales que contribuyan a garantizar el derecho de todas y cada una de las personas a disfrutar de una vivienda digna, impulsando para ello el acceso a servicios en el ámbito del trabajo, la educación, la salud y la vivienda y fomentando la protección social y la integración cultural.

En definitiva, vamos a construir un modelo social de bienestar que constituya un referente en el Estado y en Europa, un modelo basado en el bienestar. Para ello, impulsaremos una política social integradora que tenga como pilares fundamentales dos líneas de actuación: la solidaridad y el progreso social, y la igualdad y el desarrollo cultural.

La solidaridad y el progreso social: el primer pilar de la construcción social de Euskadi. Con respecto a este primer eje, vamos a potenciar aquellos servicios y políticas públicas que tienen una mayor repercusión en la integración y en la mejora de la calidad de vida, y además, de forma complementaria, desarrollaremos programas más concretos, principalmente aquellos que inciden en colectivos especialmente vulnerables. A nuestro entender, la solidaridad no es simplemente un ejercicio pasivo de caridad, sino la aplicación de estrategias activas cuyo objetivo es lograr la integración laboral y social efectiva de todas las personas, especialmente de las personas más desfavorecidas.

Con la finalidad mencionada, nuestra preocupación principal será el empleo, el trabajo. Hemos avanzado en lo que respecta a la creación de puestos de trabajo y hemos logrado la convergencia con Europa en las tasas de desempleo. Sin embargo, uno de nuestros retos actuales es trabajar por un empleo estable y con derechos. Al efecto, presentaremos un nuevo plan interinstitucional de empleo cuyos objetivos prioritarios serán la creación de empleo, la reducción de la temporalidad y la disminución de la precariedad laboral. Y, con ese objetivo, contemplará medidas concretas dirigidas a incentivar la contratación estable y la conversión de contratos temporales en indefinidos.

Además, se contemplarán programas específicos que incluyan acciones positivas en favor de los colectivos con mayores dificultades de inserción en el mercado laboral. Y también se impulsarán medidas cuyo objetivo sea conciliar la vida laboral y familiar.

El empleo debe incluir sus derechos inherentes, y además deberá garantizar niveles de protección y de seguridad laboral suficientes. Al efecto, se elaborará un nuevo plan director de seguridad y salud laboral, con la finalidad de reducir los índices de siniestralidad hasta situarlos por debajo de la media española y europea.

En el ámbito sociolaboral, vamos a propiciar una reflexión conjunta con los agentes económicos y

tzuekin elkarlanean, elkarguneek gaur egun nola diharduten ikusteko, gune horiek eraginkorragoak izan daitezela lortzeko eta ondorengo arloetan akordioak erdiesteko: egonkortasunean, produktibitatean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta enplegua sortzeko neurrietan.

Era berean, euskal enplegu-legeari ere ekingo diogu, enplegu-politikak behar bezala eta modu egokian gara daitezen. Hogeita sei urte igaro dira, eta, oraindik ere, enplegu-politika eragingarriaren eskumenak emateko daude. Eta ezin dut atal hau amaitu berriz ere Estatuari eskumen hori eskatu gabe, ezinbesteko tresna baita guretzat enplegua sustatzeko estrategia integralari ekiteko orduan.

Bestetik, gaur egun osasun-sistema sendotu nahi dugu, zerbitzu publikoa doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa izan dadin, ezinbesteko tresna izango baita hori gizartea batzeko, eta baita oinarrizko euskarrietako bat ere gure ongizateko estatuan.

Horri begira, gizarte eta osasun arloko laguntzarako plan estrategiko berria onartuko da; osasun arloan dauden ezberdintasunak %25ean murriztuko dira; kirurgiako operazio baten zain daudenen zerrendak modu eraginkorragoan kudeatzeko neurriak hartuko dira; osasun eta botiken arloko ikerketak areagotzea bultzatuko da; sendagai generikoak gero eta gehiago erabiltzea bultzatuko da, eta dauden osasun-azpiegiturak hobetu eta berriak ere eraikiko dira.

Legealdi honetan benetan nabarmentzekoa izango da etxebizitzaren alde aurrera eramango den politika publikoa, kontuan izan behar baita etxebizitza duin bat eskuratzea dela gizatalde askorentzako gizarte arloko arazo nagusia, bereziki gazte askorentzat. Hori dela eta, okertzeko beldurrik gabe esan dezaket, arlo honetan Estatuan lehen lekuan egoten jarraitzeaz gainera, are gehiago sendotuko dugula eraikitzeko lurrak izan eta etxebizitzak egiteko politika aktiboa.

Horretarako, Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen aurrekontua gutxika-gutxika handitzeko asmoa daukagu, legealdiaren amaieran 200 milioi eurokoa izatera iritsi arte. Bide horretatik, hartuko dugun lehenengo neurria Legebiltzar honetara lurzoruaren legearen egitasmoa ekartzea izango da, hain zuzen ere aurreko legealdian landu eta adostasuna lortu baitzen. Babestutako etxebizitzen lege-egitasmoa ere onartuko da.

Era berean, etxebizitzaren plan zuzentzaile berriaren bidez, %50ean areagotuko da etxebizitza publikoen kopurua, eta etxebizitzak alokairuan hartzea ere sustatuko da, hutsik daudenak merkatuan jarriz, Bizigune izeneko programaren bidez.

Esandakoaz gainera, adinekoentzako apartamentuen plan berezi bat abiaraziko da, hondatutako guneetan dauden etxebizitzak zaharberritzeko neurriak

sociales, sobre el funcionamiento actual de los foros de interlocución existentes, con el objeto de incrementar su eficacia como instrumentos de dinamización del diálogo social y de lograr acuerdos en los ámbitos recogidos a continuación: estabilidad, productividad, formación, seguridad laboral y creación de empleo.

Asimismo, vamos a abordar la ley vasca de empleo con el objetivo de lograr el desarrollo adecuado de las políticas de empleo. Han pasado veintiséis años, y aún no se ha producido el traspaso de las competencias en materia de políticas activas de empleo. Y no puedo finalizar este apartado sin reclamar al Estado, una vez más, la transferencia de dichas competencias, ya que constituyen un instrumento esencial para abordar una estrategia integral de fomento del empleo.

Por otro lado, vamos a consolidar el sistema sanitario actual, como servicio público gratuito, universal y de calidad, ya que será un instrumento básico para la cohesión social y uno de los pilares fundamentales de nuestro Estado de bienestar.

A tal efecto, se aprobará un nuevo plan estratégico de atención soiciosanitaria; se disminuirán en un 25% las desigualdades existentes en el ámbito sanitario; se dotará de mayor eficacia a la gestión de las listas de espera quirúrgicas; se potenciará la investigación sanitaria y farmacéutica; se impulsará la utilización progresiva de medicamentos genéricos y se mejorarán y construirán nuevas infraestructuras sanitarias.

En esta legislatura será realmente significativo el impulso que va a recibir la política pública en pro de la vivienda, habida cuenta de que el acceso a una vivienda digna constituye en estos momentos el principal problema social para muchos colectivos, especialmente para los jóvenes. Por ese motivo, puedo decirles sin miedo a equivocarme que no sólo vamos a continuar a la cabeza del Estado en esta materia, sino que vamos a reforzar aún más la política activa de promoción del suelo y de la vivienda.

Con esta finalidad, nos proponemos aumentar progresivamente el presupuesto destinado al Plan Director de Vivienda, hasta situar el mismo en 200 millones de euros al final de la legislatura. En esta línea, la primera medida a adoptar será remitir a este Parlamento el proyecto de ley del suelo, que de hecho ya fue elaborado y consensuado en la pasada legislatura. También se aprobará el proyecto de ley de vivienda protegida.

Asimismo, se incrementará en un 50% la promoción de viviendas públicas a través del nuevo proyecto de ley de vivienda protegida, y se potenciará el régimen de alquiler mediante la movilización de viviendas vacías a través del programa Bizigune.

Además, se impulsará un plan especial de apartamentos para personas mayores, se tomarán medidas cuyo objeto sea la regeneración de viviendas en

hartuko dira, eraikin zaharrak konponduko, ingurumenaren iraunkortasuna zainduko, eta etxebizitzen arloan ere teknologia berriek lekua izatea bultzatuko da.

Legealdi honetan izango dugun lehentasunezko beste helburuetako bat pobreziaren aurka borroka egitea eta gizartearen marjinazioa jasaten dutenei lana aurkitzen laguntzea izango da. Gure konpromisoa gizarteratzeko erakunde arteko euskal plana idaztea da, bi eskubidetan oinarrituta: Gizarteratzeko arazorik handienak dituzten pertsonek gizarte arloko laguntzak jasotzeko duten eskubidea, eta laguntzok jasotzen dituztenek, aldi berean, lana aurkitzeko duten eskubidea.

Esandakoa lortzeko, sendotu egingo da oinarrizko errenta, eta lanbide arteko gutxieneko soldataren bilakaeraren arabera egokitu; gizarte-larrialdiko laguntzak areagotu egingo dira, eta, esandakoez gainera, lehentasuna izango du Pobreziaren Aurkako Planaren hirugarren ardatza deitu izan denak, hau da, lan-munduan sartzeak, bereziki Auzolan deituriko programaren bidez, lana lortzen laguntzeko enpresak sortzearen bidez eta enplegu soziala sustatuta, diputazio eta udalekin elkarlanean.

Gure helburua hirugarren ardatz hori sendotzea da, arazo gehien dituzten pertsonei lan-munduan sartzen laguntzeko gastua areagotzearen bidez. Eta legealdiaren amaieran, partida hori, gaur egun erabiltzen denaz alderatuta, %50 handiagoa izatea nahi dugu. Gizarte-behar larrietarako laguntzak indartu egingo dira, eta, horien barruan, etxebizitzako sorospenak ere asistentziarako eta epe baterako diru-laguntzatzat joko dira, osagarri.

Neurri horiekin batera, beste lege bat ere egingo dugu, bazterkeria sozialari aurre egiteko gaur egun dugun arautegia eta Eskubide Sozialen Gutuna, biak elkarri batzeko; era horretara, oinarrizko errenta pixkanaka unibertsala izan dadin eta familia-unitateen eredu berriei egoki dakizkien. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Legea egokitu egingo da, gizarte arloko zerbitzu eta laguntzen katalogoa zehazteko eta erakundeen hiru mailen arteko koordinazioa hobetzeko.

Ekimen orokor horiekin batera, solidaritatearen eta gizarte-aurrerabidearen arloan beste jarduera jakin batzuk ere burutuko dira, gizatalde zehatzago batzuek dituzten arazoak konpontzen saiatzeko.

Horri begira, droga-menpekotasunei buruzko bosgarren plana abiaraziko da; ezinduak diren pertsonek lana aurkitu ahal izatea bultzatuko da, ezintasunak dituzten pertsonei arreta eskaintzeko eta aurrera egiten laguntzeko erakunde arteko planaren bidez; beste norbaiten laguntasuna behar duten adinekoei zuzendutako zerbitzu publikoak sustatuko dira, beste norbaiten premia duten pertsonei laguntzeko erakundeen arteko plana abiarazita.

áreas degradadas, la rehabilitación de viviendas antiguas, la protección de la sostenibilidad medioambiental y la aplicación de las nuevas tecnologías en el sector de la vivienda.

Otro de nuestros objetivos prioritarios para esta legislatura será la lucha contra la pobreza y el apoyo a la inserción laboral de las personas que sufren marginación social. Nuestro compromiso es elaborar un plan interinstitucional vasco de inserción, basado en dos derechos: el derecho a las ayudas sociales de las personas desfavorecidas, y el derecho a la inserción laboral de los beneficiarios de dichas prestaciones.

Para lograr lo mencionado, se reforzará la renta básica y se adaptará a la evolución del salario mínimo interprofesional; se incrementarán las ayudas de emergencia social, y además se impulsará con carácter prioritario el denominado tercer eje del plan de lucha contra la pobreza, es decir, la inserción laboral, especialmente a través del programa Auzolan, de la creación de empresas de inserción y del fomento del empleo social, en colaboración con diputaciones y ayuntamientos.

Nuestro objetivo es potenciar ese tercer eje, aumentando progresivamente la partida destinada a la inserción laboral de las personas más desfavorecidas. Y queremos que al final de la legislatura dicha partida, en comparación con la asignada en la actualidad, sea un 50% mayor. Se reforzarán las ayudas de emergencia social, y dentro de las mismas se incluirán, con carácter complementario, los subsidios de vivienda como una subvención asistencial y temporal.

Junto con estas medidas, abordaremos una nueva ley que integre la normativa actual reguladora de la exclusión social y la Carta de Derechos Sociales; de esta forma, lograremos la universalización progresiva de la renta básica y su adaptación a las nuevas unidades familiares. Asimismo, se adecuará la Ley de Servicios Sociales para establecer un catálogo de servicios y prestaciones sociales y mejorar su coordinación en los tres niveles institucionales.

Además de esas iniciativas generales, se desarrollarán otras actuaciones específicas en el ámbito de la solidaridad y del progreso social, cuyo objeto será responder a las problemáticas de colectivos específicos.

A tal efecto, se pondrá en marcha el V Plan de Drogodependencias; se impulsará la incorporación de personas discapacitadas en el mercado laboral a través del plan interinstitucional de atención y promoción de las personas con discapacidad; se potenciarán los servicios públicos dirigidos a las personas mayores dependientes, a través de la puesta en marcha de un plan interinstitucional de atención a personas dependientes.

Familiari laguntzeko erakunde arteko beste plan bat idatziko da, familiak behar dituen laguntza-moduak jasotzeko. Eta horrekin batera, familiako bitartekaritzarako lege-egitasmoa ere izapidetuko da, gatazkak dituzten familiei horiek gainditzen laguntzeko.

Se redactará un nuevo plan interinstitucional de apoyo a la familia con el objetivo de recoger las distintas formas de apoyo y atención que la familia necesita. Además, se tramitará un proyecto de ley de mediación familiar destinado a ayudar a las familias a superar las situaciones de conflicto.

Immigrazioaren Euskal Plana indartu eta zabalduko da, eta gazteei laguntzeko politika integrala eramango da aurrera, estrategia orokor baten bidez, bereziki ondorengo arloetan eraginez: prestakuntzan, lan-arloan sartzeko aukeretan, etxebizitzan eta kultura eskura izateko neurrietan.

Se potenciará y ampliará el Plan Vasco de Inmigración, y se desarrollará una política integral de apoyo a la juventud a través de una estrategia global que incida especialmente en los siguientes ámbitos: formación, oportunidades de inserción laboral, vivienda y acceso a la cultura de la juventud.

Atal honekin amaitzeko, berariaz aipatu nahi dut haurrei eta nerabeei eskainitako diegun arreta berezia, haurtzaroaren eta nerabezaroaren defendatzailea eta behatokia sortzearen bidez, eta berriki onartu den haurtzaroari arreta eskaintzeko legearen bidez.

Quisiera acabar este apartado haciendo una mención expresa a la atención especial que prestaremos a la infancia y la adolescencia, mediante la constitución de la defensoría y el observatorio para la infancia y la adolescencia y el desarrollo de la Ley de Atención a la Infancia aprobada recientemente.

Berdintasunaren eta kulturaren garapenaren oinarria. Jaurlaritzak aurrera eramango dituen ekintzen erdigunean pertsonak egon daitezen, gure jardunak izango duen bigarren ardatza berdintasunarekin, hezkuntzarekin eta kulturarekin zerikusia duten politikena izango da, hori baita benetan gizarte-aurrerabidean oinarritutako gobernu baten oinarria.

El pilar de la igualdad y el desarrollo cultural. El segundo eje en el que vamos a sustentar nuestra actuación para situar a las personas en el centro de referencia de la acción del Gobierno serán las políticas relacionadas con la igualdad, la educación y la cultura, ya que éstas constituyen los fundamentos de un verdadero gobierno de progreso social.

Asko aurreratu dugu berdintasunaren arloan; ez dago Ganbera honen osaera ikusi besterik. Otsailaren 18an Berdintasunerako Euskal Legea onartu zen, eta benetan mugaegun historikoa izan zen, ziur asko hori baita gure autogobernuak orain arte betetako 26 urteetan zehar onartutako legerik garrantzitsuena.

Hemos avanzado mucho en materia de igualdad; no hay más que ver la composición de esta Cámara. El pasado 18 de febrero se aprobó la Ley vasca de Igualdad, lo que constituyó un verdadero hito histórico, ya que posiblemente estemos ante la ley más importante aprobada en estos 26 años de autogobierno.

Benetan diotsuet, hala uste baitut: gure gizarteak etorkizuna izango badu, gauza izan beharko dugu emakumeek bizitzako arlo guztietan duten eginkizuna elkarbanatu, errespetatu eta aitortzeko. Horren inguruan, beste behin ere esan behar dut nire konpromisotzat hartu nahi dudala Berdintasunaren Legea osoosorik garatzea, hain zuzen ere emakume eta gizonok elkarrekin bizi eta gure gizarteko arlo guztietan berdintasunean oinarrituta parte hartu dezagun. Hori lortzeko, beste neurri batzuen artean, berdintasunerako defendatzailea eta ordaindu gabeko pentsioak bermatzeko funtsa abiaraziko dira.

Se lo digo sinceramente, porque es lo que pienso: si queremos que nuestra sociedad tenga futuro deberemos ser capaces de compartir, respetar y reconocer el papel esencial de las mujeres en todas las tareas y funciones de la vida. En este sentido, reitero una vez más mi compromiso personal con el desarrollo completo de la Ley de Igualdad para conseguir que mujeres y hombres convivamos y participemos en pie de igualdad en todos los ámbitos de nuestra sociedad. Para lograrlo, entre otras medidas, pondremos en marcha la defensoría para la igualdad y el fondo de garantía de impago de pensiones previsto en la misma.

Gainera, ezinbestekoa da emakumeak lanmerkatuan sartzeko erraztasunak jartzea, eta ez soilik gizartean bidezkoa delako, baita oinarri-oinarrizko eragileetako bat ere badelako gure sare ekonomikoaren eraginkortasuna eta produktibitatea areagotzeko. Bide horretatik, plan berezi bat sustatzeko asmoa dugu, eragile ekonomiko eta sozialekin elkarlanean, emakumeei lan-munduan sartzen laguntzeko, eta bereziki lanbide-heziketan eta unibertsitatean, emakume gutxien dagoen arloetan.

Además, resulta imprescindible favorecer la incorporación de la mujer en el mercado laboral, no sólo como elemento de justicia social, sino como factor esencial para incrementar la eficacia y productividad de nuestro tejido económico. En ese sentido, impulsaremos un plan específico, en colaboración con agentes económicos y sociales, de incorporación de la mujer en el mercado laboral, especialmente en aquellos ámbitos de la formación profesional y universitaria en los que están menos representadas.

Bestetik, gure gobernu-programan hezkuntza oinarri nagusia izango da pertsonen berdintasuna lortu eta denek gizartean lekua izan dezaten, eta, horrekin

Por otro lado, en nuestro programa de gobierno vamos a hacer de la educación la base fundamental sobre la que construir la igualdad y la integración

batera, gure ekonomiaren hazkundearen palanka izatea ere nahi dugu.

Eskola-porrotaren tasak %10etik beherakoak izatea nahi dugu, hau da, Europako herririk onenen parekoak, eta Euskadi ikaskuntzaren herrialdea bihurtu gura genuke; hezkuntzako erreferente izan nahi dugu ez soilik Estatuan, baita Europan ere. Esandakoa lortzeko, eta derrigorrezko irakaskuntzaren baitan, euskal hezkuntza-sistemaren legea sustatuko da, beti ere hezkuntza-administrazioaren eta eskola-komunitatearen artean ahalik eta adostasun handiena erdietsita. Gainera, ikastetxeen autonomia indartuko da, baita hizkuntza-aniztasuna ere, eta horrekin batera, ikastetxeek kalitatearen ziurtagiriak lortzea, aukera-berdintasunaren aldeko politikak eta irakasleek lanbidean aurrera egiteko aukerak.

Unibertsitate-sistemaren baitan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea garatuko dugu, hain zuzen ere hiru euskal unibertsitateak Europako goi-hezkuntzako sistemaren barruan sartuta. Horrekin batera, euskal unibertsitate publikoak finantziazioa izatea bermatu eta gure ikasleek nazioartean lekua izan eta elkartrukean aritzea bultzatuko dugu. Esparru horren barruan, unibertsitaterako beste plan bat onartu, titulu berriak sortu eta unibertsitate eta enpresen arteko lankidetza sustatuko da.

Arreta berezia jarriko dugu unibertsitatean oinarrizko ikerketak lekua izan dezan. Asmo hori izanik, eta unibertsitateko plan berriaren baitan, bitariko fundazio bat sortuko da, Jaurlaritzak eta unibertsitateak parte hartuta eta enpresa pribatuen eta ikerketako erakundeen lankidetzari irekia, guztien arteko proiektuak aurrera eramateko. Agentzia horrek unibertsitatearen baitako ikerketako arlo eta departamendu guztiak bildu eta koordinatuko ditu, enpresa pribatuekin batera landutako proiektuak bideratu eta Europa eta mundu osoko beste agentzia eta fundazioekin lankidetza-hitzarmenak zehaztuko ditu.

Lanbide-heziketaren esparruan, bete-betean jarriko da indarrean lanbide-heziketako euskal plan berria, lanbide heziketa arautua nahiz etengabeko prestakuntza eta okupazionala kalitatezkoak eta lehiakorrak izan daitezen, eta, horrekin batera, lan-merkatuan integratzeko eta merkatu horrek bizi dituen aldaketetara etengabe egokitzeko bidea eskain dezaten. Esparru horretan, lanbide-heziketako euskal legea sustatu eta lanbide-prestakuntzaren euskal kontseilua sortuko dira.

Bukatzeko, kultura eta euskara izango ditut hizpide, gure herri-nortasunaren osagaiak diren aldetik, eta pertsonengan oinarritutako estatu sozial baten kate-maila nagusia baitira. Eta pertsonak diogunean, baloreak dituzten pertsonez ari gara, sustraiak dituzten pertsonez, eta, aldi berean, munduari so dauden pertsonez. Horretarako, Kulturaren Euskal Plana garatuko dugu, ondorengo ardatzen inguruan egituratuta: euskara, kultur ondarea, kultura sortu eta hedatzea, kultur

social de las personas, además de ser la palanca de nuestro crecimiento económico.

Queremos que la tasa de fracaso escolar se sitúe por debajo del 10%, es decir, al nivel de los mejores países europeos, y que Euskadi se convierta en el país del aprendizaje; queremos ser referente educativo y no sólo a nivel estatal, sino también en Europa. Con este objetivo, y en el ámbito de la educación obligatoria, se promoverá una ley del sistema educativo vasco, siempre con el máximo consenso posible entre la Administración educativa y la comunidad escolar. Además, se potenciará la autonomía de los centros educativos, así como el plurilingüismo y, junto con ello, las certificaciones de calidad de los centros, las políticas de igualdad de oportunidades y el desarrollo profesional de los docentes.

En el ámbito del sistema universitario, se desarrollará la Ley del Sistema Universitario Vasco, concretamente integrando a las tres universidades vascas en el espacio europeo de educación superior. Además, se garantizará la financiación de la universidad pública vasca y se impulsará la proyección internacional y el intercambio de nuestros estudiantes. En este marco, se aprobará un nuevo plan universitario, se crearán nuevas titulaciones y se promoverá la colaboración entre la universidad y la empresa.

Prestaremos atención especial al fomento de la investigación básica en el ámbito universitario. A tal efecto, y en el marco del nuevo plan universitario, se constituirá una fundación de carácter mixto, con participación del Gobierno Vasco y de la universidad y abierta a la colaboración con la empresa privada y organismos de investigación, con el objeto de impulsar el desarrollo de proyectos conjuntos. Dicha agencia aglutinará y coordinará todas las áreas y departamentos de investigación universitarios, canalizará proyectos desarrollados en colaboración con empresas privadas y establecerá acuerdos de colaboración con agencias y fundaciones sectoriales de Europa y del resto del mundo.

En el campo de la formación profesional, se aplicará en toda su amplitud el nuevo plan vasco de formación profesional, para hacer de la formación profesional, tanto de la reglada como de la formación continua y ocupacional, un ejemplo de calidad y competitividad y, al mismo tiempo, un factor esencial para la integración y adaptación permanente en el mercado laboral. En este ámbito, se promoverá la ley vasca de formación profesional y la creación del consejo vasco de cualificaciones profesionales.

Por último voy a referirme a la cultura y al euskara, como elementos que conforman nuestra identidad colectiva, y debido a que representan el eslabón principal de un estado social basado en las personas. Y cuando hablamos de personas hablamos de personas con valores, personas con raíces, y al mismo tiempo personas abiertas al mundo. Para ello, desarrollaremos el Plan Vasco de la Cultura, estructurado en torno a los siguientes pilares: euskara, patrimonio cultu-

arloko azpiegiturak eta industria, eta ikus-entzunezko hedabideak.

ral, creación y difusión cultural, infraestructuras e industria del ámbito cultural y los medios de comunicación audiovisual.

Esparru horretan, museo, artxibo eta liburutegien euskal sistemak egituratuko dira, kasu bakoitzerako onartu beharreko legeak onartuta; kultur arloko azpiegituren lege bat garatuko da; ikus-entzunezkoen sektoreari bultzada emango zaio, ikus-entzunezkoen legea onartuz eta ikus-entzunezkoen euskal kontseilua sortuta. Eta esandakoez gainera, kulturaren inguruko industriak, ikusizko arteak eta arte eszenikoak sendotzeko programak ere bultzatuko dira.

En este ámbito se procederá a la estructuración de los sistemas vascos de museos, archivos y bibliotecas, mediante la aprobación de sus respectivas leyes; se desarrollará el plan de infraestructuras culturales, se fomentará el sector audiovisual mediante la aprobación de la ley del audiovisual y la puesta en marcha del consejo vasco del audiovisual. Y, además, se impulsarán programas de fomento de la industria cultural y de las artes visuales y escénicas.

Legegintzaldi honetan oinarrizko lehentasuna izan beharko da gure hizkuntzak gero eta hiztun gehiago izatea eta hizkuntzak erabilerako beste esparru batzuk ere bereganatzea. Hori da helburua. Helburu hori lortzeko, arreta berezia jarri behar dugu etorkinak hizkuntzari dagokionez errealitate elebidunean gizarteratzeko. Gainera, euskara esparru sozio-ekonomikoan hedatzen hastea ere bultzatu behar da, eta baita informazio eta komunikazioaren teknologia berrien eremuan euskarak lekua izatea ere, eduki digitalak sortzearen bidez eta aplikazio berriak eta baliabide teknikoak garatuta.

Otra prioridad fundamental para esta legislatura deberá ser el esfuerzo por lograr nuevos hablantes para nuestra lengua, así como por lograr nuevos ámbitos de uso para el euskara. Ése es el objetivo. Y para lograr tal objetivo prestaremos una atención especial a la incorporación de la población inmigrante a una realidad lingüística bilingüe. Además, se deberá incentivar la implantación del euskara en el ámbito socioeconómico, así como asegurar la presencia del euskara en el ámbito de las nuevas tecnologías de la información y de la comunicación mediante la creación de contenidos digitales y el desarrollo de nuevas aplicaciones y recursos técnicos.

Euskal gizarteak behin eta berriz erakutsi du borondate irmoa eta indarra dituela euskararen aldeko lanean jarraitzeko. Aurrerantzean ere beharrezkoak izango dira hemen bizi garenon aupada, erantzukizuna, atxikimendua eta lankidetza, euskararen etorkizuna, gure herri-izatearen adierazgarri eta erakusle nagusiaren etorkizuna, Euskal Herrian erabakiko baita, inolako zalantzarik gabe.

La sociedad vasca ha puesto de manifiesto, una y otra vez, su firme voluntad y energía para continuar trabajando a favor del euskara. En adelante también será necesario el aliento, la responsabilidad, la adhesión y la colaboración de quienes vivimos aquí, porque el futuro del euskara, exponente e indicador máximo de nuestra identidad como pueblo, se juega, indudablemente, en el País Vasco.

En segundo lugar, un proyecto para impulsar el desarrollo sostenible. Tecnología y sostenibilidad serán los ejes de nuestra política para impulsar el crecimiento económico e incrementar el bienestar del conjunto de la sociedad vasca.

Bigarrenez, garapen iraunkorra bultzatuko duen proiektu bat. Teknologia eta iraunkortasuna izango dira ekonomiaren hazkundea bultzatzeko eta euskal gizarte osoaren ongizatea areagotzeko gure politikaren ardatzak.

Nuestro próximo reto como país es lograr la convergencia tecnológica con Europa. A este respecto, vamos a impulsar la segunda transformación económica de Euskadi, sobre la base del desarrollo tecnológico en su sentido más amplio; esto es, la potenciación de los programas de investigación, el desarrollo de la sociedad de la información y del conocimiento, y la extensión del principio de la excelencia y de la calidad total en empresas y organizaciones.

Herri gisa izango dugun hurrengo erronka teknologiaren arloan ere Europako neurriekin bat egitea izango da. Ildo horretatik, Euskadiren bigarren eraldaketa ekonomikoaren alde egin behar dugu teknologiaren garapena oinarritzat hartuta, baina adierarik zabalenean ulertuta, hau da, ikerketako programak bultzatu, informazioaren eta ezagutzaren gizartea garatu eta bikaintasun eta erabateko kalitatearen printzipioak enpresa eta erakundeetara iristea lortu behar dugu.

Nuestro compromiso público con la investigación y la innovación se materializará en la puesta en marcha de la Agencia Vasca de la Innovación, como instrumento de coordinación e impulso del sistema vasco de ciencia, tecnología e innovación. La agencia agrupará al conjunto de los agentes del sistema, elaborará un modelo de referencia de gestión en la innovación, promoverá las patentes y la transferencia de tecnología, e impulsará la participación en proyectos europeos y las relaciones internacionales.

Ikerketarekin eta berrikuntzarekin dugun konpromiso publikoaren erakusgarri, Berrikuntzaren Euskal Agentzia abiaraziko dugu, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema koordinatu eta bultzada emateko. Agentziak sistemako eragile guztiak bilduko ditu bere baitan, berrikuntza kudeatzeko erreferentziazko eredu bat zehaztuko du, patenteak eta teknologia eskualdatzea sustatuko du, eta, esandakoez gainera, Europako proiektuetan parte hartzea eta nazioarteko harremanak lantzea bultzatuko du.

Además, el importe de gasto público destinado a programas de innovación y desarrollo tecnológico crecerá anualmente a un ritmo superior al crecimiento nominal del producto interior bruto, hasta lograr que la partida presupuestaria destinada a inversiones en I+D en el año 2009 sea, como mínimo, un 50% superior a la situación de partida del presente ejercicio 2005.

Sobre estas bases, vamos a reforzar además todas las políticas públicas de carácter horizontal para mejorar la competitividad, la productividad y la internacionalización de la industria vasca.

Para ello, y de manera muy especial, vamos a poner en marcha nuevos programas que favorezcan la creación de empresas, el desarrollo de nuevos instrumentos financieros para la consolidación de grupos empresariales con base en Euskadi y proyección internacional (cuestión esta trascendental), la cooperación interempresarial, la eficacia de los *clusters*, la diversificación, la promoción de la cultura emprendedora, la financiación a través del capital-riesgo, la economía social, la creación de nuevos centros tecnológicos, el desarrollo de suelo industrial, y, en particular, en particular, un programa integral específico para apoyo a las pequeñas y medianas empresas.

El otro gran pilar fundamental de nuestra estrategia de crecimiento será la sostenibilidad. Vamos a liderar un desarrollo sostenible desde el punto de vida social, territorial, sectorial, infraestructural, energético y medioambiental.

Con esta finalidad desarrollaremos políticas dirigidas a lograr los siguientes objetivos:

Impulsar un desarrollo social y territorial equilibrado a través de programas de atención especial a las zonas desfavorecidas.

Propiciar el equilibrio sectorial del sector primario, mejorando la calidad de vida de nuestros arrantzales y agricultores y garantizando el mantenimiento de la población rural como elemento motor y protector del medio natural y de la diversidad biológica.

Desarrollar una política de infraestructuras con criterios de accesibilidad y sostenibilidad, priorizando el transporte público y los sistemas ferroviarios y marítimos, así como el equilibrio intermodal. Todo ello a través de la aplicación del Plan Director de Transporte Sostenible, cuyas líneas estratégicas están definidas hasta el horizonte del año 2012, y contemplando la construcción de una nueva red ferroviaria de alta velocidad de carácter mixto (pasaje y mercancías), que nos conecte directamente con Europa y con el resto de la península.

Desarrollar además el nuevo plan estratégico energético de Euskadi con el objetivo de aumentar el uso del gas natural, las energías renovables y el ahorro energético y reducir la emisión de gases contami-

Gainera, berrikuntza eta garapen teknologikoko programetan egingo den gastu publikoaren zenbatekoak urtero gora egingo du barne produktu gordinaren hazkunde nominalak baino kopuru handiagoan, eta lortu nahi dena da 2009an I+G arloko inbertsioetarako erabiliko den dirua hasiera batean behintzat 2005eko ekitaldian erabiliko duguna baino %50 handiagoa gutxienez izatea.

Oinarri horiek ezarrita, politika publiko horizontal guztiak ere sendotuko ditugu, euskal industriaren lehiakortasuna, produktibitatea eta nazioartekotzea hobetzeko.

Horretarako, beste programa batzuk abiarazi behar ditugu, honako helburu hauek lortzeko: enpresa berriak sortzea errazagoa izatea; finantza-tresna berriak garatu ahal izatea egoitza Euskadin duten eta nazioartean diharduten enpresa-multzoak sendotzeko (funtsezkoa da); enpresen arteko lankidetza; clusterren eraginkortasuna areagotzea; dibertsifikazioa; bidegileak izateko kultura sustatzea; arrisku-kapitalaren bidez finantzatzea; ekonomia soziala lantzea; teknologia-zentro berriak sortzea; industria-erabilerako lurra izatea; eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainei (PYME deiturikoei) laguntzeko programa integral berezitua.

Hazkundea lortzeko gure estrategiaren beste oinarri sendoa iraunkortasuna izango da. Garapen iraunkorraren alde egin behar dugu, baina iraunkorra gizartearen, lurraldearen, sektoreen, azpiegituren, energiaren eta ingurumenaren ikuspegitik.

Eta asmo horrekin honako helburu hauen alde jardungo duten politikak garatuko ditugu:

Gizartearen eta lurraldearen garapen orekatuaren alde egitea, premia handiena duten eskualdeei laguntzeko programen bidez.

Lehen sektorearen orekaren alde egitea, gure arrantzale eta nekazarien bizitza-kalitatea hobetuz eta baserri aldean bizi diren biztanleen alde eginez, natura eta aniztasun biologikoa babesten dituztenez.

Azpiegituren politika garatzerakoan, irisgarritasuna eta iraunkortasuna eskatzen duten irizpideak betetzea, eta horretarako, garraio publikoari eta trenbideetako eta itsasoko komunikabideen sareei lehentasuna ematea, oreka intermodala gordetzeaz gainera. Hori guztia Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea betetzearen bidez egingo da, kontuan izan behar baita 2012. urtera arte dituela zehaztuta ildo estrategikoak. Horren arabera, abiadura handiko trenbide bat eraikitzea aurreikusten da (bidaiari eta salgaiak eramateko balio izango duena) Europarekin eta Penintsularekin zuzenean lotuta egoteko.

Euskadiko energiaren arloko plan estrategiko berria garatzea, gas naturala eta energia berriztagarriak gero eta gehiago erabil daitezen, energia aurreztu eta atmosferara gas kutsakor gutxiago bota dadin

nantes a la atmósfera, garantizando –y este es el compromiso del Gobierno– el cumplimiento de los compromisos de Kyoto y liderando la Estrategia Vasca de Desarrollo Sostenible, definida, como ustedes saben, para el horizonte 2020, mejorando la calidad ambiental de nuestro aire, saneando nuestros ríos y mares, recuperando los suelos contaminados, reduciendo y reciclando los residuos urbanos e industriales, y aumentando las zonas naturales y reservas protegidas, sin tener miedo, como lo hemos hecho recientemente, a medirnos cada año, a evaluarnos cada año, a trasladar a la sociedad cómo estamos cada año en cada uno de estos objetivos.

Eta hirugarren zutabea: munduratzeko proiektu bat. Jaurlaritzak aurrera eramango dituen ekintzen hirugarren ardatz nagusia Euskadik atzerrian irudi ona izan dezala sustatzea da. Unibertsala onartu eta gurea eskaini: horrek izan behar du herri gisa dugun misioak, elkarri gero eta lotuago eta globalizatuago dagoen mundu batean. Hori dela eta, munduko joeretara ateak zabalik dituen herri irekia bihurtu nahi dugu Euskadi, mugaz bi aldeetako euskal lurraldeen arteko barne-harremanak bultzatuko dituen herria, atzerrian bizi diren euskaldunekiko loturak sendotuko dituen herria, Europa eta munduan gero eta leku handiagoa izango duen herria, eta premia handiena duten herriekiko elkartasun areagotuko duen herria.

Nola? Europa barruko euroeskualde bat sortuz. Horretarako, Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Akitaniarekin historia, kultura, ekonomia eta gizarte arloan ditugun loturak sendotuko ditugu, Europa barruan mugaz gaindiko euroeskualde bat garatu eta Europako ardatz atlantiarrean denok ditugun interesen alde egiteko.

Europan gero eta gehiago agertuz. Horretarako, gero eta sarriago parte hartuko dugu Batasuneko erakundeetan eta Batasuneko erabakiak hartzen diren guneetan. Europako beste eskualde eta herri batzuekin gero eta harreman handiagoak izango ditugu. Europako eskualde arteko foroetan gero eta ordezkaritza zabalagoa izaten saiatuko gara, eta beste horrenbeste egingo dugu Uztai Atlantiarraren Batzordean ere; Europa barruko zeharbide garrantzitsu horretan Euskadik duen posizio estrategikoa sendotuko dugu.

Nazioartean gero eta leku handiagoa hartuz eta atzerrian bizi diren euskal gizataldeekiko harremanak sendotuz. Euskadik gaur egun atzerrian dituen ordezkaritza ofizialak sendotu eta beste bulego batzuk irekitzen jarraituko dugu, hain zuzen ere gure enpresek nazioartean leku handiagoa izateko eta gure jarduera politikoa eta erakundeena garatzeko, lehentasunezkoak diren beste herrialde eta eremu geografikoetan.

Era berean, euskal kultura osotasunean eta gure nortasunaren adierazgarri gisa atzerrian agerrarazteko ahaleginak bultzada handia hartuko du Euskadi Institutua abiarazita; institutu hori beste tresna garrantzitsu bat izango da Euskadirekin historikoki harreman estuak izan dituzten herrialdeekiko loturak areagotze-

eta Kyoton hartu ziren konpromisoak betetzeko modua egon dadin –eta horixe da Gobernuaren konpromisoa–. Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategia aurrera eramateko liderrak izatea, 2020. urtera bitartean gure eguratseko airearen kalitatea hobetuz, ibaiak eta itsasoa garbituz, kutsatutako lurrak berreskuratuz, hirihondakinak eta industriakoak gutxitu eta birziklatuz, eta naturguneak eta babestutako eremuak gero eta gehiago izatea lortuz, urtero-urtero, orain dela gutxi egin dugun bezala, helburu horietako bakoitzean nola gabiltzan gizarteari jakinarazteari batere beldurrik izan gabe, gure egoera gizartearen aurrean neurtzeko batere beldurrik izan gabe.

Y el tercer eje: un proyecto para abrirnos al mundo. El tercer gran eje de la actuación del Gobierno será proyectar una imagen positiva de Euskadi en la esfera internacional. Aceptar lo universal y aportar lo propio: ésa debe ser nuestra misión como país en un mundo cada vez más interrelacionado y globalizado. Por eso, vamos a hacer de Euskadi un país más abierto al mundo, que potencie sus relaciones internas con los territorios y comunidades vascas situadas a ambos lados de la frontera, que incremente nuestra presencia activa en Europa y el mundo, y que aumente su compromiso de solidaridad con los pueblos más desfavorecidos.

¿Cómo? Mediante el desarrollo de una eurorregión europea. Con este objetivo, impulsaremos los vínculos históricos, culturales, lingüísticos, económicos y sociales con la Comunidad Foral de Navarra y Aquitania, al objeto de desarrollar una eurorregión vasca transfronteriza que defienda nuestros intereses comunes en el eje atlántico europeo.

Potenciando nuestra presencia en Europa. Para ello, vamos a participar con más asiduidad en las instituciones de la Unión y en los foros de decisión comunitaria. Intensificaremos las relaciones bilaterales con otras regiones y pueblos europeos. Reforzaremos nuestra representación en los foros interregionales europeos e incrementaremos nuestra presencia activa en la Comisión del Arco Atlántico; potenciaremos la posición estratégica de Euskadi en este fundamental corredor europeo.

Reforzando nuestra presencia internacional y estrechando los lazos con las comunidades vascas en el exterior. Vamos a potenciar las delegaciones oficiales de Euskadi existentes actualmente en el exterior y continuaremos abriendo otras delegaciones, concretamente en aquellos países y zonas geográficas prioritarias para apoyar la internacionalización de nuestras empresas y reforzar nuestra presencia política e institucional.

Asimismo, la proyección exterior de la cultura vasca en toda su amplitud como un símbolo de nuestra identidad en el mundo se verá impulsada mediante la puesta en marcha del Instituto Euskadi; dicho instituto constituirá un nuevo instrumento esencial para estrechar las relaciones culturales con aquellas zonas y

ko, bereziki Europan eta euskal gizataldeak eta euskal etxeak dauden herrialdeetan.

países con los que Euskadi ha estado vinculado históricamente, especialmente en Europa y en las zonas en las que están asentadas las colectividades y centros vascos.

Ildo horretatik, atzerrian bizi diren euskal herritarrekiko harremanak sendotzen jarraituko dugu, eta horretarako, elkartrukeko eta gazteek Euskadin ikasteko programak abiarazi, politikoki euskal herritarrak izan eta arazoak dituzten pertsonei laguntzeko moduak ezarri eta euskal emigrazioaren museoa ere sortuko dugu.

En esta línea, vamos a seguir estrechando nuestros lazos con los vascos en el exterior, y, al efecto, estableceremos e impulsaremos programas de intercambio y la formación de jóvenes en Euskadi, la asistencia a personas con dificultades que residan en el exterior y que dispongan de la condición política de vascos, y crearemos también el museo de la emigración vasca.

Munduan gutxien garatuta dauden herrialde eta eskualdeekiko elkartasuna areagotuz. Gure nortasunaren ezaugarri bereizgarrietako bat elkartasuna da. Euskal Herriak egunen batean solidario izateari uzten baldin badio, nortasun unibertsala duen herria izateari ere utziko dio. Eta, beraz, gure nortasunaren ezaugarri horrekiko koherentziaz, garapenaren aldeko elkarlanean aurrera daramagun politika sendotuko dugu, Nazio Batuen Milurtekorako Adierazpenean jasotako helburuekin bat. Horretarako, kooperazioko lege bat eta lau urteko kooperazioko plan zuzentzaile bat igorriko ditugu Legebiltzarrera, komunitate txiroenetan bizi direnekin, gatazka-guneetan bizi direnekin eta estaturik izan ez eta giza eskubideak urratuta dituzten herriekin euskaldunok dugun elkartasuna sendotzeko; gure jardunean generoaren ikuspegia erabili, laguntzen eraginkortasuna bermatu, proiektuak irabazteko asmorik gabekoak izatea ziurtatu eta gobernuz kanpoko erakundeekin koordinaturik aritzea bultzatuko dugu.

Profundizando en la solidaridad con los países y zonas menos desarrolladas de la tierra. Una de nuestras señas de identidad es la solidaridad. Si el País Vasco deja algún día de ser solidario, dejará de ser un pueblo con identidad universal. Y, por lo tanto, en coherencia con este rasgo de nuestra identidad, vamos a reforzar nuestra política de cooperación al desarrollo, de conformidad con los objetivos de la Declaración del Milenio de las Naciones Unidas. Para ello, vamos a remitir al Parlamento una ley de cooperación y a poner en marcha un plan director de cooperación cuatrienal sobre la base de reforzar la cooperación vasca en las comunidades de mayor pobreza, en zonas de conflicto y en pueblos sin estado que sufren la agresión a los derechos humanos, introduciendo el enfoque de género, garantizando la eficacia de las ayudas y la ausencia de lucro de los proyectos, y reforzando la coordinación con las organizaciones no gubernamentales.

Azken batean, orain arte aipatu ditudanak dira, laburbilduz, Jaurlaritzak aurrera eramango duen kudeaketaren ezaugarri nagusietako batzuk. Horren inguruan, berriki lortutako koalizio-akordioan esaten dena ikus dezazuen eskatzen dizuet, bertan berrehun konpromiso baino gehiago aipatzen baitira, eta konpromiso horiek baitira Euskadiko gizartearekin legealdi honetarako kudeaketa-arlo guztietarako *izenpetu* dugun kontratuaren muina.

En definitiva, los mencionados hasta ahora serán algunos de los rasgos principales que van a enmarcar la gestión del Gobierno. A estos efectos, me gustaría remitirles al propio acuerdo de coalición recientemente alcanzado, en el que se recogen más de doscientos compromisos programáticos que constituyen el núcleo de nuestro contrato social con Euskadi para la presente legislatura en las diferentes áreas de gestión.

Jarraian, nire hitzaldiaren bigarren zatia garatzeari ekingo diot, alegia, koalizioak lehentasunezko beste bi konpromisori zer-nolako erantzuna emango dien azaltzeari. Hauek dira beste bi konpromiso horiek: bakea eta normalizazio politikoa.

A continuación paso a desarrollar la segunda parte de mi intervención, referente a la respuesta que desde la coalición vamos a dar a los otros dos compromisos prioritarios: la paz y la normalización política.

Segunda parte: una legisltaura para la paz y la normalización política.

Bigarren zatia: bakea eta normalizazio politikoa lortzeko legealdia.

Una mirada retrospectiva nos confirma que hemos abierto ventanas para la esperanza. Prácticamente han transcurrido cuatro años desde que el 11 de julio de 2001, en la sesión de investidura que daba inicio a la legislatura anterior, me comprometí ante la sociedad vasca a abrir una puerta a la esperanza. Partíamos entonces de una situación complicada y llena de dificultades.

Atzera begiratzen baldin badugu, itxaropenari leihoak zabaldu dizkiogula ikusiko dugu. la lau urte igaro dira 2001eko uztailaren 11n, aurreko legealdiari hasiera eman zion inbestidurako saioan, itxaropenaren ate bat irekitzeko konpromisoa hartu nuenetik. Abiapuntua konplexua zen une hartan, eta zailtasunez beteta zegoen.

Nos enfrentábamos a un dramático escenario de violencia, provocado por la ruptura de la tregua de ETA. Acabábamos de ver cómo se había frustrado de

Aurrez aurre geneukan eszenatokia indarkeriazkoa zen, dramatikoa, ETAk su-etena hautsita baitzuen ordurako. Beste behin ere ikusten genuen bakea lor-

nuevo una oportunidad para la paz. Se rechazaba todo tipo de diálogo y se negaba cualquier debate para la normalización política. El Partido Popular y el Partido Socialista se atrincheraban en el fundamentalismo constitucional y en la inmutabilidad del modelo territorial del Estado, se oponían a cualquier modificación del Estatuto de Gernika, y además, a iniciativa socialista, se ponía en marcha un pacto de hierro con el Partido Popular que derivaba posteriormente en una ley de partidos destinada a excluir políticamente a una parte de la sociedad vasca en las instituciones.

tzeko aukerak ihes egin zigula. Era guztietako elkarrizketa-bideak baztertu egin ziren eta ez zen onartzen inolako eztabaidarik normalizazio politikoa lortzeko. Alderdi Popularra eta Espainiako Alderdi Sozialista fundamentalismo konstituzionalaren lubakian sartu eta ez zuten inolako aldaketarik onartu nahi Estatuaren lurralde-antolaketarako ereduan; Gernikako Estatutuan inolako aldaketarik egitea onartu ez, eta, gainera, sozialisten ekimenez, burdinazko hitzarmen bat sinatu zuten PP alderdiarekin; horren ostean alderdi politikoen legea etorri zen, euskal gizartearen zati bat politikoki erakundeetatik kanpora uzteko asmoa zuen legea.

Hoy, afortunadamente, iniciamos una nueva legislatura con un escenario bien distinto al que se vislumbraba desde esta tribuna en mi anterior debate de investidura. En la sociedad vasca vuelven a soplar vientos de esperanza, es innegable. Estamos consiguiendo crear e incluso compartir espacios donde antes sólo había rechazo y enfrentamiento político. A este respecto yo destacaría el avance que hemos conseguido en estos últimos cuatro años en relación con ocho espacios que, en mi opinión, representan otras tantas ventanas abiertas a la esperanza, y que citaré a continuación.

Gaur, ordea, eta zorionez, hastera doan legealdi honetan dugun eszenatokiak ez du zerikusirik aurreko inbestidurako eztabaidan mintzaleku honetatik ikusten zenarekin. Euskal gizartean berriz ere itxaropenzantzuak ageri dira. Lehen bazterkeria eta iskanbila politikoa zegoen lekuetan, elkarrekin aritzeko esparruak egotea lortzen ari gara. Alde horretatik, azken lau urteotan izandako aurrerapauso batzuk aipatu nahi nituzke, batez ere zortzi esparru komun behintzat lortu direla uste baitut; esparru horiek itxaropen eske dauden zortzi leiho ireki direla esango nuke. Banan-banan aipatuko ditut jarraian.

Primer espacio: diferenciar normalización política y proceso de paz.

Lehenengo esparrua: normalizazio politikoa eta bakegintza bereiztea.

La primera decisión que adopté al comienzo de la pasada legislatura fue plantear un pleno monográfico sobre pacificación y normalización, cuyo objetivo fundamental (se celebró en septiembre del año 2001), y cito textualmente, era doble: "Por un lado, compartir la defensa de los derechos humanos y las libertades frente a la violencia, y por otro diferenciar claramente la violencia del problema de normalización política, cuya existencia es preciso reconocer y abordar mediante el diálogo político".

Aurreko legealdiaren hasieran hartu nuen lehenengo erabakia bakegintza eta normalizazioari buruzko osoko bilkura monografiko baterako deia egitea izan zen, eta 2001eko irailean egin zen osoko bilkura haren helburua, eta hitzez hitz aipatuko dut, bikoitza izan zen: "Batetik, giza eskubideen eta askatasunaren alde elkarrekin aritzea, indarkeriari aurre egiteko, eta, bestetik, argi eta garbi bereiztea indarkeria eta normalizazio politikoaren arazoa; azken arazo hori hor dago eta elkarrizketa politikoaren bidez konpondu behar da".

Por primera vez se ponía encima de la mesa la necesidad de diferenciar y abordar por separado el final de la violencia y el proceso de normalización política, lo cual exigía interlocutores, instrumentos, métodos, contenidos y procesos diferentes.

Lehenbiziko aldiz jarri zen mahai gainean bereizi egin behar zirela, eta bakoitza bere aldetik aztertu, indarkeriaren amaiera eta normalizazio politikorako prozesua, eta horrek ondorengoak eskatzen zituela: solaskide, tresna, metodo, eduki eta prozesu ezberdinak.

Esta diferenciación constituye en la actualidad un espacio común que podemos compartir la mayoría de las fuerzas políticas. La aceptación del principio de que sólo corresponde a los representantes de la voluntad popular abordar los problemas políticos de normalización de la sociedad vasca es una base de partida fundamental para afrontar la resolución de nuestros problemas de convivencia.

Bereizketa hori gaur egun alderdi politiko gehienok onartzen dugun esparru komun bat da. Ondorengo printzipioa onartzea, hau da, herritarren borondatea ordezkatzen dutenei bakarrik dagokiela euskal gizartea normalizatzearekin zerikusia duten arazo politikoez arduratzea, oinarrizko abiapuntua da elkarbizitzarako ditugun arazoak konpontzen hasteko.

Segundo espacio: diálogo y respeto al debate.

Bigarrena: elkarrizketa eta eztabaida errespetatzea.

Afortunadamente, iniciamos la presente legislatura con un espacio común imprescindible en democracia, especialmente en sociedades como la nuestra. Me refiero a la aceptación del diálogo político entre

Zorionez, legealdi honen hasieran demokrazian ezinbestekoa den esparru komun bat dugu, batez ere gurea bezalako gizarteen kasuan. Zertaz ari naizen? Alderdien arteko elkarrizketa politikoa onartu eta Eus-

los partidos y la apertura del diálogo institucional entre el Gobierno Vasco y el Gobierno español. El diálogo como sinónimo de democracia, de defensa de las ideas propias, desde la comprensión de las razones del otro. Y, en ese sentido, realmente creo, creemos que soplan vientos favorables al diálogo hoy, como método de resolución de conflictos, que no soplaban hace cuatro años.

Hoy nadie niega el diálogo, y se acepta con naturalidad el debate abierto sobre los diferentes proyectos políticos existentes; en definitiva, sobre las distintas maneras que cada cual tenemos de plantear las soluciones.

La sociedad vasca ha dicho claramente que no acepta el inmovilismo y el bloqueo, y todos nos hemos situado en clave de respuestas. Tenemos que dar respuestas. Todos hemos aprendido, por tanto, a resituarnos y a presentar propuestas, e iremos aprendiendo también a debatir sobre ideas y proyectos, desde el respeto mutuo y con vocación de acuerdo. No tengo ninguna duda.

Tercero: derechos humanos y vías políticas y democráticas.

La defensa de los derechos humanos ha constituido un principio que, siendo compartido, ha generado en muchas ocasiones dudas sobre su interpretación y materialización práctica por parte de las fuerzas políticas. Creo sinceramente que en estos cuatro años todos hemos avanzado en la pedagogía social y hemos consolidado definitivamente la necesidad de asumir que no pueden existir espacios opacos en la defensa de los derechos humanos. Todos los derechos humanos para todas las personas. Este es el cauce central en el que milita en su gran mayoría la sociedad vasca.

Por otro lado, la apuesta por vías única y exclusivamente políticas y democráticas para la resolución de los conflictos ha dejado de ser, creo, una mera declaración retórica sin compromisos, porque entre otras cosas es la propia sociedad la que exige que este principio se materialice en el rechazo a la utilización de la violencia como instrumento de acción política.

Cuarto espacio: pluralidad democrática y no-exclusión.

La aceptación de la pluralidad democrática de la sociedad vasca y el reconocimiento de su diversidad política son factores fundamentales para la normalización y la convivencia. La representación institucional de las diferentes sensibilidades existentes en nuestra sociedad es un elemento que contribuye poderosamente en la dirección de la búsqueda de soluciones a través del diálogo.

La sociedad vasca ha demostrado que no está dispuesta a aceptar la exclusión política por decisiones ajenas a su voluntad democrática, y este Parlamento es una prueba palpable de que este principio de integración democrática debe constituir un espacio com-

ko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarrizketa instituzionala hasteaz ari naiz. Elkarrizketa demokraziaren sinonimoa da, norberaren ideiak defendatzea, baina besteak dituen arazoak ulertuta. Bene-benetan uste dut gatazka gainditzeko modurik egokiena elkarrizketa dela dioen ideia gero eta indar handiagoa ari dela hartzen, duela lau urte ez bezala.

Gaur egun inork ere ez du ukatzen elkarrizketa, eta naturaltasunez onartzen da dauden egitasmo politikoei buruz eztabaidatzea, azken finean bakoitzak irtenbideak proposatzeko dituen moduez eztabaidatzea.

Euskal gizarteak garbi esan du ez dituela immobilismoa eta blokeoa onartzen, gure kokalekua irtenbideen kokalekua izan da. Irtenbideak eman behar ditugu. Denok ikasi dugu, beraz, birkokatzen eta proposamenak aurkezten, eta ideia eta proiektuei buruz eztabaidatzen ere ikasiko dugu, elkar errespetatuta eta akordioetara iristeko bokazioa izanda. Ez dut zalantza izpirik ere.

Hirugarrena: giza eskubideak eta bide politiko eta demokratikoak.

Giza eskubideak defendatzea denok onartzen dugun printzipioa izan da, baina askotan zalantzak sortu izan dira alderdi politikoetan, gai hori interpretatu eta praktikan gauzatzeko orduan. Benetan uste dut azken lau urteetan guztiok egin dugula aurrera pedagogia sozialaren arloan, eta behin betiko aitortu dugula giza eskubideak defendatzeari dagokionez ezin dela gune lausorik egon. Giza eskubide guztiak pertsona guztientzat. Hori da euskal gizartearen gehiengo handi batek jarraitu nahi duen erdigunea.

Bestalde, gatazkak konpontzeko soil-soilik bide politiko eta demokratikoak erabiltzearen aldeko apustua egin behar dela aitortzea dagoeneko ez da inolako konpromisorik eskatzen ez duen adierazpen erretoriko hutsa; izan ere, gizartea bera da ekintza politikoko tresna gisa indarkeriarik ez erabiltzeko eskatzen ari dena.

Laugarrena: aniztasun demokratikoa eta bazterkeriarik eza.

Euskal gizartea demokratikoki anitza dela onartzea eta politikoki askotarikoa dugula aitortzea ezinbesteko pausoak dira normalizazioa eta elkarbizitza lortu ahal izateko. Gure gizartean diren sentsibilitate guztiek erakundeetan ordezkaritza izateak asko laguntzen du elkarrizketaren bidez irtenbideen bila jo ahal izateko.

Euskal gizarteak erakutsi du ez dagoela gertu gizarte honen borondate demokratikoaz kanpoko erabakiek eragindako bazterkeria politikorik onartzeko. Legebiltzar honetan garbi asko ikus dezakegu integrazio demokratikoaren printzipio horrek elkarbanatutako

partido si de verdad queremos avanzar en la normalización política.

Quinto: la aceptación del debate sobre el modelo territorial del Estado.

La aceptación del debate sobre el modelo de Estado afortunadamente ya no es un tema tabú, que suscite arengas militares y defensas encendidas de una interpretación cerrada y unilateral de la Constitución, salvo excepciones.

Cuando hace cuatro años planteamos desde Euskadi la necesidad de abordar una reflexión sobre la actualización estatutaria y el desarrollo de un verdadero estado plurinacional que reconozca las identidades de los pueblos y naciones que conviven en su seno, se desataron todo tipo de amenazas y descalificaciones. Hoy prácticamente todas las comunidades, estén gobernadas por el Partido Popular o por el Partido Socialista, han iniciado su propio camino para la actualización o renovación de su pacto estatutario, sin dramatismos.

Ahora me pregunto: ¿por qué a nosotros se nos ha negado este derecho, cuando simplemente hemos planteado un debate legítimo y democrático, bajo el punto de vista del propio Constitucional, que ha sido posteriormente seguido por los demás?

Sexto: nuevo marco de relación entre Euskadi y el Estado.

A lo largo de los últimos cuatro años esta Cámara ha sido escenario de un proceso de debate sobre un nuevo marco de relación con el Estado que culminó el pasado 30 de diciembre con la aprobación de la propuesta de un nuevo Estatuto político por mayoría absoluta aquí, en este Parlamento. Es evidente que podemos no coincidir en el alcance y contenidos de la propuesta, pero lo que es innegable es que hoy todos, a excepción del Partido Popular, coincidimos en la necesidad y oportunidad de establecer un nuevo marco de relación política entre Euskadi y el Estado. Con unos matices o con otros, pero todos coincidimos en esta Cámara, salvo el Partido Popular, y esto en sí mismo es una nueva ventana a la esperanza.

En séptimo lugar, el derecho a decidir.

Posiblemente sea este el espacio en el que tengamos más necesidad de profundizar en el dialogo para la búsqueda de un acuerdo de normalización política. De hecho, constituye el núcleo fundamental del proceso de normalización política pendiente, a nuestro juicio, y es tan respetable como el que opina que no es así. En todo caso, iniciamos la legislatura utilizando con cierta naturalidad conceptos tales como *derecho a decidir*, *libre adhesión*, *aceptación de la voluntad de la sociedad vasca*, e incluso me atrevería a afirmar que nadie en esta Cámara niega, al menos explícitamente, el derecho a decidir de la sociedad vasca. Si lo niega, está a tiempo de trasladarlo en el debate que

esparru bat izan behar duela, baldin eta benetan normalizazio politikoaren bidetik aurrera egin nahi badugu.

Bosgarrena: Estatuaren lurralde-ereduari buruzko eztabaida onartzea.

Estatu-ereduari buruzko eztabaida onartzea dagoeneko ez da gai ukiezina, militarren erako hitzaldi beroak eta defentsa sutsuak sortzen dituena, Konstituzioaren interpretazio estu eta alde bakarrekoaren eraginez.

Orain dela lau urte, Estatutua eguneratzeari eta nazio anitzek benetako estatua garatzeari buruzko gogoetari ekitea premiazkoa zela proposatu genuenean Euskaditik, Estatuaren baitan zeuden herri eta nazioen identitatea aitortuta, era guztietako mehatxu eta deskalifikazioak entzun behar izan genituen. Gaur, ordea, ia erkidego guztiak, Alderdi Popularraren eskuetan egon zein Espainiako Alderdi Sozialistaren ardurapekoak izan, estatutu-hitzarmenak eguneratu edo berritzeko lanetan hasita daude, dramatismorik gabe.

Eta horra nire galdera: zergatik ukatu ote digute guri eskubide hori, eztabaida legitimo eta demokratikoa baino proposatu ez baldin badugu, eta hain justu ere gero gainontzekoek bide beretik jarraitu badute?

Seigarrena: Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanetarako esparru berria.

Azkeneko lau urteetan zehar Ganbera honetan eztabaidan jardun dugu Estatuarekiko harremanetarako esparru berria sortzeari buruz. Prozesu hori joan zen abenduaren 30ean amaitu zen, Eusko Legebiltzarraren gehiengo osoak Estatutu Politikorako Proposamen Berria onartu zuenean. Bistan da ez garela bat etorriko proposamenaren zenbaterainokoa eta edukia zehazterakoan, baina, zalantzarik gabe, denok, Alderdi Popularra izan ezik, bat gatoz Euskadiren eta Espainiako Estatuaren artean harreman politikoetarako beste esparru bat zehaztu behar dela eta hori egiteko une egokia dela aitortzean. Eta hori ere, besterik gabe, itxaropenari irekitako beste leiho bat da.

Zazpigarrena: erabakitzeko eskubidea.

Seguru asko hau da gehien sakondu beharra dugun esparrua normalizazio politikorako akordio bat bilatzeko bidean. Berez, oraindik ere lortzeke dugun normalizazio politikoko prozesuaren funtsa da, eta hala ez dela pentsatzen duenarena bezain errespetagarria da. Dena dela, legealdi honen hasieran nahikoa modu naturalean ari gara erabiltzen kontzeptuok: *erabakitzeko eskubidea*, *atxikipen askea*, *euskal gizartearen borondatearen onarpena*. Eta ez hori bakarrik, gehiago ere esango nuke: Ganbera honetako inork ez du ukatzen, argi eta garbi behintzat, euskal gizarteak erabakitzeko eskubidea duela. Eta ukatzen badu, gaurko eztabaidan planteatzeko garaiz dabil. Elkar

hoy tenemos. También es un comienzo para el entendimiento.

¿Y el octavo? La octava ventana es que hay una nueva esperanza de paz.

En este nuevo escenario destacaría el hecho de que la sociedad vasca, en su conjunto, comenzamos a percibir la paz como una esperanza posible. ¿Por qué? Porque tenemos determinados elementos nos lo apuntan: el largo periodo sin atentados mortales que estamos viviendo; la reciente resolución del Congreso de los Diputados, abriendo la puerta a un posible final dialogado de la violencia; una relación más civilizada entre el Gobierno español y el Gobierno Vasco y con el presidente del Gobierno español, y la reciente declaración de ETA comprometiéndose a no atentar contra cargos electos, son en sí mismos pasos consecutivos que se pueden juzgar en términos más o menos positivos, pero en una misma dirección, que nos hacen albergar de nuevo un horizonte de esperanza.

Bakea eta adiskidetzea, amets. Abagune historikoa dugu aurrean. Erabat ziur gaude datorren legealdian abagune ezin hobea izango dugula, aukera paregabea, bakea lortzeko, guztiok dugun ametsa egia bihur dadin. ETAk ulertu behar du indarkeriak, terrorismoak ez duela ezertarako balio, hutsaltasun ikaragarria dakarrela, eta argi eta garbi erakutsi behar du indarkeria husteko prest dagoela behin betiko.

Ildo horretatik, hautetsien aurkako erasorik ez egiteko erabakiaren berri emanez ETAk kaleratu berri duen adierazpena, bide horretan egindako lehendabiziko urrats positiboa da, nahikoa ez den arren, eta nahi eta nahi ez beste urrats batzuk ere joan beharko dira horien atzetik, gure bizitzatik indarkeria erabat eta betiko kendu arte, eta mehatxurik edo jazarpenik jasan behar duen pertsonarik ez egotea lortu arte.

Aurrean dugun egokiera hau baliatu behar dugu, elkarrizketaren bidez indarkeriari irtenbidea aurkitu ahal izateko; beharbada, azken aukera izan litekeelako, giza eskubideak urratuta ikusita bizi guztian inguruan sufrimendua ezagutu duen belaunaldi oso batentzat. Mina, min handia, sufrimendu handia, handiegia, herri batentzat. Bakea eskatzen dugu. Bakea merezi dugu. Gure ametsak egia bihurtzeko eskubidea dugu. Bakea da gure gizarteak duen premia behinena. Lan egingo dugu tinko, ahalegin guztiak eginda, bakearen alde. Lan egingo dugu ausardiaz, inor baztertu gabe, eta guztiei dei eginda, denon helburu hori lortzeko.

Bizitza eta giza eskubideak errespetatzea, abiapuntua. Gizakiaren bizitzaren aurkako erasoa, bestelako pentsamoldea duena hiltzea, hertsatzea edo torturatzea, hori dena, gizateriaren aurkako krimena da, eta horrek ez dauka inola ere tokirik inongo gizartetan. Bizitza eta giza eskubideak errespetatzea, horrexek izan behar du beti abiapuntu edozein bake-prozesutan. Era berean, indarkeriaren eta terrorismoaren aurkako borrokan ere ezin da inoiz bidezidorrik eta lasterbiderik erabili. Indarkeriaren itzaletan, indarkeria aitzakiatzat

ulertzen hasteko beste modu bat da.

Eta zortzigarrena? Zortzigarren leihoa da bakea izateko beste itxaropen bat dagoela.

Eszenatoki berri honetan nabarmenduko nuke euskal gizarteak, osotasunean hartuta, bete daitekeen itxaropen moduan ikusten duela bakea. Zergatik? Hainbat elementuk horixe adierazten dutelako: heriotzak eragin dituzten atentaturik gabe denbora luzea igaro da; Diputatuen Kongresuak indarkeria elkarrizketaren bidetik amaitzen saiatzeko ebazpena onartu berri du; Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean eta Espainiako Gobernuko presidentearekin modu zibilizatuagoan hitz egin daiteke; eta hautetsien kontra atentaturik ez duela egingo adierazi berri du ETAk. Badirudi, beraz, norabide berean doazen urratsak ageri direla bata bestearen atzetik, eta, horrenbestez, ortzi-mugan itxaropena ageri dela esan dezakegu.

El sueño de la paz y de la reconciliación. Estamos ante una oportunidad histórica. Estamos convencidos de que en esta próxima legislatura se nos va a presentar una oportunidad inmejorable, una oportunidad única, para hacer realidad el sueño de la paz. ETA debe comprender la terrible inutilidad de la violencia y el terrorismo y dar muestras inequívocas de su disposición a abandonar definitivamente las armas.

A este respecto, la reciente declaración de ETA manifestando su decisión de no atentar contra cargos electos es un primer paso positivo, aunque insuficiente, en esta dirección, que deberá ser seguido necesariamente de otros hasta que desaparezca definitivamente la violencia de nuestras vidas y ninguna persona esté amenazada o perseguida.

Tenemos que aprovechar esta nueva oportunidad que se nos presenta para buscar una salida dialogada a la violencia; porque quizá sea la última para toda una generación que ha conocido a lo largo de su vida el sufrimiento provocado por la conculcación de los derechos humanos. Dolor, mucho dolor, demasiado sufrimiento para un pueblo. Reivindicamos la paz. Nos merecemos la paz. Tenemos derecho a hacer realidad nuestros sueños. La paz es la gran prioridad de nuestra sociedad. Vamos a trabajar con todas nuestras fuerzas a favor de la paz. Trabajaremos con valentía, sin exclusiones y emplazando a todos para el logro de este objetivo común.

El respeto a la vida y a los derechos humanos, el punto de partida. Atentar contra la vida humana, asesinar, extorsionar o torturar a quien piensa de forma diferente, es un crimen contra la humanidad que no tiene cabida en ninguna sociedad. El respeto a la vida y a los derechos humanos tiene que ser el punto de partida de cualquier proceso de paz. De la misma forma, la lucha contra la violencia y el terrorismo tampoco puede tener atajos. No se puede utilizar la coartada de la violencia, no se puede imponer el recorte

hartuta, ezin dira herritarren eskubide zibil eta politikoak murriztu, edo ezin dira atxilotutakoen eta beren senideen eskubideak urratu.

Euskal gizarteak sakon barneratuta dauka eskubideen printzipioa erabat defenditu behar dela, giza eskubide guzti-guztiak errespetatu behar direla salbuespenik gabe, eta pertsona guztien eskubideak, inor baztertu gabe, benetan elkarbizitzarako oinarri sendoak ezarri nahi baditugu. Horrexegatik, behar-beharrezkoa da gizaki guzti-guztien giza eskubide guzti-guztiak errespetatzea; horrexek izan behar du guztiontzat funtsezko eta oinarrizko konpromiso etikoa, eta horrexek zuzendu behar du herri-agintari eta indar politiko guztien jarduna.

Biktimen oinazea aitortzea. Biktima gehiago ez egotea: horixe da bake-prozesu guztietan helburu nagusia, lehentasunik handiena duena; min gehiago ez egotea, sufrimendu gehiago ez egotea. Heriotza bat izaten den bakoitzean, guztiok egiten dugu huts. Bakea, baina, ezin da eraiki indarkeriaren atzaparkadaren samina beren haragietan jasan duten herritarrak ahaztuta.

Euskal herritarrok bide luzea ibili dugu, eta nabarmen egin dugu aurrera indarkeriaren biktimei elkartasuna erakusteko orduan; gainera, segurtasun-neurriak aplikatzen ere lagundu dugu, eta biktima gehiago egon ez dadin beharrezko diren ekimen politiko guztiak bultzatu ditugu. Jakitun gara biktimak aintzakotzat hartzea funtsezkoa dela bake-bide horretan, eta herri-agintarioi dagokigula garatu beharreko neurri eta ekimen guztiak garatzea, eurekiko elkartasuna erakusteko eta aitormen etiko, moral eta materiala burutzeko, biktimak oroimenean izanda, etorkizunean, hurrengo belaunaldietan, inork ez dezan inoiz indarkeriaren ankerkeria ezertarako erabil.

Indarkeria elkarrizketaren bidez amaitu nahian. Iragan maiatzaren 30ean bi urte bete dira ETAk Zangotzan heriotza eragin zuen azken erasoa burutu zuenetik. Trantsizio demokratikotik hona euskal gizarteak eta Espainiakoak ETAren heriotzarik gabe igarotako denbora-tarterik luzeena. Poztu egin behar dugu horregatik, nahiz eta jakin zenbaitetan halabeharrak eta poliziaren jardunak eragotzi dutela ezbehar gehiago izatea.

Dena dela, egoera hori izanda, alderdi politiko gehienok, joan den maiatzaren 13an Espainiako Gorteetan onartutako ebazpenean, elkarrizketaren bidez indarkeriari amaiera emateko prozesua bultzatzeko prest gaudela erakutsi dugu. Horretarako, ETAk argi eta garbi adierazi behar du indarkeria uzteko prest dagoela, eta, herriak halaxe aukeratuta, herritarren ordezkari direnen esku utzi behar du zeregin politikoa, bide baketsu eta demokratikoak erabilita, arazo politikoak konpon ditzaten.

Egia da, bai, nahiz eta behin baino gehiagotan ahalegindu garen ez dugula indarkeriarik gabeko erabateko eszenatokirik lortu orain arte. Baina ezin dugu

de derechos civiles y políticos, ni se puede practicar la conculcación de los derechos de las personas detenidas y sus familiares.

La sociedad vasca ha interiorizado profundamente que es preciso defender completamente el principio de los derechos, que hay que respetar todos los derechos humanos sin excepción, y los derechos de todas las personas, sin exclusiones, si de verdad queremos sentar unas bases sólidas para la convivencia. Por ello, es realmente necesario respetar todos los derechos de todas las personas; ése debe ser el fundamento y el compromiso ético para todos, y debe ser la orientación de la actuación de todos los poderes públicos y fuerzas políticas.

Reconocimiento del dolor de las víctimas. Que no haya más víctimas: ése es el objetivo principal de todo proceso de paz, la prioridad fundamental; que no se genere más dolor, que no se genere más sufrimiento. Cada vez que hay una muerte se produce un fracaso colectivo. Pero no se puede construir la paz desde el olvido a quienes han sufrido en su propia carne el zarpazo de la violencia.

Los ciudadanos y ciudadanas vascas hemos recorrido un largo camino y hemos avanzado notablemente en lo concerniente a la muestra de solidaridad a las víctimas de la violencia; además, hemos apoyado la aplicación de las medidas de seguridad y hemos impulsado las iniciativas políticas que sean precisas para evitar nuevas víctimas. Somos conscientes de que las víctimas son parte esencial en el camino de la pacificación, y de que nos corresponde a los poderes públicos desarrollar todas las medidas e iniciativas de solidaridad y de reconocimiento ético, moral y material para que, en el futuro, la memoria de las víctimas contribuya a que las próximas generaciones no vuelvan a recurrir a la barbarie de la violencia nunca más.

Apoyo al final dialogado de la violencia. El pasado 30 de mayo se cumplieron dos años del último atentado mortal perpetrado por ETA en Sangüesa. El período más largo sin muertes de ETA que ha vivido la sociedad vasca y española desde la transición democrática. Debemos felicitarnos por ello, aunque somos conscientes de que, en ocasiones, la suerte y la actuación policial hayan impedido más desgracias.

En cualquier caso, en este escenario, la mayoría de los partidos políticos, en la resolución aprobada en las Cortes españolas el pasado día 13 de mayo, hemos mostrado nuestra disposición a apoyar un proceso que desemboque en un final dialogado de la violencia. Para ello, ETA debe manifestar inequívocamente su disposición a abandonar la violencia, y dejar en manos de los representantes de la voluntad popular la resolución de los problemas políticos, por vías pacíficas y democráticas.

Es cierto que, a pesar de haberlo intentado en varias ocasiones, no hemos conseguido alcanzar un escenario definitivo sin violencia. Pero no podemos ce-

etsi; ezin dugu amore eman. Bakea lortzea, horixe da gure jomuga. Bakea da-eta egin dezakegun inbertsiorik onena; bai indarkeria jasaten duenarentzat, bai indarkeriaz jokatzen duenarentzat ere.

Giza eskubideak errespetatuko dituen kartzela-politika. Atxilotutako pertsonek, baita delitu izugarriak egin dituztelakoan akusatuta daudenek ere, pertsona diren aldetik dagozkien eskubideak dituzte, eta herri-agintarioi dagokigu beren duintasuna errespetatuko dela zaintzea, eta tratu txarrei eta torturei aurrea hartzea.

Ildo horretatik, gure ardurapeko esparruan, Eusko Jaurlaritzak aztertu eta hobetu egingo ditu atxilotutako pertsonentzako laguntza- eta arreta-protokoloak, batez ere salbuespen gisa inkomunikazio-erregimenen bati lotuta dauden pertsonei begira; erregimen hori bakar-bakarrik aurretiaz ebazpen judiziala tartean egonda aplikatuko da, eta ez modu sistematikoan; egoera horretan zehatz-mehatz eta zorrotz aplikatuko da inkomunikazio-erregimenean dauden pertsonen eskubideak babesteko protokoloa, betiere torturaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioan jasotako neurrien arabera.

Pertsona guzti-guztien giza eskubideak defenditzeko orduan herri-agintari guztiok izan behar dugun konpromiso etikoa oinarri hartuta, euskal preso guzti-guztiak Euskadira hurbil daitezen eskatuz Eusko Legebiltzarrak behin eta berriz egin dituen eskariak eta eman dituen ebazpenak aintzakotzat har ditzan eskatu nahi diot Espainiako Gobernuko presidenteari. Ildo horretatik, Espainiako Gobernuari adore eman nahi diogu distentsio- eta humanizazio-eszenatoki bat sortzeko lan egin dezan, eta hartu beharreko neurri guztiak kemenez har ditzan, bake-prozesua atzera-bueltarik gabekoa izan dadin. Uste dut beharrezkoa dela beste jokabide bat garatu beharra dagoela aldarrikatzea; giza eskubideak errespetatu eta indarkeria betiko amaitzeko bidea bultzatuko duen jokabidea, kartzela-politikan jokabide adostua, dinamikoa eta malgua garatu beharra dago eta.

Elkarrekin adiskidetzeko bidean abiatu behar dugu. Indarkeria betiko amaitzea, emandako mina eta jasandako atsekabea aitortzea, humanizatzea, justizia, egia, oroimena, eskuzabaltasuna… Urrats horiek guztiak dira beharrezko, adiskidetze-bidean barrena abiatzeko eta ibiltzeko.

Gure herria adiskidetzeak bere baitan hartzen ditu, bai, bakegintza eta normalizazioa, baina normalizazioa eta baketzea bera baino haratago doa. Herriak, indarkeriarik ez izan arren, baita politikoki normalizatua izanda ere, ez duelako nahi eta nahi ez adiskidetutako herria zertan izan. Horretarako, galdutako konfiantza berreskuratu beharko dugu berriz, era horretara gure gizartean guztiongandik sor daitezen autokritika egiteko espiritua, barkamena eskatzeko apaltasuna eta barkatzeko eskuzabaltasuna. Behar-beharrezkoa da, gizalegeak hala aginduta, elkarrekin batera lan egitea, guztion artean sufrimendua senda dezagun, eta adiskidetze-bidean bidaide izan gaitezen, horixe da-eta guz-

jar en el empeño; no podemos darnos por vencidos. Lograr la paz, ése es el objetivo. Porque la paz es la mejor inversión que podemos hacer; tanto para quien sufre la violencia como para quien la practica.

Una política penitenciaria que respete los derechos humanos. Las personas detenidas, incluso las acusadas de delitos terribles, son depositarias de todos los derechos que les corresponden como seres humanos, y nos corresponde a los poderes públicos velar por la defensa de su dignidad y la prevención de los malos tratos y torturas.

En este sentido, en el ámbito de nuestra responsabilidad, el Gobierno Vasco profundizará y perfeccionará los protocolos de asistencia y atención a las personas detenidas, sobre todo a las sujetas excepcionalmente a un régimen de incomunicación; dicho régimen únicamente será aplicado previa resolución judicial, y no de forma sistemática; en tal caso, se aplicará rigurosamente el protocolo para la protección de los derechos entre las personas en régimen de incomunicación, de conformidad con las medidas contempladas en la Convención contra la Tortura de las Naciones Unidas.

Sobre la base del compromiso ético que todos los poderes públicos debemos observar en la defensa de los derechos humanos de todas las personas, quiero instar al presidente del Gobierno español a que atienda las reiteradas demandas y resoluciones del Parlamento Vasco a favor del acercamiento de todos los presos y presas vascas a Euskadi. En este sentido, deseo animar al Gobierno español a que aborde con valentía todas aquellas medidas que contribuyan a generar un escenario de distensión y humanización para hacer irreversible el proceso de paz. Considero que es preciso reivindicar la necesidad de desarrollar una nueva orientación; orientación que respete los derechos humanos y propicie el final definitivo de la violencia, orientación consensuada, dinámica y flexible de la política penitenciaria.

Debemos iniciar el camino de la reconciliación. El cese definitivo de la violencia, el reconocimiento del daño causado y del dolor sufrido, la humanización, la justicia, la verdad, la memoria, la generosidad… Todos son pasos necesarios para recorrer el camino de la reconciliación.

La reconciliación de nuestro pueblo incluye tanto la pacificación como la normalización, pero va más allá de la pacificación y la normalización. Porque un pueblo, aun sin violencia e incluso normalizado políticamente, no tiene por qué ser, necesariamente, un pueblo reconciliado. Para ello tendremos que regenerar la confianza perdida que haga posible emerger en nuestra sociedad el espíritu de autocrítica, la humildad para pedir perdón y la generosidad para perdonar. Es absolutamente imprescindible contribuir entre todos y todas, por obligación moral, a superar el sufrimiento y a recorrer juntos el camino de la reconciliación, ya que ésta será la base más sólida de nuestra conviven-

tion arteko bizikidetzak gizarte modura izan dezakeen oinarririk sendoena.

Normalizazio politikoa lortzeko aukera. Konpontzeke dagoen gatazka politikoa zertan den. Ageri-agerikoa da indarkeria dela giza eskubideen eta askatasunen aurkako mehatxurik handiena. Horrexegatik, bake-egoera bat lortzea da guretzat behinena, gauza guztien aurretik lehentasuna duena; eta horrexegatik eskatzen diogu ETAri indarkeria baztertu dezan behinbetiko.

Aldarrikapen horrekin bat gatoz ia denok; horretan ados dago indar politikoen eta euskal gizartearen gehiengo zabala. Baina, horrez gainera, indarkeriaz haratago doan gatazka politikoa ere badagoela aitortu behar dugu. Eta auzi horri konponbidea emateko ardura ordezkari politikoei dagokigu; ordezkari politikoei bakar-bakarrik, eta ez beste inori.

Denbora gutxi dut; beraz, laburtu egin beharko dut zerbait.

Argi ikusten da, beraz, argi eta garbi, euskal gizartearen zati handi bat ez dela egungo esparru konstituzionalean eroso sentitzen, ez delako onartzen Euskal Herria berezko nortasuna duen subjektu politikoa dela, ez zaiolako aitortzen eskubide historikoak dagozkiola, Konstituzioaren aurretik ere hortxe baitzeuden, eta azken finean, ez zaiolako aitortzen askatasunez eta demokratikoki beren etorkizuna erabakitzeko gaitasuna duela.

Era berean, egia da errealitate horrekin batera beste sentsibilitate politiko batzuk ere, zilegitasun osoz, bizi direla gure artean: bai Konstituzioaren barruan Estatutuaren aldaketa mugatua defenditzen dutenak, baita Gernikako egungo Estatutua inola ere aldatu edo moldatu nahi ez dutenak ere.

Errealitatea zein den ikusita, begi-bistan dago elkarrizketa politikoari ekin behar diogula, sakon-sakonetik, normalizazio-akordio batera hel gaitezen elkarrekin eroso bizitzeko funtsezkoak diren osagai batzuk direla eta: hala nola nortasuna, subiranotasuna, lurraldetasuna, autodeterminazio-eskubidea, lortu nahi dugun autogobernu-maila, edo Euskadiren eta Espainiako Estatuaren arteko harreman-esparrua. Heldu da, bada, eguna; iritsi da ordua.

Aurreko legealdian ibili dugun bidea. Zorionez, normalizazio politiko horri ekiterakoan, ez dugu legealdi hau esku-hutsik hasiko. Urratu dugu bidea, eta hamaikatxo eragozpen aurkitu dugu hona iristeko. Baina, eragozpenak eragozpen, konponbidetik hurbilago gaude orain. Duela lau urte abiatu ginen, 2001ean. Abiaburu hartan oinarriak finkatu ziren, bizikidetza-esparru berria eratzeko eztabaida zabala eta irekia ahal izateko. Lau urtean jardun dugu lanean, Legebiltzarrean eztabaida bultzatzen, gizartearen partaidetza sustatzen… eta azkenean lanak eman du bere fruitua: proposamen bat legezkoa, zilegizkoa eta demokrati-

cia como sociedad.

Una oportunidad para la normalización política. La realidad de un conflicto político pendiente de resolver. Es evidente que la violencia constituye la principal amenaza para los derechos humanos y las libertades. Por ese motivo, nuestra prioridad fundamental consiste en lograr un escenario de paz, y por eso exigimos a ETA que abandone definitivamente las armas.

Casi todos estamos de acuerdo en dicha reivindicación; en dicha exigencia coincidimos la inmensa mayoría de las fuerzas políticas y de la sociedad vasca; ahora bien, además de eso, debemos reconocer la existencia de un problema político que va más allá de la violencia. Un problema cuya resolución nos corresponde abordar a los representantes políticos; única y exclusivamente a los representantes políticos, y a nadie más.

Me queda poco tiempo; en consecuencia, tendré que abreviar un poco.

Por lo tanto, es evidente que existe una parte muy significativa de la sociedad vasca que no se siente cómoda en el marco constitucional actual, porque no se reconoce al pueblo vasco como sujeto político con identidad propia, porque no se reconoce que le corresponden unos derechos históricos, que ya estaban ahí antes de la propia Constitución, y, en definitiva, porque no se le reconoce su capacidad para decidir su futuro libre y democráticamente.

Asimismo, es cierto que junto con la realidad referida conviven otras sensibilidades políticas, absolutamente legítimas: sensibilidades que defienden una reforma estatutaria limitada dentro de la Constitución, e incluso quienes se niegan a cualquier tipo de modificación o reforma del actual Estatuto de Gernika.

Ante esta realidad, es evidente que debemos abordar un diálogo político, de fondo, con el objeto de alcanzar un acuerdo de normalización en torno a elementos fundamentales para nuestra convivencia como la identidad, la soberanía, la territorialidad, el derecho de autodeterminación, el nivel de autogobierno deseado o el marco de relación entre Euskadi y el Estado español. Pues, bien, ese día ya ha llegado; éste es el momento.

El camino recorrido en la pasada legislatura. Afortunadamente, no comenzamos esta legislatura con las manos vacías para abordar dicho proceso de normalización política. Hemos recorrido un camino, y las dificultades para llegar hasta aquí no han sido pocas. Pero, a pesar de las mismas, ahora nos encontramos más cerca de la solución. Iniciamos el camino hace cuatro años, en 2001. En aquel comienzo se fijaron las bases sobre las que poder articular un debate abierto y amplio cuyo objeto era establecer un nuevo marco de convivencia. Han sido cuatro años de esfuerzo, de debate parlamentario y de debate social…

koa. Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartutako proposamena dugu. Eta gaur egunean ere hortxe dugu proposamen hori, oinarrizko ondasun politikoa baita normalizazio-akordioari ekiteko orduan. Ziur nago, orain ere, orain arte bidean izandako nekeak ez direla alferrekoak izan. Une honetan normalizazio politikotik gertuago gaude, joan den legealdia hasi zenean baino.

Estatu berrirako proposamena, normalizazio politikarako ekarpena. Elkarrizketa-aro berri baterako nondik norakoak aztertzen hasteko prest gaude, orain arte lortutakoa baino normalizazio-akordio integratzaile eta zabalago batera iristeko. Helburu honen aurrean guk jarrera irekia dugu, ez dugu aurretiaz baldintzarik jarriko, ez dugu mugarik jarriko.

Aro berri baten aurrean gaude. Euskal gizartearen aurrean zabaldu den esperantza-aro berri honetan, indar politiko guztiok beste aukera bat daukagu akordio zabalagoak lor ditzagun. Ezberdin direnen arteko elkarrizketa politikoan konfiantza izanda, jarrera modura eskuzabaltasun politikoa erakutsita, beste eta beste proposamen batzuekin eztabaida demokratikoa eginda, normalizazio-egoera ahalik eta sendoena sortu ahal izango dugu.

Aukera guztiak daude orain zabalik. Baina akordio berri bat lortzeko abagunea dela defenditzen dugun modu berean, Eusko Legebiltzarrak dagoeneko onartuta dituen erabakiekiko ere errespetu osoa adierazten dugu. Bide horretatik, Legebiltzar honetan gehiengo osoz modu demokratikoan onartutako proposamena, gure iritziz, ondasun publikoa da, eta normalizazio politikarako akordioa lortu ahal izateko *zume* batzuk dakarzkigu.

Ondoren, hauek dira, bada, estatutu berrirako proposamenean jasotako *zumeak,* ene iritziz normalizazio-akordio batera iristeko guztion artean negoziatu beharreko funtsezko gaiei erantzuten dietenak.

Lehenengoa, Euskal Herria subjektu politikotzat aitortzea; hitzaurrean dago. Bigarrena, erabakitzeko eskubidea; hitzaurrean dago. Hirugarrena, erabakitzeko eskubidea baliatzea; hitzaurrean dago. Lurraldetasuna, 2.1 artikuluan dago, eta 7.2 artikuluan dago. Bosgarrena, alde biko harremanak Nafarroako Foru Komunitatearekin, 6. artikuluan dago. Seigarrena, bitariko harremanak Iparraldeko euskal lurraldeekin, 7.1 artikuluan dago. Zazpigarrena, Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanen esparrua elkartasun askean oinarrituta, 2.1 artikuluan dago. Ituntzeko betebeharra 13. artikuluan dago. Giza eskubideen lehentasuna, 10. artikuluan dago.

Azken batean, gure ustez, estatutu berrirako proposamenak bideak eta aukerak ematen ditu normalizazio politikoaren bidetik aurrera egiteko. Hori

y al final el trabajo realizado ha dado sus frutos: una propuesta legal, legítima y democrática. Una propuesta aprobada por la mayoría absoluta del Parlamento Vasco. Y en la actualidad contamos también con dicha propuesta, que constituye un activo político básico para abordar un acuerdo de normalización. Estoy firmemente convencido, también en este momento, de que los esfuerzos realizados en este recorrido no han sido baldíos. Hoy estamos más cerca de la normalización política que cuando iniciamos la pasada legislatura.

La propuesta de nuevo Estatuto político como aportación para la normalización política. Estamos dispuestos a explorar una nueva fase de diálogo que permita alcanzar un acuerdo de normalización integrador más amplio que el obtenido hasta la fecha. Afrontamos este objetivo con un talante abierto, sin condicionamientos ni limitaciones previas.

Iniciamos una nueva etapa. En este nuevo tiempo de esperanza que se abre ante la sociedad vasca, todas las formaciones políticas tenemos una nueva oportunidad para buscar acuerdos más amplios. Desde la confianza en el diálogo político entre diferentes, mostrando generosidad política como actitud, y haciendo contraste democrático con otras propuestas, podremos lograr el escenario de normalización más sólido posible.

Aún están abiertas todas las posibilidades. Pero, con la misma firmeza y convicción con que defendemos la oportunidad de un nuevo acuerdo, manifestamos nuestro respeto a las decisiones aprobadas ya por el Parlamento Vasco. A este respecto, consideramos que la propuesta aprobada democráticamente por la mayoría absoluta de este Parlamento representa un activo público, y que contiene algunos *mimbres* para alcanzar un acuerdo de normalización política.

A continuación éstos son, en consecuencia, los *mimbres* recogidos en la propuesta de nuevo Estatuto político y que, en mi opinión, dan respuesta a cuestiones básicas sobre las que es necesario negociar entre todos para lograr un posible acuerdo de normalización.

Primero, reconocimiento del pueblo vasco como sujeto político; está en el preámbulo. Segundo, derecho de decisión; está en el preámbulo. Tercero, ejercicio del derecho a decidir; está en el preámbulo. La territorialidad está en los artículos 2.1 y 7.2. Quinto, relaciones bilaterales con la Comunidad Foral de Navarra, está en el artículo 6. Sexto, relaciones bilaterales con los territorios vascos de Iparralde, está en el artículo 7.1. Séptimo, marco de relación de Euskadi con el Estado, basado en la libre asociación; está en el artículo 2.1. La obligación de pactar está en el artículo 13. El carácter prioritario de los derechos humanos está en el artículo 10.

En definitiva, creemos que la propuesta de nuevo Estatuto contiene potencialidades para avanzar hacia la normalización política. Dicho esto, con ello

esanda, ez ditut beste proposamen batzuk gutxietsi edo murriztu nahi; bakar-bakarrik esan nahi dut abiaburu horiek eskuragarri ditugula aro berri honetan hasiko dugun eztabaidarako, eta ekarpen horiek, beste batzuekin batera, nola ez, oinarrizko osagaiak izan litezkeela normalizazio-akordioa iristeko.

Hacia un acuerdo integrador para la normalización política.

Iniciamos una nueva etapa, tenemos una nueva oportunidad. Nuestra disposición es ofrecer nuestra mano tendida con objeto de conseguir un acuerdo de normalización. No vamos a eludir nuestra responsabilidad, y tampoco vamos a escatimar esfuerzos en este objetivo. Queremos abrir las puertas de par en par al diálogo y a la normalización política.

Ahora bien, ¿cómo avanzamos en el camino? ¿Qué mecanismo procedimental seguimos para hacer efectivo un proceso de diálogo sin exclusiones, que nos permita alcanzar un acuerdo integrador para la normalización? Estas son las preguntas a las que tenemos que responder conjuntamente las fuerzas políticas en un proceso previo de conversaciones.

Para facilitar este proceso nuestro objetivo es proponer a los partidos una metodología abierta y flexible para iniciar el camino. En todo caso, y antes de abordar el ámbito metodológico, como lehendakari, considero que es mi responsabilidad realizar en este debate de investidura una aportación respecto a principios, contenidos e instrumentos que deberíamos consensuar entre las fuerzas políticas con carácter previo al desarrollo de un proceso de diálogo multipartito resolutivo. No se trata de procedimientos ni instrumentos cerrados, no pueden serlo. Soy consciente de que hoy nada, siendo cerrado, tiene carácter estratégico; lo único estratégico es la apertura a las diferentes aportaciones.

Principios. A nuestro entender, existen una serie de principios que constituyen una base para iniciar un diálogo sincero que sea capaz de desembocar en un acuerdo para la normalización política. Principios que cuentan además con el respaldo de la sociedad vasca y que han sido puestos de manifiesto no sólo por diferentes interlocutores, sino también por diversos foros y agentes sociales que han venido participando activamente en la presentación de propuestas y aportaciones al proceso de normalización política.

Sin pretender ser exhaustivo, en mi opinión los principios y compromisos que suscitan un mayor consenso son los siguientes: el principio de no violencia y el compromiso de respetar derechos humanos utilizando única y exclusivamente las vías políticas y democráticas; el principio de no exclusión y el compromiso de respetar el derecho de participación de todas las sensibilidades políticas, sociales y territoriales que quieran

no pretendo coartar ni minusvalorar otras propuestas; simplemente deseo poner a disposición del debate que vamos a iniciar en esta nueva etapa las aportaciones que, junto con otras, pueden constituir elementos clave para alcanzar un acuerdo de normalización.

Normalizazio politikoa lortzeko akordio bateratzailea.

Aro berri baten aurrean gaude. Beste abagune bat dugu zain. Gure eskaintza hortxe dago, eta gure eskua zabalik; horixe da gure jarrera normalizazio-akordioa lortzeko bide horretan. Ez dugu, ez, gure erantzukizuna saihestuko; ez gara eskas eta urri ibiliko ahalegina eta lana egiteko orduan, helburu hori lortu behar badugu. Elkarrizketarako eta normalizazio politikorako bideari ate guztiak ireki nahi dizkiogu erabat.

Hori bai; baina nola egingo dugu aurrera bide horretan barrena? Zein prozedura-mota erabiliko dugu normalizazioa lortzeko akordio integratzailea bideratzeko orduan, inor bazterrean utzi gabe, elkarrizketa-prozesua burutu dezagun guztion artean? Galdera horiexei erantzun behar diegu alderdi politiko guztiok batera, elkarrizketa hasi orduko, lan-arloan ondo jorratuta egon dadin.

Bide horretan abiatzea errazagoa izan dadin, gure helburua izango da alderdi politikoei metodologia irekia eta malgua proposatzea. Dena den, metodologia-arloari ekin aurretik, lehendakari bezala, iruditzen zait nire ardurapekoa dela inbestidura-eztabaida honetan arlo horri buruz zerbait ekartzea, eta auzia konpontzeko alde askotako elkarrizketa-prozesua garatu baino lehenago indar politikoen artean adostu behar genituzkeen printzipioak, edukiak eta tresnak direla-eta ekarpen bat egitea. Ez naiz prozedura itxiei buruz ari; ez naiz tresna itxiei buruz ari. Ezin dira-eta itxiak izan. Jabetzen naiz gaur egun, itxia bada, ez dela ezer ere estrategikotzat hartzen. Era guztietako ekarpenak jasotzea eta ateak zabaltzea, horixe da estrategikoa den gauza bakarra.

Printzipioak. Gure iritziz, badira lagungarri gerta dakizkigukeen printzipio batzuk, oinarri bat emango baitigute, azken buruan normalizazio-akordio batera eramango gaituen elkarrizketan zintzo eta garbi hasteko orduan. Printzipio horiek, gainera, euskal gizartearen babesa dute; bitartekari politiko zenbaitek, esate baterako, nabarmendu egin dituzte; eta, horiez gainera, normalizazio politikoaren prozesuan proposamenak eta ekarpenak eginez parte-hartze handia izan ondoren, beste gizarte-eragile eta foro askok ere babes bera eman diete.

Guztiak agortu nahi izan gabe, nire ustez, honako hauexek dira adostasun handiena biltzen duten printzipioak eta konpromisoak: indarkeriarik ezaren printzipioa, eta, bakar-bakarrik bide politiko eta demokratiko hutsak erabilita, giza eskubideak errespetatzeko konpromisoa; bazterkeriarik ezaren printzipioa, eta politika, gizarte eta lurralde arloetako joera guztiek, nahi izanez gero, parte hartzeko duten eskubidea errespe-

hacerlo; el principio democrático y el compromiso de respetar la voluntad popular y el ejercicio del derecho a decidir de la sociedad vasca; el principio de igualdad y el compromiso de aceptar que todos los proyectos políticos defendidos democráticamente deben encontrar las vías para la incorporación en el ordenamiento jurídico, y el principio del respeto a la pluralidad y el compromiso de no impedir, no imponer (no imponer, no impedir) el ejercicio de los diferentes sentimientos identitarios presentes en la sociedad vasca.

Contenidos de un posible acuerdo de normalización. Sin prejuzgar otros aspectos que pudieran incorporarse en virtud de las conversaciones previas entre partidos que necesariamente se tienen que producir, los contenidos se deben centrar, a mi juicio, en aquellas cuestiones que constituyen la raíz de una verdadera normalización política y que suscitan necesidad de consensos básicos no alcanzados hasta la fecha. En mi opinión, estas cuestiones son la naturaleza del pueblo vasco como sujeto político, el derecho de decisión y su ejercicio, la territorialidad, el marco de relación con el Estado, el pacto como compromiso.

Instrumentos. Tienen que ser objeto de las negociaciones previas, y sinceramente considero que los instrumentos que se pueden habilitar para entablar un proceso de diálogo no deben suponer un obstáculo insalvable o una condición innegociable. Tendrán que ser flexibles, y nadie, ninguna formación política deberá quedar excluida.

Sobre la base del consenso previo en torno a los principios de partida, los contenidos y metodología a seguir, será preciso articular un foro abierto a todas las fuerzas políticas vascas que necesariamente debería contar en algún momento del proceso con las aportaciones y reflexiones de los agentes sociales. En todo caso, será preciso también que los acuerdos eventualmente alcanzados en este foro de partidos sean debatidos, desarrollados y validados en el ámbito parlamentario e institucional.

Como conclusión de este apartado podemos afirmar que lograr un acuerdo integrado para la normalización política no es un reto sencillo. No lo es, porque, si lo fuera, ya lo habríamos alcanzado hace tiempo. Pero creo que es nuestra responsabilidad transmitir a la sociedad vasca nuestro compromiso conjunto para alcanzarlo. Estoy convencido de que, si existe una verdadera voluntad política por parte de todos, el acuerdo entre sensibilidades políticas legítimamente diferentes, legítimamente diferentes e incluso encontradas, es posible, y además inaplazable, porque disponemos de bases de partida, creo, para iniciar el camino del diálogo.

El Gobierno. ¿Qué papel juega el Gobierno? El Gobierno Vasco, agente activo de la paz y la normalización política.

La normalización política y la paz, la reconciliación, son los ejes que van a marcar el devenir de la próxima legislatura y de las próximas legislaturas. Son,

tatzeko konpromisoa; demokraziaren printzipioa, eta herriaren borondatea eta euskal gizarteak erabakitzeko duen eskubidea errespetatzeko konpromisoa; berdintasunaren printzipioa, eta demokratikoki defenditutako proiektu politiko guztiek ordenamendu juridikoan txertatzeko bideak aurkitzeko modua izan behar dutela onartzeko konpromisoa; aniztasuna errespetatzeko printzipioa, eta euskal gizartean nortasunei dagokienez dauden sentimenduak ez inposatzeko eta ez eragozteko konpromisoa.

Normalizazio-akordio posible baten edukiak. Ezinbestez alderdien artean egin beharko diren elkarrizketen ondorioz sar litezkeen bestelako aspektuen aurre-juzkurik egin gabe, akordioaren edukiek, nire ustez, benetako normalizazio politikoaren sustraian dauden gaiak jorratu behar dituzte, orain arte lortu ez diren oinarrizko adostasun bateratzaileen beharra eskatzen dutenak. Nire iritziz, gai horiek honako hauek dira: euskal herriaren izaera, subjektu politikotzat hartuta; erabakitzeko eskubidea izatea eta eskubide hori baliatzea; lurraldetasuna; Estatuarekiko harremanesparrua; ituna, konpromisotzat hartuta.

Tresnak. Elkarrizketan erabiliko diren tresnak eta bitartekoak ere aldez aurreko negoziazioetan zehaztu behar dira, eta, benetan diotsuet, nire ustez elkarrizketa-prozesu bat bideratzeko tresnen gai hori ez da inoiz izan behar eragozpen gaindiezina edo baldintza negoziaezina. Malguak izan behar dugu, eta ez da inor ere, ez indar politiko bat ere, baztertuta geratu behar.

Aurretiaz izan beharreko adostasun-oinarria osatzeko, abiapuntuko printzipioak, edukiak eta metodologia dela-eta, foro bat bideratu beharko da, euskal indar politiko guztientzat zabalik, eta hor, lehenago edo geroago, prozesu horren tarteren batean, nahitaez, gizarte-eragileen ekarpenak eta hausnarketak ere jaso beharko lirateke. Nolanahi ere, beharrezkoa izango da, era berean, foro horretan lortuko liratekeen akordioak Legebiltzarrean eta instituzioetan eztabaidatzea, garatzea eta onestea.

Atal hau bukatzeko, esan behar dugu, dudarik gabe, normalizaziora iristeko akordio integratzailea lortzea ez dela inola ere lan erraza; erraza balitz, akordio hori lortuta egongo litzateke aspalditik. Baina uste dut gure erantzukizuna dela, hori lortzeko guztiok dugun konpromisoa euskal gizarteari jakinaraztea. Erabat ziur nago, benetan guztion aldetik borondate politikoa izanez gero, ikuspegi politiko ezberdinen arteko akordiora iristea posible dela, eta, gainera, atzeraezina dela, elkarrizketa-bideari ekiteko abiaburuak ditugulako.

Eusko Jaurlaritza. Zein da Jaurlaritzaren eginkizuna? Jaurlaritza, bakea eta normalizazio politikoa ekartzeko eragilea.

Normalizazio politikoa eta bakea, adiskidetzea; horiexek ditugu legealdi honen eta datozenen joana gidatuko duten ardatzak. Horiek, batez ere, eta gauza

sobre todo y por encima de todo, problemas reales que necesitamos resolver para disfrutar de un escenario que, además de contribuir a la convivencia, sea capaz de generar un impacto positivo, trascendental en nuestros índices de crecimiento, desarrollo, bienestar, progreso, etcétera, etcétera, etcétera.

guztien gainetik, benetako arazoak dira, premiaz konpondu behar ditugunak, egoera horrek guztioi elkarrekin erosoago bizi gaitezen laguntzeaz gainera, eragin ezin hobea eta erabakigarria sortzeko gai izan dadin gure hazkundean, ongizatean, gizarte-aurrerapenean eta beste hainbat alderditan.

La sociedad en su conjunto es, por tanto, la máxima beneficiada, y toda la sociedad también debe implicarse en la solución. No puede ser exclusivamente cosa de políticos o responsabilidad única del gobierno de turno. Ha llegado la hora de que todos aportemos nuestra parte alícuota de solución (sindicatos, empresarios, jóvenes, mayores, medios de comunicación, Iglesia, universidad, movimientos cívicos y culturales, etcétera, etcétera). Necesitamos el concurso de todos para avanzar en la solución del denominado *conflicto vasco*.

Gizarte oso-osoak igarriko du, ezbairik gabe, egoera horretan onurarik handiena, eta, beraz, gizarte osoa sartu behar da buru-belarri gatazka konpontzen. Ez da soil-soilik politikoen kontua edo unean uneko gobernuari egokitzen zaion ardura izan behar. Bakoitzak bere konponbide-zatia ekartzeko ordua heldu da, bakoitzak bere aletxoa ekartzeko ordua heldu da. Guztiok gara partaide: sindikatuak, enpresariak, gazteak, adinekoak, hedabideak, Eliza, unibertsitatea, herri eta kultura mugimenduak, eta beste hainbat. Guztion parte-hartzea eta laguntza behar dugu *euskal gatazka* deritzona konpondu ahal izateko bidean aurrera egiteko.

La sociedad vasca debe comprender que no podemos llegar al año 2010 con esta asignatura pendiente, y como candidato a lehendakari estoy dispuesto a comprometer mi palabra de que no escatimaré esfuerzos hasta encontrar una solución y sentar las bases de la reconciliación. A este respecto les anuncio los siguientes compromisos del Gobierno como agente activo para la paz y la normalización política:

Euskal gizarteak ulertu behar du ezin garela 2010. urtera gai hau konpondu gabe, korapiloa askatu gabe, heldu. Lehendakaritarako hautagaia naizen aldetik, nire hitza bermetzat jartzeko prest nago, eginahal eta ahalegin guztiak egingo ditudala, kosta ahala kosta, konponbidea aurkitzeko eta adiskidetasun-oinarriak ezartzeko. Horri lotuta, besteak beste, honako konpromiso hauek dakartzat bakea eta normalizazio politikoa ekartzeko eragile den Eusko Jaurlaritzaren izenean.

Dialogo institucional bilateral como compromiso permanente. Mi compromiso personal y mi responsabilidad será mantener permanentemente abierto un diálogo bilateral fluido, honesto y leal con el presidente del Gobierno español. Así lo acordamos en la reunión que mantuvimos en la Moncloa tras las elecciones del pasado 17 de abril, y hoy quiero reiterar públicamente en esta Cámara. Un primer paso al que seguirán otros muchos. Esa fue mi disposición, ese fue nuestro compromiso, el compromiso conjunto que hemos adquirido, porque están en juego la convivencia y la paz.

Aldebiko elkarrizketa instituzionala, konpromiso iraunkorra. Nik neuk hartutako konpromisoa da, eta neure ardurapekoa izango da elkarrizketa-bideak etengabe zabalik mantentzea, eta Espainiako Gobernuko presidentearekin elkarrizketa iraunkorra, aldebikoa, erraza, zintzoa eta leiala izatea. Halaxe egitea erabaki genuen joan den apirilaren 17ko hauteskundeen ondoren Moncloan izan genuen bileran, eta halaxe berretsi nahi dut orain hemen zuen aurrean, Legebiltzar honetan. Hau lehenengo urratsa da, eta, horren atzetik, beste urrats asko etorriko dira. Horixe izan zen nire jarrera, horixe izan zen gure konpromisoa, guztiok batera hartutako konpromisoa; izan ere, bakea eta bizikidetza daude jokoan.

En segundo lugar, impulso de una mesa de diálogo multipartito. Nuestro compromiso es facilitar e impulsar la constitución de una mesa de diálogo multipartito en que todas las sensibilidades políticas estén representadas. La responsabilidad de que este objetivo se vea cumplido en el más breve espacio de tiempo no es sólo del Gobierno; es, lógicamente, de todos los partidos políticos. En todo caso, desde el Gobierno plantearemos la puesta en marcha inmediata de un grupo de trabajo integrado por personas designadas por las diferentes fuerzas políticas, para que a comienzos del cursos político, en el último trimestre del año, elaboren y presenten una propuesta consensuada sobre metodología, estructura, objetivos, contenidos, principios, composición, procedimiento en definitiva para la toma de decisiones de una posible mesa de diálogo político, así como una propuesta del plazo en

Bigarrenez, alderdien arteko elkarrizketa-mahaia sustatzea. Gure konpromisoa da alderdien arteko elkarrizketa-mahaia bideratzea eta bultzatzea, mahai horretan sentsibilitate politiko guztiak egon daitezen ordezkatuta. Helburu hori ahalik eta lasterren eta lehenbailehen betetzeko erantzukizuna ez da Jaurlaritzarena bakarrik, alderdi guztiek ere badaukate-eta horren ardura. Nolanahi ere, Gobernuak lantaldea jarri nahi du horretan lanean lehenbailehen. Lantalde hori indar politiko guztiek izendatutako ordezkariek osatuko dute, eta, urte politikoaren hasieran, aurtengo azken hiruhilabetean, taldeak adostutako proposamena egin eta aurkeztu beharko du, ondo zehaztuta egon dadin elkarrizketa politikorako mahaiak erabakiak nola hartu behar dituen; besteak beste, metodologia, egitura, helburuak, edukiak, abiaburuak, osaera eta prozedura. Horrez gainera, lantalde horrek epe kon-

el que nos comprometemos a avanzar en el acuerdo para la normalización política.

En tercer lugar, un plan integral a favor de la paz y la reconciliación. Mi compromiso es elaborar y aprobar, en un plazo máximo de seis meses, un plan integral a favor de la paz y la reconciliación que contemple y aglutine todas las actuaciones a desarrollar por el Ejecutivo en el ámbito de los derechos humanos.

Este plan se estructurará en seis grandes ejes de actuación: la promoción de la cultura de la paz y los valores democráticos; la solidaridad con las víctimas del terrorismo; la reparación a las víctimas del franquismo y la recuperación de la memoria histórica; el respeto y la recuperación de los derechos y libertades civiles y de participación ciudadana; la prevención de la tortura y la defensa de los derechos humanos de las personas detenidas, y la puesta en marcha de un observatorio internacional de derechos humanos y libertades, como embrión de un organismo que sea aprobado posteriormente por ley del Parlamento.

En cuarto lugar, ¿de qué manera queremos estructurar la gestión de este Gobierno para la paz y la normalización política? Un nuevo instrumento, por lo tanto, al servicio de un acuerdo: el consejo político para la normalización que estableceremos dentro del Gobierno.

Por tanto, con objeto de dar respuesta a nuestros compromisos y de potenciar la función del Gobierno como agente proactivo para la normalización política, la paz y la reconciliación, quiero anunciar mi intención de constituir en el seno del Consejo de Gobierno un consejo político al más alto nivel, formado por un consejero de Eusko Alkartasuna y un consejero de Ezker Batua Berdeak y por mí mismo, que tendrá entre sus misiones tres objetivos prioritarios:

Primero, liderar desde el Gobierno los procesos de conversaciones y encuentros con agentes políticos y sociales para impulsar la conformación de una mesa de diálogo multipartito y sin exclusiones, que permita abordar un acuerdo de normalización política.

En segundo lugar, elaborar, aprobar y dinamizar, liderar en definitiva, el plan integral en favor de los derechos humanos y las libertades, que contribuya a facilitar un proceso de paz y siente las bases de un proceso de reconciliación que será inevitablemente más largo.

Y en tercer lugar articular instrumentos para canalizar las aportaciones de los representantes sociales y facilitar la participación de la propia sociedad vasca, con objeto de completar el papel insustituible de las fuerzas políticas con una red social que sirva de acompañamiento y dé cuerpo social a los procesos de paz, de normalización política y de reconciliación.

kretu bat ere proposatu beharko du, eta konpromisoa hartuko dugu, normalizazio politikoa lortzeko akordio batera iritsiko garela epe horretan.

Hirugarrenez, plan integrala bakearen eta adiskidetzearen alde. Nire konpromisoa, sei hilabeteko epean gehienez jota, bakearen eta adiskidetzearen aldeko plan integrala egitea eta onartzea da. Plan horretan, Jaurlaritzak giza eskubideen arloan bete beharko dituen zeregin guztiak aintzat hartu eta jasoko dira.

Plan honek sei ardatz nagusi izango ditu jarduteko: bakearen kultura eta balio demokratikoak sustatuko dira; elkartasuna erakutsiko zaie terrorismoaren biktimei; frankismo-garaiko biktimei ordaina emango zaie eta oroimen historikoa berreskuratuko da; herritarren eskubideak eta askatasunak errespetatu eta berreskuratuko dira, baita parte-hartze politikoa ere; torturari aurre hartuko zaio eta atxilotutako pertsonen giza eskubideak defendituko dira; giza eskubideak eta askatasuna babesteko nazioarteko behatokia eratuko da; Legebiltzarra emandako lege baten bidez geroago onartuko den erakunde baten abiapuntu izango da.

Laugarrenez, nola nahi dugu egituratu Jaurlaritzaren kudeaketa bakea eta normalizazio politikoa ekartzeko eragilea izan dadin? Beste tresna bat, beraz, akordiorako lagungarri: Jaurlaritzaren barruan eratuko dugun normalizaziorako kontseilu politikoa.

Horrenbestez, hartu ditugun konpromisoei erantzuteko, eta, normalizazio politikoa, bakea eta adiskidetzea ekartzeko eragile den aldetik, Jaurlaritzak dituen zereginak bultzatzeko, jakinarazi behar dizuet kontseilu politiko bat osatzeko asmoa dudala Gobernuaren barruan, mailarik gorenean; Kontseilu horretako kide Eusko Alkartasunako sailburu bat, Ezker Batua Berdeak alderdiko sailburu bat eta ni neu izango gara, eta bere betebeharren artean hiru helburu nagusi izango ditu:

Lehenengoa, eragile politiko eta sozialekin izan beharreko elkarrizketak eta harremanak sustatu behar ditu Gobernutik, elkarrizketarako mahaia osatzeko, alderdi askotakoa eta inor baztertu gabe, era horretara, normalizazio politikoa lortzeko akordio batera iristeko modua bidera dadin.

Bigarrena, giza eskubide eta askatasunen aldeko plan integrala osatu, onartu, dinamizatu eta sustatu, horren bitartez bake-prozesua bideratu eta adiskidetzerako oinarriak finkatzeko.

Eta hirugarrena, gizartearen ordezkarien ekarpenak bideratzeko tresnak jorratu eta euskal gizartearen partaidetza ahalbideratu, indar politikoen eginkizun ordezkaezina gizarte-sare baten bidez osatzeko, bakegintza, normalizazio politikoa eta adiskidetzea lagundu eta gorpuztu dezan.

La sociedad vasca tiene la última palabra. Tenemos por delante una legislatura llena de oportunidades. Es responsabilidad de todos ser capaces de aprovechar estas oportunidades y lograr definitivamente la paz y la reconciliación política. Todos tenemos nuestra insustituible aportación para lograr estos objetivos.

Nadie es suficiente, pero todos somos necesarios. Todos, aunque no nos guste. Todos somos necesarios. A ETA le corresponde dar el paso decisivo y manifestar de forma clara e inequívoca su voluntad de poner fin a la violencia. A los partidos vascos nos corresponde asumir nuestra responsabilidad y comprometernos ante la sociedad a alcanzar un acuerdo de normalización política sobre las cuestiones que constituyen la raíz del conflicto político. A la sociedad vasca en su conjunto (medios de comunicación, agentes económicos y sociales, mundo de la cultura, la universidad, la juventud), a todos, nos corresponde implicarnos activamente para facilitar e impulsar el proceso de paz.

Entre todos debemos hacer un esfuerzo de generosidad para regenerar la confianza hoy devaluada entre nosotros y establecer un marco de convivencia que nos abra un futuro lleno de esperanza.

En este complejo y a la vez ilusionante escenario, la sociedad vasca nos exige a los responsables políticos no sólo capacidad de diálogo, no sólo, sino también honestidad, claridad y compromisos concretos. Compromisos concretos, soluciones.

La sociedad vasca es una sociedad madura y sensata, que nos insta a las fuerzas políticas a sentarnos a una mesa y ponernos de acuerdo. Y nos demanda además ejercer su derecho a participar y decidir acerca de los acuerdos democráticos alcanzados.

La consulta democrática a la sociedad vasca es el punto en el que culminan todas las hojas de ruta de la inmensa mayoría de los partidos políticos –excepto del que no tiene–, y constituye, por tanto, el compromiso político de la coalición de gobierno que represento para la actual legislatura.

A este respecto deseo manifestar formalmente en esta Cámara mi compromiso como lehendakari de que si alcanzamos un acuerdo para la normalización política y la convivencia solicitaré al Parlamento Vasco autorización para que, en un escenario de ausencia de violencia y sin exclusiones, se realice una consulta popular a la sociedad vasca que ratifique el acuerdo político alcanzado.

Esta autorización del Parlamento deberá incorporar, de forma pactada, los diferentes aspectos relacionados con la propia consulta, tales como, en primer lugar, la ratificación de las condiciones de ausencia de violencia y no-exclusión; en segundo lugar, los

Euskal gizarteak du azken hitza. Aukeraz betetako legealdia dugu aurrean. Guztion ardura da aukera hauek baliatzeko gai izatea eta bakea eta normalizazio politikoa lortzea behin betiko. Guztiok, gutariko bakoitzak dauka helburu horiek lortzeko ekarpen bat; nork, berea.

Inor ez da bere kabuz nahikoa; eta, aldi berean, denok gara beharrezko. Denok, nahiz eta gogoko ez izan. Denok gara beharrezko. ETAri aurrerapauso erabakigarria ematea dagokio eta argi eta garbi adieraztea indarkeriari amaiera emateko borondatea duela. Euskal alderdi politikooi gure erantzukizuna hartzea eta, gatazka politikoaren sustraietan kateaturik dauden gaiak hartuta, normalizazio politikorako akordioa lortuko dugula-eta euskal gizartearen aurrean konpromisoa hartzea dagokigu. Euskal gizarteari, euskal gizarte osoari, komunikabideei, ekonomia eta gizarte eragileei, kulturaren munduari, unibertsitateari, gizarteari eta, oro har, guzti-guztioi, bake-prozesua bideratzeko eta sustatzeko lanetan zuzenean parte hartzea dagokio.

Guztion artean ahaleginak egin behar ditugu, eskuzabal, gure arteko konfiantza, gaur egun higatu samar dagoen konfiantza hori, bere onera ekartzeko eta, itxaropenez beteta aurrean dugun etorkizun honetan, elkarrekin bizitzeko esparrua ezartzeko.

Egoera korapilatsua da, bai, eta, aldi berean, pozgarria ere bai. Eta egoera horretan euskal gizarteak arduradun politikooi eskatzen digu elkarrizketan jarduteko gai izateko, eta, horrez gainera, zintzo, argi eta konpromiso zehatzekin jokatzeko.

Euskal gizartea gizarte heldua da, zentzuduna; eta indar politikooi eskatu digu mahai baten inguruan eseri eta ados jartzeko. Eta, horrez gainera, gogorazi digu, lortutako erabaki demokratikoetan berak ere parte hartzeko eta erabakitzeko eskubidea duela.

Euskal gizarteari galdetzea eta herriari kontsulta egitea jasota dute alderdi politiko gehienek euren ibilbide-orrian –ibilbide-orririk ez duenak salbu–, eta, ondorioz, oraingo legealdi honetarako ordezkatzen ari naizen gobernu-koalizioaren konpromiso politikoaren muina da.

Ildo horretatik, Legebiltzar honetan jakinarazi nahi dut, lehendakaritarako hautagai naizen aldetik, normalizazio politikorako eta bizikidetzarako akordio batera iristen bagara, Eusko Legebiltzarrari baimena eskatuko diodala, indarkeriarik gabeko testuinguru batean eta inolako bazterkeriarik gabe, euskal gizarteari herri-kontsulta egiteko lortutako akordio politiko hori berrets dezan.

Legebiltzarraren baimen horretan txertatu beharko dira, adostuta, kontsultari berari dagozkion alderdi batzuk: lehenengoa, kontsulta indarkeriarik gabeko eta bazterkeriarik gabeko egoera batean egingo dela ziurtatu behar da; bigarrena, emaitzak onartzeko

principios democráticos establecidos para la aceptación de resultados, y en tercer lugar el procedimiento habilitador para la negociación e incorporación de los mismos en el ordenamiento jurídico.

Hitzaldi hau bukatzeko, hasieran egin ditudan hausnarketak ekarri nahi ditut berriz gogora. Aro berria, aro erabakigarria hastekotan gara. Euskal gizarteak ordezkari politiko guztioi eskatu digu ahalegindu gaitezen arduratsu, argi eta garbi, zintzo jokatzen, konponbidea eman diezaiogun euskal auzi edo euskal gatazka deritzonari. Bagoaz joan bidean barrena aurrera, eta bidea bukatu arte jarraitu behar dugu. Hor daukagu gizartearen argazkia; argi eskatzen digu politikooi eragingarri izan gaitezen lanean, konponbideak aurki ditzagun eta sakon-sakoneko akordioak lot ditzagun. Legealdi honek, bada, elkarrizketaren legealdia, akordio eta adostasunaren legealdia izan behar du, eta erabakien legealdia. Erabat sinesten dut abagune historikoa izango dugula aurrean, eta indar politiko guztiok eman beharko dugu maila, eta demari eutsi, azken buruan egia bihur dadin ilusioz beteta aurrean dugun egokiera hori.

Ordezkatzen dudan gobernu-koalizioaren izenean, euskal gizarteari jakinarazi nahi diot tinko lan egingo dudala eta eutsiko diodala hurrengo jaurlaritza eragilea eta eragingarria izan dadin, elkarrizketaren aldeko jardunaren bitartez normalizazio politikoa, bakea eta adiskidetzea ekartzeko. Gune zabal integratzailea eratu nahi dugu, nortasun-sentimenduen aniztasuna aitortu eta kudeatuta, herria zuzendu dezan, eta euskal gizartean bizi diren sentsibilitate politiko gehienak errespetatuta eta ordezkatuta bilgune izan dadin.

Bakoitzak bere erantzukizuna eta bere ardura hartzeko ordua iritsi da. Herritarrek eurek ere, bakoitzak bere ardura hartu beharko du. Guzti-guztiok, gutariko bakoitzak, eskuan daukagu-eta konponbidearen zatitxo bana. Demokrazia parte hartzea bada, eztabaidatzea bada, erabakitzeko eskubidea baliatzea bada, orduan, heldu da, bai, euskal gizarteak dagokion protagonismoa hartzeko unea. Esku-eskura dugu geure etorkizuna bakean eta askatasunean erabakitzeko aukera. Esku-eskura dugu elkarrekin bizitzeko eta adiskidetzeko beste aro berri bati ateak zabaltzeko aukera. Hauxe da bizitzea egokitu zaigun une historikoa. Nik konfiantza oso-osoa eta erabatekoa daukat euskal gizartearengan, eta konbentzimendu osoa daukat guztion artean atea zabalduko diogula behin betiko itxaropenari.

Eskerrik asko denoi. *(Aplausos.)*

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, Ibarretxe jauna. Eskerrik asko.

Lehendakarigaien hitzaldiak amaituta, eten egingo dogu bilkura arratsaldeko hirurak eta erdiak arte. Eskerrik asko guztioi.

*Eran las doce horas y treinta y cuatro minutos.*

ezarritako oinarri demokratikoak ezarri behar dira; eta, hirugarrena, ordenamendu juridikoan emaitza horiek negoziatzeko eta txertatzeko gaikuntza-prozedura zehaztu behar da.

Quiero finalizar esta intervención haciendo referencia a mis reflexiones de partida. Iniciamos una nueva y trascendental etapa. La sociedad vasca nos ha pedido un esfuerzo de responsabilidad, claridad y honestidad a todos los representantes políticos para buscar una solución al denominado problema o conflicto vasco. Estamos recorriendo un camino que debemos culminar. Tenemos la fotografía de una sociedad que nos insta, a la clase política, a trabajar con eficacia, a buscar soluciones, a lograr acuerdos de fondo. Esta debe ser, pues, la legislatura del diálogo, del acuerdo y de la decisión. Estoy convencido de que se nos presentará una ocasión histórica, y todas las fuerzas políticas deberemos estar a la altura y afrontar el desafío, para que al final se haga realidad esa oportunidad ilusionante que tenemos delante.

Desde la coalición de gobierno que represento quisiera trasladar a la sociedad vasca mi firme determinación para que el próximo gobierno sea un agente activo en favor del diálogo para la normalización política, la paz y la reconciliación. Queremos conformar un cauce central integrador que dirija el país desde el reconocimiento y la gestión de la diversidad de sentimientos identitarios y en el que la inmensa mayoría de las sensibilidades políticas existentes en la sociedad vasca se vean respetadas y representadas.

Ha llegado la hora de que cada uno de nosotros y nosotras asumamos nuestra responsabilidad. También los propios ciudadanos y ciudadanas vascas deben asumir la suya. Porque todos y cada uno de nosotros tenemos en nuestra mano una parte de la solución. Si democracia es participación, debate y ejercicio del derecho a decidir, es el momento de que la sociedad vasca asuma su protagonismo. Tenemos en nuestra mano la posibilidad de decidir nuestro propio futuro en paz y en libertad. Tenemos en nuestra mano la oportunidad de abrir un nuevo tiempo de convivencia y de reconciliación. Éste es el tiempo histórico que nos ha tocado vivir. Yo confío plenamente en la sociedad vasca y estoy convencido de que entre todos vamos a abrir definitivamente la puerta de la esperanza.

Muchas gracias a todos y a todas. *(Txaloak.)*

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias, señor Ibarretxe. Muchas gracias.

Concluidas las intervenciones de los candidatos a presidente del Gobierno, interrumpimos la sesión hasta las tres y media de la tarde. Muchas gracias.

*Eten egin da eguerdiko hamabiak eta hogeita hamalauan.*

*Se reanuda la sesión a las quince horas y treinta minutos.*

La PRESIDENTA: Arratsalde on guztioi. Mesedez. Osoko bilkurarekin jarraituko dogu. Ea, berriro ekin zaio bilkurari.

Jarraian, legebiltzar-taldeen ordezkariek egingo dabe berba, txikienetik handienera. Gehienez 30 minutu izango dau bakoitzak. Mistoa-Aralar taldearen ordezkariak dauka berbea. Ezenarro anderea, zurea da hitza.

La Sra. EZENARRO EGURBIDE: Eusko Legebiltzarrean, Aralarrentzat lehen parte-hartzea den honetan, ezer baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiet proiektu berritzaile honetan sinistu duten guztiei. Ezker abertzalea bide berrietatik abiatzeko eta indarberritzeko proiektu honetan sinistu duten guztiei. Nafarroako Legebiltzarrean bagara, eta sendo gara, Iparraldean ere, bertako lehen indar abertzaleak, ABk, bat egiten du bide politiko soiletatik abiatuko den ezker abertzalearen proiektuarekin, eta gaur, hemen, hasten dugu Eusko Legebiltzarrean bide berri eta ilusioz beteriko hau.

Bestetik, eta nire hitzaldiarekin jarraitu baino lehen, nire poza adierazi nahi dut gaur hemen gauden legebiltzarkide guztiok berdintasunean arituko garelako. Gure lehen parte-hartzea egingo dugun egun honetan hemen zaudeten PP eta PSEko legebiltzarkideon gaineko mehatxua desagertu egin delako. Benetan da pozgarria. Ea atzerapausorik ez duen eta euskal gizarteak eskatzen duen su-eten mugagabearen atarikoa den. Ea distentsioak distentsioa ekartzen duen eta guztion sufrimendua arintzen joaten den, baita, noski, presoena, haien senitartekoena eta, oro har, kaltetu guztiena. Ea benetan Legebiltzar honetan herritarrek aukera guztien artean aukeraturiko ordezkariak izaten garen. Hori era, gainditu beharra baitago. Izan ere, bakea da gehienon helburu nagusia. Bakeak eta normalizazioak izan behar du hurrengo urteetako guztion lehentasuna. Eta helburu nagusi horretan bat eginez, guztiok, edo ia guztiok, behintzat, agertu dugu bide horretan konpromisoak hartzeko borondatea.

Horren haritik, behin eta berriz esan dugu hau, honako hau, gaur hastear gauden hau, elkarrizketaren legealdia izango dela, eta hori da hauteskunde-gaua geroztik denok ahotan izan dugun esaldia. Batetik, bakea eta normalizazioa lortzeko sakonean dirauten desadostasunak gainditzeko baldintzak ikusten ditugulako, aro politiko berri baten atarian gaudela sumatzeko datu objektiboak ditugulako eta –gure kanpainako leloan genioen bezala– aro berriak bide berriak eskatzen dituelako. Baina bestetik, elkarrizketaren legealdia izan behar du halabeharrez, Legebiltzarraren argazki irekia zein irekia den ikusiz ekar ulertzera behartuak gaudelako. Guztiok dugu guztion beharra. Guztiok

*Berriro ekin zaio arratsaldeko hiru eta erdietan.*

LEHENDAKARIAK: Buenas tardes a todos y a todas. Por favor. Continuamos con la sesión plenaria. Vamos, se reanuda la sesión.

A continuación intervendrán los representantes de los distintos grupos parlamentarios. Tiene la palabra la representante del grupo Mixto-Aralar. Señora Ezenarro, tiene la palabra.

EZENARRO EGURBIDE andreak: Antes que nada, en la que constituye la primera comparecencia de Aralar en el Parlamento Vasco quisiera agradecer a todas aquellas personas que han creído en este proyecto renovador. A todas aquellas personas que han creído en este proyecto de revitalización y reorientación de la izquierda abertzale. Estamos presentes en el Parlamento de Navarra, firmemente presentes, y en el País Vasco Norte la primera fuerza abertzale, AB, se ha unido al proyecto de izquierda abertzale impulsado únicamente desde las vías políticas, y hoy, aquí, comenzamos este nuevo camino, cargado de ilusión, en el Parlamento Vasco.

Por otro lado, y antes de continuar con mi intervención, quisiera mostrar mi satisfacción por el hecho de que todos los parlamentarios y parlamentarias presentes hoy aquí participemos en condiciones de igualdad. Porque en este día en que nosotros comparecemos por vez primera, la amenaza que pesaba sobre los parlamentarios y parlamentarias del PP y del PSOE aquí presentes ha desaparecido. Sinceramente, es de gran satisfacción. Y el preámbulo a la tregua indefinida, sin vuelta atrás, que exige la sociedad vasca. Ojalá llegue la distensión y se vaya aliviando el sufrimiento de todas las personas, incluido, por supuesto, el de los presos y las presas, sus familiares y, en general, el de todas las personas afectadas. Veremos si realmente estamos en este Parlamento todos los representantes políticos elegidos por la ciudadanía entre las distintas opciones. Porque eso es algo que también hay que solucionar. En concreto, el objetivo fundamental de la mayoría es la paz. La prioridad para todos y todas, en los próximos años, debe ser la paz y la normalización. Y unidos en ese objetivo fundamental, todos y todas nosotras, o la mayoría al menos, hemos mostrado la voluntad de adoptar compromisos en esa dirección.

En ese sentido, hemos repetido una y otra vez que ésta, la que comienza hoy, será la legislatura del diálogo, frase que está en boca de todos desde la noche electoral. Por un lado porque observamos condiciones para superar profundos desacuerdos existentes para el logro de la normalización política, porque contamos con datos objetivos para considerar que estamos a las puertas de una nueva etapa política y –como afirmábamos en nuestro lema electoral– porque dicha etapa nueva exige nuevas vías. Pero, por otro, esta legislatura debe ser obligatoriamente la legislatura del diálogo, porque si se observa el espectro parlamentario de esta Cámara, viendo lo abierto que

dugu zer emana eta zer esana. Elkar hartzera eta elkar ulertzera kondenatuak gaude, baldin eta benetan legealdi honek aurrera egitea nahi badugu.

es, se comprende que estamos obligados a entendernos mutuamente. Nos necesitamos unos a otros. Todos tenemos qué dar y qué recibir. Estamos condenados a entendernos y a dialogar si realmente queremos que la legislatura avance.

Baina hori horrela izanik ere, praktikan kontrako jarrerak ikusi ditugu legealdiko lehen asteotan: kontrakoa gertatu zen Legebiltzarreko Mahaia osatzeko prozesuan, kontrako gertatu da taldeak osatzerakoan, eta hala gertatzen ari da lehendakaria aukeratzeko prozesu honetan ere. Hautagai bi daude, hori denok dakigu. Ez dakigu, ordea, bietako batek legebiltzarkideen gehiengoa bildu ote duen… agerian ez, behintzat. Eta egia esan, zalantzazko egoera hau ez da modurik egokiena adostasunearen legealdia izan behar duen honi hasiera emateko. Euskal gizarteak ez du merezi politikook adostasunetara heltzeko dugun gaitasun eza. Badirudi ezustekoarena ohitura bihurtzen ari dela euskal politikagintzan eta horrek ez luke izan behar politika egiteko modua. Botuak behar dituenak botuak hitzartuta etorri behar genuen gaur hona. Baina ez da horrela izan. Akordiorik gabeko pleno baten aurrean gaude.

Pero, aunque eso sea así, en la práctica hemos visto posturas contrarias a lo largo de las primeras semanas de la legislatura: en el proceso de nombramiento de la Mesa del Parlamento ocurrió justo lo contrario, y también se está produciendo así en el proceso de elección del presidente del Gobierno. Hay dos candidatos, eso lo sabemos todos. Lo que no sabemos, sin embargo, es si alguno de los dos ha conseguido la mayoría de parlamentarios y parlamentarias… aparentemente no, al menos. Y, a decir verdad, esta situación de incertidumbre no es el modo más apropiado para dar inicio a esta legislatura, que debe ser la del consenso. La sociedad vasca no se merece esta incapacidad de sus políticos para alcanzar acuerdos. Parece que los sobresaltos se están convirtiendo en práctica habitual en la política vasca, y ése no debería ser el modo de hacer política. Hoy debíamos celebrar esta sesión con los votos asegurados por parte de aquellos que necesitan dichos votos. Pero no ha sido así. Estamos ante un pleno sin acuerdo ninguno.

Eta akordiorik ezean, zer egiten da? Gainontzekooi eskatzen zaigu arduraz jokatzeko; adostasunik ezean, entzundakoaren arabera bozkatzeko. Arduraz jokatu behar duena, ordea, batez ere, herri hau lideratzeko bere burua aurkezten duena da. Eta arduraz jokatzea da beharrezkoak dituen botuak eta babesak landu eta lortzea.

Y en ausencia de acuerdo, ¿qué se hace? Se nos pide al resto que actuemos con responsabilidad; ante la falta de acuerdo, que votemos según lo que hemos escuchado por ahí. Pero quien debe actuar con responsabilidad es aquel que se presenta a sí mismo para liderar este país. Y actuar con responsabilidad significa trabajarse y lograr los votos y apoyos necesarios.

Batetik daukagu bere hautagaitza lehenengo aurkeztu duena, Lopez jauna, printzipioz 18 legebiltzarkideren babesarekin. Ez da inorekin bildu, ez du botorik eskatu. Konfiantza eskaintzea eskatzen digu gainerakoei eta, bereziki, ezkerreko alderdiei. Baina zeri eman behar diogu konfiantza? Zer nahi duzu, ezkerreko alderdi abertzaleok sinistea benetan zuen alderdia PSCren bidetik abiatuko dela? Oraingoz ez dugu horrelakorik ikusi.

Por un lado tenemos al candidato que ha presentado su candidatura en primer lugar, el señor López, que en principio cuenta con el apoyo de 18 parlamentarios y parlamentarias. No se ha reunido con nadie, no ha solicitado apoyos. Nos pide al resto que depositemos nuestra confianza en él, sobre todo a los partidos de izquierdas. ¿Pero en qué debemos depositar nuestra confianza? ¿Qué quiere, que los partidos de la izquierda abertzale creamos realmente que su partido seguirá la misma senda que el PSC? Hasta ahora no lo ha demostrado.

Herri hau nazioa dela eta, beraz, erabakitzeko eskubidea duela onartzeko bidetik abiatzen bazarete, posible izango da, orduan bai, posiblea izango da abertzale eta ez abertzaleen arteko zeharkako gobernu-akordioak egitea eta, beraz, ezkerreko indarren arteko akordioa. Baina proiektu guztiek berdintasunean garatzeko eskubiderik ez duten bitartean eta herri honek askatasunean erabakitzeko eskubiderik ez duen bitartean, zaila ikusten dugu horrelakorik gertatzea.

En torno a la cuestión del carácter de nación de este país, por lo tanto, si parten de la aceptación de su derecho a decidir será posible, entonces sí, será posible lograr acuerdos de gobierno transversales entre nacionalistas y no nacionalistas y, como resultado, entre partidos de izquierdas. Pero mientras no tenga derecho a desarrollar todos sus proyectos en condiciones de igualdad y mientras este país no tenga derecho a decidir libremente, vemos difícil que ocurra algo así.

Bestetik, Ibarretxe jauna, zuk eta hirukoak Aralarrekiko lehentasuneko harremanaz hitz egiten daramazue hauteskundeak eta hurrengo egunaz geroztik. Guk, benetan –eta zintzotasun osoz esaten dizut–, adostasunetara heltzeko jarrera irekia agertu dugu beti. Baina hasieratik-hasieratik esan genizuen adostasu-

Por otro, señor Ibarretxe, usted y el tripartito llevan hablando sobre una relación prioritaria con Aralar desde el día siguiente a las elecciones. Nosotros, realmente –y se lo digo con toda sinceridad–, hemos mostrado siempre una postura abierta para llegar a un acuerdo. Pero desde el inicio les dijimos que para al-

netara heltzeko, akordio programatikoetara heldu behar ginela, gurekin lehentasunezko harremanak izan nahi dituenak akordio programatikoak egin behar zituela. Gure programa esku artean izan duzue lehenengo errondatik, baina, hala ere, azken astera arte ez zarete harremanetan jarri gurekin gai honetaz hitz egiteko. Eta, gainera, aste honetan izan ditugun hiru kontaktuetan, guk proposatutako gai zehatzen inguruko eztabaidara sartu ere ez zarete egin. Ez duzue nahi izan zuen programaren koma bat bera ere aldatu. Eta, klaro, noski, bik ezin dute adostasunetara heldu baldin eta batek nahi ez badu.

Hori da gure harremanaren kronika: berandu hasia; hiru bilera besterik ez, eta zuen programaren ukitzeko asmorik ez. Hori izan da lehentasuneko harremana izan nahi zenuten taldearekin izan duzuen jarrera. Zein jarrera izango ote duzue beste batzuekin? Ez da bilatu akordiorik; ez dago, beraz, akordiorik. Bilatu dena da, zuen programaren atalik txikiena ere aldatu gabe, Aralarrek lehentasunezkoa omen den harremana izatea onartzea eta gaurko saioan gure botoa izatea. Baina zertan oinarrituta?

Eta larriena badakizue zer den? Larriena da badagoela akordioetara heltzeko oinarria. Programako ildoetan adostasunetara heltzeko aukerak badaude, baldin eta erdibideak bilatzeko borondatea izaten badugu bi aldeetatik. Eta sakoneko gaietan, berriz, adostasun maila oso altua da. Datorren gobernua bakea eta normalizazioa gidatuko duen gobernua izatea nahi dugu, horretan bat gatoz. Egia da ez dela derrigorrean gobernuaren egitekoa, baina gizarte hau lideratzeko konpromisoa hartzen duenak bakea eta normalizazioa bultzatzeko konpromisoa hartu beharko lukeela uste dugu. Ados?

Alderdi politikoen arteko elkarrizketa-mahaia martxan jarri eta bultzatu beharko luke Gobernuak. Berehalakoan. Hasi nahi dutenekin hasiz. Besteak noiz mugituko diren zain egon gabe. Horretarako, bat gatoz ere esan duzunarekin eta guk ere beharrezkoa ikusten dugu eztabaida modu ordenatuan emateko lehenik metodologia bat proposatzea. Baina epea jarri behar diogu elkarrizketaren amaierari ere, ez hasierari bakarrik. Gehienez bi edo hiru urte. Eta behin epe hori igarota, herri kontsulta egin beharko litzateke: alderdien arteko akordioa balego, kontsentsuz zein gehiengoz, akordioa berresteko, akordiorik ezean egoera desblokeatzeko.

Legealdi honetan kontsulta egiteko konpromisoa hartu beharko luke gobernu honek. Eta hori ez dut entzun zure hitzaldian; beraz, hemen doa nire lehen galdera: konpromisoa hartzen al duzu legealdi honetan kontsulta egiteko, akordioa egon ala ez egon? Guretzat, berriro diot, beharrezkoa da elkarrizketei amaiera-epea jartzea, eta ondoren kontsulta deitzeko konpromisoa hartzea.

canzar el acuerdo deberíamos llegar a acuerdos programáticos, que quien quisiera tener relaciones prioritarias con nosotros debería alcanzar acuerdos programáticos. Han tenido nuestro programa entre sus manos desde la primera ronda de contactos, pero, sin embargo, han esperado hasta la última semana para ponerse en contacto con nosotros y hablar sobre esta cuestión. Y, además, en los tres contactos mantenidos esta semana ni siquiera han entrado en un debate sobre cuestiones específicas planteadas por nosotros. No han querido cambiar ni siquiera una coma de su programa. Y, claro, evidentemente, dos no llegan a un acuerdo si uno no quiere.

Ésa es la crónica de nuestra relación: empezó tarde; únicamente tres reuniones, y ninguna intención de tocar su programa. Ésa es la postura que han mantenido con ese grupo con el que deseaban mantener relaciones prioritarias. ¿Qué comportamiento tendrán con algunos otros? No se ha buscado ningún acuerdo; en consecuencia, no hay acuerdo. Lo que se buscaba era, sin cambiar en lo más mínimo su programa, que Aralar aceptara esa supuesta relación prioritaria y contar con nuestro voto en la sesión de hoy. ¿Pero sobre qué base?

¿Y saben qué es lo más grave? Lo más grave es que existe una base para alcanzar acuerdos. Hay posibilidades de alcanzar acuerdos sobre líneas programáticas si ambas partes muestran intención de llegar a puntos intermedios. Y en las cuestiones de fondo, por otra parte, el grado de consenso es muy alto. Queremos que el próximo gobierno sea el gobierno que lidere la paz y la normalización, en eso coincidimos. Es cierto que no es una responsabilidad que el gobierno tenga que adoptar obligatoriamente, pero creemos que aquel que adopta el compromiso de liderar esta sociedad debería comprometerse también a promover la paz y la normalización. ¿No creen?

El Gobierno debería poner en marcha y promover la mesa de diálogo entre partidos políticos. Inmediatamente. Empezar con quienes estén dispuestos a participar. Sin esperar a que se muevan los demás. Para ello, estamos de acuerdo con lo que ha manifestado, y nosotros también consideramos necesario proponer, en primer lugar, una metodología que garantice la celebración del debate de forma ordenada. Pero también debemos fijar un plazo de finalización para las conversaciones, no basta con iniciarlas únicamente. Dos o tres años como máximo. Y una vez transcurrido ese plazo habría que celebrar una consulta popular: si hubiera acuerdo entre partidos, por consenso o mayoría, para ratificar el acuerdo, y, de no haber acuerdo, para desbloquear la situación.

Este gobierno debería comprometerse a celebrar una consulta a lo largo de esta legislatura. Y en su discurso no he oído nada parecido; en consecuencia, ahí va mi primera pregunta: ¿se compromete a realizar una consulta en esta legislatura, haya acuerdo o no? En nuestra opinión, repito, es necesario fijar un plazo de finalización para las conversaciones y adoptar el compromiso de realizar una consulta posteriormente.

Eta bestetik, Gobernuak bakegintzan laguntzeko bere esku dagoen guztia egin behar du, baita bere esparruari dagokionean ere. Bere esku dauden distentsio-keinuak eginez, hala nola atxilotuen eskubide guztiak babestuko direla ziurtatuz. Halaxe eskatu izan diogu Aralarretik, eta hor keinu bat ikusi dut zure hitzaldian. Orain arte esan zaiguna baino haratago joan zara: "Eusko Jaurlaritzak aztertu eta hobetu egingo du atxilotutako pertsonentzako laguntza eta arreta protokoloak eta inkomunikazioa aplikatuko da, bakarrik, epaileak hala eskatzen duenean". Honekin zer esan nahi duzu? Ertzaintzak legez behartuta dagonean bakarrik aplikatuko duela inkomunikazioa? Galdera.

Eta bigarrenik. Jarraitzen duzu esanez inkomunikazioa ematen den kasuetan Nazio Batuen torturaren kontrako konbentzioan jasotako neurrien arabera babestuko direla bere eskubideak. Nik kasu honetan, konbentzio hori, dakigun bezala, oso orokorra delako eta ez duelako zehaztasunik ematen, nahiko nuke entzun Amnistia Internazionalak, TATek edo Arartekoaren gomendioak jasotzen duten eskakizuna zeure egiten dituzula. Hori nahiko nuke entzun. Alegia, inkomunikazio-kasuak ebitatu ezin direnean legeak horrela behartzen duelako, gutxienez bideoak jarriko direla.

Bi gai hauei buruzko erantzun argiak jasotzea oso argigarria litzateke guretzat. Baina, horrez gain, Aralarrekin lehentasuneko hitzarmen bat sinatzeko ez da nahikoa gai politikoetan ados egotea. Aralarrek hiruko gobernuarekin harreman berezia izatea nahi baduzue, uste dut ulertzekoa dela gobernu horrek aurrera eramango dituen politikak zehazten dituen programan ere eragin nahi izatea, programan ere gutxieneko adostasunak bilatzea. Hori beharrezkoa ikusten dugu behintzat Aralarretik, eta oraingoz horri uko egin diozue.

Bukatzen joan behar dut? Bueno, gero, bigarren txanda batean jarraituko dugu, baina nik, behintzat, bi galdera horien erantzuna ikusi nahiko nuke, bueno, oraindik gure jarrera horren arabera irekia dagoelako.

Eskerrik asko.

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, Ezenarro anderea.

Mistoa-Ezker Batua Berdeak taldearen ordezkariak dauka berbera.

Karrera jauna, zurea da hitza.

El Sr. KARRERA AGIRREBARRENA: Presidente anderea, legebiltzarkideok, arratsalde on.

Y, por otra parte, el Gobierno debe hacer todo lo que esté en su mano para ayudar a la pacificación, también en lo que hace referencia a su ámbito. Realizando aquellos gestos de distensión que estén en su mano, como por ejemplo garantizar que se respeten todos los derechos de presos y presas. Así se lo hemos pedido desde Aralar, y en ese punto sí que he observado un gesto en su discurso. Ha ido más allá de lo que se nos solía decir hasta ahora: "El Gobierno Vasco profundizará y perfeccionará los protocolos de asistencia y atención a las personas detenidas, sobre todo a las sujetas excepcionalmente a un régimen de incomunicación; dicho régimen únicamente será aplicado previa resolución judicial, y no de forma sistemática". ¿Qué quiere decir con eso? ¿Que la Ertzaintza únicamente aplicará la incomunicación cuando lo exija la ley? Pregunta.

Y en segundo lugar. Continúa diciendo que en los casos de incomunicación se respetarán sus derechos según se establece en la convención contra la tortura de las Naciones Unidas. Yo, en este caso, porque, como todos sabemos, dicha convención es muy general y no entra en disposiciones concretas, preferiría oír que hace suyas las recomendaciones de Amnistía Internacional, de TAT o del Ararteko. Eso es lo que me gustaría oír. Es decir, que en los casos en los que no se pueda evitar la incomunicación, porque la ley así lo exige, al menos se instalen vídeos.

Para nosotros sería muy clarificador recibir respuestas claras en torno a ambas cuestiones. Pero, aparte de eso, para firmar un acuerdo prioritario con Aralar no basta con coincidir en cuestiones políticas. Si quieren que Aralar mantenga una relación especial con el tripartito, creo que se entenderá que también se quiera incidir en el programa que define las políticas que serán llevadas a cabo por dicho gobierno, que se busquen unos acuerdos programáticos mínimos. Aralar, al menos, considera que eso es algo necesario, y hasta ahora ustedes han rechazado dicha posibilidad.

¿Tengo que terminar? Bueno, luego seguiremos en un segundo turno, pero a mí, al menos, me gustaría escuchar la respuesta a ambas cuestiones, ya que nuestra postura aún está abierta en función de dicha respuesta.

Muchas gracias.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias, señora Ezenarro.

Tiene la palabra el representante del grupo Mixto-Ezker Batua Berdeak.

Señor Karrera, tiene la palabra.

KARRERA AGIRREBARRENA jaunak: Señora presidenta, señoras y señores parlamentarios, buenas tardes.

Ezker Batua Berdeen botoa nolakoa izango den ez dut uste duda handirik edukiko duzuenik. Guztiok badakizue, horrela adierazi dugulako aurreko egun horietan, zer adostasun lortu dugun, eta hori horrela gertatu da aurreko egun horietan lan egin dugulako, adostasun hori lortzeko bilera asko eta ordu asko sartu ditugulako eta akordio horietara iritsi garelako. Horregatik, garbi dago Ezker Batuaren botoa nolakoa izango den, eta uste dut ez dagoela justifikatu beharrik.

No creo que tengan muchas dudas sobre el sentido del voto de Ezker Batua Berdeak. Todos conocen, porque así lo hemos manifestado estos últimos días, qué tipo de acuerdo hemos alcanzado, y se ha producido así porque estas últimas fechas hemos estado trabajando, porque hemos mantenido muchas reuniones y hemos trabajado largas horas para alcanzar un consenso, y al final ha habido acuerdo. Por eso, está claro cuál va a ser el voto de Izquierda Unida y creo que no es necesario justificarlo.

Baina, agirikoa denez baita ere, ez dugu Patxi López jaunak defendatutako hautagaitza babestuko. Eta hori ez babesteko, nik uste dut arrazoi asko daudela. Berak gaur goizean hemen egin duen agerpenak ez du laguntzen babesteko. Uste dut etorri dela, 18 eserleku bere alde dituela eta, aurretik akordiorik lortu gabe eta inorekin sakondu gabe; lehendakaritzara nola lortu eta gobernua nola eraman, aurretik batere lanik egin gabe.

Pero, como es evidente también, no apoyaremos la candidatura del señor Patxi López. Y creo que hay muchas razones para no apoyarla. Su intervención de hoy a la mañana no ha ayudado mucho para que le apoyemos. Creo que ha venido, con 18 escaños a su favor, sin lograr acuerdos anteriormente y sin profundizar con ningún grupo; dime cómo logras el gobierno y te diré cómo vas a gobernar, sin trabajar nada con anterioridad.

Baina, hori baino gehiago, badirudi berak badaukala beste 15 botoren ziurtasuna, eta horrekin 33 eserleku edukiko dituela eta horrela berdindu egin dezakeela. Eta baita ere horrela blokeoa lortuko dela eta nabari geldituko dela ondoren hemen gaur edo bihar edo aterako den lehendakaria, benetan, zatituta eta indar gutxirekin aterako dela, eta herriari mezu hori eman nahi diola. Nik uste dut hori dela batez ere garbi gelditzen den gauza, bestela berak ez zuen egingo gaur egin duen ekarpena, ez zuen honela egingo, bestela ezin dut ulertu hor nola egin daitekeen. Beraz, zuk zeuk esandakoa kontuan hartuz gero, López jauna, benetan uste dut ez zenuela zure hautagaitza bozketara aurkeztu behar. Nik susmoa daukat egin duzula, lehen esan dudan, gai hori lortzeko.

Pero, más que eso, parece que tiene asegurados otros 15 votos, y que con ellos obtendrá 33 escaños y así puede forzar el empate. Y también que de esta forma logrará imponer el bloqueo y así quedará claro que el presidente que resulte elegido hoy o mañana realmente saldrá con la Cámara dividida y con poca fuerza, y que ése es el mensaje que pretende transmitir a la sociedad. Yo creo que ésa es la idea que queda más palpable, porque de lo contrario no realizaría la contribución que ha realizado hoy, no actuaría así, de lo contrario no entiendo cómo se puede actuar así. En consecuencia, señor López, si tenemos en cuenta sus propias manifestaciones, creo sinceramente que no debería haber presentado su candidatura. Yo sospecho que lo ha hecho para lograr eso que he mencionado anteriormente.

Euskadiko Alderdi Sozialista PSOErentzat ez da batere egokia, nere iritziz, jendaurrean Alderdi Popularren eskutik joatea. Eta batez ere gogoan baldin badugu Madrilen zer gertatzen ari den manifestazioetan, egin diren akordioetan; Galizian zer gertatzen ari den; beste toki batzuetan zer gertatzen ari den. Hori dena gogoan baldin badugu, hala ere elkarrekin joatea iruditzen zait benetan..., ez dut nik ulertzen, eta hilaren 17an botoa eman zuten askok ere pentsatzen dut ez dutela ulertuko. Eta benetan uste dut nahiko gauza garrantzitsua dela.

En mi opinión, para el Partido Socialista de Euskadi PSOE no es nada conveniente, ante la opinión pública, ir de la mano del Partido Popular. Y sobre todo si tenemos en cuenta lo que está sucediendo en Madrid en las manifestaciones, en los acuerdos que se han alcanzado; lo que está ocurriendo en Galicia; lo que está ocurriendo en otros lugares. Si tenemos todo eso en cuenta, creo realmente que, aun y todo, ir juntos…, yo no lo entiendo y creo que tampoco lo entenderán muchos de los votantes del día 17. Y, sinceramente, creo que se trata de una cuestión realmente importante.

Una candidatura, señor López, se sustenta necesariamente sobre un programa de gobierno. El programa de gobierno que nos ha presentado hoy a mí me ha parecido una mezcla de promesas sin contenido, una carta a los Reyes Magos, un rosario de propuestas vacías más demagógicas que reales, que tienen como único objetivo ese empate que decía antes, conseguido con los votos del Partido Popular. Es una estrategia legítima a la que tienen ustedes derecho, evidentemente, pero me consta que no es la que espera o esperaba la sociedad vasca.

Kandidatura batek, López jauna, gobernu-programa bat izan behar du oinarri nahi eta nahi ez. Gaur aurkeztu diguzun gobernu-programa edukirik gabeko promes-multzo bat, nahaste bat, iruditu zait; Errege Magoei egindako gutuna, egiazkoak baino gehiago demagogikoak diren proposamen hutsalen zerrenda iruditu zait, eta argi ikusi da helburua lehen aipatu dudan berdinketa hori lortzea dela, Alderdi Popularraren botoei esker lortuko duzuna. Eta estrategia hori zilegia da, eskubide osoa duzue estrategia hori jarraitzeko, baina iruditzen zait ez dela euskal gizarteak espero duena edo espero zuena.

Euskal hiritar guztiak, nori bozkatzen dioten alde batera utzita, indarkeriaren amaieraren alde eta indar politiko guztien arteko elkarrizketa demokratikoaren alde daude, bai eta bizikidetza pluralaren alde eta ongizate, kohesio eta justizia sozialeko politikaren alde ere. Azken batean, horixe bera da hiru astez negoziatzen egon ondoren Ezker Batua Berdeek, Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak sinatu dugun gobernu-hitzarmenaren helburu nagusia. Hori dela eta, Euskadirentzat eta bertan bizi garenontzat hitzarmen ona dela diogu.

Todos los ciudadanos y ciudadanas vascas, independientemente de a quién voten, son partidarias del fin de la violencia y del diálogo democrático entre todas las fuerzas democráticas, así como de la convivencia plural y de la política de bienestar, cohesión y justicia social. En última instancia, ése es precisamente el objetivo principal del acuerdo de gobierno alcanzado, tras tres semanas de negociación, entre Ezker Batua Berdeak, Partido Nacionalista Vasco y Eusko Alkartasuna. Por ese motivo, afirmamos que se trata de un acuerdo bueno para Euskadi y para quienes vivimos aquí.

Es además un pacto de futuro, un acuerdo que responde a los retos que tenemos por delante en clave constructiva y con propuestas concretas y efectivas. Así, podemos distinguir dos partes fundamentales:

Eta, gainera, etorkizunerako ituna da, aurrean ditugun erronkei gauzak egiteko gogoz eta proposamen zehatzen eta eragingarrien bidez erantzuten dien akordioa. Eta, alde horretatik, bi zati nagusi bereiz ditzakegu:

Una primera parte referente a la pacificiación y también, aunque no es lo mismo, la normalización política, en la que asumimos los siguientes compromisos: el respeto a los derechos humanos y a las libertades civiles y políticas de todas las personas sin excepción; el apoyo político, económico y ético a las víctimas de la violencia y a sus familiares; la apuesta exclusiva por las vías políticas y democráticas; el rechazo de todas las acciones y expresiones de violencia y conculcación de los derechos humanos individuales y colectivos; el cese definitivo, claro, firme, inequívoco de la violencia por parte de ETA; el diálogo y la negociación sin exclusiones entre todas las sensibilidades políticas presentes en la sociedad vasca; la derogación de la Ley de Partidos Políticos; el derecho de la sociedad vasca a decidir su futuro; el acercamiento de las personas presas a las cárceles próximas a sus lugares de origen.

Lehenengoa, bakegintzari eta, nahiz eta ez diren gauza bera, normalizazioari buruzkoa, eta arlo horretan honako konpromiso hauek hartzen ditugu geure gain: pertsona guztien giza eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak errespetatzea, inor salbuetsi gabe; indarkeriaren biktimei eta euren senitartekoei babes politikoa, ekonomikoa eta etikoa adieraztea; bide politiko eta demokratikoetatik, eta horietatik bakarrik, aurrera egitearen aldeko apustua; indarkeria ekintza eta adierazpen guztiak gaitzestea eta giza eskubide indibidualen eta kolektiboen urraketak arbuiatzea; ETAk irmotasunez eta argi adieraztea indarkeriari behin betiko amaiera emango diola; elkarrizketa eta negoziazioa, inor baztertu gabe, euskal gizartean dauden sentsibilitate politiko guztien artean; Alderdi Politikoen Legea indargabetzea; euskal gizarteak etorkizuna erabakitzeko eskubidea gauzatzea; presoak jaioterritik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzea.

Jaun-andreok, jakin badakigu Euskadin bakea eta normalkuntza politikoa egia bihurtuko direla behingoan alderdi politiko guztiok printzipio horiek geure egiten baditugu. Vicent Fisasek, Bartzelonako Unibertsitateko Bake eta Giza Eskubideen Unesco katedrako titularrak, ondo baino hobeto dionez, bakea eta normalkuntza eratzeko, alderdien borondatean eta lasaitzeko keinuen batuketan oinarritu behar gara. Prozesuak aurrera egin dezan, mugitzeko borondate zintzoa egon behar da lehendabizi, eta lasaitzeko adierazpen edo keinu zehatzak bezain eraginkorrak, ondoren.

Señorías, sabemos que la paz y la normalización política se harán realidad en Euskadi si, de una vez, todos los partidos políticos asimilamos dichos principios. Como afirma acertadamente Vicent Fisas, titular de la cátedra Unesco de Paz y Derechos Humanos de la Universidad de Barcelona, para construir la paz y la normalización deberemos basarnos en la voluntad de los partidos y la unión de gestos tranquilizadores. Para que el proceso siga hacia adelante, en primer lugar es necesaria la voluntad inequívoca de moverse, y, posteriormente, gestos o declaraciones tranquilizadoras tan precisas como efectivas.

Ezker Batua Berdeak baikorregiak izango gara agian. Hala ere, benetan sinetsi nahi dut mundu horrekin indarkeriaren zikloaren bukaerara joango garela, halako aitormenak dira azkeneko adierazpen guztiak: bai Anoetakoak edo ETAk lehengo igandean egin zituenak, eta abar, eta abar. Hain zuzen ere, zentzu horretan interpretatu nahi dugu joan den maiatzaren 17an Diputatuen Kongresuan lortutako hitzarmena. Horren arabera, Estatuko botere eskudunen eta indarkeria bertan behera utzi nahi dutenen arteko elkarrizketa-prozesuak babestuko dira. Horrela dio behintzat.

Puede que en Ezker Batua Berdeak quizá seamos demasiado optimistas. Sin embargo, quiero creer realmente que con ese mundo llegaremos al fin del ciclo de la violencia, declaraciones como esas son todas las últimas: tanto las de Anoeta como las de ETA del domingo pasado, etcétera, etcétera. De hecho, en ese sentido queremos interpretar también el acuerdo alcanzado el pasado día 17 de mayo en el Congreso de los Diputados. En virtud del mismo, se apoyará el proceso de diálogo entre los poderes competentes del Estado y aquellos que quieran abandonar definitivamente la violencia. Eso es al menos lo que dice.

Ez dago biderik, jaun-andreok: ETAk ezetz esan behar dio indarkeriari eta Estatuak presoen zein errefuxiatuen egoerari buruzko elkarrizketaren aldeko apostua egin behar du. Eztabaida politikoa eta negoziaketa politikoa, berriz, alderdi politikoei dagokigu; guzti-guztioi, hau da, ezker abertzaletik hasi eta Partidu Popularreraino, denei. Euskal erkidegoaren hitza da. Sentsibilitate desberdineko pertsonak bizi gara bertan. Ezker Batua Berdeen ustez sentsibilitate horiek guztira dira bidezkoak. Erabakitzeko eskubidearen alde egin dugun apostuak, hain zuzen ere, testuinguru horretan bertan dauka indarra, demokrazia sakontzen eta hiritarren parte hartzeko aukera bultzatzen duelako.

Señorías, no hay otra vía posible: ETA debe rechazar la violencia, y el Estado debe apostar a favor del diálogo sobre la situación de presos y refugiados. El debate político y la negociación política, por su parte, nos corresponden a los partidos políticos; a todos, es decir, comenzando por la izquierda abertzale y hasta el Partido Popular, a todos. Se trata de la palabra de la comunidad vasca. En la misma residimos personas de sensibilidades diferentes. En opinión de Ezker Batua Berdeak, todas esas sensibilidades diferentes son legítimas. La apuesta a favor del derecho a decidir precisamente tiene fuerza en ese contexto, ya que ahonda en la democracia e impulsa el derecho de participación de la ciudadanía.

Ez dugu ulertzen nolatan dauden oraindik eskubide hori ukatzen duten alderdi politikoak. Hiritarren ahotsa entzuteko beldur ote dira? Nik gogoratu nahi dut 1978. urtean, Espainiako Konstituzioa egin zenean, ezkerrak printzipio garrantzitsuak utzi behar izan zituela alde batera, hitzarmena lortzeko eta bizikidetza sustatzeko. Besteak beste, jaun-andreok, Estatuaren esku utzi zuen erreferendumak eta herri-kontsultak deitzeko eskumena. Beste garai bat zen, eta estatukolpearen mehatxupean geunden, sable-hotsen, botere faktikoen presioen artean. Hala ere, aurrera egin zen.

No entendemos cómo puede haber aún partidos que rechazan dicho derecho. ¿Acaso temen oír la voz de la ciudadanía? Yo quiero recordar que en el año 1978, cuando se elaboró la Constitución española, la izquierda tuvo que dejar a un lado principios importantes para poder lograr un acuerdo y fomentar la convivencia. Entre otros, señorías, dejó en manos del Estado la capacidad para convocar referenda y consultas populares. Era otra época y vivíamos bajo la amenaza de un golpe de estado, entre presiones de los poderes fácticos. Aun y todo, se pudo avanzar.

Hoy esta restricción de derechos no tiene justificación, y por ello nos cuesta comprender la actitud del Partido Socialista, que en esta materia comparte posiciones con el Partido Popular.

Gaur ez du zentzurik eskubide horiek mugatzeak, eta horregatik ezin dugu ulertu Alderdi Sozialistaren jarrera, gai honetan Alderdi Popularrarenarekin bat datorrena.

El derecho a decidir, al que tanto temen el Partido Socialista de Euskadi y el Partido Popular, no responde a otro objetivo que potenciar la participación ciudadana en la vida política, dinamizando a la sociedad para que juegue un papel activo en la toma de decisiones, más allá incluso del propio modelo de país.

Euskadiko Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularra erabakitzeko eskubidearen beldur dira, baina eskubide horrek, berez, helburu bakar bati erantzuten dio: herritarren parte-hartzea bultzatu bizitza politikoan, gizartea dinamizatu erabakiak hartzean eginkizun aktiboa izan dezan, eta ez herri-ereduari buruzko erabakia hartzean bakarrik.

Ezker Batua Berdeak reivindica el derecho a decidir como expresión democrática de la voluntad popular en aquellos asuntos de trascendencia que afecten a la gestión pública. Pienso, por ejemplo, en las instalaciones de incineradoras o centrales térmicas, y muchos casos en que se pueden utilizar precisamente estas consultas.

Ezker Batua Berdeak taldeak aldarrikatzen du erabakitzeko eskubidea herriaren borondatearen adierazpen demokratikoa dela kudeaketa publikoari dagozkion gai garrantzitsuetan. Eta, esate baterako, era horretako kontsultak zein kasutan balia daitezkeen ari nintzen pentsatzen: erraustegiak edo zentral termikoak kokatzea pentsatzen denean, besteak beste.

La consulta popular a la sociedad sobre su futuro es irrenunciable para Ezker Batua Berdeak, como lo fue para el Partido Socialista en el periodo de transición. En el acuerdo del gobierno hemos introducido una referencia concreta a este punto, de modo que sea el Parlamento Vasco, en un escenario de ausencia de violencia, la institución competente para autorizar una consulta popular que ratifique, llegado el caso, el acuerdo político alcanzado entre las formaciones políticas.

Ezker Batua Berdeak taldearen ustez ezin zaio uko egin gizarteari nolako etorkizuna nahi duen galdetzeari, eta trantsizioaren garaian ere Alderdi Sozialistak horrela pentsatzen zuen. Gobernu-akordioan puntu horri buruzko erreferentzia zehatza sartu dugu, eta gure asmoa da, beraz, indarkeriarik gabeko agertokian, Eusko Legebiltzarra izatea, hala badagokio, indar politikoen artean lortutako akordio politikoa berretsiko duen herri-kontsulta baimentzeko erakunde eskuduna.

Sabemos que al Partido Socialista de Euskadi y al Partido Popular les incomoda esta opción, pero les instamos a que consideren su rechazo y avancen en políticas de profundización democrática y participación ciudadana.

Badakigu Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularra gogaitarazi egiten dituela aukera honek, baina eskatzen diegu arren gogoeta egiteko zergatik ez duten gogoko, eta demokrazia sakontzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko bidea jorratzen hasteko.

Aquí esta mañana, señor López, usted decía que había que dialogar. Efectivamente. Hemos ido a las elecciones, y el 60% del resultado de estas elecciones defendíamos ese derecho a decidir. El 60% lo llevaban sus programas. E incluso más: decían el derecho de autodeterminación. Por lo tanto, eso es lo legítimo: el 60% de la sociedad, el 60%, no estoy hablando de una minoría. Por lo tanto, eso es lo legítimo.

La PRESIDENTA: Por favor, les pido un poco más de silencio…

El Sr. KARRERA AGIRREBARRENA: Euskadin ez ezik, gure inguruko herrialdeetan ere garatu dute eztabaida hori. Gainera, bat nator gizarte-mugimendu berriekin, erakundeen eta gizartearen arteko hurbiltasun eta adostasun handiagoa eskatzen dutelako. Badakigu Legebiltzar honetan batzuek herrialde-eredura bakarrik mugatutako erabakitzeko eskubidea baino ez dutela buruan. Guk ez, ordea, jaun-andreok; lehen adierazi dudanez, Ezker Batua Berdeak urrutirago doaz eta demokrazia sendotu nahi dute.

Arlo horretan gu geu eta Euskadiko Alderdi Sozialista ados egon beharko ginateke. Hala ere, Patxi Lopez jaunaren agerraldia kontuan hartuta, argi eta garbi dago ezetz. Arlo horretan, badirudi dituen postulatoak hurbilago daudela eskuin espainoletik ezkerretik baino. Alde horretatik, gogoan izan behar duzue partaidetzan oinarritutako gizarte demokratikoak, anitzak, toleranteak, kritikoak, solidarioak, askeak eta protagonistak erabakitzeko eskubidea izan behar duela ezinbestean. Ez dago lasterbiderik, jaun-andreok: erabakitzeko eskubideak lotura estu-estua dauka beste eskubide eta askatasun batzuen erabilerarekin.

Euskal herritarrek bakean bizi nahi dute, mehatxurik gabe, xantaiarik gabe, askatasunean. Hori dela eta, ETAri eskatzen diogu desagertzeko, desegiteko eta indarkeria bertan behera uzteko behin betiko. Dena den, errealitatea bera ere oso kontuan hartu behar dugu, euskal gizarteak erabakitzeko eskubidea ere izan nahi duelako. Eta, baita, Euskadi gizarte heldua dela benetan uste dugulako, jendeak zer dioen entzun dezagun eta, are gehiago, euren aholkuak kontuan hartu ditzagun. Sarritan, hiritarrak erakundeen eta eragile politikoen aurretik joaten dira. Eta euskal gatazkan, behintzat, ez dut inolako zalantzarik.

No me extenderé más en este capítulo, porque entiendo que la posición de Ezker Batua Berdeak ha quedado clara. Porque la paz y la normalización política constituyen el eje prioritario del acuerdo de gobierno suscrito por Ezker Batua Berdeak, el Partido Nacionalista y Eusko Alkartasuna, pero desde un primer momento Ezker Batua transmitió a quienes ahora son sus socios de gobierno, o propuesta de socios de gobierno, la necesidad de avanzar en políticas de cohesión, integración y justicia social. Un gobierno que

Gaur goizean hemen, López jauna, esan duzu elkarrekin hitz egin behar dugula. Halaxe da. Hauteskundeetara jo dugu, eta hauteskundeen emaitzen %60k aldezten genuen erabakitzeko eskubide hori. %60k bere programan jasota zeraman. Eta gehiago ere esango dizut: autodeterminazio-eskubidea ere jasota zuten. Horixe da, beraz, zilegia: gizartearen %60k, %60k, ez naiz gutxiengoaz ari. Horixe da, beraz, zilegia.

LEHENDAKARIAK: Isiltasun apur bat, arren…

KARRERA AGIRREBARRENA jaunak: Además de en Euskadi, en los territorios de nuestro entorno también se ha desarrollado ese debate. Además, estoy de acuerdo con los nuevos movimientos sociales, que piden más cercanía y concordancia entre las instituciones y la ciudadanía. Sabemos que en este Parlamento algunos y algunas sólo conciben el derecho de decisión como algo unido al modelo de nación. Señorías, nosotros, sin embargo, no; tal y como he mencionado anteriormente, Ezker Batua Berdeak va más allá y quiere fortalecer la democracia.

En ese ámbito el Partido Socialista de Euskadi y nosotros deberíamos estar de acuerdo. Sin embargo, tomando como referencia la intervención del señor Patxi López, está claro que no es así. Parece que los postulados que tienen en esta cuestión están más cerca de la derecha española que de la izquierda. En ese sentido, deben tener en mente que las sociedades democráticas, basadas en la participación, plurales, tolerantes, críticas, solidarias, libres y protagonistas deben tener, indefectiblemente, derecho a decidir. Señorías, no hay atajo posible: el derecho a decidir tiene un vínculo muy estrecho con el uso de determinados derechos y libertades.

La ciudadanía vasca quiere vivir en paz, sin amenazas, sin chantajes, en libertad. Por ese motivo, pedimos a ETA que desaparezca, se disuelva y abandone definitivamente la violencia. En cualquier caso, también debemos tener muy en cuenta la propia realidad, porque la sociedad vasca quiere tener derecho a decidir. Y, asimismo, porque creemos que la sociedad vasca es realmente madura, escuchemos lo que dice la gente y, es más, tengamos en consideración sus consejos. En muchas ocasiones la ciudadanía va por delante de instituciones y agentes políticos. Y con respecto al conflicto vasco, al menos, no me cabe la menor duda.

Ez naiz gai honetan gehiago luzatuko, uste baitut Ezker Batua Berdeak taldearen jarrera argi geratu dela. Izan ere, bakea eta normalizazio politikoa Ezker Batua Berdeak, Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak izenpetu duten gobernu-akordioaren ardatz nagusi dira, baina Ezker Batuak hasiera-hasieratik jakinarazi zien gaur gobernukide dituenei, edo gobernukide izatea proposatu diotenei, beharrezkoa dela kohesio, integrazio eta gizarte-justiziaren arloko politiketan aurrera egitea. Bakearen eta normalizazio politikoaren alde

trabaje por la paz y la normalización política es clave para el futuro de Euskadi, pero tan clave es construir y consolidar un gobierno de progreso, un gobierno solidario, que defienda el desarrollo sostenible, la igualdad, el bienestar, etcétera, etcétera.

lan egiten duen gobernua funtsezkoa da Euskadiren etorkizunerako, baina hori bezain funtsezkoa da aurrerapenerako gobernu bat osatzea eta sendotzea, gobernu solidario bat, garapen iraunkorra, berdintasuna, ongizatea, eta abar, eta abar, aldeztuko dituen gobernu bat, osatzea eta sendotzea.

La violencia ha ocultado durante muchos años los debates sociales, favoreciendo *de facto* la aplicación de políticas privatizadoras de servicios, por un lado, y, por otro, la pérdida de calidad de aquellos que se mantienen todavía en el sector público y en otros. De ahí, señorías, la importancia de superar la violencia y sentar las bases de la normalización política.

Indarkeriak urte askoan utzi ditu ezkutuan gizarte-eztabaidak, *de facto*, alde batetik, zerbitzuak pribatizatzen zituzten politikak erraztuz eta, bestetik, oraindik alor publikoan edo beste alor batzuetan daudenei kalitatea galaraziz. Horregatik da, hain zuzen ere, hain garrantzitsua, legebiltzarkide jaun-andreok, indarkeria gainditzea eta normalizazio politikoaren oinarriak ezartzea, finkatzea.

Ha llegado la hora de que Euskadi priorice aspectos vinculados a las necesidades más íntimas –como las llama Bernardo Atxaga– del ser humano. Estoy pensando, sin ir más lejos, en la juventud que busca un empleo estable y con derechos, o en la pareja que no encuentra piso para poder vivir.

Iritsi da Euskadin gizakiak bere-bereak dituen beharrekin –Bernardo Atxagak esaten duen bezala– zerikusia duten alderdiak lehenesteko garaia. Eta oso urrutira jo gabe, lan egonkorra, eskubideduna, lortu nahi duen gazteak edota bertan bizi ahal izateko etxebizitzarik topatzen ez duen bikotea darabiltzat buruan.

Horra hor 0-2 urte arteko umeentzako hezkuntza-lekua eskatzen duten gurasoak, edo adineko gaixoak edo ezinduak etxean atenditzerik ez duten familiak. Egia esan, gai horiek ez dira inoiz interesgarriak izan eskuinarentzat. Homosexualen arteko ezkontzaren aurkako protestaldiak egiten dituzte, sistema kapitalistaren bidegabekeriak, zabor-kontratuak, etorkinen esplotazioa edo munduko gosea isiltzen duten bitartean. Sozialista izango banintz, gaur ez nuke zure botoa onartuko, eta are gutxiago zure helburua berdinketa sortzea bada, beste blokeo bat eragin nahi baduzue.

Ahí están los padres que solicitan centro educativo para los niños y niñas de 0-2 años, o las familias que no puedan atender a personas mayores enfermas o impedidas. A decir verdad, esas cuestiones nunca han interesado a la derecha. Han llevado a cabo protestas contra el matrimonio entre homosexuales mientras callan las injusticias y abusos del sistema capitalista, los contratos basura, la explotación de la población inmigrante o el hambre en el mundo. Si fuera socialista hoy no aceptaría su voto, y mucho menos si su objetivo es forzar el empate, si lo que quieren es crear un nuevo bloqueo.

El acuerdo tripartito incorpora el compromiso para el próximo Gobierno Vasco de asumir la gestión integral del tren de alta velocidad introduciendo cambios muy importantes. Ya se ha dicho por ahí; no me queda mucho tiempo, no los voy a repetir aquí.

Hirukoak lortutako akordioak beste konpromiso bat ere jasotzen du eratuko den Jaurlaritzarentzat: abiadura handiko trenaren kudeaketa osoa bere gain hartzea aldaketa esanguratsuak eginez. Hortik zehar jadanik hitz egin da horri buruz; niri ez zait denbora askorik geratzen, eta ez naiz, beraz, esandakoak hemen berriro esaten hasiko.

Pues, bien, señorías, si este Parlamento es realmente el órgano representativo de la voluntad popular, también habremos de abordar aquellos debates que interesan realmente a las personas que hoy integran el País Vasco. Por ejemplo, en esta legislatura a Ezker Batua le corresponderá la responsabilidad de elaborar siete proyectos de ley en respuesta a otros tantos problemas. Me refiero a la ley del suelo, a la ley de vivienda, a la ley de cooperación al desarrollo, a la ley de mediación familiar, a la ley contra la discriminación por razón de orientación sexual e identidad de género cruzada, la ley sobre derechos y deberes de las personas emigrantes y la modificación de la Ley de Servicios Sociales para dar respuesta al fenómeno de la dependencia.

Ederto, legebiltzarkideok, bada, Legebiltzar hau benetan bada herriaren borondatea ordezkatzen duen erakundea, gaur Euskal Herria osatzen duten gizon-emakumeei benetan interesatzen zaizkien eztabaidei ere ekin beharko diegu. Esate baterako, legealdi honetan Ezker Batuarena izango da zazpi lege-proiektu, beste hainbeste arazori erantzuna emateko izango diren zazpi lege-proiektu, gauzatzeko erantzukizuna. Zuek dakizuen bezala lurzoruaren legeaz, etxebizitzaren legeaz, garapenari laguntzeko legeaz, familia-bitartekotzarako legeaz, sexu-orientazioa edo genero-identitate gurutzatua direla-eta inor baztertzearen aurkako legeaz, atzerritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko legeaz eta, mendekotasunari erantzuteko, Gizarte Zerbitzuen Legean egingo den aldaketaz ari naiz.

Gai horietan guztietan hitzarmen sakonak lortzeko prest zaudetelakoan nago, jaun-andreok. Izan ere, Ezker Batua Berdeen jarrera zintzoa izango da eta elkarrizketa konstruktiborako zabal-zabalik egongo ga-

Señorías, creo que están dispuestos a alcanzar acuerdos de peso en lo referente a todas esas cuestiones. De hecho, la actitud de Ezker Batua Berdeak será leal y estaremos totalmente abiertos al diálogo cons-

ra. Ganbera honetan dauden alderdi politiko guztiekin inolako salbuespenik gabe, eta euren burua ezkertiartzat duten legebiltzarkide guztiekin batez ere. Aurreko legegintzaldian gatazka eta blokeoa nagusia izan baziren ere, adostasunaren eta ulermenaren legegintzaldia izan behar da oraingoa. Helburu hori lortzea gure esku dago eta Ezker Batua Berdeek luzatu egiten dituzte eskuak gaurtik eta bide horretan egin nahi dute lana.

tructivo. Con todos los partidos políticos representados en esta Cámara, sin excepción, y principalmente con todos aquellos parlamentarios y parlamentarias que se consideren de izquierdas. Si bien en la legislatura anterior primaron el conflicto y el bloqueo, ésta debe ser la legislatura del consenso y del entendimiento. El logro de ese objetivo está en nuestras manos, y Ezker Batua Berdeak les tiende la mano y quiere trabajar en esa vía de hoy en adelante.

Euren burua ezkertiartzat duten alderdiak aipatu ditut, eurek inork baino hobeto balioetsiko dutelako etxebizitza-egitasmoko aurrekontuan lortu dena gure akordioan. Horri esker 40.000 etxebizitza berri eraikiko dira eta euretatik bederatzi alokairukoak izango dira. Era berean, hutsik dauden 8.000 etxebizitzak mugitzeko diru-laguntzak eta erabilitako 2.000 etxebizitzaren erosketa diruz laguntzeko laguntza ere zabalduko da. Horretarako, plan berezia egingo dugu eta gazteentzako zein adinekoentzako apartamentuak jarriko dira martxan.

He mencionado los partidos que se consideran de izquierdas porque ellos valorarán mejor que nadie el acuerdo alcanzado en torno al presupuesto relativo a proyectos de vivienda. Gracias a dicho presupuesto se construirán 40.000 nuevas viviendas y nueve de ellas serán de alquiler. Asimismo, se concederán subvenciones para poner en circulación 8.000 viviendas vacías y para ayudar económicamente a la compra de 2.000 viviendas usadas. Al efecto, elaboraremos un plan especial y se pondrá en marcha apartamentos tanto para jóvenes como para personas mayores.

En este ámbito de los servicios sociales también se contabiliza un esfuerzo para el conjunto de la legislatura. Se incrementará igualmente el presupuesto dedicado a la cooperación al desarrollo, con el objetivo de alcanzar el 0,7 del presupuesto total, respondiendo así a una demanda del movimiento solidario vasco. Se potenciará del mismo modo la asistencia social de los ayuntamientos vascos.

Gizarte-zerbitzuen esparru horretan legealdi osorako ahalegina ere jasota dago. Era berean gehitu egingo da garapenari laguntzera bideratzen den aurrekontua, eta helburua izango da aurrekontu osoaren 0,7ra iristea, era horretara euskal mugimendu solidarioaren eskaerari erantzunez. Era berean euskal udalen gizarte-laguntza ere sustatu egingo da.

No es mi intención, señorías, detallar una a una todas las iniciativas suscritas, pero sí es preciso que sepan ustedes que el acuerdo tripartito incluye también el compromiso de regular de forma estricta la subcontratación por parte de la Administración pública y la creación de mil nuevas plazas públicas anuales, preferentemente en las zonas urbanas, en el tramo educativo de 0 a 2 años de edad.

Nire asmoa ez da, legebiltzarkide jaun-andreok, izenpetu ditugun ekimenak banan-banan zehaztea, baina beharrezko ikusten dut zuek jakitea hirukoaren akordioan jasota geratu direla Administrazio publikoak egiten dituen azpikontratazioak zorrotz arautzeko konpromisoa eta 0-2 urteko hezkuntza-tartean, eta batez ere hirietan, urtean mila plaza berri sortzekoa.

Podría continuar hablando, por ejemplo, de la ampliación del hospital de Arrasate y muchas cosas más, pero pienso que, como he dicho antes, vais a tener rápidamente conocimiento del acuerdo que está establecido, y podréis leerlo allí.

Eta, esate baterako, Arrasateko ospitalearen zabalkuntzaz eta beste hainbat eta hainbat gauzaz hitz egiten jarrai nezake, baina pentsatzen dut, lehen esan dudan bezala, laster izan ahal izango duzuela finkatuta dagoen akordioaren berri, eta hantxe irakurri ahal izango duzue dena.

La PRESIDENTA: Barkatu, Karrera jauna… Por favor, les pediría a todos un poco más de silencio, porque molestan mucho al que está interviniendo.

LEHENDAKARIAK: Disculpe, señor Karrera… Arren, isiltasun apur bat gehixeago eskatuko nizueke, traba egiten baitiozue hitz egiten ari denari.

El Sr. KARRERA AGIRREBARRENA: Por ello, antes de concluir quiero pedir a todas las fuerzas políticas, y especialmente al Partido Socialista, a Aralar y también a EHAK, que sean coherentes con su voto. Quiero pedirles que voten con la razón. No caigan ustedes en la trampa del bloqueo, del empate infinito, y menos aún del adelanto electoral. Esta no es la voluntad mayoritaria de la sociedad vasca, ni tan siquiera la de sus propios votantes.

KARRERA AGIRREBARRENA jaunak: Horregatik, nire saio hau amaitu aurretik, indar politiko guztiei, eta, bereziki, Alderdi Sozialistari, Aralarri eta EHAKri eskatu nahi nieke, koherenteak izateko euren botoarekin. Arrazoia erabiliz bozkatzeko eskatu nahi dizuet. Ez zaitezte blokeoaren, betiko berdinketaren tranpan jausi, eta, are gutxiago, hauteskundeak aurreratzekoan. Euskal gizartearen gehiengoak ez du hori adierazi, eta zuen hautesleek ere ez.

El Partido Socialista no puede sumar a sus 18 escaños el apoyo de quienes en Madrid niegan el diálogo político o se oponen al matrimonio homosexual.

Alderdi Sozialistak ezin dizkie bere 18 eserlekuei Madrilen elkarrizketa politikoa ukatzen dutenen edo, esate baterako, homosexualen arteko ezkontzen aurka

Si en Madrid gobierna con el respaldo de Izquierda Unida, en Cataluña lo hace con el apoyo de ERC e Iniciativa per Cataluña y en Galicia aspiran a poder llegar a la Xunta de la mano de BNG, ¿por qué en Euskadi buscan la alianza con el Partido Popular? ¿Cuál es el modelo de país? ¿Acaso no están más cerca del programa presentado hoy por el Tripartito que del programa que lidera, legítimamente por supuesto, María San Gil? Señor López, les pido una vez más coherencia.

daudenen babesa erantsi. Madrilen Ezker Batuaren babesari esker gobernatzen baduzue, Katalunian ERCren eta Iniciativa per Cataluñaren babesa baduzue eta Galizian BNGren eskutik eskuratu nahi baduzue bertako Xunta, Euskadin zergatik itundu nahi duzue Alderdi Popularrarekin? Zein da herri-eredua? Agian ez al zaudete María San Gilek, zilegitasun osoz, jakina, gidatzen duen programatik baino hurbilago Hirukoak aurkeztu duen programatik? López jauna, behin berriro ere koherentzia eskatzen dizuet.

Gauza bera esan nahi diet EHAKri eta Aralarri, nola ez. Nola azalduko diozue apirilaren 17ko hauteskundeetan euren konfiantza eman zizutenei ez dakizuela bozkatuko duzuen edo abstenitu egingo zareten indarkeriaren gaindipena, elkarrizketa demokratikoa, alderdi anitzeko hitzarmena, bizikidetza plurala, erabakitzeko eskubidea eta justizia soziala aldarrikatzen dituen hautagaitzaren aurrean? PSOEri esan diodan bezala, koherentzia eskatuko dizuet, jaun-andreok. Horrelaxe baino ez dugu bakean bizi den herria eratuko. Bertan, gainera, pertsonen ongizatea izango da nagusi. Gaur egungo indarkeria eta gatazkaren aldean, hain zuzen ere, gure helburua horixe izan da EAJrekin, EArekin, Gobernuaren hitzarmena sinatu dugunean, eta helburu horixe bera dugu gaur Juan José Ibarretxe jaunaren hautagaintza babesteko orduan.

Y lo mismo quiero decirles al PCTV y a Aralar, cómo no. ¿Cómo justificarán ante las personas que en las elecciones del pasado 17 de abril les otorgaron su confianza que no saben si votar o abstenerse ante una candidatura que reivindica la superación del conflicto, el diálogo democrático, un acuerdo multilateral entre partidos, la convivencia plural, el derecho a decidir y la justicia social? Igual que he dicho al PSOE, les pido que actúen con coherencia, señorías. Sólo así podremos construir un país en paz. Además, en ese país prevalecerá el bienestar de las personas. A diferencia de la violencia y el conflicto actual, y precisamente ése ha sido nuestro objetivo al firmar el acuerdo de gobierno con el PNV y EA, y ése es también el objetivo hoy al ofrecer nuestro apoyo a la candidatura del señor Juan José Ibarretxe.

Gainera, gainontzeko taldeoi besterik ez dizuet eskatuko, koherentzia, hori delako Gobernua osatzeko garaian behar dena eta herriak hauteskundeetan esan duena. Esan da elkarrizketa eta baita ere blokeoak apurtzea eta kontsentsua egitea eskatu duela.

Además, no pido nada más al resto de partidos, coherencia, porque eso es lo necesario a la hora de formar Gobierno y lo que ha exigido la sociedad en las elecciones. Se ha mencionado que se ha exigido diálogo, así como romper los bloqueos y alcanzar el consenso.

Nik gaur hemen orain arte ikusi dudanarekin hori ez dut nabari. Eta hori egitea eskatzen dugu; elkarrizketa, jakina, eta blokeoa apurtzea. Horrela bakarrik erantzungo ditugulako herriaren eskaerak, herriaren beharrak, horrela bakarrik egingo dugulako aurrerapauso bat. Lehenago ere egin ditugu pausoak, baina orain beste pauso handi bat egin behar dugu. Bakea eta normalizazioa lortzeko posibilitateak ditugu, eta hori ez aprobetxatzea uste dut benetan gauzak gordina izango litzatekeela. Eta herriak hori egiten ez duenari ez dio barkatuko.

Y hoy yo no observo nada de eso en lo que he escuchado hasta ahora. Y pedimos que se haga así; diálogo, por supuesto, y acabar con los bloqueos. Porque sólo así responderemos a las exigencias de la ciudadanía, a sus necesidades, porque sólo así avanzaremos. En el pasado ya se produjeron avances, pero ahora necesitamos dar un gran salto. Tenemos posibilidades de lograr la paz y la normalización, y creo que no aprovecharlas sería algo muy cruel. Y el pueblo no perdonará al que no aproveche dichas oportunidades.

Besterik ez.

Nada más.

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, Karrera jauna.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias, señor Karrera.

Eusko Alkartasuna taldearen ordezkariak dauka berbea. Ziarreta jauna, zurea da hitza.

Tiene la palabra el representante de Eusko Alkartasuna. Señor Ziarreta, tiene la palabra.

El Sr. ZIARRETA BILBAO: Lehendakari andrea, legebiltzarkideok, jaun-andreok.

ZIARRETA BILBAO jaunak: Señora presidenta, señoras y señores parlamentarios, señoras y señores.

Lehendakariaren inbestidura-saio honi ekiten diogu, benetan erabakiorra, historikoa izan daitekeen kurtso politiko berri batean. Eta honela izatea edo ez izatea neurri handi batean gure esku dago, zortzigarren legealdiko Ganbera osatzen dugunen esku.

Celebramos esta sesión de investidura del presidente del Gobierno, realmente decisiva, en un nuevo curso político que puede ser histórico. Y que realmente lo sea o que no lo sea depende en gran medida de nosotros, de quienes conformamos la Cámara de esta octava legislatura.

Ni legebiltzarkide izatearen erantzukizun zail honetan estrenatu egiten naiz, eta pentsatu nahi dut erreleboa hartzen ari den belaunaldi berriak aurrean dituen, aurrean ditugun, erronka garrantzitsu hauei erantzun egokia emateko gai izango garela, Legebiltzar honetan gure aurretik lanean ibili direnen kemenak jarraituz. Gizaki moduan, asmaketak eta hankasartzeak egin zituzten, baina argi dago euren ekarpenik gabe –batzuek bere bizitza emanez– ez ginela egongo gaur gauden lekuan.

Orain, guri tokatzen zaigu herri honekin eta herri honentzat erantzukizunaren lekukoa hartzea eta 25 urte dituen Ganbera honetan egon izan diren legebiltzarkide guztien esfortzuak azkenean Euskal Herriaren bake eta normalizazio politikoan gauzatu daitezela eta hilketa, tortura, koakzio edota mehatxuak, oinarrizko diren eskubide eta askatasunaren urraketak, iraganeko amesgaizto triste bat bihurtu daitezela lortzea.

Ni konbentzituta nago, Eusko Alkartasuna erabat konbentzituta dago hau dela hiritar gehienon ametsa, gehienon sentimendua. Eta bake eta normalizazio gogo horrekin konektatzeko gai bagara, kapaz bagara aldarrikapen horri bidea emateko, bakarrik orduan esan ahal izango dugu gure eginbeharrak bete ditugula, hori baita ezin ahaztu dezakegun gure betebeharra.

Esta legislatura está llamada a ser la legislatura de la pacificación y la normalización política, y es nuestra responsabilidad no defraudar las esperanzas depositadas en las fuerzas políticas representadas en este Parlamento.

Para Eusko Alkartasuna ha llegado el momento de abordar con firmeza y con responsabilidad el problema político, el conflicto político del encaje de Euskal Herria. Ha llegado el momento de alejarnos de debates estériles, fruto de intereses partidarios, y de entrar en las cuestiones de fondo.

Intervengo hoy aquí, en este Parlamento, como portavoz de una formación (Eusko Alkartasuna) en cuyos estatutos nos hemos fijado como metas irrenunciables la consecución de una sociedad justa bajo el principio de igualdad de oportunidades y el disfrute colectivo de los recursos sociales, y como segunda meta el logro de la plena liberación nacional y social de Euskal Herria.

Hoy en nombre de Eusko Alkartasuna quiero señalar con claridad y concisión que nuestra formación política aspira de manera legítima a que esta tierra, antes pronto que tarde, pueda constituir una república vasca en Europa, y no renunciamos ni renunciaremos a conformar un estado reunificado e independiente en el seno de la Unión Europea.

Antes de que se me adelanten desde otros grupos, prefiero ser yo quien diga que, si bien la concep-

Yo me estreno en esta difícil responsabilidad que supone ser parlamentario, y quiero pensar que esta nueva generación que está tomando el relevo seremos capaces de dar las repuestas adecuadas a estos importantes desafíos a los que nos enfrentamos, siguiendo los esfuerzos de aquellos que han estado trabajando en este Parlamento antes que nosotros. Como seres humanos, tuvieron aciertos y errores, pero es evidente que sin sus contribuciones –algunos incluso dando su vida– hoy no estaríamos donde estamos.

Ahora nos toca a nosotros recoger el testigo de la responsabilidad con y para este país y lograr que los esfuerzos de todos los parlamentarios y parlamentarias que han estado en esta Cámara a lo largo de estos 25 años al final se materialicen en la paz y la normalización política del País Vasco, y que los asesinatos, torturas, coacciones o amenazas, las lesiones de los derechos y libertades fundamentales, se conviertan en una triste pesadilla del pasado.

Yo estoy convencido, Eusko Alkartasuna está absolutamente convencida de que ése es el sueño de la mayoría de la ciudadanía, el sentimiento de la mayoría. Y si somos capaces de conectar la paz y la normalización con dicho sentimiento, si somos capaces de dar cauce a dicha reivindicación, sólo entonces podremos decir que hemos cumplido con nuestras responsabilidades, ya que es una responsabilidad que no podemos olvidar.

Legealdi hau bakegintzaren eta normalizazio politikoaren legealdia izango da, eta gure ardura Legebiltzar honetan ordezkatutako indar politikoengan jarritako itxaropenak ez zapuztea da.

Eusko Alkartasunaren ustez iritsi da arazo politikoari, Euskal Herriak izan behar duen tokiari buruzko gatazka politikoari, heltzeko unea. Iritsi da alderdien interesen emaitza diren eztabaida antzuei ihes egin eta arazoen mamian sartzeko unea.

Gaur hemen, Legebiltzar honetan, alderdi baten izenean ari naiz esku hartzen, eta alderdi horren estatutuetan bi jomuga, uko egin ezin diegun bi jomuga ditugu: gizarte justua lortzea aukera-berdintasunaren printzipioan eta gizarte-baliabideak denon artean gozatzean oinarrituta eta, bigarrena, Euskal Herriaren askatasun nazional eta sozial osoa lortzea.

Gaur Eusko Alkartasunaren izenean argi eta garbi, zehatz-mehatz, adierazi nahi dut gure alderdi politikoak asmo zilegi bat duela: herri hau, ahal den azkarren, berandu izan baino lehen, euskal errepublika bihurtzea Europan. Eta ez diogu uko egiten eta ez diogu uko egingo Europako Batasunaren barruan estatu birbatu eta independentea eratzeari.

Beste talde batzuetatik esan aurretik nahiago dut neuk esan: Europan integratzeko prozesuaren on-

ción clásica del Estado está hoy en crisis en sus distintos aspectos, como consecuencia del proceso de integración europea (y estoy hablando de ciudadanía europea, dilución de fronteras, cesión de competencias políticas y económicas), eso no significa en modo alguno que los estados vayan a desaparecer. Por eso, desde Eusko Alkartasuna reivindicamos nuestra aspiración a conformar un estado, porque lo que está en crisis es el concepto de estado tradicional, no el estado en sí, que sigue siendo precisamente la base de la construcción europea bajo la fórmula de la Europa de los estados.

Es perfectamente legítimo que el pueblo vasco mantenga su pretensión de aspirar a una estatalidad compartida con los restantes estados en Europa, basada en una ciudadanía propia compartida con la europea, un territorio propio compatible con la desaparición de las fronteras, y un poder constituyente propio y originario, autolimitado en sus competencias como consecuencia de decisiones propias, no ajenas, y con una presencia activa y directa en el proceso de formación política europea y en la toma de decisiones.

Asentadas, pues, con claridad las dos bases ideológicas que inspiran la acción política de Eusko Alkartasuna, quiero, antes de entrar en otros análisis, desmontar ese argumento artero, utilizado históricamente por el Partido Socialista, de que aquí, en democracia, se puede hablar de todo y se puede defender todo.

Dicen ustedes que en política se puede hablar de todo y se puede defender todo, incluso la independencia, pero luego sistemáticamente niegan de hecho la posibilidad de que un proyecto de país como el que defiende Eusko Alkartasuna se pueda materializar. Dicen ustedes: "Se puede hablar de todo", y añado yo: "Siempre que aquello de lo que se hable no vulnere lo dispuesto en la Constitución española".

Hoy por hoy, lo que no se nos permite a los vascos es sacar adelante un proyecto como el defendido por Eusko Alkartasuna, que es la conformación de una república vasca en Europa, aunque se nos deja que hablemos de ello, ¡faltaría más! Por ello, y desde aquí, reclamo nuestro derecho no sólo a hablar y a debatir, sino el derecho a que se fijen las condiciones para que sea factible llevar adelante cualquier proyecto que cuente con el respaldo suficiente de la sociedad vasca. Y estoy hablando, evidentemente, de respeto a la decisión de los vascos libremente expresada.

Si hemos de hacer una pequeña exégesis de lo ocurrido estos últimos veinticinco años, por no remontarme más atrás, hemos de concluir de una manera clara señalando que la Constitución Española de 1978, a nuestro entender, no fue capaz de dar la misma respuesta, en términos de eficacia, a dos problemas que en esos momentos se planteaban.

dorioz (eta europar herritartasunaz, eskumen politikoak eta ekonomikoak emateaz ari naiz), Estatuari buruzko kontzeptu klasikoa gaur egun krisian dagoen arren, horrek ez du esan nahi, inola ere ez, estatuak desagertu egingo direnik. Horregatik, Eusko Alkartasunak estatua eratzeko asmoa aldarrikatzen du; izan ere, krisian dagoena estatu tradizionalaren kontzeptua da, ez estatua bera, oraindik ere Europaren eraikuntzaren oinarria baita Europaren egungo formularen, estatuen Europaren, barruan.

Guztiz zilegia da euskal herriak Europako gainerako estatuekin konpartitutako estatutasuna lortzeko asmoari eustea. Estatutasun konpartitu horren oinarriak honako hauek lirateke: Europako hiritartasunarekin konpartitutako hiritartasun propioa; mugak desagertzearekin bateragarria izango litzatekeen lurralde propioa; aginte eratzaile propioa eta jatorrizkoa, eskumenak bertan hala erabakita, ez kanpotik erabakita, mugatuko lituzkeena, eta parte-hartze aktiboa eta zuzena izango lukeena Europaren eraketa politikoan eta erabakiak hartzean.

Eusko Alkartasunaren ekintza politikoaren bi oinarri ideologikoak argi finkatu ondoren, eta beste azterketa batzuetan sartu aurretik, indarrik gabe utzi nahi dut Alderdi Sozialistak historikoki erabili izan duen argudio maltzurra, esan izan baitigu hemen, demokrazian, edozertaz hitz egin daitekeela eta edozer aldez daitekeela.

Zuek esaten duzue politikan edozertaz hitz egin daitekeela eta edozer aldez daitekeela, baita independentzia ere, baina gero sistematikoki ukatu egiten da herria eraikitzeko proiektu bat, Eusko Alkartasunarena, esate baterako, gauzatu ahal izatea. Zuek "edozertaz hitz egin daiteke", esaten duzue; eta nik honako hau gaineratzen dut: "baldin eta mintzagai denak Espainiako Konstituzioan ezarritakoa urratzen ez badu".

Gaur-gaurkoz, euskaldunoi ez zaigu onartzen Eusko Alkartasunak aldezten duen moduko proiektua aurrera ateratzea, Europaren barruan euskal errepublika bat eratzea proposatzen duena, nahiz eta horretaz hitz egitea onartu egiten zaigun, besterik ez genuen behar! Horregatik, eta hemendik, hitz egiteko eta eztabaidatzeko eskubidea ez ezik, euskal gizartearen behar adinako babesa duen edozein proiektu aurrera eraman ahal izatea posible egingo luketen baldintzak ezartzeko eskubidea ere aldarrikatzen dut. Eta, agerikoa den bezala, euskaldunok askatasun osoz adierazitako erabakia errespetatzeaz ari naiz.

Azkeneko 25 urteetan gertatutakoari buruzko exegesi bat egiten hasita, eta atzerago ez jotzearren, argi eta garbi adieraz daiteke 1978ko Konstituzioa, gure ustez, behintzat, ez zela gai izan erantzun eragingorra emateko une hartan planteatzen ziren bi arazori.

En esos momentos eran dos los tipos de derechos que venían siendo pisoteados en la dictadura franquista: de un lado, el reconocimiento y el respeto de los derechos individuales (asociación, reunión, libertad ideológica y demás), y, de otro lado, la otra cuestión a la que la transición política estaba abocada a dar una respuesta era la necesidad de dar satisfacción a las reivindicaciones nacionales que varios pueblos, entre ellos el vasco, planteábamos.

Seguimos estando en récords históricos de jornadas perdidas por huelgas, de trabajadores sin convenio, y, sin embargo, el lehendakari nunca, nunca en sus ocho años de gobierno se ha sentado ni ha sentado a sindicatos y empresarios para tratar estos asuntos y buscar acuerdos por la competitividad y el empleo. Fíjese que le hemos dicho veces esto, ¡eh! Pues en el discurso de usted esta mañana no ha hecho una sola referencia al diálogo social. Ni una sola.

Sigo más: hay más alumnos ya matriculados en la escuela privada que en la escuela pública, que sigue estando en declive permanentemente por la falta

Ibarretxe jauna, zuk hitz ederrak baino ez dituzu esan, borondate onez betetako adierazpenak baino ez dituzu egin. Eta hori ez da nahikoa azkeneko urteetan lehendakari izan zaituen erakundea gobernatzeko, eta zuk ondo asko dakizu hori.

Zuek, EAJko jaun-andreok, eta, bereziki, zuk, Ibarretxe jauna, herri hau gaixo kroniko bihurtu duzue, eta orain, ez dela batere eraginkorra ikusi den errezeta bat eskaintzen diguzu, eta sendagai gisa zeuk ere oso argi ikusten ez duzun hiruko gobernua eskaintzen diguzu. Eta hori ez da konponbidea izango, zeu ere konponbidea ez zaren bezala; arazoa zeuek baitzarete.

Sendagai horrek, Hirukoak, jadanik ez du balio. Eta, gainera, plazebotzat ere ezin da hartu, izan ere, horiek ez dute gaixoaren egoera okertzen. Sendagai hori okerrekoa da, eta sendagai horrek okertu egiten du gaixoaren egoera; gaixoaren egoera kroniko bihurtzeko bakarrik balio duen errezeta da. Eta gaixo kroniko bihurtu duzuen Euskadik beste zerbait behar du: aire freskoa behar du, aldaketa behar du, berrikuntza behar du; beste errezeta batzuk, beste tratamendu batzuk behar ditu, eta, batez ere, itxaropena behar du, gaixoa denon artean, denon artean, sendatu ahal izango dela sinestea behar du, ilusio horixe behar du.

Zu, Ibarretxe jauna, bere tokian egon ez den lehendakari moduko bat izan zara joan den legealdi osoan. Ez duzu ezer egin egoera ekonomiko on batek gizarte-politiketan, politika ekonomiko eta industrialetan, gure eskumen diren politiketan –hau da, ia denetan– aurrera askoz ere gehiago egiteko ematen zizkigun aukerak baliatzeko. Zu, tamalgarria bada ere, ezaguna egin den planaren aldeko hauteskunde-kanpaina egitera mugatu zarela esan daiteke; horixe izan da zure jarduna.

Eta oraindik ere Espainiako etxebizitza garestienak ditugu, hautagai jauna; oraindik ere erosketa-saskirik garestiena dugu; aldi bateko eta kolokako enpleguari dagokionez lehenengo postuetan gabiltza. Eta, hala eta guztiz ere, gaur goizeko zure saioan diskurtsoaren %3 eskas eskaini diezu gai horiei. Horixe da zure gobernu aurrerakoiaren kezka sozial nagusia.

Greben ondorioz galdutako orduetan errekor historikoak ditugu, hitzarmenik gabe lanean ari diren langileei dagokienez ere errekor guztiak ditugu, eta, hala eta guztiz ere, gobernuan egon izan zaren zortzi urteetan inoiz ez zara sindikatuekin eta enpresariekin eseri, inoiz ez dituzu sindikatuak eta enpresariak mahai batean elkartu gai horiek aztertzeko eta lehiakortasunaren eta lanaren aldeko akordioak bilatzeko. Zenbat aldiz esan izan ote dizugu hori, e! Bada, gaur goizeko zure diskurtsoan aipatu ere ez duzu egin gizarte-elkarrizketa. Aipatu ere ez.

Jarraitu egingo dut: jadanik eskola publikoan baino ikasle gehiago daude matrikulatuta eskola pribatuan, eta eskola publikoa maldan behera doa arre-

de atención. Una escuela pública, por cierto, de la que se van a despedir profesores por no haber aprobado un perfil de euskera, aunque las plazas, por cierto, se van a seguir impartiendo como clases en castellano. Y esto se llama, en toda tierra donde se aplique el sentido común, discriminación lingüística; no otra cosa, señora consejera.

Una sanidad muy bien valorada por los ciudadanos, pero que cuenta con los profesionales más desmotivados de la Administración, hasta el punto de que esto llegó hace unas semanas al práctico colapso de nuestros hospitales, con un importante grado de alarma social.

Y porque no es posible el respeto ni la convivencia cuando se nos clasifica, se nos divide y se nos diferencia en función de esos sentimientos, como hace, por cierto, el artículo 4 de su plan, cuando habla de *ciudadanos* por un lado y *nacionalizados* por otro, dependiendo de si somos vascos y sólo vascos u otra cosa distinta. Es decir, lisa y llanamente, según nuestro grado de adhesión a la causa nacionalista, habrá ciudadanos de primera y ciudadanos de otra clase.

Y de la relación amable con España, pues, creo que no hace falta decir mucho, porque esa ya la teníamos antes de que llegara usted a la Lehendakaritza, porque formamos parte de esa realidad. El problema, señor Ibarretxe, es que usted la está perjudicando, porque está transformando esa relación amable en confrontación.

Y además ese plan, que ustedes ahora camuflan con otro nombre, nos saca de Europa, nos aísla y nos deja fuera del mayor y mejor marco de convivencia que existe en nuestro entorno, como es la Unión Europea.

Es decir, son falsos los argumentos con los que nos vendió su plan, como era falso su compromiso de no aprobarlo con Batasuna mientras esta no se alejara de la violencia. Y no sólo se aliaron con ellos para sacar el plan, sino que dieron a Batasuna la llave de la política vasca, dejando en sus manos la construcción del país y la definición de la sociedad vasca.

Mire, señor Ibarretxe, usted no puede aspirar a que le avalemos en su propuesta, máxime cuando legítimamente nosotros hemos planteado un candidato a lehendakari porque queremos ser la alternativa y porque estamos legitimados para ello.

Usted no es creíble ya. Usted ha dilapidado en estos siete años toda su credibilidad. Con usted –se lo repito con todo el respeto del mundo– es imposible en Euskadi un nuevo futuro. Apoyarle significa apostar por más de lo mismo, y todos los que estamos en esta Cámara lo sabemos, incluso usted, porque usted es ya el pasado, y Euskadi lo que necesita es futuro.

tarik eskaintzen ez zaiolako. Eta, bide batez, gogoratuko dut eskola publiko horretatik irakasleak kaleratu egingo direla ez dutelako dagokien hizkuntza eskakizuna gainditu, nahiz eta euren plazen arabera eskolak gaztelaniaz ematen jarraituko duten. Eta horri, sen ona duen edozein herritan, hizkuntza diskriminazioa deitzen zaio; hori ez da besterik, sailburu andrea.

Herritarrek oso balorazio positiboa egiten diote osasun-arloari, baina Administrazioan gutxien motibatuta dauden profesionalak ditu, eta hain latza da egoera, duela aste batzuk gure ospitaleak kolapsatuta geratu ziren, eta gizartean alarmak piztu ziren.

Begira, errespetua eta elkarbizitza ezinezkoak dira sentimendu horien arabera sailkatzen bagaituzte, bereizten eta desberdintzen bagaituzte, eta zure planaren 4. artikuluak horixe egiten du alde batetik *hiritarrak* bereizten dituenean eta bestetik *nazionalizatuak* bereizten dituenean, euskaldunak garen, eta euskaldunak bakarrik, edota beste zerbait garen kontu. Hau da, argi eta garbi, kausa abertzalearekiko gure atxikipenaren arabera lehenengo mailako hiritarrak eta beste maila bateko hiritarrak izango dira.

Eta Espainiarekin harreman adeitsua izateari dagokionez, ez dut uste asko esan beharra dagoenik, izan ere, harreman hori jadanik bagenuen zu Lehendakaritzara iritsi aurretik, errealitate horretako zati baikara. Arazoa da, Ibarretxe jauna, zuk kalte egiten diozula, izan ere, harreman adeitsu hori konfrontazio bihurtzen ari zara.

Eta, gainera, plan horrek, orain zuek beste izen baten azpian kamuflatzen duzuen plan horrek, Europatik atera egiten gaitu, isolatu egiten gaitu eta gure inguruan dagoen bizikidetza-esparru handi eta onenetik, hau da, Europako Batasunetik, ateratzen gaitu.

Hau da, zure plana saltzeko eman zenizkigun argudioak gezur hutsak dira, eta Batasuna indarkeriatik aldentzen ez den bitartean Batasunarekin batera ez onesteko emandako hitza ere gezur hutsa da. Zuek Batasunarekin elkartu zineten plana aurrera ateratzeko, baina ez hori bakarrik: Batasunari eman zenioten euskal politikaren giltza, eta bere esku utzi zenuten euskal gizartearen definizioa eta herriaren eraikuntza.

Begira, Ibarretxe jauna, zuk ezin diguzu eskatu zure proposamena abalatzeko, batez ere kontuan hartuta guk lehendakaritzarako hautagai bat aurkeztu dugula alternatiba izan nahi dugulako eta hori egiteko zilegitasun osoa dugulako.

Zu jadanik ez zara sinesgarria. Zuk zazpi urte hauetan alferrik galdu duzu zure sinesgarritasuna. Zurekin –eta adeitasun osoz esaten dizut– Euskadin ezinezkoa da beste era bateko etorkizuna. Zuri babesa emateak lehengoan jarraitzea esan nahi du, eta Ganbera honetan gauden guztiok dakigu hori, baita zeuk ere, izan ere, zu jadanik iragana zara, eta Euskadik etorkizuna behar du.

Los socialistas vascos hacemos nuestra, como no puede ser de otro modo, la propuesta de nuestro candidato Patxi López. Su apuesta no obedece a hipotecas con nadie, no hay acuerdos previos con ninguna fuerza política, no hay compraventa de apoyos y no hay *cambio de cromos* con nadie. Él representa el inicio de un nuevo ciclo, de una nueva esperanza y, sobre todo, de una nueva oportunidad para Euskadi.

Con él, el Partido Socialista apuesta por el diálogo para la paz (para la paz, señora San Gil, para eso queremos el diálogo), por el diálogo para la reforma del Estatuto, por el diálogo para el desarrollo de políticas sociales de izquierda, por el diálogo para hacer real una alternativa creíble a las políticas fracasadas lideradas por el PNV y que estamos dispuestos a desarrollar hasta sus ultimas consecuencias. Estamos convencidos de que con él vamos a dar inicio a una legislatura de progreso, que se sustancia en tres grandes ejes: la paz, no sobre la base de acuerdos políticos, sino a partir del diálogo cuando callen las armas; la reforma del Estatuto, a partir de un diálogo abierto y leal, y el acuerdo para el desarrollo de políticas de progreso.

Mire, la verdad es que usted ha tenido una novedad en el discurso esta mañana, que me ha gustado. La única novedad importante de su discurso de esta mañana, señor Ibarretxe, ha sido la constatación de que se ha abierto una nueva etapa política, que se ha abierto una esperanza para la paz. El problema, señor Ibarretxe, es que usted no ha hecho nada para hacer posible ese escenario ni esa esperanza. La esperanza se ha abierto paso por la llegada al poder del Partido Socialista en el Gobierno de España y por la iniciativa desplegada por su presidente Rodríguez Zapatero.

Con Patxi López apostamos por el diálogo, por facilitar los acuerdos y por hacer posibles consensos básicos para evitar que nada ni nadie condicione la vida política vasca. Y con él aspiramos a que el pueblo vasco recupere su protagonismo.

Y presentamos un programa que es una oportunidad para aquellos partidos cuya razón de ser es el desarrollo de políticas de progreso; para esas fuerzas que hacen gala de su ser de izquierdas y que hacen del ciudadano vasco la razón de ser de su apuesta política; para los partidos que dicen luchar por un futuro de todos, con todos y para todos; para todos aquellos que entienden el poder institucional como un servicio a la ciudadanía.

Ha llegado la hora ya de ponerse de acuerdo sobre el marco político, así como de revisar nuestras leyes y nuestros pactos internos para combatir los desequilibrios y desigualdades, que han aumentado notablemente durante los gobiernos del señor Ibarretxe.

Ha llegado la hora del cambio, y eso más que nunca depende de ustedes, señores parlamentarios.

Euskal sozialistok geureganatu egiten dugu, eta ezin zitekeen bestela izan, gure hautagai Patxi López jaunaren proposamena. Patxi Lópezek egiten duen apustuak ez du hipotekarik, Patxi Lópezek inorekin ez du akordiorik egin aldez aurretik, ez da inolako salerosketarik izan babesak lortzeko eta inorekin ez dira *kromoak aldatu*. Patxi Lópezek ziklo berri baten, itxaropen berri baten, hasiera ordezkatzen du eta, batez ere, Euskadirentzat aukera berri bat.

Berarekin, Alderdi Sozialistaren apustua bakearen aldeko elkarrizketa da (bakearen alde egiteko, San Gil andrea, horretarako nahi dugu elkarrizketa); Estatua eraberritzearen aldeko elkarrizketa; ezkerreko gizarte-politikak garatzearen aldeko elkarrizketa; EAJk gidatu dituen eta porrot egin duten politikei alternatiba sinesgarria, azken muturreraino garatzea pentsatzen duguna, eskaintzearen aldeko elkarrizketa. Ziur gaude berarekin aurrerabidearen legealdiari emango diogula hasiera, eta hiru ardatz izango ditu: bakea, eta ez akordio politikoetan oinarrituta, baizik eta elkarrizketan oinarrituta armak isiltzen direnean; Estatutuaren erreforma, elkarrizketa ireki eta leial batetik abiatuta; eta aurrerapen-politikak garatzeko akordioa.

Begira, egia esan, gaur goizeko zure diskurtsoan berrikuntza bat ikusi dut, eta gustatu egin zait. Eta gaur goizeko zure diskurtsoaren berrikuntza esanguratsu bakarra izan da aro politiko berri bati ekin zaiola adierazi izana, bakearen alde itxaropenaren ateak ireki direla adierazi izana. Arazoa da, Ibarretxe jauna, zuk ez duzula ezer egin eszenatoki hori eta itxaropen hori posible egiteko. Itxaropenaren ateak Espainiako Gobernuan agintera Alderdi Sozialista iritsi delako ireki dira eta, hain zuzen ere, Rodríguez Zapatero presidenteak hartu duen ekimenarengatik.

Patxi Lópezekin elkarrizketaren aldeko apustua egiten dugu, akordioak erraztearen eta, ezerk eta inork ez dezan euskal bizitza politikoa baldintzatu, oinarrizko adostasunak posible egitearen aldeko apustua. Eta berarekin protagonismoa berreskuratu nahi dugu euskal herriarentzat.

Eta aurkeztu dugun programa aukera berri bat da aurrerapen-politikak garatzea helburu duten alderdientzat; ezkerrekoak direla harro-harro esaten duten eta bere apustu politikoaren izateko arrazoi euskal herritarra duten indarrentzat; denon etorkizunaren alde, denokin eta denontzat, borroka egiten dutela esaten duten alderdientzat; azken batean, erakundeagintea herritarrei zerbitzu bat eskaintzeko dela ulertzen duten guztientzat.

Iritsi da esparru politikoaren inguruan ados jartzeko garaia, eta, aldi berean, iritsi da desorekei eta desberdintasunei aurre egiteko gure legeak eta gure arteko itunak berrikusteko garaia, izan ere, desorekak eta desberdintasunak nabarmen areagotu dira Ibarretxe jaunak gobernatu izan duen denboran.

Iritsi da aldaketarako unea, eta hori inoiz baino nabarmenago dago zuen esku, legebiltzarkide jaun-

Con la votación de hoy todos vamos a quedar claramente retratados. Para todos los vascos y vascas va a quedar nítidamente establecido quién cree en lo que dice y quién usa lo que dice para seguir a la sombra del poder, quién se mantiene leal a sus compromisos y quién aspira a un simple acomodo institucional.

andreok. Gaurko botazioarekin argi eta garbi ikusiko da bakoitzak nondik joko duen. Euskal gizon-emakumeek oso argi ikusiko dute nork sinesten duen esaten duena eta nork erabiltzen duen esaten duena, hain zuzen ere, agintearen itzalean jarraitzeko; nor den leiala bere konpromisoekin eta nor den erakundeetan eroso sentitzea beste asmorik ez duena.

Hoy después de su discurso, señor Ibarretxe, hace imposible nuevamente en este país los acuerdos necesarios para restablecer la convivencia y hacer posible el acuerdo entre distintos. A pesar de todo, no le quepa duda de que nosotros los socialistas vascos vamos a seguir empeñados en hacer posible de verdad la reconciliación entre todos los vascos, porque nuestra apuesta es una apuesta de futuro, y no le quepa a usted ninguna duda de que mucho más temprano que tarde lo vamos a conseguir.

Gaur, zure diskurtsoaren ondoren, Ibarretxe jauna, berriro ere ezinezkoa da herri honetan bizikidetza berreskuratzeko eta desberdinen arteko akordioa posible egiteko beharrezko akordioak lortzea. Hala eta guztiz ere, ez ezazu zalantza izpirik ere izan: euskal sozialistok temati jarraituko dugu euskaldun guztiok gure artean adiskidetzen saiatzen, izan ere, gure apustua etorkizunaren aldeko apustua da, eta ez ezazu zalantza izpirik ere izan: berandu baino lehen lortuko dugu.

Muchas gracias.

Eskerrik asko.

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, Pastor jauna.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias, señor Pastor.

Euzko Abertzaleak taldearen ordezkariak dauka berbea. Egibar jauna, zurea da hitza.

Tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos. Señor Egibar, tiene la palabra.

El Sr. EGIBAR ARTOLA: Egia esan, bi hitzetan laburtu beharko bagenu, edo nik behintzat laburtu beharko banu, herri honen irtenbidea nondik datorren, edo nondik nora doan, bi hitzetan, Ibarretxe kanporatzea da. Batzuen esanak entzun ondoren, nik gauza garbiagorik ez dut ikusi. Bi hizketaldiak, momentuan behintzat talde parlamentarioen ordezkari bezala aritu zareten bai Pastor jauna eta San Gil andrearen hizketaldiak, entzun ondoren, begitu, ordu erdi horretatik batek 29,5 minutu Ibarretxeri begira.

EGIBAR ARTOLA jaunak: A decir verdad, si tuviéramos que resumir en dos palabras, o al menos si yo tuviera que definir en dos palabras por dónde vendrá, o por dónde se alcanza la solución para este país, en dos palabras se define con echar a Ibarretxe. Tras escuchar las distintas intervenciones yo no saco ninguna conclusión más clara. Tras escuchar las dos intervenciones, las intervenciones de los que hasta ahora han actuado como portavoces de sus grupos parlamentarios, la señora San Gil y el señor Pastor, respectivamente, miren, uno ha pasado 29,5 minutos de los 30 de que disponía hablando de Ibarretxe.

Nonbait norberak aurkeztu duen kandidatoak ez du laguntzarik behar, bultzadarik behar, 18 parlamentari ekartzeak nahikoa suposatzen du Alderdi Sozialistarentzat. Ez du inorekin hitz egin. Gero, gainera, konplejoduna omen da kandidatoa, eta hala ere bozkak jasoko ditu. Ez duzu ez programarik azaldu, ez egiturarik. Eta hori bai, kalamitate guztiak eta pekatu guztiak… Zeren eta oso zaila da hainbeste pekatu hain denbora gutxien egitea, e! Pekatu politikoak esan nahi dut. Ez du ezertxo ere ondo egin. Zuk nahi eta nahi ez hartzen baldin baduzu…, ja liga bukatuta dago, baina kiniela bat hartzen baldin duzu, nahiz eta futbolaz ezer ez jakin, jartzen duzun ikurra jarri –bat, ixa edo bi–, bakarren bat asmatzen duzu. Hamalaukoa ez duzu egingo, baina bakarren batzuk asmatzen dituzu ezer jakin gabe. Ba Ibarretxek ez du batere asmatzen. Ba begitu, ez dakit futbolaz dakien, baino politikaz eta herri honen nahiaz eta asmoaz, bai.

Según parece, el candidato que han presentado no necesita ayuda alguna, no necesita más apoyo, parece que contar con 18 parlamentarios y parlamentarias es suficiente para el Partido Socialista. No ha hablado con nadie. Luego, además, el candidato parece estar acomplejado, y, aún y todo, recibirá votos. No ha presentado ni programa ni estructura. Y, eso sí, todas las calamidades y todos los pecados… Porque es muy difícil cometer tantos pecados en tan breve lapso de tiempo, oiga. Quiero decir pecados políticos. No ha hecho nada bien. Indefectiblemente, si usted coge…, la liga ya ha terminado, pero si coge una quiniela, aunque no sepa nada de fútbol, y marca algún símbolo –uno, x o dos–, siempre acierta algún resultado. No hará una de catorce, pero sin saber nada se acierta siempre alguno. Pues Ibarretxe no ha acertado ni uno. Pues miren, no sé si sabe de fútbol o no, pero de política y de los deseos y anhelos de este país, sí.

Eta nik uste dut, gainera, bete-betean asmatu duela azken urte hauetan. Eta historia da horren lekuko, eta nik uste dut iraganetik bai batzuek eta bai besteek zerbait ikasi behar zenuketela. Badirudi dagoeneko ikasgairik ez dela mahai gainera iritsi. Nik bakar-

Y yo creo, además, que en los últimos años ha acertado de pleno. Y la historia es testigo de ello, y considero que tanto unos como otros deberían aprender algo del pasado. Parece que ya no llegan lecciones al pupitre. Yo sólo les quiero recordar lo siguiente:

bakarrrik gogora ekarri nahi dizuet hauxe: Ibarretxek gaur hirugarren inbestidura-saioa du. Zuk, Patxi Lopez, lehenengoa. Beste batzuk ere pasa izan dira saio eta trantze beretik. 98an Iturgaitzek aurkeztu zuen bere burua, eta orain zuk. Eta tartean, 2000. urteko urri hartan, urriaren 5ean, sozialistak eta Alderdi Popularrak aurkeztu zenioten zentsura-mozioa. Orduan, beste batzuek: Nicolas Redondo eta Mayor Oreja, eta *sparring* moduan Jesús Eguiguren eta Maura. Begitu, nik ez dakit Ibarretxek asmatu duen ala ez duen, baina nahiz eta jakin non dauden besteak, Iturgaitz hemen ez dago, Mayor Oreja ere ez, Nicolas Redondo ere ez, Ibarretxe hemen dago eta hemen jarraituko du. Eta seguruenik, gainera, lehendakari bezala. Eta opa dizuet, bai batari eta bai besteari, zuek ere hemen parlamentari bezala jarraitzea, besterik ez bada oposiziolanetan, zergatik hori izango da zuen papera.

Berebizikoak esan dizkiozue. Ni ez naiz zuekin sartuko. Ez daukat zertan sartu hautagai den batekin, baina "frakasatua dela, alderdikariak erabili dituela eta alderdi-interesek gidatua izan den gizona dela, inposatzailea, *vitalicio*", bizitza guztirako izendatu omen dute, "herriaren jabe, jauntxoa, plebiszitoa galdu duena, frentista, herri honi denbora alferrik galduarazi diona, atzerakoia...".

Eta gero, bat-batean, Maria San Gil sartzen da hemen… Eta nik, benetan esaten dizut, eta agian hala da, eta errespetatuko dut, zergatik esaten duzuna sinesten baldin baduzu eta sinesten duzun guztia esaten baldin baduzu, ba ni arduratuta gelditzen naiz. Arduratuta gelditzen naiz, zergatik eskuin muturrean, muturrean baina muturrean, ezin daiteke hizketaldi bortitzagorik egin. Eskubirago pareta daukazu, pareta.

Esan diozu, bete-betean, ETAren indarkeriaren arduraduna dela, eta iraupenaren arduraduna dela. Alde batetik eta bestetik, iparretik eta hegotik sartu zara berebizikoak esaten. Eta gero, hori bai, nonbait morala aldatu egiten da eta esaten da: "Y ahora unos datos estadísticos. Y no se me ofenda, ¡eh!". Baina, aizu, esan diozu zuzen-zuzenean ETAren indarkeriaren kudeatzaile eta mantentzaile dela. Eta hori esan daiteke Legebiltzar honetan eta herri honetan?

Ez genuen, ez zuen asmatuko, baina zalantzan jartzea Ibarretxe lehendakariak eta bere Gobernuak herri honetan dauden indarkeriazko espresio guztiak desagertzea nahi duela eta nahi dutela, zalantzan jartzea… Agian, zuk estrategia hobeago bat daukazu, agian; ikusi dugu. Baina gizon honi leporatzea ETAren iraupenaren baitan errentagarritasun bat atereaz egon dela bera eta alderdia hogeita bost urtetan, hori nola esan daiteke, azkeneko hauteskundeetan, martxoaren 11n gertatu zena gertatu ondoren, Alderdi Popularrak egin zuena egin ondoren. Zeinek? Alderdi Popularrak; Jose Mari Aznar eta Rajoy eta gainontzekoek. Zeinek, horiek ez baldin baziren, nahi zuten –eginahal guztiak egin zituzten gainera, gezurrak barne– ETA izatea atentatuaren erantzunkizuna izango zuen erakundea? Zein, Alderdi Popularra ez baldin bazen? Zer lortu nahi zuen, errentagarritasun elektorala ez baldin bazen? Eta guri leporatzea hori? Agian ez genuen asmatuko, bai-

es la tercera sesión de investidura de Ibarretxe. Para usted, Patxi López, la primera. Algunos otros han pasado por sesiones y trances similares. El señor Iturgaiz presentó su candidatura en el 98, y ahora usted. Y, entre tanto, en octubre del año 2000, el 5 de octubre, los socialistas y el Partido Popular presentaron una moción de censura. Entonces eran distintas personas: Nicolás Redondo y Mayor Oreja y, a modo de *sparring*, Jesús Eguiguren y Maura. Miren, yo no sé si el señor Ibarretxe ha acertado o no, pero, aunque sabemos dónde está el resto, Iturgaiz no está, Mayor Oreja tampoco, Nicolás Redondo tampoco, Ibarretxe está aquí y seguirá aquí. Y seguramente, además, como presidente. Y les deseo tanto a uno como a la otra que ustedes también sigan aquí, si no de otra forma al menos en labores de oposición, porque ése va a ser su papel.

Se las han soltado gordas. Yo no me voy a meter con ustedes. No necesito meterme con un candidato, pero "que es un fracasado, que es un hombre de partido y al que le guían los intereses partidistas, impositor, *vitalicio*", según parece ha sido nombrado para toda la vida, "dueño del país, señorito, quien ha perdido el plebiscito, frentista, que ha hecho perder inútilmente el tiempo a este país, regresivo...".

Y luego, de repente, entra aquí María San Gil… Y yo, se lo digo sinceramente, y quizá sea así y lo respetaré, porque si cree lo que dice y si dice todo lo que cree, pues, yo me quedo preocupado. Me quedo preocupado porque no se puede hacer un discurso más duro en la extrema derecha, en la derecha más extrema. A su derecha sólo hay pared, nada más que pared.

Le ha dicho, directamente, que es el responsable de la violencia de ETA y de su continuación. Ha entrado por todos los sitios, por el norte y por el sur, soltando improperio tras improperio. Y luego, eso sí, parece que cambia la moral y afirma: "Eta orain zenbait estatistika-datu. Eta ez gaizki hartu, eh!". Pero oiga, le ha dicho directamente que es gestor y perpetuador de la violencia de ETA. ¿Se puede afirmar algo así en este Parlamento y en este país?

No acertaríamos, no acertaría, pero poner en duda que el presidente Ibarretxe y su Gobierno quieran la desaparición de todas las expresiones de violencia en este país, ponerlo en duda… Puede que usted tenga una estrategia mejor, puede ser; ya lo hemos visto. Pero achacar a este hombre que haya estado, junto con su partido, sacando provecho y rentabilidad de la continuidad de ETA durante los últimos veinticinco años, cómo es posible realizar tal afirmación después de lo sucedido en las últimas elecciones, después de suceder lo sucedido el 11 de marzo, después de que el Partido Popular hiciera lo que hizo. ¿Quién? El Partido Popular; José Mari Aznar y Rajoy y todos los demás. ¿Quiénes, sino ellos, querían –además hicieron todos los esfuerzos posibles, mentiras incluidas– que ETA fuera la organización responsable del atentado? ¿Qué partido, sino el Partido Popular? ¿Qué quería lograr, sino rentabilidad electoral? ¿Y achacarnos

na ez saiatu saiatu ez garelako. Eta saiakera berriak ere egongo dira, bai batzuen eta besteen aldetik.

Baino, bueno, hori dena, esan duzun guztia, pentsatzen baldin baduzu, ba agian, bakarren bat, eskumuturrekoren bat pozik edukiko duzu. Baina diskurtso hori ez zait iruditzen egokiena denik herri honek bake-bideak eta normalizazio-bideak urratseko. Izugarria iruditu zait.

Eta gero aipatzen dira gai batzuk esanez nola gainontzeko gobernukideen... Atalez atal, etxebizitza eta enplegua hartu dituzu, eta gero lurraldez lurralde joan zara, eta hara non gelditzen zaren, Gasteizen; Gasteizen edo Araban. Eta egia da Gasteizek, edo Arabak edo Bilbok, Donostiak, Gipuzkoak, eta baita Nafarroak ere, eta baita ingurukoek ere, ba bakoitzak edukiko ditu bere indizeak. Eta Arabakoak onak dira, onak izan diren bezala. Onak izan dira. Alderdi Popularra iritsi aurretik ere bai, e! Eta orain Arabak badu bere kinka larria ere. Arabako Diputazioaren zorra, adibidez, 4.500 milioi pezetakoa izanik hasieran, momentu honetan zortziz biderkatuta dago, nahiz eta sozietate batzuetan ezkutatuta egon. Eta Ongizate Sailean zegoenak dimisioa aurkeztu behar izan du. Eta Gasteizko Udalak ere, hortxe, alferrik galduta lurperatu ditu 1.000 milioi kudeatu ezineko proiektu batzuetan. Bueno, garai bakoitzak bere azterketa izaten du, eta tokatuko da ere Arabako Junta Jeneraletan azterketa egitea, eta baita Gasteizko Udaletxean ere. Guzti hori aztergai izango da. Hauteskundeak, herri honetan, aldiro-aldiro, lau urtean behin behintzat, instituzio gehienetan egon badaude. Baina Araban hori ere gertatzen ari da.

Eta hemen esaten da: "Lehendakariak egiten duen analisia errealitatetik kanpo dago". Eta lehen, Antton Karrerak esan duenean..., bakarren batek hor irribarretsu esaten zuen ba bai proiektuaren zutabeak bai herri honen erabakitzeko nahia batzuen eta besteen asmakizuna dela. Eta hauteskundeek zer irakurketa suposatu beharko lieketen PNVri eta gainontzeko alderdi politikoei.

Zuek zenbakiak ikusi dituzue, ez? Ba Antton Karrerak esan duena egia borobila da. Herri honetan, azkeneko hauteskundeetan, hiru lurraldeetan, eta emandako botoak zenbatuta, boto-emaile guztiak kontuan hartuta, %60k bozkatu dute, programa ezberdinen artean, herri honek erabakitzeko gaitasuna duen puntua, garbia: autodeterminazio-eskubidea. Hortxe zegoen programa guztietan, %60k. Eta egia da horiek euskaldunak izanik eta hala pentsatuz, beste euskaldun batzuek, zuek alegia, beste programa batzuk aurkeztu dituzuela, eta zuek pentsatzen duzuela, zergatik hala azaltzen duzue hemen garbi eta ozenki, Euskal Herri horren etorkizuna ez dutela euskaldunek erabaki behar, baizik espainol guztiek.

Baina hori hala baldin bada, zer kostatzen zaigu, batzuei eta besteei, aitortzea gatazka bat daukagu-

eso a nosotros? Quizá no acertáramos, pero no será porque no lo hayamos intentado. Y habrá nuevos intentos, tanto por parte de unos como por parte de otros.

Pero, bueno, si piensa todo eso, todo lo que usted ha dicho, quizá tenga contento a alguien, a alguien de la extrema derecha. Pero ése discurso no me parece el más apropiado para avanzar en el camino de la pacificación y en el de la normalización política. Me ha parecido increíble.

Y luego se mencionan algunas cuestiones explicando el modo en que el resto de grupos de la coalición de gobierno… Sección por sección, ha tomado la vivienda y el empleo y luego ha ido territorio a territorio, y ha ido a detenerse en Vitoria-Gasteiz; en Vitoria-Gasteiz o en Araba. Y es cierto que Vitoria-Gasteiz, o Araba, o Bilbao, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa, y también Navarra, y los territorios del entorno, tendrán sus propios índices. Y los de Araba son buenos, como han sido buenos. Han sido buenos. También antes de que llegara el Partido Popular, ¡eh! Y ahora Araba también vive su momento crítico. La deuda de la Diputación de Álava, por ejemplo, al principio era de 4.500 millones de pesetas, y ahora es ocho veces superior, aunque esté escondida en varias sociedades. Y el responsable del Departamento de Bienestar ha tenido que dimitir. Y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, asimismo, ha enterrado inútilmente 1.000 millones gestionados en un proyecto irrealizable. Bueno, cada época tiene su análisis, y algún día llegará el momento del análisis a las Juntas Generales de Álava y también al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Todo eso será analizado. En este país hay elecciones periódicamente, cada cuatro años, en la mayor parte de las instituciones. Pero esa situación también se está dando en Araba.

Y aquí se dice: "El análisis realizado por el presidente está bastante alejado de la realidad". Y anteriormente, cuando Antton Karrera ha dicho..., algunos y algunas decían sonrientes que tanto los pilares fundamentales del proyecto como el deseo de decidir de este país no son más que una invención de unos y otros. Y qué tipo lectura debían acarrear las elecciones al PNV y al resto de partidos políticos.

Ustedes han visto los números, ¿no? Pues la afirmación de Antton Karrera es una verdad como un templo. En este país en las últimas elecciones, y computados los votos ofrecidos, teniendo en cuenta la totalidad de los votantes, el 60% ha votado, en distintos programas, el punto que recoge claramente la capacidad de decisión de este país: el derecho de autodeterminación. Ahí estaba en todos los programas, el 60%. Y es verdad que, aun siendo ese porcentaje ciudadanos vascos y vascas y a pesar de esa forma de pensar, ustedes han presentado otros programas y ustedes piensan, porque así lo expresan en esta Cámara alto y claro, que el futuro del País Vasco no deben decidirlo los vascos y las vascas, sino todos los españoles.

Pero, si eso es así, qué nos cuesta, a unos y a otros, reconocer que tenemos un conflicto, que tene-

la, arazo bat daukagula konpondu beharrekoa. Denak euskaldunak izanik, eta batzuek pentsatzen baldin badugu herri honi dagokiola herri honen etorkizuna erabakitzea, beste batzuek pentsatzen duzue ezetz, espainol guztiei dagokiela herri honen etorkizuna erabakitzea, ba gatazka daukagu. Baina ez da guk asmatutako gatazka, historian zehar aldiro-aldiro azaltzen dena, behintzat demokrazi garaietan, zergatik beste garai batzuk ere izan ditugu, diktadurapean. Beraz, gatazka baldin badaukagu, eutsi egin beharko diogu konponketari, posible baldin bada.

Eta Lopezek erabakitzeko gaitasunari buruz erabili duen esaldi bakarra euskaraz, eta lehenengoa, eta eztulpean izan da. Lehenengo frasea izan da: "Herri honek bere etorkizuna erabaki du apirilaren 17ko hauteskundeetan…" (*Hace que tose.*) Horixe izan da. Ez du ordu eta erdian inongo aipamenik egin. Eta, klaro, esaten duzu "bueno, diskurtso berritzailea, eraginkorra, Madrilen agintari berriekin, bake-prozesua eta gainontzekoak airean edo pilpilean dauden honetan, ba Alderdi Sozialista botako dik zerbait, ildo batzuk edo, nondik joango ote diren edo, herri bat badagoen, erabakitzeko gaitasun hori nola antolatu daitekeen, mahaiak, prozedurak…". Ezta txintik ere, ezta txintik ere. Agian, ez dakit, hemen sartu, tribunalera jaitsi eta Alderdi Sozialista bat bezala hitz egin behar eta… Zapateroren hitza ere neurri batean konprometitzeko arriskua ere egon bazegoen. Eta hobe da isilik egotea, hanka sartzea baino. Bertsoek esaten zuten bezala: "Handitzen zarenean, ikusiko duzu isilik egoteak zenbat balio duen".

Ba, bueno, hori izan da aukera. Baina ez zaitez etorri hona gobernu-programa bat aurkeztu nahian lehendakarigai zarela esatera. Zergatik egin duzu, alde batetik, oposizio-papera lehendakariari, atzera berriz lehendakari izango delakoan, eta gero, bestetik, Espainiako Gobernuaren kudeaketa hori nondik nora eraman daitekeen, horren agerraldia, azalpena. Orduan, esaten duzu: "Hemen non dago programa?". Zergatik gero esan du Anttonek Erregeei karta idatzi diezula. Erregeei karta mutil koxkorrek ere idatzi idazten diete, baina gero mutil koxkorrak ustekaberik eduki ez dezan, badaezpada ere aitak edo amak zerbait korregitu egiten dio, e! Zergatik ustekabean Erregeek uzten ez baldin badiote dena, haserre izaten delako. Honek ez, borobil-borobila bota du karta. Klaro, falta zaio c*apítulo de ingresos* esaten dena. Zergatik, klaro, esatea alde batera eta bestera "hau dena egingo dut"... Eta hori nondik atera behar dut? Bakar-bakarrik falta zen esatea zergak erdira jaitsiko direla, horixe. Eta horrekin ja borobilduko genuke dena. Beraz, serioak izan gaitezen. Hemen ez gara programa bat aurkeztera etorri, baizik gauzak nahastera, gauzak nahastera.

Eta guzti horren helburu gizon hau da, gizon hau. Ez gizona, Juan Jose Ibarretxe Markuartu, laudiotarra, alderdikidea eta abar delako. Ibarretxek… Nik ez dakit jendeak edo hemen hala ikusten duen, baina gure uste apalean... eta boto-emaileak, behintzat koa-

mos un problema que solucionar. Todos somos vascos y vascas, y si algunos pensamos que corresponde a este país decidir el futuro de este país y algunos otros piensan que no, que corresponde a todos los españoles decidir el futuro de este país, entonces tenemos un conflicto. Pero no es un conflicto que hayamos inventado nosotros, es un conflicto que se repite cíclicamente a lo largo de la historia, al menos en tiempos de democracia, porque también hemos conocido otros tiempos, bajo la dictadura. En consecuencia, si tenemos un conflicto, debemos aferrarnos a la búsqueda de una solución, al menos en la medida de lo posible.

Y la única frase formulada por López sobre la capacidad de decisión ha sido en euskara, la primera, y entre toses. Ha sido la primera frase: "Este país ha decidido su futuro en las elecciones del 17 de abril…" (*Eztul-itxura egin du.*) Ésa ha sido. En hora y media no ha hecho ninguna mención más. Y, claro, afirma que "bueno, en estos momentos en los que hay en el aire, y candentes, un discurso innovador, productivo, con nuevos mandatarios en Madrid, la posibilidad de un proceso de paz y demás, el Partido Socialista aportará algo, algunas líneas o así, sobre cómo se puede organizar el proceso en el que se decidiría si existe o no un país, sobre la capacidad de decisión referida, mesas, procedimientos…". Nada de nada, ni una pista. Quizá, no sé, había que entrar a esta Cámara, bajar a la tribuna y hablar como Partido Socialista… Podía haber riesgo de comprometer en cierta medida la palabra de Zapatero. Y es mejor permanecer callado que meter la pata. Tal y como afirma el verso famoso: "Cuando crezcas comprenderás lo valioso que es permanecer callado".

Pues, bueno, ésa ha sido la elección. Pero no venga diciendo que actúa como candidato con el objeto de presentar un programa de gobierno. Porque, por una parte, ha hecho papel de oposición al presidente, pensando que va a ser reelegido presidente, y, por otra, ha explicado cuáles pueden ser los pormenores de la gestión del Gobierno español. Entonces, afirma: "¿Dónde está el programa aquí?". Porque Antton ha afirmado luego que usted ha escrito la carta a los Reyes. Los chiquillos también suelen escribir la carta a los Reyes, pero, para que luego el chiquillo no tenga sobresaltos, el padre o la madre la suelen corregir algo, por si acaso. Porque, si por un casual los Reyes no les dejan todo lo que han pedido, se suelen enfadar. Usted no, usted ha enviado la carta directamente. Claro, le falta lo que se suele denominar *diru-sarreren atala*. Porque, claro, proclamar a los cuatro vientos que "haré todo esto"... ¿Y de dónde lo voy a sacar? Sólo faltaba decir que iba a bajar los impuestos a la mitad, sólo eso. Y entonces ya se redondeaba la carta. En consecuencia, seamos serios. No han venido aquí a presentar un programa, sino a embarullar las cosas, a complicarlas.

Y el objetivo de todo ello es este hombre, este hombre. No el hombre, Juan José Ibarretxe, de Llodio y compañero de partido, etcétera. Ibarretxe… Y no sé si las personas lo ven así aquí, pero a nuestro modesto entender… y los votantes, en lo que respecta a la coa-

lizioari dagokionez, 468.117 pertsonek… Ez da gutxi e!, hola esateko, denak erotuta gaudela esateko ere e! 468.000, e! Beste asko ere badaude. Baina gizon honek zer ordezkatzen du? Ba bete-betean jarri dio Estatuari mahai gainean hemen dagoen gatazka politikoa. Eta auzi hori konpondu egin behar dela adierazi duen pertsona izan da. Eta esaten da: "Bai, Madrilera joan zen eta han ez zen atea itxi. Edukazio handiz, atzera berriz esan zitzaion ezetz, eta bueltatzeko".

Baina ez al gara jabetzen gatazka dagoela, arazo bat badagoela konpondu beharrekoa? Ba gizon honek hori islatu du. Eta berari dagokio, dagokion tamainan eta neurrian, kudeaketa politiko hori gidatzea. Eta horretarako, zer aurkezten dugu? Hiruko bat. Lehen zegoen hirukoa. Baina ez da iraganeko formula, oso iragan hurbilekoa bai behintzat, zerbait baldin bada iragan oso hurbilekoa. Eta programa bat, eta eskaintza bat. Eta esaten du: "Bueno, kudeatu dezagun. Egin dezagun elkarrekin bide hau. Eta azaltzen ditugun minimo hauek ez dizkiogu inori inposatuko". Baina euskal gatazka, arazoa, arazotxoa –berdin zait, dena delakoa–, bakoitzak ulertzen duen moduan, esan dezala "ba nik hola ikusten dut", edo "hau niretzat ez da arazo".

Baina horretarako ere bildu egin beharko gara. Zergatik bakarren batek esaten baldin badizu: "Lurraldetasuna eta subirautza eta gainontzeko horiek, zuretzat izango dira, baina niretzat hori ez da arazo". Baina horri bide eman beharko zaio, arazo ez baldin bada ere. Zergatik hori arazo ez baldin bada, zerbait gainetik jarri nahi duzulako da, Maria San Gilek ondo esan duelako. Ondo esan du. Bere pentsakeratik behintzat argi eta garbi, inori kalte egin gabe eta ezkutuan ezer gorde gabe behintzat. Argi eta garbi esan du berak Espainian sinesten duela, eta banaezina dela, eta ez daukatela euskaldunek zertan, banatzeko ahalegin edo ez dakit zein formula berri aurkitu nahian, Espainiaren batasun hori zertan zalantzan jarri. Berak argi eta garbi esan du. Baina hala baldin bada ere, mahai baten inguruan eseri eta gauza horietaz guztietaz hitz egin beharko dugu, normalizazio politikoa lortu nahi baldin badugu.

Lehendakariak zioen zortzi gune badaudela. Ez dira konpartituak izango bete-betean, baina nik uste dut berriz aipatzea komeni dela. Alde batetik, bakeprozesua eta normalizazio politikoa bereiztea. Hori aurrerapen bat da, azkeneko lau urteak kontuan edukitzen baldin baditugu.

Elkarrizketaren beharra eta errespetua. Zergatik elkarrizketa errespeturik ez baldin badago… Errespeturik gabe ez dago bide luzerik, ez elkarrizketan eta ez ezertan. Bakoitza garen horretan elkar errespetatzen ez baldin badugu, gaizki ibiliko gara.

Giza eskubideak, bide politiko eta demokratikoak. Eta nik uste dut urratsak eman direla azkeneko legealdi honetan norabide horretan.

lición, 468.117 personas… ¡No está mal, eh! ¡Y decir que estamos así, que todos estamos locos! ¡468.000, eh! Y hay muchas más. Pero este hombre ¿qué representa? Pues ha puesto directamente al Estado, encima de la mesa, el conflicto existente aquí. Y ha sido la persona que ha manifestado que es necesario solucionar dicho conflicto. Y se dice: "Sí, fue a Madrid y allí no se cerró la puerta. Con mucha educación se rechazó su propuesta y se le pidió que regresara".

¿Acaso no nos damos cuenta de que existe un conflicto, de que existe un problema que hay que solucionar? Pues eso es lo que ha puesto de manifiesto este hombre. Y le corresponde a él, en la medida correspondiente, dirigir dicha gestión política. ¿Y qué es lo que presentamos al efecto? Un tripartito. El tripartito existente anteriormente. Pero no se trata de una fórmula del pasado, sino una fórmula del pasado reciente; si es algo, pertenece al pasado reciente. Y un programa, una oferta. Y afirma: "Bueno, gestionemos. Recorramos el camino juntos. Y no impondremos a nadie estos mínimos que presentamos". Pero que cada uno diga cómo entiende el conflicto vasco, problema o problemilla –como se llame, me da igual–, que diga "pues yo lo veo así", o "eso no es problema en mi opinión".

Pero para eso tendremos que reunirnos. Porque si alguien te dice: "La territorialidad y la soberanía y todo lo demás lo serán para ti, pero para mí no son un problema". Pero hay que dar cauce a eso, aunque no sea un problema. Porque si eso no es problema es porque quiere poner algo por encima, como muy bien ha dicho María San Gil. Lo ha dicho muy bien. Alto y claro desde su forma de pensar, al menos sin hacer daño a nadie y sin esconder nada. Ha dicho claramente que ella cree en España, y que es indivisible y que los vascos y las vascas, en su búsqueda de nuevas fórmulas o intentos para separarse, no deberían poner en entredicho la unidad de España. Ella lo ha dicho claramente. Pero, aunque sea así, deberíamos sentarnos en torno a una mesa y hablar de todas esas cuestiones si queremos lograr la normalización política de este país.

El presidente afirmaba que existen ocho enclaves. Quizá no se compartan totalmente, pero creo que conviene mencionarlos de nuevo. Por una parte, distinguir entre proceso de paz y normalización política. Eso es un adelanto, si tenemos en cuenta lo sucedido en los últimos cuatro años.

Necesidad de diálogo y respeto. Porque si no hay respeto en el diálogo… Sin respeto el camino no será largo, ni en el diálogo ni en nada. Si cada cual, en su forma de ser, no respeta al de al lado, nos va a ir muy mal.

Derechos humanos, vías políticas y democráticas. Y yo creo que en la última legislatura se han producido avances en esa dirección.

Aniztasuna, eta bazterketarik gabe. Zergatik hemen batzuek goraipatu duzue, eta egia da, zergatik paktu antiterrorista delakoaren edo askatasunaren aldeko –kakotx artean ipiniko nuke "askatasunen aldeko" hori baina–…, paktu horren aitatasuna Zapaterok beretzat hartzen du, bera izan omen da intelektualki paktu hori asmatu zuena. Orain, nonbait, zalantzan dago. Batzuek hiltzear dute, beste batzuk lurperatuta, berdin da, baina inspirazio bat egon da hor, inspirazio politiko bateratu bat, Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak eduki dutena.

Bueno, jakin nahi genuke ea benetan pentsatzen den eskubide zibil eta politikoak murriztu ondoren herri hau normalizazio-bidetik edo puntu horretatik gertuago edo urrutiago dagoen. Eta batzuek jartzen dute puntu bezala, mugarri bezala, ba gaur egun EHAKren edo ezker abertzalearen talde parlamentarioa legez kanpo utzi behar dela. Eta enplazatuak zaudete hori egitera. Eta beste batzuek, ez guk zer pentsatzen dugun, beste batzuek pentsatzen duzue nolabaiteko elkarrizketa bat garatu behar baldin bada bai Legebiltzar honetan eta Legebiltzar honetatik kanpo, zerbaiten beharra badaukagula. Beraz, askatasun zibil eta politiko horietan, oinarrizko eskubide horietan murrizketa bat egon baldin bada, nonbaitetik abiapuntua sortu beharra daukagu. Hori da beste puntu bat.

Estatu-ereduaren inguruko eztabaida. Hor optimistaegi ikusi dut nik Ibarretxe, ez dela hainbeste auzitan jartzen. Bueno ba, Bono eta Rodriguez Ibarra eta hauek entzun ondoren, nik uste dut hori irabazi beharreko terreno bat dela.

Eredu berria Euskadi eta Espainiaren artean. Ba lortu egin beharko da; nahi eta nahi ez, baina denbora hortik doa. Eta ez dakit PNVk egingo duen edo Alderdi Sozialistak egingo duen edo beste alderdi politiko batek egingo duen, baina herri honek egingo du, beranduago edo lehenago, baina egingo du eta lortuko du, eta Espainiak horretara jarri beharko du. Gaur egun ja bere hautsiezinezko batasun hori arazo bihurtu zaio Espainiari berari. Eta batasun bat ez dago dekretuz eta legez mantentzerik. Azkenean zati diren horiek edo errealitate diren horiek beraien askatasuna erabiliz, borondatea erabiliz, parte hartu nahi ez baldin badute… Konponbide bat aurkitu beharra dago, eta parte hartu nahi baldin badute, batasun hori batasun handiagoa izango da, sendoagoa, garbiagoa. Baina parte edo errealitate horiei aukera eman behar zaie bertan egoteko ala ez, erabakitzeko gaitasuna, eta bakearen bideari esperantza.

Eta hemen ere esaten zen zesto hori osatzeko zumeak –edo zumitzak, beste batzuek esaten dute– egon badaudela. Ba bai. Abenduaren 30ean onartu zen proiektuan zumeak jarri ziren, eta hortxe daude. "Eztabaidagarriak izango dira". Bueno, ba jarri beste batzuk. Baina zume horiek badaude eta guk ekarpen bezala jarri egiten ditugu. Prozedura bat proposatu ere proposatzen dugu. Ez da itxia. Eta esaten dugu: "Guztion artean, normalizazio politikoaren bidean aurrera egin nahi baldin badugu, bakoitzak argazkia atera dezala".

Pluralidad, y sin exclusiones. Porque aquí algunos y algunas han alabado, y es cierto, porque Zapatero se atribuye para sí la paternidad del denominado pacto antiterrorista o por las libertades –yo pondría ese "por las libertades" entre comillas–…, según parece, él es el autor intelectual de dicho pacto. Ahora, según parece, está en entredicho. Algunos lo consideran agonizante, otros lo dan por enterrado, es igual, pero ahí ha habido una inspiración, una inspiración política unificada que han tenido el Partido Socialista y el Partido Popular.

Bueno, me gustaría saber si realmente se piensa que, tras restringir los derechos civiles y políticos en este país, éste se encuentra en la vía de la normalización o más cerca o más lejos de dicho punto. Y algunos establecen como objetivo, como punto a alcanzar en la actualidad, la ilegalización del PCTV o del grupo parlamentario Ezker Abertzalea. Y están emplazados a hacerlo. Y otros, no lo que nosotros pensamos, piensan que, si es necesario desarrollar algún tipo de diálogo tanto en este Parlamento como fuera del mismo, es que necesitamos algo. En consecuencia, si se han producido restricciones en las libertades civiles y políticas referidas, en esos derechos fundamentales, debemos establecer de algún modo el punto de partida. Ése es otro punto.

Debate sobre los modelos de estado. En ese punto he visto demasiado optimista a Ibarretxe cuando dice que no se pone tanto en entredicho. Bueno, tras escuchar a Bono, Rodríguez Ibarra y todos esos, creo que ése es un terreno en el que hay que ganar.

Nuevo modelo entre Euskadi y España. Pues habrá que lograrlo; se quiera o no, el tiempo fluye en esa dirección. Y no sé si lo hará el PNV o lo hará el Partido Socialista o lo hará algún otro partido político, pero lo hará este país, más tarde o más temprano, pero lo hará y lo logrará, y España tendrá que adaptarse. Actualmente la tan manida indivisibilidad de España se ha convertido en un problema para la propia España. Y es imposible mantener la unidad mediante decretos y leyes. Si al final esas partes o esas realidades, ejerciendo el uso de sus libertades, ejerciendo su voluntad, no quieren participar… Es necesario encontrar una solución, y si quieren participar esa unidad será más grande, más firme, más limpia. Pero hay que dar a esas partes o realidades la oportunidad de estar o no estar, la capacidad de elegir, y hay que ofrecer una esperanza al camino de la paz.

Y se decía aquí también que hay mimbres para construir el cesto. Pues sí. El proyecto aprobado el pasado 30 de diciembre puso mimbres, y ahí están. "Serán debatibles". Bueno, pues pongan otros. Pero esos mimbres están ahí y nosotros los ponemos a modo de contribución. También proponemos un procedimiento. No es cerrado. Y decimos: "Si queremos avanzar entre todos por el camino de la normalización política, que cada uno saque su propia fotografía".

Zergatik nik ere, ez dakit, galdera-ikur asko daukat, eta bake-prozesu bat abian jartzeko moduan gaudela diote hainbat eta hainbat politikarik eta komunikabidek, ba halako ezkontza baten beharra ikusten dut. Normalizazio politikorako bide horretan urrats eraginkorrak ematen ez baldin baditugu, nik ez dakit bakea, behintzat batzuek ulertzen duten bezala –indarkeriazko espresioak desagertzea, justu ETAren indarkeriazko espresioa desagertu eta hori da bakea–, eskema horrekin bakarren bat baldin badabil, pentsatzen dut ez duela bide luzea egingo. Orduan, ez dakit, bi mahai horiek, Anoetako proposamenetik bultzatu nahi diren horiek, edo beste mahai batzuk, edo dena delako ahaleginen batetik irten beharko du. Denek behintzat soluzioa edo irtenbidea nahi baldin badugu.

Porque yo también, no sé, tengo muchas interrogantes, y muchos políticos y medios de comunicación afirman que estamos en disposición de poner en marcha un proceso de paz, pues yo veo la necesidad de una especie de enlace matrimonial. Si no logramos avances efectivos en el camino de la normalización política no creo que la paz tenga mucho recorrido, al menos como la entienden algunos y algunas –desaparición de toda expresión de violencia, únicamente que desaparezca la expresión de violencia de ETA, eso es la paz–, y más de una persona funciona con ese esquema. Entonces, no sé, esas dos mesas, esas que se pretende impulsar desde la propuesta de Anoeta, u otras mesas diferentes, o lo que sea, deben ser fruto de algún esfuerzo. Al menos si todos deseamos la solución y reparación de esta situación.

Gero, hemen Ezker Abertzalea talde parlamentarioak egin duen agerraldian, bueno, behintzat hasierako diagnostikoa nahiko itxia izan da, ez? Edo epaia izan da, ez? Gernikako Estatutuarekin jatorria eta gainontzekoak, "ba horrek porrot egin du, eta guk asmatu genuen; zuek porrot egin duzue". Analisi horiek ez dira normalean justuak izaten, bakoitzak bere arrazoi-puntua izaten du, ez? Baina 2005. urtean, edo guk gaur, gure ikuspegi eta analisi eta begiekin, 1979an edo 1997an gertatu zena aztertzea eta erabat konkluienteak izatea, ariketa arriskutsua izaten da, zergatik garai hartara joango bagina, Gernikako Estatutuak niretzat behintzat eduki zuen helburuetako bat, edo hiru helburu baldin bazituen, zen, besteak beste, diktadura batetik irtenda ustez demokrazia izan zitekeen garai hartan gutxieneko eskubide batzuk bermatzea, gutxieneko eskubide batzuk bermatzea; besteak beste, hiritar bezala eta pertsona bezala, gizon-emakume bezala eta erakunde bezala martxan jarri ahal izateko.

Luego, en la comparecencia que el grupo parlamentario Ezker Abertzalea ha hecho en esta Cámara, bueno, el diagnóstico inicial al menos ha sido bastante cerrado, ¿no? O el veredicto lo ha sido, ¿no? El origen y demás del Estatuto de Gernika "ha fracasado, y lo concebimos nosotros; ustedes han fracasado". Normalmente ese tipo de análisis no suele ser justo, cada uno suele tener su parte de razón, ¿no? Pero analizar lo sucedido en 1979 o 1997 en el año 2005, hoy en día, desde nuestra perspectiva y con nuestros ojos, y ser totalmente concluyente, suele ser un ejercicio peligroso, porque si regresáramos a aquella época en mi opinión uno de los objetivos del Estatuto de Gernika, si tenía tres objetivos, era, entre otros, garantizar unos derechos mínimos, garantizar unos derechos mínimos en una supuesta democracia en potencia que surgía de una dictadura; entre otras razones, para poder ponerlos en marcha como ciudadanos y ciudadanas y como personas, como hombres y mujeres, y como institución.

Bigarren helburua eduki zuena: herri honen garapen politikoaren abiapuntua izatea. Eta hirugarrena, ondorioz, ezinbesteko ziren eskumenak eskuan hartzea. Eta horretarako izan zen ituna, eta ez zen batek edo besteak zeukan desioa, zergatik norberak jartzen baldin badu bere proiektua abiapuntuan, "edo hau edo ez daukat ezer ere", bueno, aukera bat da. Eta guk esan genuen: "Lortu zitekeen Estatutua hura izan zen". Eta hala ere, bere potentzialtasun guztiak kontuan edukita, bakarren batzuek antzeman zuten bertan behera utzi behar zela hura. Eta Garaikoetxeak 80. urteko udaberrian bere Gobernua osatu zuenean, handik hamar hilabetera estatu-kolpea egon zen. Zerbait jarraitu nahi zuten kolpe-emaile haiek eta kolpe-emaileen atzetik zeudenak. Eta ondorioa garbia izan zen, zergatik zuzen-zuzenean LOAPAren eskutik Estatutuaren aurka joan ziren, Estatutua hustu nahian.

Su segundo objetivo: constituir el punto de partida para el desarrollo político de este país. Y el tercero, en consecuencia, hacerse cargo de las competencias imprescindibles para ello. Y a tal efecto se firmó el acuerdo, y no respondía al deseo de uno u otro, porque si uno pone su proyecto como punto de partida, "o esto o no tengo nada", bueno, es una opción. Y nosotros dijimos: "Aquél fue el Estatuto que se podía lograr". Y, sin embargo, conscientes de todas las potencialidades que englobaba, unos pocos vislumbraron que aquello debía ser sacado de circulación. Y diez meses después de que Garaikoetxea nombrara su gobierno en la primavera de 1980 se produjo un golpe de estado. Aquellos golpistas y quienes estaban detrás de ellos querían continuar algo. Y la consecuencia fue clara, porque directamente, de la mano de la LOAPA, arremetieron contra el Estatuto con el objetivo de vaciarlo de competencias.

Eta geroztik, bai askatasunetan, eskubide zibil politikoetan eta oinarrizko eskubideetan izugarrizko murrizketa egon da, eta horren lekuko garbiena Alderdi Politikoen Legea da. Eta eskumenei dagokienez, hori da beste bat, egunduko perla bota du Patxi Lopezek. Esaten du: "Ni lehendakari banaiz, urtebetean hemen egongo dira falta diren eskuduntza guztiak".

Y desde entonces la restricción ha sido muy significativa tanto en las libertades como en los derechos civiles y políticos y en los derechos fundamentales, y el ejemplo más claro es la Ley de Partidos. Y otra perla del señor Patxi López, lanzada en torno a las competencias. Afirma: "Si soy presidente, en el plazo de un año estarán aquí todas las competencias pendientes".

Eta galdera zuzena da: Jontxo, baina ez al dago Alderdi Sozialista Espainiako Gobernuan? Zer berme daukagu guk hori hala izango dela? Zergatik egon zen, orain ere badago, eta ez ja eskumenak transferitzea, ez, ez; zorrak ere ez ditu pagatzen. Baina aurpegia behar du e!, hona etorri eta esan: "Ni lehendakari banaiz, Estatutua bete egingo da". Eta bestela, ez? Orduan, zer da hau? Alegia, nire interesaren arabera bete daiteke lege bat, edo norberak edo talde politikoak duen interesen arabera baldintzatu daiteke herri baten etorkizuna?

Esaten zenuten "Anoetako proposamena, bi mahaiak, eta guk alderdi politiko bezala oso portaera zitala eduki dugula". Eta hor aipatu dituzue ahots gabekoei ahotsa ematera etorri zaretela hona eta berea ez den eserleku bat inork ez lukeela okupatu behar. Eta hor, ez dakit, pentsatzen dut ur nahasi eta handietan sartzen ari garela denak. Nik ez dakit guk zer tamainako pekatua daukagun, baina ur handietan sartuko ginateke, zergatik nik dakidala, apirilaren 16ra arte Arnaldo Otegi parlamentarioa zen. Apirilaren 17an Arnaldo Otegik edo Permachek edo Jone Goirizelaiak edo gainontzekoek ez zuten aukerarik izan bozkatuak izateko, beren eskubidea murriztua izan zen, debekatua izan zen. Nik dakidala Aukera Guztiak plataforma bat aurkeztu zen, eta haiek ez zuten aukerarik izan aurkezteko ere. Beraz, bi ilegalizazio egon ziren. Nik dakidala, eta horren lekuko zuek zarete, EHAK-k aurkeztea eduki zuen, eta hemen zaudete bederatzi parlamentari.

Ez dut egingo debate batean egin nuen galdera, zergatik nonbait... batek esan zidan asko nekiela. Baina garbi dagoena da antzeko dialektikan sartuko bagina, bakarren batek eska dezakeela, ba, Nekane Erauskinen ordez Parlamentu honetan Arnaldo Otegik egon behar duela. Eta hori nola egiten da, nola egiten da? Zergatik 182.2 aipatzea..., gaur ez da hemen egin, baina aurreikusita dago zer debate daukagun. Puntu horietan sartzea, lege hura, besteak beste, PP eta PSOEk beren zerrenda mantentzeko zituzten arazoak kontuan edukita asmatu zelarik, momentu honetan ilegalizazioaren inguruan debate hori horrela eta modu horretan astintzea, pentsatzen dut ez dela ariketarik onena. Agian hitz egin beharko da baita ere luze, baina galdera hori ere mahai gainean dago: hala erabakiko bazenute, nola, nola utzi behar zaio ezker abertzaleko parlamentari izan zitekeen bati zuen postua?

Eta baten batek esango du: "Ez, diferentea da". Bai, diferentea da, zeren abantaila bat dago: zuen eta beraien arteko konfiantza politikoa zuen eta gure artekoa baino handiagoa izan daiteke. Beraz, errazagoa, samurragoa. Beraz, debate horietan sartu behar baldin badugu, sartuko gara, baina bakoitzak ere kontuak atera ditzala.

Eta amaitzeko, zergatik garbi dago Alderdi Politikoen Legeak ere eragin zuzena eduki duela eta hauteskunde berriak bi urte bistan dauzkagula. Nik, bes-

Y la pregunta es directa: caramba, ¿acaso no está el Partido Socialista en el Gobierno español? ¿Qué garantías tenemos de que eso será así? Porque ya estuvo, y ahora también está, y no se trata únicamente de no transferir competencias, sino que, además, ni siquiera paga las deudas. Pero hay que tener cara, ¡eh!, salir a aquí y decir: "Si soy presidente, se cumplirá el Estatuto". Y si no, ¿qué? Entonces, ¿de qué va esto? Es decir, ¿el cumplimiento o no de una ley depende de mis intereses, o en función de los intereses de uno o de un partido político se puede condicionar el futuro de un país?

Decía usted que "la propuesta de Anoeta, las dos mesas, y que nosotros hemos tenido un comportamiento muy mezquino como partido político". Y ahí afirman que han venido a esta Cámara a dar voz a las personas sin voz y que nadie debería ocupar un escaño que no le pertenece. Y ahí, no sé, pero creo que todos nos estamos metiendo en aguas muy revueltas. Yo no sé cuál es el tamaño de nuestro pecado, pero entraríamos en aguas turbulentas, porque, que yo sepa, hasta el día 16 de abril Arnaldo Otegi era parlamentario. El día 17 de abril Arnaldo Otegi, o Joseba Permach o Jone Goirizelaia y el resto, no tuvieron oportunidad de ser elegidos porque se lesionó su derecho, se les privó de su derecho. Que yo sepa, se presentó la plataforma Aukera Guztiak y tampoco tuvo la posibilidad de presentarse. En consecuencia, se produjeron dos ilegalizaciones. Que yo sepa, y ustedes lo atestiguan con su presencia, el PCTV sí pudo presentarse, y por ese motivo cuentan con nueve parlamentarios y parlamentarias.

No voy a hacer la pregunta que hice en un debate porque según parece… alguien me dijo que sabía demasiado. Pero lo que está claro es que si entráramos en la misma dialéctica alguien podría decir que Arnaldo Otegi debería estar en este Parlamento, en lugar de Nekane Erauskin. ¿Y eso cómo se hace, cómo se hace? Porque mencionar el artículo 182.2…, hoy no se ha hecho, pero está previsto el tipo de debate que tenemos. Entrar en esos puntos, por ejemplo, cuando dicha ley se concibió teniendo en cuenta los problemas que PP y PSOE tenían para confeccionar sus listas, no creo que remover en este momento todo el debate en torno a la ilegalización sea el ejercicio más adecuado. Quizá haya que hablar también largo y tendido, pero esa interrogante también está encima de la mesa: si decidieran hacerlo, ¿cómo dejar su puesto a aquél que podría haber sido parlamentario de la izquierda abertzale?

Y alguien podría decir: "No, es diferente". Sí, es diferente, porque hay una ventaja: que la confianza política existente entre ustedes y ellos puede ser mayor que la existente entre ustedes y nosotros. En consecuencia, más fácil, más dulce. Por lo tanto, si hay que entrar en esos debates entraremos, pero que cada uno haga sus cuentas.

Y para acabar, porque está claro que la Ley de Partidos ha influido de forma directa y que tenemos nuevas elecciones a dos años vista. Yo pediría, a quie-

teak beste, hemen ez daudenei baina parlamentari izan direnei eskatuko nieke, orain arte hor eseri direnei –eta agian entzuten edo ikusten edo ikus-entzuten egongo dira–, Alderdi Sozialistakekin egin behar dituzten edo dituzten bilera horietan behingoz gai-zerrendan sartzeko..., agian ez da hurrengo bilerarako izango, baina ea tokatzen den egunen batean ilegalizaziokontuaz ere hitz egitea, zergatik harrigarria dena da Ezker Batua Berdeak, Eusko Alkartasuna eta Euzko Alderdi Jeltzaleari leporatzea lege baten ondorioak, benetan lege horren aita eta kudeatzaile izan ziren PP eta PSOE albo batera utzita. Beraz, hurrengo baterako, Batasunarekin bilerak egiten dituzuenean, gai-zerrendan sartu gaia, ilegalizazioaren ondorioez hitz egin nahi duzuela. Edo guk behintzat eskatzen dizuegu hitz egiteko, zergatik hauteskundeak, udal eta foru-aldundietarako hauteskundeak, eta Nafarroan berdin, 2007an hauteskundeak dauzkagu denek. Eta ordurako bide hori leunduta eta garbi egotea ona litzateke guztiontzat.

Eta amaitzeko, eta legealdi berri bat martxan jarri dugunez..., nahiko trakets, bestela ikusi besterik ez dago Mahaia osatzeko eta taldeak eta gainontzekoak osatzeko zer-nolako gorabeherak izan ditugun. Badakit nire hizketaldi hau amaitu ondoren, ba, bakarren batzuek esango didatela zergatik ez dudan gazteleraz hitz egin. Hemengoak bertan gaude, eta, bueno, tradukzio sistema bat dago; beraz, ez dago arazorik. Baina agian telebistaz ikusten ari diren horiek esango dute: "Honek zergatik ez dio halakoei, halakoei, halakoei erdaraz hitz egin?". Ba erantzuna garbia da. Nik uste dut euskarari ere bere tokia eman behar diogula normalizazio-bidean ere, Legebiltzar honek, adibidez, Berdintasunaren Legearen eskutik izugarrizko aurrerapausoa eman duela, eta gustatuko litzaiguke legealdi honen, ez dakit amaierarako..., ba baita euskararekiko gure konpromisoa ere areagotzea.

Ez da erraza, zergatik bakoitzak bere mugak ditu, baina behintzat hona ekarri nahi nuke... Ekainaren 13an, Ander, Saioa, Nuria, Mikel, Sara, Nekane, Janire, Ane, Xuban, Asier, Nagore, beste Nagore bat, Leire eta Iker egon ziren Legebiltzar honetan. Gaztetxoak. Agian egunen batean legebiltzarkide izango dira, eta agian –eta nik behintzat pentsatzen dut posible dela– Legebiltzar zabalago bat izango da, agian ez da Gasteizen egongo eta beste lurraldeetako ordezkariak egongo dira. Baina Legebiltzar hori euskalduna izan dadin, euskara ere guztion patrimonioa eta ondarea delako...

Beraiek zioten, beren hizketaldian hemendik eta tribuna honetatik esaten zuten: "Hizkuntza guztiak modu berean errespetatzea beharrezkoa da. Guk hainbat ume etorri-berri ezagutzen ditugu, eta horietako batzuek gure ikastetxeetan ikasten dute. Lagun horietako bakoitzak bere hizkuntza eta kultura dauka. Beraiek gure hizkuntza baloratzeko eta errespetatzeko, guk beraien hizkuntzarekin berdina egin behar dugu". Hori zioten. Hartu beharreko konpromisoa zioen Janire Markinezek: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakigunok hitz egiten ez dugulako

nes hoy no están presentes pero en el pasado han sido parlamentarios y parlamentarias –y quizá estén oyendo el debate o lo estén viendo o como espectadores–, que de una vez por todas incluyan esta cuestión en el orden del día de las reuniones que vayan a celebrar o que tengan con el Partido Socialista… quizá no en la próxima reunión, pero a ver si llega el día en que se hable de la cuestión de la ilegalización, porque es increíble que se achaquen las consecuencias de una ley a Ezker Batua Berdeak, Eusko Alkartasuna y Partido Nacionalista Vasco dejando de un lado a los verdaderos responsables y progenitores de dicha ley, PP y PSOE. En consecuencia, para una próxima ocasión, cuando celebren reuniones con Batasuna, metan esta cuestión en el orden del día, hablen sobre las consecuencias de la ilegalización. Nosotros al menos les pedimos que lo hagan, porque las elecciones, las municipales y las de las diputaciones forales, así como las de Navarra, están previstas para 2007. Y sería bueno para todos que para entonces esta vía ya haya quedado clara y esté solucionada.

Y para acabar, como hemos puesto en marcha una nueva legislatura… de forma bastante torpe, no hay más que ver las vicisitudes producidas tanto en la elección de la Mesa como en la definición de los grupos parlamentarios. Sé que tras finalizar mi intervención algunos me preguntarán por qué no he hablado en castellano. Aquí estamos los que estamos y hay un sistema de traducción; por lo tanto, no hay problema. Pero quizá las personas que están frente al televisor se pregunten: "¿Y éste por qué no se ha dirigido en castellano a tal, tal o tal?". Pues la respuesta es clara. Creo que también debemos dejar su lugar al euskara en la vía de la normalización, que este Parlamento ha avanzado enormemente, por ejemplo, de la mano de la Ley de Igualdad, y nos gustaría que en esta legislatura, no sé, para el final, se reforzara también nuestro compromiso en pro del euskara.

No es fácil, porque cada uno tiene sus objetivos, pero me gustaría nombrar al menos... El pasado día 13 de junio Ander, Saioa, Nuria, Mikel, Sara, Nekane, Janire, Ane, Xuban, Asier, Nagore, otra Nagore, Leire e Iker estuvieron en este Parlamento. Jóvenes. Quizá algún día sean parlamentarios y parlamentarias y quizá –y yo al menos pienso que es posible– sea un parlamento más amplio, quizá no esté en Vitoria y haya representantes de otros territorios. Pero para que ese parlamento sea vascófono, porque el euskara también es patrimonio de todos y todas...

Ellos y ellas dijeron, en sus intervenciones y desde esta misma tribuna: "Es necesario respetar todas las lenguas de igual manera. Nosotros conocemos a muchos chicos y chicas recién llegadas y algunas estudian en nuestros colegios. Cada uno de ellos y ellas tiene su lengua y su cultura. Para que respeten y valoren nuestra lengua nosotros debemos hacer lo mismo con la suya". Eso decían. Janire Markinez expuso el compromiso a adoptar: "Una lengua no se pierde porque quienes no la saben no la aprenden, sino porque quienes la saben no la usan. El futuro del euskara está

baizik. Euskararen geroa euskaraz dakigunon eskuetan dago, euskarak bizirik iraun dezan, zenbait konpromiso hartzen ditugu: euskaraz dakiten guztiekin euskaraz hitz egitea; familiakoekin, lagunekin eta inguruko guztiekin". Eta nik galdetzen dut: eta zergatik ez politikagintzan eta herrigintzan ere? Edo Legebiltzar honetan? Eta Ander Iglesiasek amaitzen zuen: "Ama-hizkuntzak herri baten nortasuna, sentimenduak eta kultura batzen ditu".

Ba ekarpen honekin amaitu nahi nuke nire lehenengo txanda, eta gero erreplikan jarraituko dugu. Mila esker.

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, Egibar jauna.

Jarraian, legebiltzar-taldeei erantzuteko, López Álvarez jaunak dauka berbea. López jauna, zurea da hitza.

El Sr. LÓPEZ ÁLVAREZ: Señora presidenta.

Bueno, algunas consideraciones al hilo de lo que han sido las intervenciones de los diferentes grupos parlamentarios, que me permitirán también hacer algunas reflexiones políticas de más calado.

Empezando por la señora Ezenarro, representante de Aralar, que me decía que no le pedí el voto en la reunión que tuvimos, es verdad, no se lo pedí a nadie, como ha sido público y notorio. Pero también es verdad que usted me dejó claro desde el primer momento que no me lo iba a dar de ninguna de las maneras, porque, como nos iba a votar el Partido Popular –ya ha visto que hasta el último momento no lo hemos sabido–, pues, que no estaba dispuesta a apoyar nuestra opción.

Pero, de todas formas, sólo me ha preguntado una cosa o sólo se ha dirigido a mí para decirme una cosa: me ha dicho a ver si yo soy como el PSC, es decir, si hablo de capacidad de decisión, de nación. No, no soy como el PSC: soy como el PSE, como el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra. Somos socialistas vascos, hacemos política en Euskadi, para los ciudadanos y ciudadanas de este país. Y son políticas diferentes porque atendemos realidades diferentes.

Ahora bien, le diré una cosa sobre esto de los términos de *nación*, de *nacionalidad*, de *comunidad nacional* o de *comunidad histórica*: no nos parece lo fundamental. No debemos confundir lo accesorio con lo fundamental. Lo importante es qué queremos decir, qué queremos definir y qué queremos construir cuando utilizamos estos términos.

Porque podemos hablar mucho de nación y olvidarnos de la ciudadanía. De hecho, todos los que aquí han defendido la nación vasca se han olvidado de la ciudadanía. Nadie ha hablado de los derechos y de las libertades de la ciudadanía. Y el principio bási-

en manos de quienes sabemos euskara, adoptamos varios compromisos para que el euskara siga vivo: hablar en euskara con todas las personas que lo sepan; con familiares, amistades y todas las personas de nuestro entorno". Y yo pregunto: ¿y por qué no en la política y en la Administración pública? ¿O en este Parlamento? Y Ander Iglesias finalizaba: "La lengua materna aglutina la identidad, los sentimientos y la cultura de un pueblo".

Quiero terminar mi primera intervención con esta contribución, y seguiremos luego en la réplica. Muchas gracias.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias, señor Egibar.

A continuación, y como réplica a los distintos grupos parlamentarios, tiene la palabra el señor López Álvarez. Señor López, tiene la palabra.

LÓPEZ ÁLVAREZ jaunak: Lehendakari andrea.

Bueno, legebiltzar-taldeen saioen haritik hainbat gogoeta egingo ditut, baina, zuen baimenarekin, gogoeta politiko sakonagoak ere egingo ditut.

Ezenarro andreak, Aralar alderdiaren ordezkariak, esan dit ez niola botorik eskatu elkarrekin egin genuen bileran, eta egia da, baina inori ez nion botorik eskatu, gaur hemen agerian eta nabarmen geratu den bezala. Dena den, egia da, halaber, zuk hasiera-hasieratik utzi zenidala argi inola ere ez zenidala zure botoa emango, izan ere, Alderdi Popularrak bere botoak guri emango zizkigunez –eta ikusi duzu azkeneko unera arte ez dugula jakin hala izango zela–, bada, jakinarazi zenigun ez zeundela zure babesa gure aukerari emateko prest.

Nolanahi ere, gauza bakarra galdetu didazu, edota niregana gauza bakarra esateko zuzendu zara: esan didazu ea ni PSC bezalakoa naizen, hau da, erabakitzeko ahalmenaz, nazioaz hitz egiten dudan. Ez, ni ez naiz PSC bezalakoa: PSE bezalakoa naiz, Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra bezalakoa. Gu euskal sozialistak gara, Euskadin egiten dugu politika, herri honetako herritarrentzat egiten dugu politika. Eta politika desberdinak dira errealitate desberdinei erantzun behar diegulako.

Dena den, gauza bat esango dizut *nazioa*, *naziotasuna*, *erkidego nazionala*, eta *erkidego historikoa* hitzei buruz: ez zaigu funtsezkoena hori denik iruditzen. Guk ez ditugu nahastu nahi funtsezkoa dena eta osagarria dena. Garrantzitsuena da zer esan nahi dugun, zer definitu nahi dugun eta zer eraiki nahi dugun hitz horiek erabiltzen ditugunean.

Izan ere, luze eta zabal hitz egin dezakegu nazioaz, baina herritarrez ahantzi. Berez, hemen euskal nazioa aldeztu duten guztiek ahantzi egin dituzte herritarrak. Inork ez du herritarren eskubideez eta askatasunez hitz egin. Eta oinarrizko printzipioa, hain zuzen ere,

co son los ciudadanos y las ciudadanas. Ciudadanos y ciudadanas que son diferentes, sí, pero que tienen que tener los mismos derechos y las mismas libertades. Y son los pactos entre esos ciudadanos diferentes que respetan la diferencia los que constituyen las comunidades políticas y los países. El resto no son más que ganas de enredar.

Por eso, repito lo que he dicho muchas veces: el mejor término para definir Euskadi será el que más consenso tenga, porque lo fundamental para los socialistas seguirán siendo los ciudadanos y las ciudadanas, seguirá siendo la sociedad vasca, seguirá siendo que por encima de todo este debate nominal tienen que estar los derechos iguales para todos, y que no aceptamos proyectos que quieran hacer ciudadanos de primera y ciudadanos de segunda, como algunos que hoy se vuelven a estar reivindicando en este pleno y en esta sesión parlamentaria. Me importará poco el término, pero estaré siempre en contra y enfrente de quien quiera hacer ciudadanos de primera y de segunda en este país. De todas formas, si alguien en esta Cámara es el PSC somos los socialistas vascos, no te preocupes.

El señor Karrera, representante de Ezker Batua, ha querido darme una serie de lecciones de democracia sobre el tema de las consultas y del derecho a decidir. Pero no nos mire a los socialistas vascos. Nosotros estamos a favor de las consultas siempre que se hagan para decidir dentro de las competencias que tenemos, que tiene cada uno, y siguiendo los pasos legales para ponerlas en marcha. De hecho, las solemos utilizar en nuestros ayuntamientos. Acaba de haber una en Portugalete, ha habido otra hace poco en Eibar…

Más vale que mire mejor a sus socios de gobierno, que son los que no han querido y han impedido consultas como la de Amorebieta para decidir sobre la central de Boroa. Es más, ¡llegaron a expulsar a sus concejales por poner en marcha esa consulta! Por lo tanto, no mire a los socialistas, que, por cierto, más que una consulta estamos proponiendo un referéndum, con todas las de la ley, para ratificar lo que decidamos aquí entre todos. Mire hacia aquellos con los que usted acaba de firmar un pacto.

Pero decía que me venía a dar lecciones de democracia y, sin embargo, ha empezado de la peor manera posible. Ha empezado su intervención negando una de las esencias de la democracia y de cualquier sistema democrático: la alternancia. La necesidad además de la alternancia. Porque usted me ha dicho, no sólo hoy, porque lo viene diciendo su formación política toda la semana, que no me presente, que me retire, que no tiene sentido que bloquee… ¡Pero qué poco democrático!

Le repetiré: debatir, contraponer alternativas, ofrecer soluciones y propuestas concretas aquí, en el pleno, querer ser lehendakari, no es bloquear. Es enriquecer la democracia, el sistema democrático, y es

herritarrak dira. Desberdinak diren baina eskubide berberak eta askatasun berberak dituzten herritarrak. Eta desberdintasuna errespetatzen duten herritar desberdin horien arteko itunek eratzen dituzte erkidego politikoak eta herrialdeak. Gainerako guztia bazterrak nahastu nahia baino ez da.

Horregatik, berriro esango dut askotan esan izan dudana: Euskadi definitzeko hitzik egokiena adostasunik zabalena duena izango da. Izan ere, sozialistontzat garrantzitsuena beti izango dira herritarrak, beti izango da euskal gizartea, eta, batez ere, beti izango da honako hau: eztabaida nominal honen guztiaren gainetik eskubide berberak egongo dira denontzat, eta ez ditugu onartuko lehen mailako herritarrak eta bigarren mailakoak bereiziko dituzten proiektuak, gaur legebiltzar-saio honetan eta osoko bilkura honetan zenbaitek berriro aldarrikatu duen bezala. Niri ez zait askorik axola hitza, baina herri honetan lehenengo mailako eta bigarren mailako herritarrak bereizi nahi dituenaren aurka eta aurrez aurre egongo naiz beti. Nolanahi ere, Ganbera honetan PSC inor izatekotan euskal sozialistak gara, ez zaitez kezka.

Karrera jaunak, Ezker Batuaren ordezkariak demokrazia-lezio batzuk eman nahi izan dizkit kontsulten eta erabakitzeko eskubidearen inguruan. Baina ez iezaguzu euskal sozialistoi begiratu. Gu kontsulten alde gaude, baldin eta gure eskumenen barruan, bakoitzak dituen eskumenen barruan, erabakiak hartzeko egiten badira eta kontsultak abian jartzeko legeak ezartzen dituen urratsak jarraitzen badira. Berez, erabiltzen ditugu gure udaletan. Duela gutxi egin da bat Portugaleten, eta Eibarren ere egin da beste bat...

Hobe duzu, agian, zure gobernukideen aldera begiratu, izan ere, eurek eragotzi dute, esate baterako, Zornotzan Boroako zentralari buruzko erabaki bat hartzeko kontsulta egitea. Are gehiago, euren zinegotziak kalera bota zituzten kontsulta hura abian jartzeagatik! Horrenbestez, ez ezazu sozialiston aldera begiratu. Eta, gainera, gu proposatzen ari garena ez da kontsulta bat, hemen denon artean erabaki behar duguna berresteko erreferendum bat da, eta erabat legezkoa. Begira ezazu zurekin itun bat sinatu dutenen aldera.

Hasieran esan dut demokrazia-lezioak ematera etorri zatzaizkidala, baina, egia esan, ezin zinen okerrago hasi. Zure saioa demokraziaren eta edozein sistema demokratikoren funtsetako bat ukatuz hasi duzu: alternantzia; alternantziaren beharra. Izan ere, esan didazu, eta ez gaur bakarrik, zure alderdi politikoari aste osoan entzun baitiogu, lehendakaritarako ez aurkezteko, erretiratzeko, ez duela zentzurik egoera blokeatzeak... Guztiz demokratikoa, inondik ere!

Berriro esango dizut: hemen, osoko bilkura honetan eztabaidatzea, alternatibak aurkeztea, konponbideak eta proposamen zehatzak eskaintzea, lehendakari izan nahi izatea, ez da ezer blokeatzea. De-

enriquecer también el parlamentarismo en esta Cámara.

Es el único grupo que me ha pedido que me retire. Por lo tanto, piénselo bien. ¿A qué tiene miedo? ¿Al debate? ¿Tiene miedo a la contraposición de alternativas? ¿Tiene miedo a que quede de manifiesto en este debate y la gente, por lo tanto, se dé cuenta de que las propuestas de izquierda de verdad no están en el Tripartito, sino en la propuesta de los socialistas vascos? ¿O tiene miedo de descubrir que si yo fuera lehendakari, porque obtuviera los apoyos suficientes, ustedes se habrían equivocado de sitio para seguir estando en el Gobierno y mantener el poder, que es lo único que les interesa?

El señor Ziarreta, de Eusko Alkartasuna, en el principio de su intervención parecía que acababa, no sé, de aterrizar de una especie de máquina o de túnel del tiempo, porque nos ha saltado directamente de la dictadura al pleno de hoy. Es decir, nos ha venido a dar una serie de lecciones sobre la historia reciente, o, mejor dicho, como muy bien ha apostillado él mismo, ha venido a hacer una especie de exégesis, es decir, una interpretación particular de lo que ha sido la historia.

Porque, según él, los vascos aceptamos el Estatuto por miedo a un golpe de estado, y, por lo tanto, no hemos hecho la transición, pero ahora toca, ahora toca hacer esa transición, toca resolver el conflicto. Y además lo define usted diciendo que eso que llama *normalización*, y que no es otra cosa, por lo que le he oído, que la consecución de las reivindicaciones nacionalistas, y además lo ha dicho casi textualmente, que si no le damos la razón no hay solución.

Pone sus premisas, y luego dice que tiende la mano por última vez al Estado y a los grupos políticos de esta Cámara. Y dice: "El Estado tiene la obligación democrática de tragar lo que decidamos aquí de cualquier manera". Y ¿cuál es la obligación democrática de Euskadi? ¿Cuál es? ¿O es que nosotros vamos por la vida con total impunidad?

Los pactos, los pactos que hemos hecho en este país, los pactos que nos constituyen como comunidad política, los rompemos unilateralmente porque nos da la gana. Las leyes y las reglas no son para nosotros, las saltamos porque no nos convienen. Las competencias que tenemos para decidir…, bueno, pues esas, las nuestras y las de los demás. Pero ¿desde cuándo ese es un comportamiento democrático?

Capacidad de decidir de los vascos, toda. No habrán visto nunca a los socialistas vascos no respetar la decisión de la sociedad vasca. ¡Nunca! Pero de acuerdo a las reglas del juego y de acuerdo a las competencias que tenemos cada uno.

mokrazia, sistema demokratikoa aberastea da, eta, aldi berean, Ganbera honetan parlamentarismoa ere aberastea.

Zure taldeak bakarrik eskatu dit erretira nadin. Horrenbestez, pentsa ezazu ongi. Zeren beldur zara? Eztabaidaren beldur? Alternatibak kontrajartzearen beldur? Gaurko eztabaidan gauza bat nabarmen geratzearen beldur, jendea gauza batez ohartzearen beldur, hau da, egiazko ezkerraren proposamenak ez daudela Hirukoan, euskal sozialiston proposamenetan baizik? Ala beste zerbaitez ohartu zarete, hau da, ni lehendakaria izango banintz, behar adinako babesa lortuz gero, zuek okerreko tokian egongo zinateketela Gobernuan jarraitu ahal izateko eta aginteari eutsi ahal izateko –horixe baino ez baitzaizue axola–?

Ziarreta jaunak, Eusko Alkartasunaren bozeramaleak, bere saioaren hasieran bazirudien denboramakina batetik edo denboraren tuneletik atera berria zela, izan ere, diktaduratik zuzenean gaurko osoko bilkurara pasatu da. Hau da, orain dela gutxiko historiari buruzko hainbat lezio eman dizkigu, edota, hobeto esanda, eta berak argitu duen bezala, exegesi moduko bat egitera etorri da, historiari buruzko interpretazio partikular bat egitera, alegia.

Izan ere, berak esan duenez, euskaldunok estatu-kolpe baten beldur ginelako onartu genuen Estatutua, eta, ondorioz, ez dugu trantsiziorik egin; orain, beraz, trantsizio hori egitea dagokigu, gatazka konpontzea. Eta, gainera, esan duzu, *normalizazioa* deitzen denari dagokionez –eta, entzun dudanaren arabera, errebindikazio abertzaleak lortzea baino ez da normalizazioa; zuk horrela esan duzu, hitzez hitz–, bada, arrazoia ematen ez badizugu, ez dagoela konponbiderik.

Zeure premisak jarri dituzu, eta gero esan duzu azkeneko aldiz luzatzen diezula eskua Estatuari eta Ganbera honetako talde politikoei. Eta honako hau esan duzu: "Estatua derrigortuta dago hemen edozer eratara erabakitzen duguna irenstera". Eta zein da Euskadiren betebehar demokratikoa? Zein da? Ala gu inolako zigorrik jaso gabe ibil gaitezke munduan zehar?

Itunak, herri honetan egin ditugun itunak, erkidego politiko gisa eratzen gaituzten itunak, alde bakarrez apurtzen ditugu gogoak ematen digulako. Legeak eta arauak ez dira guretzat, komeni ez zaizkigunez, ez diegu jaramonik egiten. Erabakitzeko ditugun eskumenak…, bueno, bada, horiek, gureak eta besteenak. Baina noiztik da hori jokabide demokratikoa?

Euskaldunon erabakitzeko ahalmena, oso-osoa. Inoiz ez zenituzten euskal sozialistak euskal gizartearen erabakia ez errespetatzen ikusiko. Inoiz ere ez! Baina jokorako arauak jarraituz eta bakoitzak dituen eskumenen arabera.

De todas formas, de poco servirá esa mano tendida si su objetivo, como dice, es la república vasca independiente en Europa. Y si el Plan Ibarretxe, como acaba de decirnos, no es su techo, sino su suelo. Porque les diré que entonces nosotros estamos en el sótano, que posiblemente será adonde quieran mandar o quieren que estemos todos los que no compartimos los postulados del nacionalismo más radical y sobre todo más excluyente, que son los que le he oído a usted aquí en esta tribuna.

Pero, les diré, no nos vamos a quedar en el sótano, por lo menos los socialistas no nos vamos a quedar en el sótano, porque no hemos nacido para resignarnos. No hemos nacido para dejar que se nos margine y se nos excluya en nuestro propio país. La casa es grande, y tiene habitaciones para todos. Sólo hace falta que todos lo entendamos así, porque nosotros estamos dispuestos a ocupar las que nos corresponden.

La señora San Gil. Bien, seré suave. No me he olvidado de nuestra historia. Estoy muy orgulloso, muy orgulloso de la historia de mi partido. Sé muy bien para qué nacimos hace más de ciento veinticinco años. Sé muy bien quién luchó defendiendo la República. Sé muy bien quién combatió la dictadura. Sé muy bien quién protagonizó la transición. Sé muy bien quién hoy mismo trabaja por los derechos sociales y quién no. Sé muy bien quién, en solitario, ha estado en Euskadi en demasiadas ocasiones defendiendo las libertades y los derechos. Sé muy bien y conozco los nombres de todos mis compañeros que han sido asesinados por el terrorismo de ETA. Otros igual tienen pasado que olvidar. Nosotros tenemos una historia de la que estamos muy orgullosos, y no se me olvida, no se preocupe.

Y no renuncio a principios. Ahora bien, no abrazo los principios del Partido Popular porque no los comparto.

Dos ejemplos. Usted dice que hemos traicionado el Pacto por las Libertades. No quiero meterme mucho en eso, sólo diré, artículo 1: la política antiterrorista la dirige el Gobierno de la nación. Bien, este es el primer gobierno de España que no ha negociado con la banda terrorista ETA y es el primer gobierno de España que no tiene el apoyo de la oposición para hacer la política antiterrorista.

Segundo ejemplo, esa frase, que me ha parecido terrible: "O se apuesta por España, o se apuesta por un país soberano". ¡No ha entendido nada! ¡No entiende este país! ¿Por qué hace incompatible España con Euskadi? ¿Por qué unos quieren hacer de España el problema, y otros del autogobierno de Euskadi el problema? ¡Que no! ¡Que son la solución! Una Euskadi autogobernada en España, eso es lo que quiere la inmensa mayoría de la ciudadanía vasca y eso es lo que ofertamos los socialistas vascos en nuestra propuesta y en nuestra alternativa.

Nolanahi ere, ez du ezer askotarako balioko zuk eskua luzatzeak baldin eta zure helburua, esan bezala, Europan euskal errepublika independentea eratzea bada; baldin eta Ibarretxe Plana, esan berri duzun bezala, sabaia ez bada, lurzorua baizik. Izan ere, hori horrela bada, nik esango dizuet gu sotoan gaudela, eta segur aski horraxe bidali nahi izango dituzue, edota hortxe egotea nahiko duzue, abertzaletasun erradikalenaren eta, batez ere, baztertzaileenaren aldarrikapenekin ados ez dauden guztiak. Eta esango dizut gaur era horretako aldarrikapenak entzun dizkizudala tribuna honetan.

Baina begira zer esango dizudan: gu ez gara sotoan geratuko; sozialistok, behintzat, ez gara sotoan geratuko, ez baikara etsipena hartzeko jaio. Ez gara inork gu baztertzen uzteko jaio eta geure herrian baztertuta egoteko jaio. Etxea handia da, eta denontzako adina gela ditu. Denok hori hala dela ulertzea bakarrik falta da, izan ere, gu dagozkigun geletan egoteko prest gaude.

San Gil andrea. Ederto, gozo-gozo arituko naiz. Ez zait gure historia ahantzi. Oso harro nago, oso-oso harro nago, nire alderdiaren historiaz. Ondo asko dakit zertarako sortu ginen duela ehun eta hogeita bost urte. Ondo asko dakit nork egin zuen borroka Errepublika aldezteko. Ondo asko dakit nork egin zuen borroka diktaduraren aurka. Ondo asko dakit nor ibili zen buru-belarri trantsizioan. Ondo asko dakit gaur bertan nor ari den gizarte-eskubideen alde lan egiten eta nor ez. Ondo asko dakit nor aritu den bakar-bakarrik Euskadin, eta gehiegitan, gainera, askatasunak eta eskubideak aldezten. Ondo asko gogoratzen ditut ETAren terrorismoak eraildako nire alderdikideen izenak. Beste batzuk, agian, iragana ahantzi beharrean aurkitzen dira. Gu oso harro gaude gure historiaz, eta ez zait ahanzten, ez zaitez kezka.

Eta nik ez diet printzipioei uko egiten. Hori bai, ez ditut besarkatzen Alderdi Popularraren printzipioak, ez bainator bat printzipio horiekin.

Bi adibide. Esan duzu Askatasunen aldeko Itunari traizio egin diogula. Ez dut aurreraegi joan nahi gai horretan, eta hauxe bakarrik esango dizut, 1. artikulua: terrorismoaren aurkako politika nazioko Gobernuak zuzentzen du. Ederto, hauxe da ETA talde terroristarekin negoziatu ez duen Espainiako lehenengo gobernua eta terrorismoaren aurkako politika egiteko oposizioaren babesa ez duen Espainiako lehenengo gobernua.

Bigarren adibidea, esaldi hau ikaragarria iruditu zait: "Edota Espainiaren aldeko apustua egiten da, edota herri burujabe baten aldeko apustua egiten da". Ez duzu, baina, ezer ulertu! Ez duzu herri hau ulertzen! Zergatik bihurtzen dituzu bateraezin Espainia eta Euskadi? Batzuek zergatik nahi dute arazo Espainia bihurtu eta besteek, berriz, Euskadiren autogobernua? Ezetz! Konponbidea direla! Espainian bere burua gobernatzen duen Euskadi, horixe nahi dute euskal herritar gehienek eta horixe eskaintzen dugu euskal sozialistok gure proposamenean eta gure alternatiban.

Sigo. Bueno, he oído del señor Egibar y del señor Karrera lo de la *carta a los Reyes Magos*. ¡Ahora vamos a descubrir que Euskadi no tiene recursos! Tenemos recursos más que suficientes para hacer una política mucho más ambiciosa en materia de política social o en materia de política sectorial. Lo que pasa es que hay que saber priorizar, hay que saber en qué se quiere gastar, hay que saber dónde poner los recursos para obtener ciertos resultados, y hay que gastar mejor.

Todo lo que he dicho yo, que le ha parecido a usted una carta a los Reyes Magos, no tienen más que darme los votos suficientes para que lo lleve a práctica. ¡Verá cómo es posible! Con los recursos que tiene Euskadi, verá cómo es posible. Porque es que lo que hemos visto en el otro candidato ha sido pura y simplemente inercia, ha sido dejarse llevar y vivir de las rentas. No ha habido nada de nuevos impulsos, nada de nuevas propuestas, nada de nuevas medidas que nos saquen de la atonía que nos está llevando cuesta abajo desde hace tiempo. Nada que ilusione, que enganche, que motive, que movilice a la sociedad vasca para ir detrás, en pos de objetivos compartidos. Nada que evidencie que hay una intención real y seria de enfrentarse a los viejos problemas, pero también a los nuevos retos de futuro, con ganas, con propuesta, con decisión y con iniciativa política.

Parece que los problemas del empleo precario, de la falta de vivienda accesibles, de la desmotivación sanitaria, del declive de la educación pública se van a resolver solos, o, lo que es peor, por no hablar de ellos, pues, no existen. Pues sí, existen, y lo que ocurre es que aquí sólo han encontrado una respuesta, y ha sido la de los socialistas vascos.

Pero acabaré por decir que tanto el discurso del otro candidado, del señor Ibarretxe, como las intervenciones de los grupos que le apoyan, lo único que han hecho ha sido reafirmarme en la necesidad de plantear nuestra alternativa para provocar un cambio político en Euskadi.

Porque yo he visto y he oído discursos, políticas, propuestas instaladas en el pasado. Sólo he visto y he oído más de lo mismo: más de lo que nos llevó al bloqueo, a la crispación, a la confrontación… Más del Plan Ibarretxe, que ahora llamamos *Nuevo Estatuto Político*: los artículos reflejados en el discurso, los *suelos* y los *techos* reflejados en los discursos… Pero no he visto voluntad de superar esa etapa del enfrentamiento entre bloques, de la definición de un país en dos mitades, de la intención de imponer a la mitad de un país los planteamientos de la otra mitad.

Lo decía esta mañana: un país no se construye por la imposición, un país no se construye unos sobre otros, y mucho menos unos contra otros. Y yo no he

Jarraitu egingo dut. Bueno, Egibar jaunarengandik eta Karrera jaunarengandik *Errege Magoen gutuna* edo kontu hori entzun dut. Orain esango diguzue Euskadik ez duela bitartekorik! Gizarte-politikaren arloan edota politika sektorialaren arloan politika askoz ere handizaleagoa egiteko behar adina bitarteko, eta gehiago, ditugu. Gertatzen dena da, bada, jakin egin behar dela lehentasunak finkatzen, jakin egin behar dela zertan gastatu nahi den, jakin egin behar dela halako emaitza batzuk lortzeko bitartekoak non jarri, eta, jakina, hobeto gastatu behar dela.

Zuri Errege Magoei egindako gutuna iruditu zaizun arren, nahikoa boto emango bazenizkidate berehala jarriko nuke praktikan esan dudan hori guztia. Ikusiko duzu nola den posible! Euskadik dituen bitartekoekin, ikusiko duzu nola den posible. Izan ere, beste hautagaiari inertzia baino ez diogu ikusi, beste hautagaiarena errentetatik bizi nahi izatea eta lehengo bidetik jarraitzea baino ez da izan. Ez du bultzada berririk aipatu, ez du proposamen berririk planteatu, ez du aspaldi samarretik gain behera garamatzan atoniatik aterako gaituen neurri berririk aipatu. Ez du, helburu konpartituen atzetik jotzeko, euskal gizarteari ilusioa ekarriko dion, euskal gizartea katigatuko duen, motibatuko duen, mugiaraziko duen ezer aipatu. Arazo zaharrei aurre egiteko baina, aldi berean, etorkizuneko erronka berriei gogoz, proposamenen bidez, erabakitasunez eta ekimen politikoen bidez aurre egiteko egiazko asmo serio bat agerian jarriko lukeen ezer ere ez.

Badirudi kolokako lanaren arazoa, eskuratzeko moduko etxebizitzen arazoa, osasun-arloaren motibaziorik ezaren arazoa, hezkuntza publikoaren gain behera, bakarrik konponduko diren arazoak direla, edota, hori baino okerragoa dena, horretaz hitz egiten ez badugu, bada, ez direla existitzen. Bada, bai, existitzen dira, eta kontua da hemen erantzun bakarra aurkitu dutela, euskal sozialiston erantzuna, alegia.

Eta, bukatzeko, esango dut beste hautagaiaren, Ibarretxe jaunaren, diskurtsoak eta beste hautagaia babesten duten taldeen esku-hartzeek berretsi egin didatela beharrezkoa dela gure alternatiba aurkeztea Euskadin aldaketa politiko bat eragiteko.

Nik gaur iraganean kokatutako proposamenak, politikak eta diskurtsoak entzun ditut. Betikoa baino ez dut ikusi eta entzun: blokeora, sumindurara, konfrontaziora eraman gintuena... Ibarretxe Plana, orain *Estatutu Politiko Berria* deitzen duguna: diskurtsoan jasotako artikuluak, diskurtsoetan jasotako *lurzoruak* eta *sabaiak*... Baina ez dut blokeen arteko enfrentamenduaroa gainditzeko borondaterik ikusi, herrialdea bi erditan definitu izan duen aroa, herriaren erdi bati beste erdiaren planteamenduak inposatzeko asmoa, gainditzeko borondaterik ikusi.

Gaur goizean ere esan dut honako hau: herrialde bat ez da ezer inposatuz eraikitzen, herrialde bat ez da eraikitzen batzuk besteen gainetik jarriz, eta, are

visto voluntad política seria y real para llegar a acuerdos en la definición de un país para todos, pero sobre todo hecho entre todos, que es lo fundamental, vivir en paz, vivir juntos y decidir juntos. Es lo que hace falta en este país.

Yo he visto dos modelos hoy: el de los socialistas vascos y el del Tripartito. Y he visto un modelo instalado en el nuevo tiempo, que mira hacia el futuro, y un modelo instalado en el pasado. Podemos hacer simplemente un ejercicio: ver los discursos de este mismo pleno de investidura de todos los partidos de la Cámara, y vemos quién se ha resituado, como decía usted esta mañana, y vemos quién se ha situado de verdad en los nuevos tiempos, y verán que lo ha hecho prácticamente en exclusiva el Partido Socialista de Euskadi, que ha sabido adaptarse a los nuevos tiempos, a las nuevas necesidades y a las nuevas demandas de la sociedad vasca. Pero, sin embargo, su discurso ha sido exactamente igual que el que oímos en la anterior sesión de investidura y que hemos oído año tras año en los debates de política general en este mismo pleno.

Luego eso de resituarse todos está muy bien en el discurso, pero aquí sólo nos hemos resituado unos, para dar respuesta a las necesidades de la sociedad vasca en estos nuevos tiempos. Por lo tanto, ha habido un discurso y una propuesta para el cambio, y una para el inmovilismo y para más de lo mismo.

Acabaré diciendo: hace falta un acuerdo interno que nos fortalezca sobre todo como sociedad. Y el consenso que se tiene que buscar para ese acuerdo no es algo mejor del que obtuvo el Plan Ibarretxe en el pleno del 30 de diciembre. No. Es algo más del que obtuvo el Estatuto de Gernika. Ese es el consenso al que tenemos que optar, ese es el acuerdo y el pacto al que por lo menos tenemos que intentar llegar entre todos, porque, si no, lo que fue ese pleno fue la constatación de la división del país en dos mitades.

El pacto entre iguales está muy bien, pero es muy fácil de conseguir y tiene poco valor político. El que tiene valor político, el que constituye comunidades y países, es el pacto entre diferentes.

Yo sigo tendiendo la mano desde el socialismo vasco para hacer un país por consenso entre diferentes, no sólo entre iguales para que lo disfrute una parte de la ciudadanía vasca. Yo quiero un país para todos, hecho entre todos, y sobre todo un país que mire al futuro y no se enrede constantemente en políticas de pasado que le impidan avanzar.

Nada más, y muchas gracias. *(Aplausos.)*

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, López jauna.

En todo caso, yo no les voy a devolver en modo alguno sus calificativos. El señor Pastor ha terminado con una frase, una frase… Perdóname, Javier, pero uno de los problemas de la transición de los marxistas fue que pasaron de la *lucha de clases* a la *lucha de frases*, algunos sin solución de continuidad. Y el Partido Socialista es uno de los aventajados en la lucha de frases hoy en la sociedad vasca. Y entonces el señor Pastor, para que no falte de nada, me ha dicho la sentencia: "Usted es el pasado". Con esta afirmación ha terminado.

Bueno, señor Pastor, el pasado es hacer estas afirmaciones. Yo no voy a hacer esa afirmación. Ustedes son necesarios, absolutamente necesarios para el futuro del país. Podemos devanarnos la sesera en ir hacia atrás, bucear en el pasado y sacar las cuentas de unos y otros, pero de verdad, se lo digo sinceramente, ese no es el camino que la sociedad vasca está esperando que hagamos. Quienes en estos momentos nos están viendo, no es ese el camino que quieren que hagamos. No es ese. Y, por lo tanto… *(Murmullos.)*

Y, por lo tanto… por lo tanto… Por lo tanto, no le voy a devolver ninguna de las diez afirmaciones, ni el epitafio tampoco. Ustedes no son el pasado, no lo son. Usted tampoco es el pasado, usted tampoco. Quiero que sepan ustedes que yo respeto el proyecto del Partido Socialista; que respeto el proyecto del Partido Socialista en España, que lo respeto en Cataluña y que lo respeto en Euskadi.

Que sé que la política del Partido Socialista en Euskadi se tiene que valorar en función de lo que usted como secretario general, y todos los miembros, hombres y mujeres del Partido Socialista de Euskadi piensan. Que sabemos que tenemos que trabajar con ustedes los escenarios futuros para tratar de alcanzar acuerdos políticos. Y quiero que sepa además que yo le respeto también en relación con la presentación de la candidatura a lehendakari que ha realizado.

hauetarako egokiagoa dela ahalegin hori egitea, hona harro-harro inorekin ez dela hitz egin esanez etorri ordez, zuk egin duzun bezala, konpromiso politikoak aurrera ateratzeko lotura guztietatik aske uzten zaituela-eta.

Halaxe da, nahiko erraza da era horretako inbestidura-eztabaida bat prestatzea: nahikoa duzu hona hauteskundeetarako prestatutako programarekin etorri, nahiz eta 18 legebiltzarkide izan, hau da, herritarren %22ren babesa izan, hemen euren izenpearekin babesa eman didatenek duten %44ko babesaren ondoan. Eta, bide batez, esango dut Zapatero jaunak Madrilen dituenak baino bi puntu gehiago direla.

Eta, hori esanik, esan nahi dut gure asmoa espazioak irekitzea dela, akordiotan aurrera egitea dela, batez ere aro berriak borondate eta elkar ulertze, eta, azken batean, integrazio kode horietan interpretatzea.

Nolanahi ere, nik ez dizkizuet bueltatuko niri zuzendu dizkidazuen epitetoak. Pastor jaunak saioa amaitzean esan duen esaldia... Barkatu, Javier, baina marxistek trantsizioan izan zuten arazoetako bat izan zen *klase-borrokatik frase-borrokara* pasatu zirela, eta batzuk jarraitutasunik gabe. Eta gaur egun euskal gizartean Alderdi Sozialista da frase borrokan alderik handiena ateratzen duena. Eta Pastor jaunak, ezer falta ez zedin, honako hau esan dit amaitzeko: "Zu iragana zara". Baieztapen horrekintxe amaitu du.

Bueno, Pastor jauna, iragana era horretako baieztapenak egitea da. Nik ez dut baieztapen hori egingo. Zuek beharrezkoak zarete, guztiz beharrezkoak zarete herri honen etorkizunean. Garunak urtu ditzakegu atzera egiteko, iraganean murgiltzeko eta batzuen eta besteen kontuak ateratzeko; baina, benetan esaten dizut, hori ez da euskal gizarteak guregandik espero duen bidea. Une honetan guri begira daudenek ez dute bide hori espero guregandik. Bide hori ez. Eta, ondorioz... *(Marmarrak.)*

Eta, ondorioz... ondorioz... Ondorioz, ez dizut bueltatuko hamar baieztapenetako bakar bat ere, eta epitafioa ere ez, jakina. Zuek ez zarete iragana, ez. Zu ere ez zara iragana, zu ere ez. Nik nahi dut zuek jakin dezazuen nik errespetatzen dudala Alderdi Sozialistaren proiektua; errespetatzen dudala Espainian Alderdi Sozialistak duen proiektua, eta errespetatzen dudala Katalunian duena eta Euskadin duena.

Badakidala Euskadin Alderdi Sozialistak egiten duen politika zuk, idazkari nagusia zaren aldetik, eta Euskadiko Alderdi Sozialistako gizon-emakume guztiek pentsatzen duzuenaren arabera baloratu behar dela. Badakigula zuekin landu beharko ditugula aurrerantzean eszenatoki guztiak akordio politikoak lortzen saiatzeko. Eta, gainera, nahi dut zuk jakitea errespetatzen dudala lehendakaritarako aurkeztu duzuen kandidatura ere.

Termino, presidenta, diciendo que de verdad, si queremos afrontar un nuevo tiempo, tenemos que hacerlo también con las formas, tenemos que hacerlo también con los discursos. No podemos afrontar los tiempos del futuro con los discursos que hacíamos hasta ahora.

Amaitzera noa, lehendakari andrea. Eta amaitzeko, esango dizuet, garai berri bati ekin nahi badiogu, formak eta diskurtsoak ere berritu egin behar ditugula. Etorkizunari ezin diogu orain arteko diskurtsoekin ekin.

En nombre del Tripartito, a los que quiero trasladar las gracias (ha sido… *bene-benetan ohore handia izan da zuekin lan egitea azken laburteotan bene-benetan, eta esan nahi dizuet gaur publikoki, eta zentzu horretan gainera*), hoy estamos trayendo aquí también un nuevo proyecto para un nuevo tiempo, para una sociedad que fundamentalmente lo que pretende es que busquemos tres grandes objetivos.

Hirukoaren izenean, eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet hirukoa babesten duten guztiei (en verdad *... ha sido un gran honor trabajar con ustedes estos cuatro últimos años, de verdad, y hoy se lo quiero decir públicamente, en ese mismo sentido*), gaur hona proiektu berri bat ekarri dut aro berri baterako, hiru helburu nagusi lortu nahi dituen gizarte batentzat.

Lo primero que nos está diciendo la sociedad es: "Sentaos y hablad". Lo segundo que nos está diciendo es: "Hablad y alcanzad acuerdos". Y lo tercero que nos está diciendo es: "Esos acuerdos que alcancéis quiero ratificarlos yo".

Gizarteak batez ere esaten digu elkarrekin esertzeko eta hitz egiteko. Bigarrenez, esaten digu elkarrekin esertzeko eta akordioak lortzeko. Eta, hirugarrenez, esaten digu lortutako akordio horiek ondoren berak berretsi nahi dituela.

Ba hori da konpromisoa. Eta helarazi nahi diogu, eta behar diogu, euskal gizarteari ilusioz beteta, energiaz beteta gaudela proiektu honekin aurrera jarraitzeko eta aurrera eramateko.

Pues ése es el compromiso. Y queremos hacer llegar a la sociedad vasca, y debemos hacerlo, que estamos llenos de ilusión, repletos de energía para continuar con este proyecto y sacarlo adelante.

Eskerrik asko denoi. *(Aplausos.)*

Muchas gracias a todos y a todas. *(Txaloak.)*

La PRESIDENTA: Eskerrik asko… Eskerrik asko, Ibarretxe jauna.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias… Muchas gracias, señor Ibarretxe.

Jarraitu egingo dogu. Eta taldeek erantzuteko txanda hasiko dogu. Mixto-Aralar taldearen ordezkariak dauka berbea. Ezenarro andrea, zurea da hitza.

Continuamos. Y es el turno de réplicas de los grupos. Tiene la palabra la representante del grupo Mixto-Aralar. Señora Ezenarro, tiene la palabra.

La Sra. EZENARRO EGURBIDE: Arratsalde on, berriz ere.

EZENARRO EGURBIDE andreak: Buenas tardes de nuevo.

Begira, Ibarretxe jauna, zuk behin baino gehiagotan erabili duzu..., eta gainera modu ironikoan PPri esan diozu nola bozka dezakeen beste alderdi politiko baten programa. Ba, hain zuzen, hori da zuek eskatu diguzuena guri egiteko. Harreman preferentzial horretan, hain zuzen, hori da guk behin eta berriz esan duguna: harreman preferentziala izan behar badugu, programa ere zerbait adostu beharko dugula. Eta programan, lehen esaten nuen bezala, adostasunak egon daitezkeela ikusteko...

Mire, señor Ibarretxe, usted ha utilizado en más de una ocasión..., y además ha preguntado irónicamente al PP cómo podía votar el programa de otro partido político. Pues precisamente eso es lo que ustedes nos piden a nosotros. Eso es lo que nosotros venimos diciendo, precisamente, en esa relación preferencial: que si vamos a tener una relación preferencial deberemos acordar algo del programa. Y, como decía anteriormente, para ver si se puede llegar a consensos...

Momentu honetan ez dago hemen, baina Joseba Egibarrek bere hitzaldia bukatu duenean esan du, besteak beste, iruditzen zaiola hemendik aurrera euskal politikagintzan euskarak presentzia gehiago izan behar duela. Eta, hain zuzen, akordio programatikoetara heltzeko guk proposatzen genuena zen euskararentzat berdintasun-legea onartzea, hain zuzen erakunde publikoetan euskarak gutxieneko kuota bat izan zezan, hainbat eta hainbat gizarte-mugimendu eskatzen ari den bezala. Baina horri ezetz esan zitzaigun. Eta, beraz, badaude akordioetara heltzeko oinarriak. Beste batzuei barre egiten diogu hori egiten dutelako, baina gero, bakoitza bere etxera etortzen denean, beti bes-

En este momento no está aquí, pero Joseba Egibar, al acabar su discurso, ha dicho, entre otras cuestiones, que considera que a partir de ahora el euskara debe tener más presencia en la política vasca. Y precisamente una de nuestra propuestas para poder llegar a acuerdos programáticos era la aprobación de una ley de igualdad para el euskara, concretamente para que el euskara tuviera una cuota mínima en las administraciones públicas, tal y como exigen multitud de movimientos sociales. Pero se nos dijo que no. En consecuencia, las bases para llegar a acuerdos están ahí. Nos reímos de otros porque lo hacen, pero luego, cuando cada uno va a su casa, siempre ve los proble-

teengan ikusten ditugu arazoak. Bakoitzak bere etxean, nik uste dut modu autokritikoan aztertu behar duzuela gurekin izan duzuen harremana eta gure botoa bilatzeko eduki duzuen prozesua. Ze egon badaude harreman hori gauzatzeko moduak, eta gainera badaude puntu amankomunak.

Eta guk, gauzak horrela, gure ahaleginetan aurrera jarraituko dugu. Ikusiko dugu posible den akordioa. Nik nahiko nuke, uste dut posible dela. Ikusiko dugu. Eta adostu nahi izan ez dituzuen gai horietan eragiten ahaleginak egiten jarraituko dugu oposiziotik, gure boto-emaileekin leial jokatuz. Leialtasuna zor diegulako batez ere gure boto-emaileei. Eta gainontzeko alderdiekin, ba, bide horretan eragiteko, gogor ekiten eta adostasunetara heltzen jarraituko dugu, eta bokazio horri eutsiko diogu. Akordioak nahi dituztenekin, noski.

Akordioak nahi dituztenekin, besteak beste, gizarte-segurantzaren eskumen osoa eskatzeko, ez bakarrik kudeaketa ekonomikoa. Edo estatutu politiko berrian euskarak gaztelaniaren pareko maila juridikoa izateko, eta kontu horretan harritu egin gaitu gai honi buruzko aipamenik ere ez egitea. Edo politika sozialean apustu sendoagoak egiteko, oinarrizko errenta lanbidearteko gutxieneko soldatarekin parekatuz. Edota larrialdietarako laguntzek izan dituzten murrizketak gainditzeko, ze murrizketak izan zituzten, nahiz eta batzuek ez onartu, eta egun indarrean dagoen baremazioa igotzeko. Horretaz gain, amatasun eta aitatasunagatik ematen diren laguntzak modu progresiboan igotzeko, Europako beste herrialde batzuetara parekatuz. Edo 0-2 urte bitarteko hezkuntza doakoa eta lurralde osoan hedatua izan dadin aldarrikatzen jarraitzeko. Edo hizkuntza-ereduak berraztertzea eskatuz, derrigorrezko hezkuntza amaitzen duten ikasle orok hizkuntza ofizial biak dakizkiela bermatzeko.

Eta horretaz gain, beste gai batzuk ere aipatu ditugu negoziazio hauetan: lurzoruaren lege-proiektuaren berrikuspen sakona egin behar dela, edota AHTren moratoriaren alde egin beharko litzakeela, batez ere benetako beharrei egokituko zaien tren sare moderno bati buruz eztabaidatzeko.

Horiek dira, besteak beste, guk mahaian jarri ditugun gaiak, eta –esaten nuen bezala, eta argi utzi nahi dut– euskal gizartearen aurrean ukitu ere egin nahi izan ez direnak. Uste dut egin den prozesuaren autokritika egin behar dela. Eta guk gure programa defendatzen jarraituko dugu, ez diogu uko egingo gure programari, eta agian errazagoa izan da, ba, bere garaian bere programari uko egin ziotenen babesa eta akordioa izatea. Gurekin hitzartu nahi duenak, gure programaren inguruan hitz egin beharko du.

Eta ez gara maximalistak izango. Badakigu daukagun pisu espezifikoa zein den. Baina ezin dena da pentsatu bestea txikia delako, bueno, "etorriko da,

mas de los demás. Cada uno en su casa, creo que deben analizar de forma autocrítica la relación que han tenido con nosotros y el proceso que han llevado a cabo para lograr nuestro voto. Porque hay modos para materializar dicha relación y, además, hay bases sobre las que se podría asentar la misma.

Y nosotros, ante esta situación, continuaremos con nuestros esfuerzos. Ya veremos si es posible el acuerdo. Me gustaría, creo que es posible. Pero ya veremos. Y desde la oposición trataremos de incidir en aquellas cuestiones que ustedes no han querido consensuar, actuando con lealtad a nuestros votantes. Porque ante todo debemos lealtad a nuestros votantes. Y con el resto de los partidos, pues, trataremos de seguir el mismo camino y trabajar duro para alcanzar acuerdos, y nos aferraremos a dicha vocación. Evidentemente, con aquellos que quieran alcanzar acuerdos.

Con aquellos dispuestos a alcanzar acuerdos, entre otras cuestiones, para exigir la competencia total en materia de seguridad social, no sólo la gestión económica. O para que el euskara sea equiparado al castellano en el nuevo Estatuto político, y al respecto nos sorprende que no haya habido ninguna mención por su parte. O para hacer apuestas más fuertes en materia de política social, equiparando la renta básica al salario mínimo interprofesional. O para superar las reducciones que han sufrido las ayudas de emergencia social, porque tuvieron reducciones, aunque algunos no lo reconozcan, y para subir la baremación actual. Además, para aumentar progresivamente las ayudas que se conceden por maternidad y paternidad, equiparándonos a los niveles de otros países europeos. O para continuar reivindicando la educación gratuita, y expandida por todo el territorio, para los niños y niñas de 0-2 años. O para solicitar la revisión de los modelos lingüísticos al objeto de garantizar que toda persona sepa las dos lenguas oficiales al finalizar la enseñanza secundaria.

Y, aparte de eso, en estas negociaciones también hemos mencionado otras cuestiones: que hay que realizar una revisión exhaustiva del proyecto de ley del suelo o que habría que apostar por una moratoria del TAV, fundamentalmente al objeto de debatir sobre una red ferroviaria moderna que satisficiera realmente las necesidades existentes.

Esas son, entre otras, las cuestiones que hemos puesto encima de la mesa y –como decía anteriormente, y quiero dejarlo claro– que ni siquiera han querido ser tocadas ante la sociedad. Creo que deben hacer autocrítica del proceso llevado a cabo. Y nosotros seguiremos defendiendo nuestro programa, no vamos a renunciar a nuestro programa, y quizá haya sido más fácil lograr el acuerdo y el apoyo de aquellos que en su día renunciaron a su programa. Quien quiera lograr acuerdos con nosotros deberá hablar sobre nuestro programa.

Y no vamos a ser maximalistas. Sabemos cuál es nuestro peso específico. Pero lo que no se puede es pensar que, como el otro es pequeño, bueno, "vendrá,

eta nik nahi dudana egingo du". Ezin da! Eta hori da hasieratik esan duguna, hauteskunde-gauaz geroztik esan duguna: gurekin hitz egin nahi duenak, gurekin adostu nahi duenak, programaz hitz egin beharko du. Eta bi hilabete eta gero, badirudi, ba, ezin izan dela, eta, beraz, gaur guk ezin dizugu botoa eman.

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, Ezenarro andrea.

Mistoa-Ezker Batua Berdeak taldearen ordezkariak dauka berbea. Karrera jauna, zurea da hitza.

El Sr. KARRERA AGIRREBARRENA: Arratsalde on berriro, presidenta andrea.

Voy a contestar al señor López, aunque no está, tengo que empezar contestándole al señor López, y lo voy a hacer en castellano para que… En fin, a mí me gusta más hablar en euskera, pero lo voy a hacer en castellano.

Me ha dicho que yo he negado la esencia de la democracia, que es la alternancia, porque le he dicho que debería retirar la candidatura, a mi entender. Y él para justificar se ha basado precisamente en esa petición. Y efectivamente le he dicho eso, pero usted, señor López, no se ha enterado de que yo inmediatamente he dicho que es absolutamente legítimo que la presente. Pero también creo haber explicado por qué le decía que debería retirar la candidatura: porque, desde el punto de vista de izquierda, desde el punto de vista del Partido Socialista, hacer un acuerdo, un gobierno con el Partido Popular me parecía, a mi entender, absolutamente poco justificable.

Si para ellos eso es justificable, que lo justifiquen, pero desde el punto de vista de Ezker Batua eso no es justificable, porque yo recuerdo qué es lo que está pasando en Madrid con las manifestaciones que ha habido últimamente, o en Salamanca, o lo que está pasando en Galicia o lo que está pasando en otros sitios. Y además le he dicho que en Euskadi somos un poco diferentes, pero ustedes llevan la diferencia a un extremo bastante difícil de entender: haciendo un acuerdo o haciendo un gobierno con el Partido Popular.

Eso es lo que les he dicho. Por lo tanto, no retiro ni una palabra. Y además creo haberlo dicho en términos absolutamente respetuosos, y además absolutamente entendibles desde una óptica de izquierda, desde una óptica de planteamientos que se puedan entender, para nosotros por lo menos, de izquierda.

Y también ha utilizado un término… no lo ha utilizado el señor López, lo ha utilizado usted: "seudoizquierda". Y ha dicho que nosotros estamos haciendo una seudoizquierda. Pues yo tengo que contestarle que nosotros a usted… no sé si a usted, pero sí al señor López, que no está, se le planteó la posibilidad de hacer un acuerdo transversal de base amplia en que pudieran estar los nacionalistas y no naciona-

y hará lo que yo diga". ¡No se puede! Y eso es lo que venimos diciendo desde el principio, desde la misma noche electoral: quien quiera dialogar con nosotros, quien quiera alcanzar acuerdos con nosotros, deberá hablar de programa. Y transcurridos dos meses parece que no ha sido posible, y, en consecuencia, hoy no podemos darle nuestro voto.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias, señora Ezenarro.

Es el turno del representante del grupo Mixto-Ezker Batua Berdeak. Señor Karrera, tiene la palabra.

KARRERA AGIRREBARRENA jaunak: Buenas tardes de nuevo, señora presidenta.

López jaunari erantzun behar diot; hemen ez dagoen arren, López jaunari erantzunez hasi behar dut, eta gaztelaniaz erantzungo diot... Nik nahiago izaten dut euskaraz hitz egin, baina oraingoan gaztelaniaz hitz egingo dut.

Esan dit nik ukatu egin dudala demokraziaren funtsa, hau da, alternantzia, nire ustez bere kandidatura erretiratu egin beharko lukeela esan diodalako. Eta bera, justifikazioa argudiatzeko, nik egindako eskari horretan oinarritu da. Eta halaxe da, nik hori esan dizut, baina zu, López jauna, ez zara ohartu jarraian esan dudala zilegitasun osoa duzula zure kandidatura aurkezteko. Eta, gainera, uste dut azaldu dizudala zergatik esan dizudan kandidatura erretiratu egin beharko zenukeela: ezkerraren ikuspegitik, Alderdi Sozialistaren ikuspegitik, nire ustez guztiz justifikaezina delako akordio bat, gobernu bat, Alderdi Popularrarekin egitea.

Eurentzat justifikatuta badago, justifika dezatela; baina Ezker Batuaren ikuspegitik justifikaezina da, izan ere, nik Madrilen azkenaldian egin diren manifestazioekin edota Salamancan egin zenarekin gertatzen ari dena baitarabilt gogoan, edota Galizian gertatzen ari dena eta beste toki batzuetan gertatzen ari dena. Eta, gainera, esan dizut Euskadin desberdinak garela apur bat, baina kasu honetan zuek desberdintasun hori mutur-muturrera eraman duzue; izan ere, nekez uler daiteke zuek akordio bat edo gobernu bat Alderdi Popularrarekin egitea.

Nik horixe esan dizuet. Horrenbestez, ez dut hitz bakar bat ere erretiratzen. Eta, gainera, uste dut adeitasun osoz esan dudala, ezkerraren ikuspegitik ondo ulertzeko moduan; ezkerraren ikuspegitik, gure ustez, behintzat, ondo uler daitezkeen planteamenduetan oinarrituta.

Eta beste hitz bat ere erabili duzu... ez du López jaunak erabili, zuk erabili duzu: "sasi-ezkerra". Eta esan duzu gu sasi-ezkerra garela. Bada, nik erantzun behar dizut guk zuri... bueno, ez dakit zuri, baina López jaunari bai, behintzat, planteatu geniola zeharreko akordio bat egitea oinarri zabal batekin, akordio horretan abertzaleak eta abertzale ez zirenak egon ahal izan zitezen, eta zuek ez duzue ezer jakin nahi izan horretaz.

listas, y ustedes no quieren saber nada de eso. Y ustedes son los campeones del diálogo, los campeones del acuerdo, pero no quieren hacer eso, o no han querido hacer eso.

Por lo tanto, nada de seudoizquierdas, nada de llevar al terreno de la intransigencia, a los viejos tiempos. Si alguien lo ha hecho, ustedes lo están haciendo. Y lamento que no esté aquí… Ahora sí está el señor López.

También otra cosa que han dicho ustedes, la carta a los Reyes Magos. Yo efectivamente he dicho que ustedes han hecho una carta a los Reyes Magos. Pero no solamente por el sentido económico, efectivamente también por el sentido económico, porque si analizamos las cosas muy detenidamente, y lógicamente no tengo tiempo para hacer ese análisis, podríamos llegar a esa conclusión, pero fundamentalmente usted ha dicho que en un año usted se compromete a cumplir el Estatuto al cien por cien. Y le tengo que decir que ustedes han estado gobernando quince años en el Gobierno central, aquí trece años, y ahora, por arte de birlibirloque, ¿en un año va a completar usted el Estatuto? Pues eso sería gravísimo. Eso sería utilizar las leyes y la política para su provecho propio. Es lo peor que se puede hacer, sin ningún género de dudas.

Pero yo no me lo creo, por eso digo que es una carta a los Reyes Magos que usted diga que en un año va a cumplir las competencias completas del Estatuto. Lógicamente, porque este año, en enero, el señor Jordi Sevilla, ministro precisamente de Administración Territorial, creo que se llama, de Administraciones Públicas, a unas preguntas de la señora Isabel López le contestó que las competencias más fundamentales nunca jamás se transferirían. Nunca jamás se transferirían. Lo dijo en el Senado; no lo dijo en un bar, no lo dijo en un periódico. Está en las actas y tengo precisamente la respuesta que dio el señor Jordi Sevilla.

Pero no acaba ahí. ¡Si la semana pasada el señor Gallizo dijo que no se van a transferir las cárceles! ¡La semana pasada! Por lo tanto, ¿en qué estamos?, ¿a quién pretendemos engañar? Por lo tanto, cuando he dicho *carta a los Reyes Magos*, efectivamente no por el contenido económico, sino que también por planteamientos políticos efectivamente era una carta a los Reyes Magos.

Y luego quería referirme a muchas cosas que han salido respecto a la vivienda. Tengo que decir que en Etxebide en este momento los demandantes de vivienda son 60.000, y no 80.000 ni 121.000, como se ha dicho aquí. Y cuando nosotros entramos en el Gobierno había 77.000 demandantes (es decir, 17.000 menos).

En este periodo de 2001 a 2004 se ha construido doble número de viviendas respecto al periodo anterior. Además, en el año 2004 (aquí se ha dicho

Eta zuek elkarrizketaren txapeldunak zarete, akordioaren txapeldunak zarete, baina hori ez duzue egin nahi, edota ez duzue egin nahi izan.

Horrenbestez, sasi-ezkerra edo antzekorik inondik inora ere ez, intrantsigentziaren esparrura, garai zaharretara eramatea edo antzekorik inondik inora ere ez. Hori, norbaitek egitekotan, zuek egin duzue. Eta sentitzen dut López jauna hemen ez egotea... Orain bai, orain hemen dago.

Eta beste kontu bat ere badago, Errege Magoen gutuna. Nik esan dut zuena Errege Magoei egindako gutuna dela, eta egia da. Baina ez bakarrik zentzu ekonomikoan, eta zentzu ekonomikoan ere bai, izan ere, gauzak zehatz-mehatz aztertzen baditugu, eta, arrazoizkoa den bezala, ez dut era horretako azterketa bat egiteko astirik, ondorio horretara irits gintezke, baina zuk, batez ere, esan duzu urtebetean Estatutua osoosorik beteko duzula agintzen duzula. Eta nik esan behar dizut zuek hamabost urtez egon izan zaretela Gobernu zentralean, hemen hamahiru urtez, eta orain, xirmi-xarmaz, urtebetean bete behar al duzue Estatutu osoa? Bada, hori oso larria izango litzateke. Hori legeak eta politika zeuen mesederako erabiltzea izango litzateke. Egin daitekeen gauzarik okerrena da, zalantza izpirik gabe.

Baina nik ez dut sinesten, eta horregatik esan dut Errege Magoei egindako gutuna dela urtebetean Estatutuaren eskumen guztiak beteko dituzula esatea. Arrazoizkoa den bezala, aurten, urtarrilean, Jordi Sevilla jaunak, hain zuzen ere, Lurralde Administrazioko edota Administrazio Publikoetako –ez dakit nola deitzen den– ministroa denak, Isabel López andrearen galdera batzuei erantzunez, esan zuelako eskumen nagusiak inoiz ez zirela eskualdatuko. Inoiz ez zirela eskualdatuko. Senatuan esan zuen; ez zuen taberna batean esan, edota egunkari batean esan. Aktetan jasota dago, eta nik badut Jordi Sevilla jaunak emandako erantzun hura.

Baina gauzak ez dira hor amaitzen. Oraindik ere, joan den asteartean bertan esan zuen, baina, Gallizo jaunak espetxeak ez direla eskualdatuko! Joan den astean! Zertan gabiltza, beraz?, nor nahi dugu engainatu? Horrenbestez, *Errege Magoei gutuna* esan dudanean, ez dut eduki ekonomikoarengatik bakarrik esan, baizik eta baita planteamendu politikoengatik ere.

Eta etxebizitzari buruz esan diren hainbat eta hainbat gauza ere aipatu nahi nituzke. Eta esan behar dut une honetan Etxebiden etxebizitza bat eskatuz izena emanda daudenak 60.000 direla, eta ez 80.000 edo 121.000, hemen esan den bezala. Eta gu Gobernuan sartu ginenean 77.000 zeuden (hau da, 17.000 gutxiago).

2001etik 2004ra aurreko tarte berean baino etxebizitza gehiago eraiki dira, ia bikoitza. Gainera, 2004. urtean (hemen esan da ez zirela 4.000ra iritsi)

que no llegaron a 4.000) se construyeron 4.427 viviendas, como aparece en el Eustat. Aparece en el Eustat eso.

En la legislatura que hemos estado nosotros se han construido 20.890 viviendas. Claro, y además de eso ustedes no tienen en cuenta las ayudas que el Gobierno da a los ayuntamientos, a las cooperativas, a los particulares, etcétera, etcétera. No, para ustedes eso se regala, ahí se regala el dinero; eso no se cuenta, no se contabiliza eso, no tiene nada que ver eso, lógicamente.

Además, tengo que decirle que recientemente la ministra de Vivienda estuvo en el palacio Miramar en unas jornadas sobre vivienda, y ustedes no deben de tener mucha información ni mucha comunicación con la ministra, porque puso como modelo la política de vivienda que está haciendo el Gobierno Vasco, y dijo que la política más avanzada a nivel estatal, sin ningún género de dudas, se está haciendo por el Gobierno Vasco. Eso también lo puede sacar, y le puede preguntar hasta a su alcalde, el señor Odón Elorza, porque lo sabe; lo sabe perfectamente porque lo escuchó.

Por lo tanto, ustedes aquí vienen…, todo es "aquí no se hace nada", "aquí se engaña", y van por ahí y permanentemente están pidiendo documentación, datos de cómo se hace y las cosas que se hacen aquí en vivienda, para intentar, yo diría…, iba a decir "para aprender", que no sé si lo debo decir, pero por lo menos para algo querrán tener esos datos, cuando están solicitando todo ese tipo de datos. Por lo tanto, yo creo que hay que tener un poco más de sentido de información y decir las cosas como son. Las cosas son así.

También decía –no iba a decir porque no estaba aquí– que un país no se construye por la imposición, se construye entre diferentes. Yo puedo estar totalmente de acuerdo con eso, lógicamente: entre diferentes. Para eso hay que dialogar, hay que llegar a acuerdos. Pero, como decíamos antes, estamos hablando de 60% y 40%…, en realidad son 39 y 61, y el 39 dialogará con el 61, y tendrán que llegar a un acuerdo. Y yo estoy de acuerdo en que hay que llegar a un acuerdo, pero imponer los 39 sin dialogar y decir que *aquí no se mueve ni Dios*, como se dice vulgarmente, pues, no, eso no se puede hacer. Y eso es lo que pretenden hacer ustedes, y por lo tanto esa es la realidad.

Efectivamente, un país se construye no por la imposición, sino por acuerdo de los diferentes. Y además me gusta a mí que un país se construya entre diferentes, me gusta mucho eso, y que se respete a todos los diferentes, me gusta también mucho. Pero para eso ya sabemos qué es lo que hay que hacer: hay que dialogar, hay que hablar y hay que llegar a acuerdos. Y eso es lo que les cuesta. Parece ser que aquí cuesta. Nos cuesta a todos, todos tendremos que

4.427 etxebizitza eraiki ziren; Eustaten bertan agertzen da. Hori Eustaten agertzen da.

Gu egon garen legealdian 20.890 etxebizitza eraiki dira. Jakina, eta, gainera, zuek ez dituzue kontuan hartzen Jaurlaritzak udalei, kooperatibei, partikularrei eta beste hainbati ematen dizkien laguntzak. Ez, zuentzat hori oparitu egiten da, dirua oparitu egiten da; hori ez da kontuan hartzen, hori ez da zenbatzen; horrek, arrazoizkoa den bezala, ez du zerikusirik.

Gainera, esan behar dizut duela gutxi Etxebizitza ministro-andrea Miramar jauregian egon zela etxebizitzari buruzko jardunaldi batzuetan, eta dirudienez zuek ez duzue informazio askorik eta ez duzue komunikazio handirik ministro andrearekin, izan ere, eredutzat hartu zuen Eusko Jaurlaritza egiten ari den etxebizitza-politika, eta esan zuen Estatuan, inolako zalantzarik gabe, politikarik aurreratuena Eusko Jaurlaritzak egiten duela. Hori ere atera dezakegu, eta zuen alkateari, Odón Elorzari, galde diezaiokezue, badaki eta; ondo asko daki, entzun egin zuen eta.

Horrenbestez, zuek hona..., "hemen ez da ezer egiten", "hemen engainatu egiten da" eta era horretako gauzak esaten dituzue, eta etengabe dokumentazioa eskatzen ari zarete, datuak eskatzen ari zarete ea etxebizitzaren arloan gauzak nola egiten diren galdetuz, zer egiten den galdetuz, hain zuzen ere... "zuek ikasteko" esan behar nuen, baina ez dakit esan behar dudan; dena den, zerbaitetarako nahiko dituzue zuek datu horiek guztiak hainbeste aldiz eskatzen badituzue. Horrenbestez, nik uste dut informazio-sen apur bat gehixeago izan behar dela eta gauzak diren bezala esan behar direla. Gauzak horrela dira.

Esan duzu –ez nuen esateko asmorik, ez baitzeunden hemen– herrialde bat ez dela inposaketaren bidetik eraikitzen, desberdinen artean eraikitzen dela. Ni guztiz bat etor naiteke horrekin, arrazoizkoa den bezala: desberdinen artean. Horretarako hitz egin behar da, akordioak lortu behar dira. Baina, lehen esan dugun bezala, %60az eta %40az ari gara hitz egiten..., bueno, berez, 39 eta 61 dira, eta 39ak hitz egingo du 61arekin, eta akordio batera iritsi beharko dira. Eta ni bat nator, nik uste dut akordio bat lortu behar dela, baina 39ak batere hitz egin gabe berea inposatzea eta *hemen inor ez da mugituko* esatea, bada, ez; hori ezin da egin. Eta zuek, hain zuzen ere, horixe egin nahi duzue, eta errealitatea, beraz, horixe da.

Begira, herrialde bat ez da, ez, inposaketaren bidetik eraikitzen, desberdinen arteko akordioen bidetik, baizik. Eta, gainera, nik gogoko dut herrialde bat desberdinen artean eraikitzea, oso gogoko dut hori, eta desberdinak diren guztiek elkar errespetatzea ere oso gogoko dut. Baina, horretarako badakigu zer egin behar den: hitz egin behar da, hitz egin behar da eta akordioak lortu behar dira. Eta horrexek ematen dizkizue lanak. Badirudi horrek lan handiak ematen dizki-

aprender, pero efectivamente esa posición ya me gusta, que podamos llevarla a cabo en ese terreno.

Además, le diré con lo de la vivienda que se dice que las viviendas de VPO aquí son las más caras. Pues en el Plan de Vivienda del Estado el precio por metro cuadrado es de 1.762 euros, y ya sabe cuánto es aquí, ¿no? Es exactamente un 35% más caro que aquí, es lo que han establecido. Y ¿por qué han establecido? Porque la iniciativa de los promotores ha exigido, ha sacado unos precios mucho más altos, y efectivamente la ministra ha cedido, y ahora resulta que en el Plan de Vivienda del Gobierno del Estado es 35% más caro que aquí. Y resulta que aquí somos los que tenemos todo lo más caro. Así se hace la historia, así se habla. Además de eso, permiten un porcentaje muy alto del terreno protegido, del suelo de VPO, en venta libre, un porcentaje alto además de eso, para que tengan más negocio.

Y otra cosa que aquí se ha dicho es que nosotros en el tema de vivienda hemos revuelto a todo el mundo, y todo el mundo se ha puesto en nuestra contra. Sí, alguno se ha puesto en contra nuestra, especialmente los propietarios del suelo han hecho lo posible y lo imposible para que no se aprobara la ley del suelo, que ustedes colaboraron con ellos –queriendo o no queriendo, ustedes colaboraron con ellos–, precisamente porque les afectaba y salían muy perjudicados con la ley del suelo si se aprobara, y en ese sentido se movilizaron. Pero todos los demás…

Ustedes aquí han dicho muchas veces que Eudel y no sé quién. Nosotros hemos llegado a acuerdos con Eudel y con los ayuntamientos, pero precisamente con quienes no llegamos a acuerdos fue con los propietarios del suelo, porque perdían muchos beneficios en caso de que se aprobara esa ley. Y como consecuencia montaron lo que montaron. Esa es la realidad, y por lo tanto hay que decir la realidad completa.

Eta besterik ez.

La PRESIDENTA: Eskerrik asko Karrera jauna.

Eusko Alkartasuna taldearen ordezkariak dauka berbea. Ziarreta jauna zurea da hitza.

El Sr. ZIARRETA BILBAO: Ustedes, señores del PSOE, mucha sonrisa, muchos buenos modales, que siempre es de agradecer después de la era Aznar, pero al final –permítanme que se lo diga así– siempre terminan exhibiendo el lado oscuro del talante, como en la célebre saga cinematográfica.

Resulta que en España están ustedes a bronca diaria con el PP y dicen ser lo más de la izquierda y los valores progresistas tanto políticos como sociales, y en Euskadi en cambio todas esas diferencias se evaporan, e incluso pretenden ustedes llegar a gobernar en comandita o con sus apoyos.

gula hemen. Denoi ematen dizkigu lanak, denok ikasi beharko dugu, baina hori gogoko dut, eta era horretako zerbait bultzatu dezakegu.

Hemen esan da babes ofizialeko etxebizitzak hementxe direla garestienak. Bada, Estatuko Etxebizitza Planean metro koadroaren prezioa 1.762 eurokoa da, eta hemengoarena badakizue zein den, ezta? Hemengoa baino %35 garestiagoa da, zehatz-mehatz esanda, horixe ezarri dute. Eta zergatik ezarri dute? Sustatzaileen ekimenak askoz ere prezio garestiagoak atera dituelako, eta ministro andreak amore eman du, eta orain, ikus daitekeen bezala, Estatuko Gobernuaren Etxebizitza Planean lurzorua hemen baino %35 garestiagoa da. Baina, jakina, gu gara gauzak garestien ditugunak. Horrela egiten da historia, horrela hitz egiten da. Eta, gainera, babestutako lurzoruaren, babes ofizialeko etxebizitzetarako lurzoruaren, ehuneko handi bat salmenta librean ematea onartzen duzue, hain zuzen ere, negozio handiagoa egin dezaten.

Esan duzue etxebizitzaren arloan denak nahastu ditugula, eta mundu guztia gure aurka jarri dela. Bai, bakarren bat edo beste jarri da gure aurka, eta, batez ere, lurzoruaren jabeak, izan ere, zirenak eta ez zirenak egiten saiatu ziren lurzoruaren legea onets ez zedin (eta zuek lagundu egin zenieten; nahita edo nahi gabe, baina lagundu egin zenieten) eurei eragiten zielako eta lurzoruaren legeak, onetsiko balitz, kalte handia egingo zielako, eta mugitu egin ziren. Baina gainerako guztiekin...

Zuek hemen askotan esan izan duzue Eudelekin eta nik ez dakit norekin... Guk akordioak lortu ditugu Eudelekin eta udalekin; akordioak lurzoruaren jabeekin ez ditugu lortu, onura handiak eskatzen baitzituzten legea onesten zenerako. Eta horren ondorioz egin zuten egin zutena. Horixe da errealitatea, eta, ondorioz, gauzak diren bezala, eta oso-osorik, esan behar dira.

Y nada más.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias señor Karrera.

Tiene la palabra el representante del grupo Eusko Alkartasuna. Señor Ziarreta, tiene la palabra.

ZIARRETA BILBAO jaunak: Zuek, PSOEko jaun-andreok, irribarre egiten duzue, manera onak erakusten dituzue, eta hori eskertzekoa da Aznarren garaiaren ostean, baina azkenean –eta zure baimenarekin horrelaxe esango dizut– aldartearen alde iluna erakusten duzue, saga zinematografiko ezagunean bezala.

Espainian zuek beti iskanbilan zabiltzate PPrekin, eta ezkerrik ezkerrena zaretela esaten duzue, eta politikan nahiz gizartean balore aurrerakoiak aldezten dituzuela. Euskadin, aldiz, desberdintasun horiek guztiak berdindu egiten dira, eta elkarrekin edo euren laguntzaz gobernatzeko asmoa ere baduzue.

Lo que tienen ustedes aquí es un matrimonio de conveniencia, que me ha recordado una conocida invitación de boda que fue muy comentada en elecciones y que finalmente, como vemos hoy aquí, tenía muchísima razón.

Zuek hemen egiunezko ezkontza duzue, eta hauteskundeetan zeresan ugari eman zuen ezkontzako gonbidapen bat ekartzen dit horrek gogora, eta, azkenean, gaur hemen ikus dezakegun bezala, arrazoirik ez zuen falta.

Quieren gobernar encaramados y sostenidos por la derecha más rancia de Europa, la de los amigos de Aquilino, la que sigue esgrimiendo como ariete el pacto antilibertades, la derecha que mintió y manipuló sobre el 11-M, la del archivo de Salamanca, la que resucita el Santo Oficio contra el matrimonio entre personas del mismo sexo, la misma que había que vencer en Galicia este pasado domingo, y la que utiliza, en definitiva, a las víctimas; que, por cierto, me alegro de que se den cuenta ahora de su utilización, ahora que las manipulan contra ustedes, pero, señores, les recuerdo que esa práctica mezquina se viene haciendo desde hace mucho tiempo contra el nacionalismo vasco.

Europako eskuinik zaharminduenari helduta gobernatu nahi duzue, eta gogoratuko dizuet eskuin hori Aquilinoren adiskideen eskuina dela, askatasunen aurkako ituna arietetzat hartzen duena, 11-Mri buruz gezurrak esan zituena eta egoera hura guztia manipulatu zuena, Salamancako artxiboaren kontuarekin dabilena, Inkisizioa sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen aurka altxatu duena, joan den igandean Galizian garaitu behar zena eta, azken batean, biktimak erabili egiten dituena; eta, bide batez, esango dizuet pozten nauela biktimak erabili egin dituztela konturatu zaretela ikusteak, izan ere, orain zuen aurka erabiltzen dituzte, baina, jaun-andreok, gogoratuko dizuet jokabide maltzur hori aspalditik darabiltela euskal abertzaletasunaren aurka.

Esa derecha de la que ustedes tanto dicen discrepar. Pero aquí no, aquí en Euskadi la razón de Estado, que es un eufemismo para referirse al nacionalismo español, se impone, y a ustedes se les cae la máscara.

Zuek esaten duzue eskuin horrekin desadostasun ikaragarriak dituzuela. Baina hemen ez, hemen, Euskadin, estatu-arrazoia inposatzen da –nazionalismo espainola aipatzeko eufemismo bat da–, eta zuei mozorroa erori egiten zaizue.

Ahora de repente el Partido Socialista, como San Pablo, ve la luz y se cae del caballo: ahora se nos presentan como adalides de una reforma estatutaria que en teoría es la panacea para este país. ¡Pero si han estado ustedes casi tres lustros gobernando en Madrid y durante todo ese tiempo han incumplido, defraudado, estafado reiteradamente el Estatuto de Gernika! ¿Qué credibilidad pueden tener ustedes, conversos del autogobierno, que atacan a la menor ocasión los rasgos más característicos de ese autogobierno, como han hecho recientemente en el caso del impuesto de sociedades? ¿No será que intentan volver a sacar un conejo de la chistera, en un intento de poner un dique de contención ante la fuerza, el empuje y la legitimidad de las aspiraciones nacionales de Euskal Herria y también de Cataluña?

Orain, bat-batean, Alderdi Sozialistak, San Paulok, bezala, argia ikusi du eta zalditik erori egin da: orain Estatutuaren erreformaren aldeko sutsuak izango bazinete bezala etorri zarete, eta teorian horixe da herri honen gaitz guztien sendabidea. Zuek ia hamabost urte igaro dituzue, baina, Madrilen gobernatzen, eta denbora horretan guztian ez duzue bete, baina, Gernikako Estatutua! Eta ez betetzeaz gainera, iruzur egin diozue, huts egin diozue behin eta berriro. Nolako sinesgarritasuna izan dezakezue autogobernura konbertitutakook, gutxiena uste denean autogobernu horren ezaugarri nabarmenenei eraso egiten badiezue, duela gutxi elkarteen gaineko zergarekin egin duzuen bezala? Zuen asmoa ez ote da izango, Euskal Herriaren, eta Kataluniaren, asmo nazionalen zilegitasunaren, bultzadaren eta indarraren aurrean eustorma bat jartzearren xisteratik untxia ateratzea?

Señor López, díganos de una vez qué son ustedes, porque evidentemente lo que no se puede es ser federalista de boquilla y jacobino de víscera. Aclárense de una vez. Pero ¡cómo vamos a creerles, si una y otra vez de manera contumaz e irredenta incumplen con sus obligaciones respecto al cupo, respecto al *Prestige*, respecto a la Ertzaintza, respecto a la transferencia de la competencia penitenciaria, donde siguen ustedes empecinados en hacer como el perro del hortelano, sin reparar en que estamos hablando de seres humanos, presos, sí, pero con sus derechos intactos! Y no estoy hablando sólo de los presos de ETA, sino de los presos en general, y ya tenemos cuatro muertos en Nanclares.

López jauna, esan iezaguzu behin betiko zuek zer zareten, izan ere, hitzez ezin zarete federalistak izan eta erraietan, aldiz, jakobinoak. Ea argitzen duzuen. Nola sinetsiko dizuegu, baina, behin eta berriro, setati, kupoari dagokionez, *Prestige* ontziari dagokionez, Ertzaintzari dagokionez, espetxeei buruzko eskumena eskualdatzeari dagokionez dituzuen betebeharrak betetzen ez badituzue, eta azkena aipatu dudan gai horretan, gainera, ortuzainaren zakurrarena egiten duzue, ez zarete jabetzen gizakiez ari garela, eta egia da presoak direla, bai, baina euren eskubideak dituzte! Eta ni ez naiz ETAko presoez bakarrik ari, preso guztiez ari naiz, eta Langraizen jadanik lau hildako ditugu.

Han dicho ustedes recientemente que los votos de EHAK no valen. Pero ¿acaso prevaricaron ustedes

Duela gutxi esan duzue EHAKren botoek ez dutela balio. Agian zuek prebarikatu egin al zenuten al-

cuando decidieron no recurrir su legalización, a diferencia de lo que habían hecho anteriormente con Aukera Guztiak? Y, si es un partido legal y legítimo, ¿acaso no lo es su presencia en esta Cámara y también sus votos? El problema que tienen ustedes, señores del Partido Socialista, es que quieren resolver un problema haciendo invisible, cuando les conviene, eso sí, a una parte implicada en ese problema y, por tanto, parte también de cualquier solución.

Y cuanto antes se den cuenta de que la paz y la normalización son cuestiones que van de la mano, pero que no son la misma cosa, antes llegaremos al final de ese laberinto. Ustedes lo dicen cuando se refieren a otros conflictos a lo largo y ancho del planeta. Aunque ahora con el tema del Sahara sí que reculan ustedes vergonzosamente, pero lo han dicho sobre Irlanda, Palestina, etcétera. ¿Y por qué esos análisis, pregunto yo, por qué esos análisis no valen para nuestro caso?

Desengáñense, señores del PSOE. Ante un conflicto de raíces indiscutiblemente políticas, como es el vasco, es necesario un acuerdo político que ataje precisamente las raíces del conflicto. Y ese acuerdo político (acuérdense de Downing Street) debe erigirse en torno fundamentalmente al respeto de la capacidad de decisión.

Para acabar (si lo bueno breve, dos veces bueno), esta ha de ser definitivamente la legislatura de la paz y de la normalización, la legislatura del diálogo y del acuerdo. Hemos de pasar de las palabras a los hechos, en un nuevo tiempo que es un tiempo de soluciones. Aquí hoy estamos en una encrucijada, y de lo que se trata es de elegir un gobierno que tiene que ser el gobierno de las soluciones, del respeto de los derechos esenciales, individuales y colectivos, políticos y también sociales, de la garantía de las libertades, de la profundización en el bienestar, la solidaridad y la justicia social, y de la defensa y promoción de nuestra cultura.

Esta es, en definitiva, la propuesta de país que nosotros hoy hacemos, una propuesta basada en la ciudadanía, en la pluralidad, en la diversidad, en el respeto a quien tiene otras opciones políticas, y demuestra usted, señor López, un desconocimiento absoluto de la realidad de este país, impropio de quien se postula como candidato a lehendakari. Señor López, el Tribunal Supremo de Canadá (que no el de Québec: el de Canadá), ¿está acaso compuesto por radicales nacionalistas, como usted ha dicho?

Se trata, digo, de elegir entre un gobierno dispuesto a avanzar en la construcción política y social de nuestro país, y la otra alternativa, que es la que representa en este acto el señor López, es la de una alianza antinatura, construida para sustentar un gobierno *contra* y no *para*, un gobierno *anti* y no *pro*. Y esa es hoy, y no otra, la disyuntiva, y que cada palo aguante su vela.

derdi hori ez ilegalizatzea erabaki zenutenean, nahiz eta aurretik Aukera Guztiak alderdiarekin kontrakoa egin zenuten? Eta, alderdia legezkoa bada eta zilegia bada, Ganbera honetan egotea eta bere botoak ez al dira zilegiak eta legezkoak? Zeuek arazo handi bat duzue, Alderdi Sozialistako jaun-andreok: gai honetan inplikatuta dagoen zati bat, eta, ondorioz, edozein konponbideren zati bat dena, ikusezin bihurtuz konpondu nahi duzu arazoa; hori bai, komeni zaizuenean.

Eta zenbat eta lehenago ohartu bakea eta normalizazioa eskutik helduta doazela baina ez direla gauza bera, orduan eta lehenago iritsiko gara labirinto honen amaierara. Zeuek esaten duzue planetan zehar dauden beste gatazka batzuez hitz egiten duzuenean: Irlandaz hitz egiten duzuenean, Palestinaz hitz egiten duzuenean, nahiz eta orain, esate baterako, Sahararen kontuarekin, atzera egin duzuen, eta lotsagarria da. Eta nik honako hau galdetzen dut: analisi horiek zergatik ez dute balio gure kasuan?

Begiak zabal itzazue PSOEko jaun-andreok. Sustrai politikoak dituen gatazka batean, sustrai politikoak baititu, inondik ere, euskal gatazkak, beharrezkoa da gatazkaren sustraiak erauziko dituen akordio politiko bat. Eta akordio politiko hori (gogora ezazue Downing Street) erabakitzeko ahalmenaren inguruan antolatu behar da batez ere.

Amaitzeko (ona laburra bada, askoz ere hobe), honek bakearen eta normalizazioaren legealdia izan behar du, elkarrizketaren eta akordioaren legealdia. Hitzetatik egintzetara igaro behar dugu aro berri honetan, konponbideen aro berri honetan. Gaur hemen bidegurutze batean gaude, eta konponbideen gobernua behar dugu; oinarrizko eskubideak, eskubide indibidual eta kolektiboak, politikoak eta sozialak, errespetatuko dituen gobernua behar dugu; askatasunak bermatuko dituen gobernua behar dugu; ongizatea, elkartasuna eta gizarte-justizia sakonduko dituen eta gure kultura aldeztu eta sustatuko duen gobernua behar dugu.

Nolanahi ere, gaur hemen esku hartu duten beste talde batzuei dagokionez, Aralarrek ez badigu ere ezer esan, Ezenarro andreari esan nahi diot iruditu zaidala apur bat galdu egin zarela gaur. Zure presentzia egoeraren giltza izan zitekeela ikusten zen, baina iruditu zait giltza hori kendu egin dizutela Ezker Abertzalearen ordezkariek, eta zu apur bat tokiz aldatuta geratu zara. Nire irudipena izan da; agian oker nago.

A Ezker Batua no voy a contestarle más, porque creo que deberíamos ser capaces, si fueran más coherentes de lo que son, de poder llegar a ciertas actitudes por lo menos de entendimiento básico con un partido que se reclama de izquierdas, como nosotros. Y que esas siglas de Ezker Batua se parecen cada vez, en vez de a EB, a EBB, porque están cada día más pegados al Partido Nacionalista Vasco.

Ezker Batuari ez diot beste ezer esango, uste baitut, direnak baino koherenteagoak izango balira, gai izan beharko genukeela oinarrizko elkar ulertze batera iristeko gurea bezala ezkerrekoa den, bere burua ezkerrekotzat duen, alderdi batekin. Eta esan nahi diot sigla horiek gero eta EBBren antz handiagoa dutela, izan ere, Euzko Alderdi Jeltzaletik gero eta hurbilago zaudete.

EA hacía unas referencias muy jugosas sobre el impuesto de sociedades. Bueno, estar en contra de la normativa tributaria concreta que se aplica en las diputaciones forales no significa, ni mucho menos, estar contra el autogobierno vasco ni contra el Concierto. Porque yo puedo estar en desacuerdo con cómo hace el autogobierno o cómo lo desarrolla el señor Iba-

EAk sozietateen gaineko zergari buruzko erreferentzia mamitsuak egin ditu. Bueno, foru-diputazioetan ezartzen den zerga-araudi zehatzaren aurka egoteak ez du esan nahi, ezta gutxiagorik ere, euskal autogobernuaren aurka egotea, ez Ekonomia Itunaren aurka egotea. Izan ere, ni agian ez nator bat autogobernua bideratzeko moduarekin edota Ibarretxe jaunaren jar-

rretxe, y eso no quiere decir que esté en contra del autogobierno. El instrumento es una cosa, y cómo se desarrolla el instrumento es otra muy distinta.

Le recuerdo también que la sentencia del Supremo no hace referencia al Concierto Económico, ni siquiera a la capacidad tributaria. Hace referencia expresamente al impuesto de sociedades, que beneficia a las empresas de este país. Un criterio que nosotros no compartimos a la hora de aplicar ese impuesto, y estamos perfectamente legitimados para decir que no nos gusta.

Y, por cierto, cuando usted hablaba de cómo era posible que pudiésemos coincidir en votos con el Partido Popular, pues, si no recuerdo mal, uno de sus socios de gobierno, Ezker Batua, ha votado también en contra de esta normativa foral, de la norma tributaria del impuesto de sociedades, y, sin embargo, la han votado ustedes en Álava con el Partido Popular. ¿Qué pasa?, ¿qué no le hacen ascos a votar esas cosas con el Partido Popular? ¿O es que en temas de dinero es más fácil entenderse cuando se tiene una ideología de fondo de derechas? Pues eso también hay que tenerlo en cuenta.

Y, en fin, pues, qué quiere que le diga, señora San Gil. Primero, un poquito menos de vehemencia, porque no le va a convencer usted al señor Ibarretxe (en eso estamos, seguramente, usted y yo de acuerdo). Pero tampoco nos quiera engañar. Es decir, no hable usted de la propuesta de paz como si nosotros nos hubiéramos vendido al enemigo, porque la propuesta de paz que se ha aprobado en el Congreso de los Diputados dice expresamente que ese proceso se inicia sólo cuando se produzca un cese definitivo de la violencia, y con esos mismos términos ustedes firmaron el pacto de Ajuria Enea y el acuerdo de Madrid; pacto de Ajuria Enea que, por cierto, ustedes se encargaron de cargarse en cuanto tuvieron la más mínima oportunidad.

Y, desde luego, si usted dice que no entiende nuestra propuesta, pues, me parece muy lógico que no la entienda, porque tampoco entendieron mucho del Estatuto de Gernika cuando se aprobó, y se han apuntado un poquito más tarde que los demás a la defensa de la autonomía vasca.

Bueno, por lo tanto, aquí nos encontramos ya con un escenario que está bastante delimitado. Y créame si le digo, señor Ibarretxe, que lamento profundamente, profundamente, que usted vaya a recibir los votos de EHAK en este pleno o en el de mañana. Y créame que soy muy sincero si le digo que este hecho vuelve a meter en este país en una noria infinita sin solución, y no porque queramos demonizar a EHAK en ningún caso (es un partido legal que está sentado en esta Cámara), pero es que, como no coincidimos absolutamente en nada de lo que plantea este partido, ni en el derecho a la autodeterminación, ni en el soberanismo, ni en la territorialidad, ni en la derogación de la Ley de Partidos, ni en que estas elecciones no han sido democráticas, ni en que nuestros concejales son

duerarekin, baina horrek ez du esan nahi autogobernuaren aurka nagoenik. Gauza bat da tresna, eta oso bestelako zerbait da nola baliatzen den tresna hori.

Horrez gainera, gogoratuko dizut Auzitegi Gorenaren epaiak ez duela Ekonomia Ituna aipatzen, ezta zergak arautzeko ahalmena ere. Sozietateen gaineko zerga aipatzen du berariaz, eta mesede egiten die herri honetako enpresei. Gu ez gatoz bat irizpide horrekin, zerga horren ezarpenarekin, eta zilegitasun osoa dugu ez dugula batere gogoko esateko.

Esan duzu ea nolatan eman dezakegun Alderdi Popularrak ematen duen boto bera. Bada, nik esango dizut, oker ez banago, behintzat, zuen gobernukideetako batek, Ezker Batuak, alegia, foru-arau horren aurkako, sozietateen gaineko zerga-arau horren aurkako, botoa eman duela, eta, zuek, aldiz, Araban Alderdi Popularraren ondoan bozkatu duzuela. Zer gertatzen da?, ez al diozue muzin egiten gauza horiek Alderdi Popularrarekin batera bozkatzeari? Ala diru-kontuetan errazagoa da elkar ulertzea oinarrian eskuineko ideologia bat dagoenean? Bada, hori ere kontuan izan behar da.

Eta, azkenik, zer nahi duzu nik esatea, San Gil andrea. Lehenik eta behin, suhartasun apur bat gutxiago, izan ere, Ibarretxe jauna ez duzu konbentzituko (horretan, segur aski, bat gatoz gu biok). Baina ez zaitez saia gu engainatzen ere. Hau da, ez ezazu bakearen aldeko proposamenaz gure burua etsaiari saldu izan bagenio bezala hitz egin, izan ere, Diputatuen Kongresuan onetsi den bakearen aldeko proposamenak berariaz dio prozesu horri indarkeria behin betiko amaitzen denean bakarrik ekingo zaiola, eta zuek hitz horiekintxe izenpetu zenuten Ajuria Eneko ituna eta Madrilgo akordioa; eta, bide batez, gogoratuko dut Ajuria Eneko ituna zeuok akabatu zenutela aukerarik txikiena ikusi zenutenean.

Eta zuk esan duzu ez duzula ulertzen gure proposamena, eta nik esango dizut arrazoizkoa iruditzen zaidala zuk gure proposamena ez ulertzea; izan ere, Gernikako Estatutua ere ez zenuten asko ulertu onetsi zenean, eta gainerakook baino geroxeago igo zarete euskal autonomiaren gurdira.

Bueno, horrenbestez, aurrean dugun agertokia jadanik nahikoa mugatuta dago. Eta sinets iezadazu, Ibarretxe jauna: sentitzen dut, erabat sentitu ere, zuk EHAKren botoak jasotzea gaurko osoko bilkuran edo biharkoan. Eta sinets iezadazu, oso zintzoa bainaiz hau esatean: horrek konponbiderik gabeko noria infinitu bat sartzen du herri honetan, eta ez EHAK satanizatu egin nahi dugulako, inola ere ez (Ganbera honetan eserita dagoen alderdi legala da); baina ez gatozenez bat alderdi horrek planteatzen duen ezerekin, ez autodeterminazio-eskubidearekin, ez burujabetzarekin, ez lurraldetasunarekin, ez Alderdien legea indargabetzearekin, ez hauteskunde hauek ez direla demokratikoak adieraztearekin, ez gure zinegotziak nolabait ere ilegalak direla iradokitzearekin, bada, ezin dugu ulertu zuk

poco menos que ilegales, no podemos entender cómo usted, al que le supongo una mayor cultura democrática, acepta sin ningún rubor esos apoyos. No lo entiendo, porque coloca al país en una situación mucho más difícil de lo que ya estaba, y probablemente aleja la solución.

Y sí quería hacerle una pregunta al señor Egibar, por cierto, porque la señora Erauskin se ha dirigido a él y me gustaría que cuando intervenga le conteste si va a dejar usted el cargo en el Ayuntamiento de Lizartza. Más que nada para saber si es lo que tienen pactado de antemano o no. Por orientarnos un poco.

Pero, bueno, en cualquier caso, yo creo que esto ha llegado ya, más o menos, a una conclusión final. Y al final nos ha echado una pequeña bronca el señor Ibarretxe, probablemente porque le gusta mucho hacer el papel de víctima. No sé si quiere que le hagamos a usted el *monumento a la víctima*, en vez de a los que se lo merecen de verdad, pero cada vez que a usted le dirigen una crítica más o menos razonada se siente ofendido.

Nosotros no lo hemos hecho con ánimo de insulto. Hemos descrito una situación. ¿Qué quiere que le digamos? ¿Que nos encanta la política que ha desarrollado usted estos cuatro años? ¿Que nos vuelve locos la propuesta de Estatuto que ha querido poner encima de la mesa? ¿Que nos parece genial que estemos enfrentados al Estado un día sí y otro también, que la sociedad vasca esté cada día más enfrentada, unos ciudadanos con otros? Pues no se lo podemos decir, y tenemos que decir lo que pensamos. Y se lo decimos con todo el respeto que usted nos merece, como un parlamentario y un candidato, pero nada más, nada más.

Y, en cualquier caso, en un sano ejercicio democrático de debate parlamentario parece muy razonable que, sin faltar al respeto a nadie, se diga lo que cada uno piensa. Y no hemos querido hacer nosotros ninguna otra cosa que la que hemos hecho.

En cualquier caso, bueno, "¿por qué están ustedes tan molestos con el PNV?", nos dice. Pues, mire usted, quizá sea porque nosotros hemos conocido otro PNV, otro PNV con quien se podía hacer país, porque tenía otro concepto distinto, y otro lehendakari que tenía otra idea distinta del país. Porque usted es como aquel señor que incendia el bosque y después se disfraza de bombero para apagar el incendio que usted mismo ha creado. Y eso no nos gusta, y como no nos gusta se lo decimos, señor Ibarretxe.

Muchas gracias.

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, Pastor jauna.

Euzko Abertzaleak taldearen ordezkariak dauka berbea. Egibar jauna, zurea da hitza.

nolatan onartzen dituzun babes horiek inolako lotsarik gabe, kultura demokratiko handixeagoa, behintzat, espero baitut zuregandik. Ez dut ulertzen, izan ere, herria lehengoa baino egoera zailagoan kokatzen du, eta, segur aski, konponbidetik aldentzen du.

Eta galdera bat egin nahi nioke Egibar jaunari. Erauskin andreak galdera bat egin dio, eta esku hartzen duenean erantzutea nahiko nuke ea Lizartzako Udalean duen kargua utzi behar duen. Batez ere, aldez aurretik itunduta duzuen ala ez jakiteko. Nondik jo ikusteko, baino, ez.

Nolanahi ere, nik uste dut hau jadanik iritsi dela bukaerara, gutxi gora-behera. Eta azkenean Ibarretxe jaunak errieta txiki bat egin digu, segur aski biktima-papera egitea gogoko duelako benetan. Nik ez dakit zer nahi duzun, agian, *biktimari monumentua* zuri egitea benetan merezi dutenei egin ordez; baina gehixeago edo gutxixeago arrazoitutako kritika bat egiten dizuten bakoitzean, irainduta sentitzen zara.

Guk ez dugu zu iraintzeko asmoz egin. Egoera bat deskribatu dugu. Zer nahi duzu guk esatea? Ezin hobea iruditzen zaigula zuk lau urte hauetan garatu duzun politika? Ezin hobea iruditzen zaigula mahai gainean jarri nahi izan duzun estatutu-proposamena? Oso pozik gaudela Estatuarekin beti liskarrean gabiltzalako, euskal gizartea gero eta gauza gehiagoren aurka dagoelako, herritar batzuk besteen aurka jartzen direlako? Bada, hori ezin dizugu esan, eta pentsatzen duguna esan behar dugu. Eta gure ustez merezi duzun begirune osoz esaten dizugu, legebiltzarkide batek eta hautagai batek bezala, baina ez da besterik, ez da besterik.

Eta, nolanahi ere, legebiltzar-eztabaidako ariketa osasuntsua eta arrazoizkoa da, inori begirunerik galdu gabe, norberak pentsatzen duena esatea. Eta guk ez dugu besterik egin, ez dugu bestelako asmorik izan.

Nolanahi ere, bueno, "zergatik gogaitzen zaituzte hainbeste EAJk?", galdetu diguzu. Bada, begira, agian guk beste EAJ bat ezagutu dugulako eta beste EAJ horrekin herria eraiki zitekeelako, beste ikuspegi bat zuelako eta herriari buruzko beste ikuspegi bat zuen beste lehendakari bat zuelako. Izan ere, zu basoari su ematen dion eta gero, suhiltzailez mozorrotuta, berak piztutako sua itzaltzen saiatzen den pertsona bezalakoa zara. Eta hori ez dugu batere gogoko, eta ez dugunez batere gogoko, esan egiten dizugu, Ibarretxe jauna.

Eskerrik asko.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias, señor Pastor.

Tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos. Señor Egibar, tiene la palabra.

El Sr. EGIBAR ARTOLA: Begitu, Maria San Gilek azaldutakoari buruz, lehenengo eta behin, Legebiltzar honetan egona zara orain baino lehen, eta hau legebiltzar bat da. Beste kontu batzuk frogatu nahi baldin badituzu, badaude beste arlo batzuk zure nolabaiteko graziak azaltzeko. Ez daukazu inongo arazorik. Badaukazu hainbat eta hainbat toki zure *salerosidade* hori azaltzeko. Baina hau Parlamentua da, hau ez da merkatua.

Lehenengo. Zure tesi politikoa oso garbia da, oso garbia eta zuzena. Eta, gainera, ihes egin dizu argumentu…

La PRESIDENTA: Mesedez, isilik… Barkatu, Egibar jauna. Isiltasuna eskatzen dot, ze gaur osoko bilkura osoan gabiltza danok apur bat alteratura. Mesedez, isiltasun apur bat.

El Sr. EGIBAR ARTOLA: Zure tesi politikoa nabaria da, eta begi-bistan utzi duzu, ez Luxenburgorekin eduki duzun, zera, trastabilatze horrekin, baizik esan duzu azken finean espainol askok esaten dutena. Eta euskaraz esango dut, eta gero nahi baldin baduzu itzuliko dut: "Espainola izateko aukera eduki, guk aukera hori begi-bistan eduki, eta munduan gerta daitekeen gauzarik onena izanda, edozeini gerta dakiokeen gauzarik onena izanda, zergatik ez dugu espainola izan nahi?". Hori da zure tesia. Ez duzu onartzen zure errealitatea ez den ezer. Zergatik denak euskaldunak izango gara, bueno, hala aitortzen dugu. Diferentzia politikoak bakarrik ditugu? Ez, baita kulturalak ere, jatorrizkoak, hizkuntzarekikoak, eta hainbat eta hainbat diferentzia. Baina gizarte plural batean bizi baldin bagara, eta zuk identitate jakin bat baldin badaukazu eta guk beste bat, elkar errespeta dezagun. Baina ez bata bestearen gainetik jarriz, baizik errespetuak esan nahi du berdintasunean bakoitzak bere proiektua garatzeko eskubidea behar duela; eta bermea, ez aldarrikatu izatea bakarrik. Orduan, zuk hori ez duzu ulertzen, ez da kabitzen zuen ideologian. Bueno, ba aizu, zerbait egin beharko da zu edo zu bezelakoak konbentzitzeko.

Biktimei buruz hitz egin duzu, eta berriro ere zuzen-zuzenean lehendakariarengana jo duzu, eta ukatu egin duzu zuk ETAren indarkeriaren mantupean eta horretaz baliatuz guk etekin politikoa atera dugula esan duzula, ukatu egin duzu. Eta hori hitzez hitz esan duzu, eta, gainera, bi edo hiru aldiz esan duzu. Orduan, esaten duzu guk erabilera politikoa egin dugula, errentagarritasun bat atera diogula historia guzti horri. Eta gero adibide bat bota duzu, udaletxeetan eta beste toki batzuetan gerta daitekeena. Horrekin badakizu zer erakusten duzun, zer demostratzen duzun? Herri honen errealitatea ez duzula ezagutzen, ezta urrutitik ere. Ez dakit zein izan den zure jarduera eta ibilbide politikoa, baina, agian, bat-batean dena digeritu nahi izateak, horrek korapilo bat sortu dizu. Baina herri honen errealitatea ez duzu ezagutzen hain garbi eta hain tinko, ustez behintzat, hitz egiteko.

Ekonomiaz hitz egiten duzu. Hemengo ekonomia Espainiarekin batera uztarturik… Begitu, ekono-

EGIBAR ARTOLA jaunak: Miren, con respecto a las afirmaciones de María San Gil, en primer lugar, no es la primera vez que usted está en este Parlamento, y esto es un Parlamento. Si desea probar otras cuestiones, existen otros foros en los que puede hacer sus gracias, no tiene ningún problema. Tiene multitud de lugares en los que puede probar esa *salerosidad* suya. Pero esto es un Parlamento, no es el mercado.

Primero. Su tesis política es muy clara, muy clara y directa. Y además se le ha escapado el argumento…

LEHENDAKARIAK: Silencio, por favor… Perdone, señor Egibar. Pido silencio, porque en el pleno de hoy estamos todos y todas un poco alteradas. Por favor, un poquito de silencio.

EGIBAR ARTOLA jaunak: Su tesis política es evidente y hoy la ha puesto de manifiesto, no con ese lapsus que ha tenido con Luxemburgo, sino que, en definitiva, ha afirmado lo mismo que muchos españoles. Y lo diré en euskara y luego si quiere lo traduzco: "Tener la posibilidad de ser español o española, teniendo nosotros dicha oportunidad, y siendo eso lo mejor que a uno puede pasarle en la vida, ¿por qué no queremos ser españoles?". Ésa es su tesis. No acepta nada que no coincida con su realidad. Porque todos seremos vascos, bueno, al menos así lo reconocemos. ¿Sólo tenemos diferencias políticas? No, también culturales, de origen, lingüísticas, y muchas más diferencias. Pero si vivimos en una sociedad plural y usted tiene una identidad determinada y nosotros tenemos otra, respetémonos mutuamente. Pero no poniéndose uno por encima del otro, sino que el respeto significa que cada uno debe tener derecho a desarrollar sus proyectos en condiciones de igualdad; y garantía, no sólo que sea reivindicado. Entonces, usted no entiende eso, no cabe en su ideología. Bueno, pues oiga, habrá que hacer algo para convencerle a usted y a quienes piensan como usted.

Ha hablado sobre las víctimas, y una vez más ha apuntado directamente hacia el presidente, y ha negado que usted haya dicho que nosotros hacemos política bajo el manto de la violencia de ETA y que sacamos beneficios políticos de ese hecho, lo ha negado. Y, sin embargo, lo ha dicho literalmente, y además dos o tres veces. Entonces, dice que nosotros hemos hecho un uso político, que hemos sacado rentabilidad de toda esa historia. Y luego ha puesto un ejemplo, que pudiera suceder en ayuntamientos y otros lugares. ¿Sabe qué muestra, qué demuestra con eso? Que no conoce la realidad de este país, ni de lejos. No sé cuál ha sido su actividad o su recorrido político, pero, quizá, el hecho de querer digerirlo todo de repente le ha provocado una especie de nudo estomacal. Pero no conoce la realidad de este país como para hablar con tanta claridad y tanta vehemencia.

Ha hablado de economía. Fusionando la economía de aquí con la española… Mire, la economía y

mia eta enpresa mundua gero eta interdependienteagoa da. Hori garbi dago. Eta garai batean euskal enpresek gehienbat Espainiako merkatuan saldu behar zuten bezala, eta baita Espainiako enpresek hemen, gaur garbi dagoena da euskal enpresek mundu guztian lehiatzen dutela, eta ez daukala nitxo aparteko bat Espainian, non bere etorkizuna horren arabera egongo den. Mundu guztian zehar daude euskal enpresariak. Eta egon daiteke Txinan, edo egon daiteke Hegoamerikan edo Ertamerikan, edozein tokitan, edo Frankfurten.

Euskal enpresariek mugitzen jakin badakite eta euskaldun sentitzen dira, eta, harro, gainera bere herriaz. Orduan, ez dago zertan ukatu gauza bat, besteari ateak ixteko, zergatik gaur, eta datuen arabera, eta egin daiteke ikerketa txukuna... Behinik behin Ganberako zure lagunak, Maurak..., ez dakit non dagoen. Hemen zegoen orduan, eta beroaldi batean proposamen bat aurkeztu zuen esanez ikerketa bat, estudio bat egiteko Ganbera honetan, eta Jaurlaritzari eskatzen zion aztertzea ea Euskal Herria edo Euskadiko Erkidego Autonomoa ekonomikoki independientea izan zitekeen bai ala ez, edo Espainiarekiko loturarik gabe etorkizunik eduki zezakeen ala ez.

Desafioa hartu egin genion: "Egin dezagun, eta beste besteak jakingo dugu errealitatea". Aurkeztu bai, baina ikusi orduko guk ontzat hartuko genuela bere proposamena, bai azkar erretiratu ere, bazekielako zein zen ondorioa. Eta horrek ez du esan nahi horrek halako label berezi bat ematen dizunik, baizik eta euskal gizarteak ikusten duela etorkizuna aurrez aurre kontrolatzeko posibilitatea daukala. Eta bere nortasun ekonomikoa, kulturala, euskararekikoa eta politikoa zaintzeko eskubidea daukala, eta hori ezin dela ukatu. Herri baldin bagara, herri bezala hazteko eta gure etorkizuna erabakitzeko eskubide osoa dugulako. Eta hori da. Eta zuk esaten duzu ez dagoela gatazkarik eta abar.

Honekin lotuta zegoen Pastor jaunak lehendakariari berriz leporatutako "clamor" eta guzti hori, ez? Nik estatutu berriari dagokion eztabaidan, nik Alderdi Sozialistari esango niokena da begiratzeko datuak, zeren ezkutaezinak dira. Herritarren gehiengoak etorkizunaren jabe izatea eskatzen du, herri honek bere buruaren jabe izan nahi duela. Horrek ez du esan nahi inoren gainetik egon behar dugunik, inoren nagusi denik, baino inoren maizter ere ez. Ez daukat zertan izan inoren maizter, zergatik elkarbizitza antolatu ahal izateko, ezinbesteko konzeptua errespetua da, pertsonen artean lehenengo, eta baita ere herrien artean, zergatik azkenean ari zarete egia borobila den zerbait ukatzen. Ez dakit zuek azkenean sinesten duzuen ala ez; diskurtsoan ez da azaldu; hori bai, Frantziako Euskal Herriari buruz aipamen bat egin du azkeneko orrian Patxi Lopezek. Bueno, zuek pentsatzen duzue Euskal Herria existitzen dela, bai ala ez? Edo berriz ere jarraituko duzue "segun zer egin nahi den". Herria baldin bada, herri da, eta bere etorkizunaren jabe izan nahi du. Eta herritarrak denak gara. Orduan, orekak etxe barruan ere aurkitu beharko dira, baina herri bezala.

el mundo empresarial son cada vez más independientes. Eso está claro. Y, así como en su día las empresas vascas tenían que vender sobre todo en el mercado español y viceversa, las empresas españolas aquí, lo que está claro es que actualmente las empresas vascas compiten en todo el planeta y que no tienen un nicho extraordinario en España según el cual se vaya a decidir el futuro de las mismas. Hay empresarios y empresarias vascas por todo el mundo. Pueden estar en China o en Suramérica o en América central o en Francfort, en cualquier sitio.

El empresariado vasco sabe moverse, y se siente vasco y además orgulloso de su país. Entonces, no hay por qué rechazar algo para abrir las puertas a otra cosa, porque actualmente, y según los datos a nuestra disposición, y se puede realizar un análisis serio… Al menos su amigo de la Cámara, Maura…, no sé dónde está. Entonces estaba aquí, y en un calentón presentó una propuesta en la que exigía la realización de una investigación, de un estudio en esta Cámara, y pedía al Gobierno que analizara si el País Vasco, o la Comunidad Autónoma del País Vasco, podía ser independiente o no económicamente, o si podía tener futuro o no sin ningún vínculo con España.

Le aceptamos el desafío: "Hagámoslo, y de paso conoceremos cuál es la realidad". Presentarla sí que la presentó, pero en cuanto vio que íbamos a aceptar su proposición la retiró a todo correr, porque ya sabía cuáles iban a ser las conclusiones. Y eso no quiere decir que ese hecho te otorgue una especie de label especial, sino que la sociedad vasca ve que tiene la posibilidad de controlar su futuro. Y que tiene derecho a proteger su identidad económica, cultural, lingüística y política, y que eso es innegable. Porque si somos un país, tenemos todo el derecho a crecer como país y a decidir nuestro futuro. Y de eso se trata. Y usted afirma que no hay conflicto, etcétera.

Todo ese "clamor" achacado nuevamente por el señor Pastor al presidente estaba relacionado con esto, ¿no? En el debate en torno al nuevo Estatuto, yo diría al Partido Socialista que analice los datos, porque no se pueden esconder. La mayoría de la ciudadanía exige ser dueña de su futuro, considera que este país debe ser soberano. Eso no quiere decir que tengamos que estar por encima de nadie, que debamos ser el amo de nadie, pero tampoco inquilinos de nadie. No tengo por qué ser inquilino de nadie, porque un concepto ineludible en la convivencia es el respeto mutuo, en primer lugar entre personas, pero también entre países, porque al final lo que están haciendo es negar una verdad como un templo. No sé si ustedes al final creen o no, en el discurso no ha quedado claro; eso sí, Patxi López ha hecho una mención al País Vasco francés en su última página. Bueno, ¿creen ustedes en la existencia del País Vasco, sí o no? O seguirán otra vez "dependiendo de lo que se quiera hacer". Si es país, es país, y quiere ser dueño de su futuro. Y ciudadanos y ciudadanas somos todos. Entonces, deberemos encontrar el equilibrio entre los de casa, pero como país.

Transbertsabilitatea hortik dator. Zera, gu hasiko gara, ez dakit, transbertsalitateen inguruko eztabaidetan zutabe sendorik gabe? Eta orduan zer aipatzen da? Lopezek egin duena. Esaten da: "Hemen nazioa eta etnizismoa eta holako kontzeptuak bota dituzue". Eta hiritartasuna ateratzen duzue, *ciudadania*. Eta *ciudadania* pozima berria da, zuek inbentatu bazenute bezala.

Garai batean hainbat eta hainbatek erabili zuten, eta orain hori azaltzen da. Zertarako? *Ciudadania* delako horren edo hiritarren artean eta estatuen artean ez dago errealitaterik, ez dago errealitate nazionalik, ez dago herririk; Europa nonbait hala eraiki nahi da. Ez, hiritarrak eta estatuak, ez dago beste errealitaterik. Estatuek anima, bihotza eta kontzeptu politikoak edukiko ez balituzte bezala. Ba errealitate batzuk badaude tartean ere: herri izanda, nazio izanda, estatu izan nahi lutekenak, edo beren oreka, errespetua lortu nahi lutekenak. Ba, hori da. Baina zuek ja jaitsi zarete... hiritarrak eta estatua, ez dago... Hemen, bueno, gauza ezberdinak, pluralak gara. Eta gero, hori bai, txisteak egin euskaldunekin: aurresku bat, harri-jasotzaileak eta holako zera batzuk, herriko festetan ibiltzen garenak. Ez, ez, hemen herri bat dago, bere etorkizunaren jabea izan nahi du. Orduan, errealitate hori onartu egin beharko da.

Eta, bueno, zuk zerorrek, Pastor jaunak, eta Nekane Erauskinek ere azaldu duen *apartheid*-aren inguruan, "nik ez dakit asmatu duen ala ez" esan dudanean... Nik esan nahi dudana da, eta berriro errepikatuko dut, erabaki politiko baten ondorioa izan zela. Erabaki politiko hori bi alderdi politiko hauek hartu zuten paktu antiterroristaren jiran. Eta, gainera, aitatasuna Zapaterok beretzat erreklamatzen du. Ilegalizazioak bere arrazoi politikoa non eduki zuen: 2001. urtean biek bat eginda hauteskunde galdu zituztela. Datu hartan dago ilegalizazioaren abiapuntua, zergatik orduan erabakitzen dute Ezker Abertzalearen hautetsiak instituzio guztietatik botatzea, "perfeccionando el proyecto".

Ilegalizazioaren ondorioak lehenengo 2003. urtean jasan zituen, noski, bete-betean Ezker Abertzaleak. Gaia da ilegalizazio horri nola egin behar zaion aurre: Legebiltzar honetatik, Jaurlaritzatik, Madriletik, eta abar, eta abar. Bueno, hori kontraste politikoa izan daiteke, bale. Helegiteak..., bueno, Ezker Abertzaleak kasu honetan ez zuen botatu Legebiltzar honetan bultzatu nahi zena. Baina horri nola egiten zaio aurre? Eta nik ikusten dudana da bi urte hauetan Ezker Abertzaleak berak, ez dut esango zuek, Ezker Abertzaleak berak lege hori ikusi duela eta, 2003. urtean aurrez aurre jarri zen bezalaxe, salbuespen batzuk tartean, "zerrenda batzuekin-eta lege honi aurre egingo diogu", ba estatu-aparatuak ez zuen erabat zapaldu Ezker Abertzalea. Ondorio larri batzuekin, zergatik nik ez daukat inongo, problemarik aitortzeko Ezker Abertzalea udal-instituzioetatik eta Junta Jeneraletatik kanpo gelditu zirela lege horren eskutik.

De ahí viene la transversabilidad. ¿Vamos a empezar nosotros con debates sobre la transversabilidad sin pilares firmes? ¿Y, entonces, qué se menciona? Lo que ha hecho López. Se dice: "Aquí han hablado de conceptos como la nación y el etnicismo y ese tipo de conceptos". Y sacan la ciudadanía, *hiritartasuna*. Y la ciudadanía es la nueva pócima, como si la hubieran inventado ustedes.

En su día fue un concepto muy utilizado, y ahora vuelve a aparecer. ¿Para qué? No hay realidad, no hay realidad nacional, no hay país entre la denominada *hiritartasuna* o los ciudadanos y ciudadanas y los estados; según parece Europa se ha construido así. No, ciudadanos y ciudadanas y estado, no hay más conceptos. Como si los estados no tuvieran alma, corazón ni conceptos políticos. Pues hay determinadas realidades entre medias: aquellas que, siendo país, siendo nación, querrían ser estado o querrían lograr su equilibrio y respeto. Pues, eso es. Pero ustedes ya han bajado… ciudadanía y estado, no hay… Aquí, bueno, cuestiones diferentes, somos plurales. Y luego, eso sí, hagan chistes con los vascos y las vascas: con las personas que en fiestas bailan el aurresku, los levantadores de piedras y demás gracias. No, no; aquí hay un país, quiere ser dueño de su futuro. Entonces, habrá que aceptar esa realidad.

Y bueno, con respecto al *apartheid* que usted mismo ha mencionado, señor Pastor, y también ha mencionado Nekane Erauskin, cuando he dicho "no sé si ha acertado o no"... Lo que quiero decir es que, y lo repito una vez más, fue consecuencia de una decisión política. Dicha decisión fue tomada por dos partidos políticos al amparo del pacto antiterrorista. Y, además, el señor Zapatero reclama para sí su paternidad. Cuál fue el fundamento y la razón política de la ilegalización: que en 2001, ambos partidos unidos, perdieron las elecciones. Ese dato es el punto de partida de la ilegalización, porque es entonces cuando deciden echar a la izquierda abertzale de todas las instituciones, "egitasmoa hobetuz".

La izquierda abertzale sufrió plenamente las primeras consecuencias de la ilegalización en el año 2003. La cuestión es cómo hacer frente a dicha ilegalización: desde este Parlamento, desde el Gobierno Vasco, desde Madrid, etcétera. Bueno, eso puede ser contraste político, vale. Recursos…, bueno, la izquierda abertzale no votó, en este caso, la iniciativa que se pretendía impulsar desde este Parlamento. ¿Pero cómo hacer frente a la ilegalización? Y lo que yo observo es que en estos dos años la izquierda abertzale ha padecido dicha ley, no diré que ustedes, y, tal y como hizo frente en el año 2003, con alguna excepciones, "nos enfrentaremos a esta ley con listas y así", la izquierda abertzale no ha sido pisoteada totalmente por el aparato estatal. Sí ha sufrido graves consecuencias, porque no se me caen los anillos al reconocer que de la mano de dicha ley la izquierda abertzale ha quedado excluida de las instituciones municipales y de las Juntas Generales.

Beraz, bakarren batzuk ez zinegotzi, bai alkate... Ni ez naiz herri-botoen arabera Lizartzako alkate; legalki bai, baina zilegitasunez ez. Ez naiz ni alkate legitimoa, hori badakit. Baina zinegotzi bezala geldituta ere, nik zer egin dezaket. Eta zuk pentsatzen duzu –182.2 lege-atala aipatu duzu, zirrikitu bat eskaintzen duelako– bi alderdi politiko hauek lege horrekin egin zuten sarraskia konpondu daitekeela. Eta konpondu daitekeela egoera larri hori, besteak, beste gaur udaletxeetan dauden hainbat gizon eta emakume lapurtzat hartu eta beraien atzetik jazarpena eginez. Hori 2003. urtean.

En consecuencia, algunas personas ni concejal, ni alcalde… Yo no soy alcalde de Lizartza por los votos de la ciudadanía; legalmente sí, pero legítimamente no. Yo no soy un alcalde legítimo, lo sé. Pero, aunque me quedara como concejal, qué podría hacer yo. Y usted piensa –ha mencionado el artículo 182.2 porque ofrece un resquicio abierto– que se puede solucionar la carnicería que los dos partidos referidos hicieron con esta ley. Y que se puede solucionar esa grave situación, por ejemplo, considerando ladrones a muchos hombres y mujeres pertenecientes a ayuntamientos y realizando una persecución tras ellos. Eso en el año 2003.

2004. urtean europear haustekundeek izan genituen. Ezker Abertzaleak beste zerrenda bat aurkeztu zuen, Herritarren Zerrenda. Hura ere kanpoan utzi zuten. Ez zaukaten arrazoi bat bere ere kanpoan uzteko. Eta horren ondoren epai bat etorri zen Konstituzionalean, non esaten zen zerrenda horietako pertsonae ere beren eskubide pasiboak, *sufragio pasivo* delako hori, bazeuzkatela, eta ukaezina zela.

En el año 2004 se celebraron elecciones europeas. La izquierda abertzale presentó otra lista, Herritarren Zerrenda. También fue ilegalizada. No tenían ni un solo motivo para ello. Y después llegó una resolución del Constitucional diciendo que las personas de dicha lista tenían también derechos pasivos, el denominado *sufragio pasiboa*, y que es innegable.

Etorri zen beste hauteskunde-garai bat autonomikoetan, eta ezker abertzaleak Batasuna aurkeztu zuen. Gero plataforma bat sortu zen gabezia hori bete nahian, Aukera Guztiak, eta EHAK ere presentatu zen. Lehenengoa eta bigarrena, biak legez kanpo utzi zituzten. Eta zuek hemen zaudete, eta ni pozten naiz.

El siguiente período electoral fue el de las autonómicas y la izquierda abertzale presentó Batasuna. Luego se presentó una plataforma para suplir esa ausencia, Aukera Guztiak, y también se presentó el PCTV. Las dos primeras fueron ilegalizadas. Y ustedes están aquí, y yo me alegro.

Guk egin nahi dugun gogoeta da: 2003 izan baldin bazen udal-hauteskundeen garaia, hemendik bi urtera beste hauteskunde batzuk daude. Eta Legebiltzar honek behin eta berriz azaldu duen bezala, bakarren batzuek erlazio preferentea baldin badaukate –eta badirudi sozialistek ba ezker abertzaleko hainbatekin behintzat erlazio hori eduki badutela, eta pozten gara–, hemendik bi urtera datorren egoera horren kalteak ekiditeko eta ezker abertzaleak dagokion ordezkaritza udaletxe horietan eduki dezan, eskatzen dudana da, politikoki, eta hemendik hanpo dauden batzuei, eta hemen tartean daudenei –berdin zait biltzen baldin badira hemen edo Landetan edo Madrilen, berdin zait–, gai-zerrendan puntu hori sartu behar dela.

La reflexión que nosotros queremos hacer es: si en el año 2003 hubo elecciones municipales, dentro de dos años habrá otra vez. Y, tal y como ha venido repitiendo este Parlamento una y otra vez, si algunos pocos tienen relación preferente –y parece que los socialistas gozan de esa relación con muchos miembros de la izquierda abertzale, y nos alegramos–, para evitar la situación que se producirá dentro de dos años y para que la izquierda abertzale tenga la representación que le corresponde en los ayuntamientos, lo que pido es, políticamente, a aquellos que están fuera del Parlamento y a los que están aquí en medio –me da igual si se reúnen aquí, en las Landas o en Madrid, me da igual–, les pido que incluyan esta cuestión en el orden del día.

Lehendakariak bere programan esaten duenean "indarkeriarik gabe eta bazterketarik gabe", horretaz ari gara, zergatik herri-ordezkaritza sakratua da. Baina horren erantzunkizuna ez daukagu guk, edo guk bakarrik, eta, zuk esaten duzun bezala, eta ondo esaten duzun bezala, mahai baten inguruan jarri beharko gara eta hori konpontzen hasi beharko gara.

Cuando el presidente dice en su programa "sin violencia y sin exclusión" nos referimos a eso, porque la representación popular es sagrada. Pero nosotros no tenemos esa responsabilidad, o al menos no sólo nosotros, y tal y como usted ha dicho, y ha dicho muy bien, deberemos sentarnos en torno a una mesa y deberemos empezar a solucionar esta situación.

Zer gertatzen da? PPkoek, nahiz eta botoa eman dioten, hiru baldintza jarri zituzten, eta gaur bakarren bat ahaztu egin zaio: bat, paktu antiterrorista bere horretan…

¿Qué ocurre? Que los del PP, a pesar de que le han dado su voto, pusieron tres condiciones y hoy se le ha olvidado alguna: una mantener intacto el pacto antiterrorista…

La PRESIDENTA: Barkatu, Egibar jauna. Bukatzera joan behar duzu, e!

LEHENDAKARIAK: Perdone, señor Egibar. Debe ir concluyendo, ¡eh!

El Sr. EGIBAR ARTOLA: Oraintxe. Gainera, interpretazio autentikoarekin; bi, Estatutuaren erreforma-

EGIBAR ARTOLA jaunak: En seguida. Además, con la interpretación auténtica; dos, nada de reformas

rik ez; eta hiru, gaur konpromisoa hartu behar zuen EHAKren ilegalizazio-prozesua martxan jartzeko. Bueno, ba, hor dago arazoa. Utz diezaiogun.

Zorionez, bueno... Nik, gainera, eskertu nahi dut bi boto horien babesa. Ez dira pekuliarrak; bi boto dira, eta herri-ordezkari zaretenez, behintzat eskertu egin nahi dugu. Eta etorkizunari begira, pentsatzen dut, ez zuek eta gu tartean, baizik eta hemengo talde parlamentario guztiek, badaukagula zer egina. Eta horretan asmatzen dugun ala ez denbora izango da testigu.

Eta momentu honetatik aurrera, traketsa izan baldin bada legealdi honen hasiera, herritarrek behintzat sentitu dezatela badagoela, baita instituzio honetan ere, beste instituzio batzuetan bezalaxe, kemena, badaudela ideak, badaukagula ibilbide-orri bat benetan herri hau bake-egoera batera emateko eta bere etorkizunaren jabe izateko.

Mila esker.

La PRESIDENTA: Eskerrik asko, Egibar jauna.

Eztabaida amaituta, eten egin da bilkura hau. Hamar minutuko etenaldia egingo dugu, eta bederatziak hamar gutxiagoan berriro hasiko dugu osoko bilkura, botazioa egiteko.

*Eran las veinte horas y cuarenta y un minutos.*

*Se reanuda la sesión a las veinte horas y cincuenta y tres minutos.*

La PRESIDENTA: Mesedez, barriro ekingo jako bilkurari.

Araudiko 129. artikuluan aurreikusiriko botazioa egingo dogu. Botoa emateko, Araudiko 77 artikuluari jarraituz, boto txartelak erabiliko doguz. Jaun-andreok gogora ekarten deutsuet lehendakarigaiaren izena besterik ezin dala idatzi boto-txartelean, edo bestela zuria aurkeztu. Bestelako boto-txartelak baliogabeak izango dira. Aukeratu bedi, ba, bozketa hasiko dauan legebiltzarkidea. *(Pausa.)*

39.a, López de Ocariz López de Munain, María del Carmen.

*El secretario primero de la Mesa procede al llamamiento de los señores parlamentarios a fin de efectuar la votación.*

*Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, 75; a favor de D. Patxi López Álvarez, 33; a favor de D. Juan José Ibarretxe Markuartu, 34; en blanco, 1; nulos, 7.*

del Estatuto, y, tres, hoy debía adoptar el compromiso de poner en marcha el proceso de ilegalización del PCTV. Bueno, pues ahí está el problema. Dejémosle.

Afortunadamente, bueno… Yo además quiero agradecer el apoyo de esos dos votos. No son peculiares; son dos votos, y, como son representantes de la ciudadanía, al menos queremos agradecerlo. Y de cara al futuro pienso que no sólo entre ustedes y nosotros, sino que todos los grupos parlamentarios de esta Cámara tenemos una ardua labor por delante. Y el tiempo dirá si hemos acertado o no en dicha labor.

Y a partir de este momento, y aunque el arranque de esta legislatura haya sido bastante torpe, que la ciudadanía sienta que en esta institución también, como en otras instituciones, hay iniciativa, hay ideas, que tenemos una hoja de ruta para realmente llevar a este país a la paz y para que sea dueño de su futuro.

Muchas gracias.

LEHENDAKARIAK: Muchas gracias, señor Egibar.

Finalizado el debate, se suspende la sesión. Haremos un receso de diez minutos y la sesión se reanudará a las nueve horas menos diez minutos, al objeto de realizar la votación.

*Eten egin da arratseko zortziak eta berrogeita batean.*

*Berriro ekin zaio arratseko zortziak eta berrogeita hamahiruan.*

LEHENDAKARIAK: Por favor, se reanuda la sesión.

Procedemos a la votación prevista en el artículo 129 del Reglamento. Para votar, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 77, utilizaremos papeletas de voto. Señorías, les recuerdo que en la papeleta únicamente se puede escribir el nombre del candidato a presidente o, de lo contrario, entregarla en blanco. Toda papeleta diferente será considerada nula. En consecuencia, procedemos a la elección del parlamentario o parlamentaria por la que comenzará la votación. *(Etena.)*

El 39, López de Ocariz López de Munain, María del Carmen.

*Mahaiko lehen idazkari jaunak dei egin die legebiltzarkide jaun-andreei, botoa eman dezaten.*

*Botazioa eginda, hau izan da emaitza: emandako botoak, 75; Patxi López Álvarez jaunaren aldekoak, 33; Juan José Ibarretxe Markuartu jaunaren aldekoak, 34; zuriak, 1; nuluak, 7.*

La PRESIDENTA: Denok dakizuenez, gehiengoa behar da gaur lehendakaria aukeratzeko. Beraz, erabakita daukagun moduan, bigarren botazioa bihar egingo dogu, ekainak 23, goizeko hamarretan.

Eskerrik asko, guztioi.

*Se suspende la sesión a las veintiuna horas y cinco minutos.*

LEHENDAKARIAK: Como saben, para designar presidente en la elección de hoy es necesaria mayoría absoluta. En consecuencia, y tal y como está acordado, la segunda votación se efectuará mañana, 23 de junio, a las diez de la mañana.

Muchas gracias a todos y a todas.

*Gaueko bederatziak eta bostean eten da bilkura.*

*Se reanuda la sesión a las diez horas del día 23 de junio.*

La PRESIDENTA (Bilbao Barandica): Egun on, legebiltzarkide jaun-andreok. Egun on, osoko bilkura honetara etorritako guztioi.

Berriro ekin zaio bilkurari. Eta beste barik bozkatu egingo dugu, Araudiko 129.3 artikuluari jarraituz. Aukeratu bedi, ba, bozketa hasiko dauan legebiltzarkidea… 48. *(Pausa.)*

*El secretario primero de la Mesa procede al llamamiento de las parlamentarias y parlamentarios y a fin de efectuar la votación.*

*Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, 75; a favor de D. Patxi López Álvarez, 33; a favor de D. Juan José Ibarretxe Markuartu, 34; en blanco, 1; nulos, 7.*

La PRESIDENTA: Horrenbestez Juan José Ibarretxe Markuartu jauna izendatu dugu Eusko Jaurlaritzaren lehendakaria. *(Aplausos.)*

Amaitu da gaurko bilkura. Eta, denok dakizuenez, larunbatean izango dugu Gernikan osoko bilkura, lehendakariak zin egiteko. Bertan ikusiko dugu elkar.

Eskerrik asko guztioi.

*Eran las diez horas y trece minutos.*

*Ekainaren 23ko goizeko hamarrak direla berriro ekin zaio bilkurari.*

LEHENDAKARIAK (Bilbao Barandica): Buenos días, señoras y señores parlamentarios. Y buenos días a todas las personas presentes en el pleno de hoy.

Se reanuda la sesión. Y sin más preámbulos procedemos a efectuar la votación conforme a lo dispuesto en el artículo 129.3 del Reglamento. En consecuencia, procedemos a la elección del parlamentario o parlamentaria por la que comenzará la votación… 48. *(Etena.)*

*Lehen idazkari jaunak legebiltzarkideen izenak esaten ditu, botazioa egiteko helburuarekin.*

*Botazioa eginda, hauxe izan da emaitza: emandako botoak, 75; Patxi López Álvarez jaunaren aldekoak, 33; Juan José Ibarretxe Markuartu jaunaren aldekoak, 34; zuriak, 1; baliogabeak, 7.*

LEHENDAKARIAK: En consecuencia, el señor Juan José Ibarretxe Markuartu queda designado presidente del Gobierno Vasco. *(Txaloak.)*

Se levanta la sesión. Y, como todos ustedes sabrán, el sábado celebraremos el pleno de juramento y toma de posesión del presidente en Gernika. Nos encontraremos allí.

Muchas gracias a todos y a todas.

*Goizeko hamarrak eta hamairuetan amaitu da bilkura.*